

**Virginia Woolf**

**Farorantz**

**euskaratzailea: Anton Garikano**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Anton Garikano.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1993

Jatorrizkoaren data: 1927

Virginia Woolf euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=287>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1686>

# HITZAURREA

Virginia Woolf (1882-1941) garrantzitsua dugu literaturaren munduan, batez ere kontutan harturik zer berrikuntzak zabaldu zituen nobelaren forma lantzeko orduan.

Idazle, filosofo eta artistez osatutako Bloomsbury taldeko partaide izan zen, besteak beste tartean zirelarik T. S. Eliot nobelagilea, Clive Bell arte kritikoa eta Roger Fry pintorea. Giro horretan estetika eta filosofi gaiez mintzatu ziren, eskola frantseseko pintoreak ezagutuz, nobelagile errusiarrek eta psikologo alemaniarrek irakurriz, inperialismoaren aurka ekinez eta ateismoaren alde agertuz.

Bere nobeletan, batik bat *Jacob's Room*-etik aurrera (1922), etengabeko jario gisa aurkeztu zuen bizitza, nahiz gizakiaz kanpokoa nahiz barrukoa; zentzu honetan indartu zuen «kontzientziaren jario» izeneko, horren bidez irakurleari posible eginez pertsonaiaren burutik pasatzen zen guztia jasotzea. Horrela, ez zaie gertaerei edo izaerei aurrea ematen, baizik pertso-

naien gogoetei, hauek ahalik zuzenena eta leialena islatzen saiatuz. Era berean, pertsonaiak erabat zehaztu gabe moldatu zituen nortasunaren aldetik, laino arteko siluetak besterik ez balira bezala, begi-bistako ezaugarririk gabeak, baina, horren ordainetan, oso aberatsak pertzepzio, irudi eta oroitzapen mailan.

Virginia Woolf-en obran tratamendu berezia duen beste alderdi bat denborarena da. Nahiz epe labur jakinen batuketa bezala, nahiz urte eta mendetako segida bezala ematen zaigu. Hartara, unean-uneko gertaera mugatuak askotan txertaturik darama denbora unibertsal baten zentzua, lehenagoko eta geroko esperientziekin kateaturik. Ildo beretik doa ikuspegi desberdinen erabilera, hainbat narratzailearen esku utziz kontaketa lana.

Teknika aldetik gehien landutako nobelak *Mrs. Dalloway* (1925) eta eskuarteko *Farorantz* (1927) hau ditugu. Bertan tinko heltzen dio formari, sinbolismoaren bidetik egitura eta irudi berdinak errepikatuz. Badirudi liburu osoa sare baten barne dagoela, arau zehatzen menpe. Guzti hau bere garaian ezohiko jarrera zen litera-

turarekiko, eta bizitzaren ispilu gisa behin eta  
berriro natura agertuz, beste tankera bateko  
bidaia eskaintzen dio irakurleari, batzuetan  
haize gainean basoko arbola-gailurretan barre-  
na, bestetan itsasoz urruneko faro aldera, ortzi-  
muga zabaletik inoren buru barrura aise eta arin  
aldatuz, unibertso osoa bat eginik balego bezala  
inoren gogoetekin.

# I LEIHOA

## 1

«Bai, noski, eguraldi ona egiten badu» esan zuen Ramsay andreak. «Baina goizean goiz jaiki beharko duzu», gaineratu zuen.

Hitz hauek berebiziko poza eman zioten semeari, erabakia balego bezala espedizioa egi-tearena, eta urtetan eta urtetan irrikatutako mirari antzeko hura eskura balego bezala, gau bateko iluna eta egun bateko bidaiaren ondoren. Nolaz eta semea, sei urte besterik ez eduki arren, sentimenduak bata bestetik berezita eduki ezin dituen klan handi horretako partaide zen, alegia etorkizuneko asmoen poz eta nahiga-beek aldameneko guztia estal dezaten uzten duten horietakoa; eta nolaz eta txiki-txikitatik horrelako jendeak gaitasuna daukan, sentsazio gurpilaren edozein jira-biraren distira edo itzala pausatutako urea kristalizatu eta izozteko,

James Ramsay, ama mintzo bitartean, lurrean eserita, Army and Navy Stores-eko katalogo ilustratuaren argazkiak moztan, zeruko poza txertatu zion hozkailu baten argazkiak. Zorionak dotoretzen zuen huraxe. Esku-orga, belarra ebakitzeko, makalen zurrumurrua, euri-jasaren aitzineko hosto zuritzea, beleak makakorroka, erratzen igurtzia, soinekoen firfira, hain bizi zegoen dena bere buruan, non jadanik bai baitzeukan bere kode pribatua, bere hizkuntza sekretua, nahiz eta zurruntasun lehor eta ezaxolatiaren itxura eman, bere bekoki altu eta begi urdin garratzeekin, akatsik gabe laino eta garden, giza ahultasunaren aurrean kopetilun; hainbesteraio zen hori horrela, non amak, hozkailu ertzak guraizeaz txukun moztan ikustean, purpuraz eta katazuriz imajinatu baitzuen semea auzitegian, edo jarduera zail eta garrantzitsu bat zuzentzen gizar-teko aferen kinka batean.

«Hala ere» esan zuen aitak, egongelako leiho aurrean geldituz, «ez du eguraldi ona egingo».

Aizkoraren bat eskura izan balu, edo burrun-tzi bat, edo aitaren bularra txikitu eta hilko zuen beste edozein arma, Jamesek atxiki egingo zion

orduantxe. Horrelakoak ziren Ramsay jaunak ondoan egote hutsarekin seme-alabengan ernezen zituen emozio azkarrak; hantxe, zutik, orain bezala, labanaren ahobizarra bezain argal eta estu, irri zuri batez, ez soilik bere semeari ilusioa galarazteko eta emaztea barregarri nondik utziko, bidenabar esanda bera baino hamar mila aldiz hobea (Jamesen ustez), baina ere bere epaia zuzena zeneko harrotasun ezkutuz. Egia zen esaten zuen guztia. Egia borobila. Ez zen ezertarako gauza, egia tartean ez bazen; inoiz datu bat trukatu gabea; inoiz hitz zakarrik goxatu gabea, norbaiti atsegin edo mesede egiteko izan arren, are gutxiago bere seme-alabei, hauek, bere odol eta haragi izanik, haurtzarotik jabetu beharra baitzeukaten bizitzaren gogorraz; bigarren aukerarik ezaz; eta bizitza hau lurralde mitiko hartarako pasabide dela, non gure itxaropenik kutunenak deuseztatzen baitiren, gure txalupa ahulek ilunpetan hondoa jotzen duten (une honetan Ramsay jaunak bizkarra tentetu eta begitxo urdinak kizkurtu ohi zituen ortzi-mugari buruz), beharrezko eginez, oroz gainetik, kemena, egia eta bizirik irauteko ahalmena.



«Baina beharbada ona egingo du — ona egi-  
tea espero dut» esan zuen Ramsay andreak, gri-  
nati josten ari zen galtzerdi marroi gorritzat zer-  
txobait kiribilduz. Gau hartan bukatzen bazuen,  
azkenean farora joaten baziren, bertako begira-  
learen mutikoari ematekoa zion, aldakako tuber-  
kulosia nozitzen zuen harixe; aldizkari zahar  
sorta bat ere bai, eta tabako apur bat, alegia  
lurrean aurki zezakeen edozer, inork nahi ez eta  
gelan botea bazegoen, gizarajo haiek pixka  
batean entretenituko zituen zer edo zer, asper-  
asper eginda egongo baitziren egun osoan eseri-  
ta eta beste zereginik gabe, bakarrik lanparari  
briloa ateratzea eta argia mukatzea eta eskua-  
reaz baratze zaztar hartan aritzea. Izan ere, gus-  
tatuko al litzaizueke irten gabe itxita egotea hila-  
bete osoan, eta apika gehiagoan ekaitza  
denean, tenis zelaiaren tamainako harkaitz  
batean? galdetu ohi zien; eta gutunik edo egun-  
karirik ez jasotzea, eta inor ez ikustea; ezkondu-  
ta egonez gero, emaztea ez ikustea, ez jakitea  
seme-alabak zer moduz diren — gaixo dauden,  
erori eta hanka edo besoa apurtu duten; olatu  
goibel berberak lehertzen ikustea asterik aste,

eta ondoko ekaitz izugarria, eta leihoak bitsez basituak, eta txoriak lanpararen kontra zapart eginda, eta leku osoa dardarka, eta sudurra atez kanpora atera ezinik itsasoak eramango zaituen beldurrez? Gustatuko litzaizueke? galdetu obizuen, batez ere alabei zuzenduz. Beraz, gaineratu zuen beste doinu batean, ahal hainbat erosotasun eraman behar zaie.

«Mendebal haizea» esan zuen Tansley ateoak bere atzamar hezurtsuak zabaldurik, haizea tartetatik igaro zedin, Ramsay jaunari lagundu bitartean arratseko osteratxoan gora eta behe-  
ra, gora eta behera terrazan barrena. Alegia alderdi okerrenetik jotzen zuela haizeak, farora joateko. Bai, gauza zakar asko esaten zituen, aitortu zuen Ramsay andreak; gorrotagarria zen etengabe hartan jardukitzea, eta James are eta etsiago uztea; baina hala ere ez zien ametituko haren bizkar irri egiten. «Ateoa», deitzen zioten, «ateo txikia». Rosek iseka egiten zion; Pruek iseka egiten zion; Andrewk, Jasperek, Rogerek iseka egiten zioten; batere hortzik ez zeukan Badger zaharrak ere ausiki egin zion, hura zelako (Nancyk zioen eran) Hebridetaraino segika

etorri zitzaien ehun eta hamargarren gizona, bakarrik egotea hain atsegina izanik.

«Txorakeriak» esan zuen Ramsay andreak, seriosotasun handiz. Alde batera utziz umeen exajeratzeko ohitura, beragandik hartua, eta beste zehar-esan hura, alegia berak jende gehiegi gonbidatzen zuela (egia zen), eta batzuei ostatua herrian bilatu behar izaten ziela, hala ere ez zuen onartzen itsuskeriak egitea bisitariei, bereziki gizon gazteei, goian zerua eta behean lurra zutenei, «ikusgarri iaioak» senarrak zioenez, honen miresle handiak, oporretan etorriak. Egia esan, bere babespean hartzen zuen beste sexua; argitu ezin zituen arrazoiengatik, gizonen prestutasun eta kemenagatik, hitzarmenak negoziatu, Indian agindu, finantzak kontrolatzen zituztelako; edo azkenik beragana zuten jarreragatik, edozein emakumerentzat atsegina, zera fidagarri, ume tankerako, agurgarri bat; hau da, emakume heldu batek gizon gazte batengandik duintasun galerarik gabe har zezakeena, eta hura neska gajoa —ez al zen arren bere alabarik izango!— hezurmamiraino jabetzen ez zena horren balioaz, eta horrek esan nahi zuenaz.

Seriestasunez jiratu zuen aurpegia Nancygana. Hura ez zitzaien segika etorri, esan zuen. Hala eskatuta baizik.

Irtenbide bat aurkitu behar zuten umeeak. Posible zen irtenbide errazago bat egotea, ez hain nekeza, suspiriatu zuen. Ispiluan begiratu eta bere ile urdina ikusi zuenean, masail zuloak, berrogeita hamar urte, agian gauzak hobeto antolatu ahal izan zitzaizkeela pentsatu zuen —senarra; dirua; honen liburuak. Baina bera behintzat inoiz ez zen bere erabakiez damutuko, oztopoei itzuri egingo edo eginbeharretan zabartuko. Berealdikoa zen oraingo bere itxura, eta Charles Tansleyri buruz hain gogor mintzatu ondoren, bere alabak —Prue, Nancy, Rose— isilik eta plateretatik begiak jasota, jolasten ari ziren beren bizitzentzat oratutako ideia bihurriekin, bereak ez bezalakoak; Parisen, agian; zirrazko bizitza; beti gizonen peskizan egon gabe; izan ere, denek jartzen zuten zalantzan begirunea eta prestutasuna, eta Ingalaterrako Bankua eta Indiako Inperioa, eraztunekiko behatzak eta farfaila, uste izan arren bazegoela horretan edertasunaren esentzia hondar bat, honek beren

neskatila bihotzetako gizontasuna iratzartzen zuelarik, eta baita behartzen ere, amaren begiratupean mahaian eserita zeuden bitartean, honen zurruntasuna errespetatzera, honen berebiziko kortesia, lokatzetatik erromes baten oin zikina atera eta garbitzen duen erreginarena bezalakoa, hain gogor errieta egiten zienean ateo zital hura zela eta, beraiengana segika etorria —edo, zehatz esanda, beraiengana gonbidatua— Skye Irlaraino.

Ramsay jaunarekin leiho ondoan zegoen bitartean, Charles Tansleyk «Bihar ez da farora joaterik izango» esan eta txalo egin zuen. Aski zen. Nahiago zuen behingoz Jamesekin bakarrik utzi eta hizketara beste norabait joan balira. Begiratu egin zion. Kozkorrak eta zuloak besterik ez zeuzkan zalastrajo txatxua, umeez deitzen zioten bezala. Ez zekien cricketean; motela zen; oinak arrastatzen zituen. Basapizti sarkastikoa, deitzen zion Andrewk. Bazekiten zer gustatzen zitzaion gehien —etengabe Ramsay jaunarekin ibiltzea batera eta bestera, batera eta bestera, esanez nork irabazi zuen hau, nork bestea, nor zen «lehen mailako gizona» latinezko bertsoe-

tan, nor zen «azkarra baina nire ustez sendota-  
sunik gabea», nor zen ezbairik gabe «Ballioleko  
lagunik trebeena», nork gorde zuen bere jakin-  
tza aldi baterako Bristol edo Bedforden, baina  
gerora zer entzuna emateko, matematikak edo  
filosofia arloren batentzako Prolegomenoak argi-  
taratzen zirenean; Tansley jaunak berarekin  
zeuzkan lehen zirriborro orriak, Ramsay jaunak  
irakurri nahi bazituen. Horretaz ari ziren.

Ramsay andreak zenbaitetan ez zion barrea-  
ri eusterik izaten. Aurreko batean «mendiak adi-  
nako olatuak» aipatu zituen. Bai, erantzun zion  
Charles Tansleyk, zakarra zegoen. «Ez zaude  
blai?» galdetu zion berak. «Bustita bai, baina ez  
barruraino», erantzun zuen Tansley jaunak,  
mahuka bihurrituz, galtzerdiak ukituz.

Baina hori berdin zitzaien, zioten umeek. Ez  
zen haren aurpegia; ez zen haren jokabidea.  
Hura osorik zen — haren ikuspegia. Zerbait inte-  
resgarriaz ari zirenean hizketan, jendeaz, musi-  
kaz, historiaz, zernahiz, esaten zutenean gaugi-  
ro ona egiten zuela beraz zergatik ez atarian  
eseri, halakoetan Charles Tansleyri aurkitzen  
zioten aitzakia zen, ez zuela onik izaten, harik

eta kontu guztia azpiko zgaindu eta nola hala bere burua nabarmendu eta besteak gutxietsi arte, guztia larrutzeko modu garratz harekin denak sutan jarriz. Eta pintura galerietara joan, zioten umeez, eta bere gorbata gustatzen zitzaizkien galdetu ohi zuen. Eta Jainkoak daki, esan zuen Rosek, ezetz.

Otordua bukatu orduko oreinak bezain gordean ezkutatu, Ramsaytarren zortzi seme-alabak nor bere gelara abiatu ziren, pribatutasunik gabeko etxe hartan zituzten gotorleku bakarrak, zernahitaz eztabaidatzeko lekuak; Tansleyren gorbataz; Erreforma Legearen bozketaz; itsas txoriak eta tximeletez; jendeaz; bitartean, ohol bakar batez bereizitako teilatupeko geletan, non urrats bakoitza argi entzun baitzitekeen eta baita ere Suitzako neskamearen negarra Grisonetako haran batean minbiziz hiltzen ari zen aitagatik, eguzkia ibaika hedatzen zen, eta argitu egiten zituen bateak, franelazko jantziak, lastozko kapelak, tinta-ontziak, pintura potoak, labezomorroak, eta txori txikien kaskezurrak, eta, aldi berean, horman erantsitako alga zerrenda apaindu luzeei gatzak eta belar-gaizto

usaina isurarazten zien, toallek zeukaten usain bera, bainualdiko hareak zakartuta.

Sesioa, zatiketak, aburu desberdintasuna, aurreiritziak bizitzaren zuntzari itsatsiak, oh hain goiz hasi behar zutenik, deitoratu zuen Ramsay andreak. Hain ziren kritikoak bere umeak. Hain-beste txorakeria esaten zuten. Jangelatik irten zen, Jamesi eskutik helduta, honek besteekin joan nahi ez zuelako. Ramsay andreari halako txorakeria iruditzen zitzaion — desberdintasunak asmatzea, bestela ere jendea, zeruak ongi daki, hori gabe ere aski desberdin ez balitz bezala. Benetako desberdintasunekin, pentsatu zuen egongelako leiho ondoan zutik, aski dugu, aski dugunez ere. Gogoan zeuzkan une hartan aberatsa eta pobrea, goikoa eta behekoa; jaiotzez handi zirenei, gogoz kontra bazen ere, bazien begirune apur bat, zeren eta berak ere bai baitzeukan zainetan Italiako etxe noble eta mitiko samar haren odola; hango alabek, hemeretzigarren mendean Ingalaterrako saloietan sakabana-tuak, zoragarri zazeatu eta zalaparta gartsuak harrotu zituzten. Hauengandik zetorkion berari ernetasuna, ibilera eta izaera guztia, eta ez inge-



les geldo edo eskoziar hotzagandik; baina sako-  
nagotik hausnartu zuen beste arazoa, aberats  
eta behartsuei buruzkoa, eta bere begiez ikusita-  
ko gauzak, astero, egunero, hemen edo Londre-  
sen, bisitatzen zuenean alargun hura, edo emaz-  
te saiatu hura, poltsa besoan hartuta, eta koa-  
dernoa eta arkatza, propio antolatutako zutabe-  
tan idaztearren soldatak eta gastuak, lana eta  
lanik eza, karitate hori norberaren sumina goxa-  
tzeko aitzakia hutsa izango ez zelakoan, eta ezta  
norberaren kuriositatea lasaitzeko ere, eta hala,  
agian, gizarte arazoan ikertzaile bihurtuko zela-  
koan, horixe miresten baitzuen bere adimen  
hezigabearen bitartez.

Argitu ezineko galderak iruditzen zitzaizkion,  
hantxe zutik, Jamesi eskutik helduta zegoen  
bitartean. Umeei hain barregarria egiten zitzaien  
gizon gazteak egongelaraino jarraitu zion; begi-  
ratu gabe igar zezakeen mahai alboan zegoela  
zutik, zerbaitekin lardaskan, moldakaitz, lekuz  
kanpo sentituz. Joanak ziren denak — haurrak;  
Minta Doyle eta Paul Rayley; Augustus Carmi-  
chael; senarra — joanak ziren denak. Orduan  
hasperen batez jiratu eta esan zuen, «Aspertu

egingo al zintuzke nirekin etortzeak, Tansley jauna?»

Enkargu gogaikarri bat zeukan herrirako; biz-pahiru gutun idatzi, kapela janztera igo, eta hamar minuturen buruan prest izango zen. Eta handik hamar minututara hantxe zegoen berriro, otarra eta aterkia hartuta, ibilalditxorako prest zegoela aditzera emanaz; hala ere, geratu beharra izan zuen une batez, tenis zelaitik igarotzerakoan, ahalik eta galdetzeko eguzkitan etzanda zegoen Carmichael jaunari, bere katu-begi horiak zirrikituta, katu batenak bezala adarren mugimendua edo hodeien pasaera islatzen zutela ziruditenak, baina barne gogoeta edo emozio zantzurik eman gabe, ea ezer nahi zuen.

Abiatua zen espedizio handia, esan zuen barrez. Herrira zihoazen. «Zigiluak, idazteko papera, tabakoa?» aipatu zizkion, aldamenean gelditurik. Baina ez, ez zuen deus nahi. Sabel guriaren gainean eskuak gurutzaturik, Carmichael jaunak begiak kliskatu zituen, ahaleginduz bezala jator erantzuteko lausengu haiei (seduzitzailea zegoen Ramsay andrea, nahiz eta urduri samar), baina ezin izan zuen, murgilduta baitze-

goen logale berde grisaxka batean, borondate oneko letargo oparo eta gozo batean, hitz beharrik gabe, dena bere barne hartuz; etxe guztia; mundu guztia; bertako jende guztia; izan ere bazkalorduan tanta batzuk isurtzen zituen non-baitetik basora, eta horregatik zeukan, umeen ustez, bibote eta bizarrean arrasto hori bizi hura, gainerakoan zuria. Ez zuen deus nahi, murmurikatu zuen.

Filosofo handia izan zitekeen, esan zuen Ramsay andreak harengatik, errepidean behera zihoazelarik arrantzale herrirantz, baina ez zuen ezkontzarekin zorterik izan. Aterki beltzari tente-tente heldurik eta ikusmin ukitu batekin mugituz, kantoian ezagunen batekin topatzera joango balitz bezala, istorio osoa kontatu zion; Oxfordeko abentura neska batekin; ezkontza goiztiarra; beharra; Indiarako bidaia; zenbait olerki itzuli izana «oso txukun, nire ustez», pertsiera edo hindiera irakasteko asmoak, baina zertarako? — etzanda bukatzeko, ikusi zuten bezala, belazean.

Losintxatua sentitu zen; lehen aintzat hartu ez, eta orain arindu egin zen Ramsay andrearen hizketa salo harekin. Charles Tansley bizitu egin

zen. Gainera, Ramsay andreak iradoki zuenean gizonaren adimen handia, gainbehera joan arren, eta gainera senarraren egitekoen menpe zegoela emaztea —ez zuen neska hura errudun egiten, eta ezkontza aski zoriontsua izan zen bere irudiko—, Charles Tansley inoiz baino aseago sentitu zen bere buruarekin, eta asko gustatu izango zitzaion, taxia hartu balute, adibidez, berak ordaintzea. Ramsay andrearen poltsa txiki hura, ez zion eramaten utziko? Ez, ez, esan zion, hura beti berak eramaten zuen. Egia zen. Bai, Charles Tansleyk ere sentitzen zuen. Gauza asko sentitzen zituen, eta batek asalatu eta kordokatzten zuen bereziki, arrazoi ezezagunengatik. Asko gustatuko zitzaion Ramsay andreak unibertsitateko prozesioan ikusi balu, toga eta burukoa jantzita. Ikerlari, unibertsitateko irakasle —bere burua zernahitarako gai zekusan— baina zeri begira zegoen hura bitartean? Kartel bat erantsen ari zen gizon bati. Zabaltzen ari zen orri zalapartaria, eta zipiluaren igurtzi bakoitzarekin hanka berriak, ustaiak, zaldia azaltzen ziren, distira gorri urdinez, leuntasun ederrekoak, harik eta horma erdia zirko baten iragarkiak bete zuen

arte; ehun zaldun, hogei itsas zakurren emanaldia, lehoiak, tigreak... Lepoa luzaturik, begiz labur baitzen, ozenki irakurri zuen «laster herri honetan». Izugarri arriskutsua zen gizon besobakar batentzat, oihukatu zuen Ramsay andreak, eskailera-goian horrela egotea — uzta biltzeko makina batek moztu zion ezker besoa bi urte lehenago.

«Joan gaitezen denok!» hots egin zuen aurre-ra eginez, zaldizko eta zaldi guzti haiek ume asalduraz bete eta gupida ahaztarazi baliote bezala.

«Joan gaitezen, bai», esan zuen Charles Tansleyk hitz berak errepikatuz, hain lotsati ordea, non Ramsay andreari dardara eginarazi zion. «Joan gaitezen zirkora». Ez. Ezin zuen ganoraz esan. Ezin zuen ganoraz sentitu. Baina zergatik? galdetu zion Ramsay andreak bere buruari. Zer gertatzen zitzaion? Xamurtasuna sentitu zuen une hartan harengana. Ez al zuten zirkura eramán, galdetu zion, haur denboran? Ezta inoiz ere, erantzun zuen, galdera harexen zain egon balitz bezala, azken egun guzti haie-tan inoiz ez zela zirkura joan esateko desiratzen

egon balitz bezala. Familia ugarikoa zen, bedera-  
tzi anai-arreba, eta aita langilea; «Aita botikaria  
dut, andrea. Dendan aritzen da». Bere buruaren  
kargu egin zen hamahiru urterekin. Neguan  
sarritan berokirik gabe ibilia. Inoiz ezin zion  
eskolan «besteen txerari erantzun» (hauek izan  
ziren bere hitz lehor baldarrak). Gainerako jen-  
deak halako bi iraunarazi behar izaten zien gau-  
zei; tabakorik merkeena erretzen zuen; xehatua;  
agureek kaietan erre ohi zuten bera. Gogor egi-  
ten zuen lan — zazpi ordu egunean; orain zerbai-  
tek norbaitengan zuen eraginaz ari zen hizketan  
— oinez jarraitzen zuten eta Ramsay andrea ez  
zen esanahiaz zehatz ohartu, hitz bakanak soilik,  
han-hemenka... disertazioa... ikerlaritza... lektu-  
radutza... katedra. Ezin zion segitu hizkera aka-  
demiko zatar haren jario motelari, baina orain  
ulertzen zuen zergatik zirkura joateko kontuak  
gailurretik bota zuen, gizarajoa, eta zergatik ekin  
zion, bat-batean, aita eta ama eta anaiak eta  
arriben kontu guzti hari; aurrerantzean adarra  
jo ez ziezaioten arduratuko zen, Prueri kontatuko  
zion. Charles Tansley honi asko gustatuko  
zitzaien, pentsatu zuen Ramsay andreak, gure-

kin Ibsen ikustera joan zela esan ahal izatea. Sekulako ustea baitzeukan — oh bai, gogaikarri hutsa zen. Izan ere, nahiz eta herrira iritsi eta karrika nagusitik joan, non gurdiek harri potorroetan kirrikatzen zuten, hala ere hizketan jarraitzen zuen, erabakiei buruz, eta hezkuntzaz, eta langileez, eta geure mailakoei laguntzeaz, eta hitzaldiez, Ramsay andreak antzeman zion arte berreskuratu zuela lehengo konfiantza, gainditu zuela zirkuarena (orain berriro xamurtasuna sentitu zuen harengana), eta orduantxe zera esateko zorian zegoela — baina hartan, bi saihetseko etxeak ezkutatzean, kaira heldu ziren, eta badia osoa beren aurrean zabaldu eta Ramsay andreak ezin izan zion eutsi esateari, «Oh, bai ederra!» Izan ere, aurrean zeukan ur urdinaren baltsa handia; faro arrea, urrun, garratz, erdian; eta eskuinera, ikus zitekeen heinean, lausotu eta ezkutatuz, izur apal leunetan, hareazko duna berdeak basa-belar zabukariekin gainean, beti ihesi bezala, ilargiko lurralde batera, biztanlerik gabea.

Ikusmira huraxe, esan zuen, bertan gelditu eta begiak uherturik, maite zuen bere senarrak.

Bertan geratu zen une batez. Baina orain, esan zuen, artistez lepo zegoen. Hain zuzen ere hantxe, urrats bakar batzuetara zegoen bat, panama kapela eta bota horiz, seriosa, ezta, bere baitaratua, nahiz hamar mutiko zelatan eduki, aurpegi gorri biribilean atsegin sakona seinale zuela, eta gero, begira egon ondoren, tontor berde edo arrosa bigun batean pintzel muturra sartuz. Paunceforte jauna han zenetik, azken hiru urteetan, horrelakoak ziren koadro guztiak, esan zuen, berde eta grisak, limoi koloreko belaontziekin, eta emakume arrosekin hondartzan.

Bere amonaren lagunek aldiz, esan zuen, pasaeran diskrezioz kirika eginez, sekulako lanak hartzen zituzten; lehenik koloreak nahastu, gero xehatu eta gero zapi bustiak gainean jarri, heze mantentzeko.

Beraz, pentsatu zuen Tansley jaunak, Ramsay andreak nahi zuena zen berak gizon haren koadroa kaxkartzat hartzea. Horrela esaten zen? Koloreek ez zeukatela sendotasunik? Horrela esaten zen? Paseoan zehar hazten joandako emozio itzel haren eraginpean, baratzean hasia



poltsa hartu nahi izan zionean, herrian handitua berari buruzko guztia esan nahi izan zionean, zertxobait okertua hasi zitzaion iruditzen bere burua eta ezagutzen zuen guztia. Izugarri arraroa zen.

Hantxe zegoen Ramsay andrearekin joandako etxe txiki zarpailaren salan, zain, hura pixka batean emakume bat ikustera igo bitartean. Haren urrats azkarrak entzuten zituen goiko aldean; haren ahotsa entzuten zuen, argia, ondoren lodia; alfonbrei, te-ontziei, tulipei begiratu zien; artega zegoen zain; desiratzen zegoen etxeko bidea noiz hartuko, poltsa eramateko asmoz; irteten entzun zuen orduan; ate bat ixten; leihoak zabalik eta atea itxita eduki behar zituztela esaten, joateko bere etxera ezer behar bazuten (ume batekin ari zen hizketan nonbait), halako batean sartu zen arte, pixka batean isilik (goi hartan itxurak egiten aritu ondoren lehengora itzuliko balitz bezala), pixka batean mugitu gabe zutik Garter-eko xingola urdina zeraman Victoria erreginaren koadro baten aurrean; eta bat-batean ulertu zuen hala-

xe zela: halaxe zen: — berak inoiz ikusitako pertsonarik ederrena zen.

Begietan izarrak eta ilean belo haiek, ziklamenak eta basa bioletak — zer pentsatzeko modu txorua zen hura gero? Gutxienez berrogeita hamar urte izango zituen; zortzi seme-alaben ama zen. Lore zelaietan barrena eta bularrera mimikoi hautsiak eta arkume eroriak eramanez; izarrak begietan eta haizea ilean — Poltsa hartu zion.

«Agur, Elsie», esan zuen, eta kalean zehar joan ziren, Ramsay andrea eguzkitakoari tente eutsiz eta kantoian norbaitekin topo egitea espero balu bezala, eta Charles Tansley berriz bizi-tzan lehen aldiz sekulako harrotasuna sentituz; zangan aitzurrean ari zen gizon batek lanari utzi eta emakumeari begiratu zion; besoari jaisten utzi eta begiratu egin zion; Charles Tansleyk sekulako harrotasuna sentitu zuen; haizea, ziklamenak eta bioletak sentitu zituen, bizitzan lehen aldiz emakume eder baten ondoan zihoalako. Poltsa zeramakion.

## 2

«Ez dugu farora joaterik izango, James», esan zuen Ramsay jaunak, leiho ondoan zutik, trakets hitz eginez, baina emazteaganako begiruneagatik ahotsa goxatuz, jator antza emateko.

Gixon gorrotagarria, pentsatu zuen emazteak, zergatik jarraitzen ote du hori esaten?

## 3

«Beharbada esnatu eta eguna eguzkitan eta txoriak kantuan aurkituko dituzu», esan zuen errukiz Ramsay andreak, semearen ilea laztanduz, zeren senarrak, ateraldi zorrotz harekin, alegia ez zuela ona egingo, itxaropenak zapuztu baitzizkion Jamesi, ondo jabetzen zen bera. Farora joatea pasio bat zen Jamesentzat, hala jabetuzen, eta ondoren, senarrak aski esan ez balu bezala ateraldi zorrotz harekin, alegia biharamunean ez zuela ona egingo, gixon gorrotagarri hark berriro igurzten zion kontu hura muturretan.

«Beharbada ona egingo du bihar», esan zion amak, ilea laztanduz.

Berak orain egin zezakeen bakarra zen hozkailuari mirespenez begiratzea, eta Stores zerrendako orriak pasatzea eskuarea-edo belarra ebakitzekoa-edo aurkitzeko esperantzan, ezten eta girten haiek trebetasun eta kontu handia eskatzen baitzuten guraizeekin mozteko. Mutil gazte haiek denak senarraren parodia ari ziren egiten, pentsatu zuen; honek euria egingo zuela; haiek berriz berebiziko erauntsia izango zela.

Baina honetan, orria pasatzean, eskuare edo belarra ebakitzeko baten irudia bilatzeko bere lanak eten egin ziren. Zurrumurru elkor hura, ahoko pipen sartu-ateriak irregularki hautsia, gizonak hizketan pozik ari ziren adierazle, nahiz haiek ziotena entzun ez (leihoan baitzegoen bera eserita); soinu hura, ordu erdiz iraun eta emeki pausatu zena bere buru gaina zapaltzen zuten soinuen eskalan, hala nola piloten kolpea bateen kontra, edo cricketean jolasten ari diren umeen aldian behingo garrasi zorrotz azkarra «Jotzailea kanpo! Jotzailea kanpo!», isildu egin

zen; eta hala, soinu hark, areago zirudien olatu-  
tuen etorrera monotonoa hondartzara, gehi-  
etan bere pentsamenduei tarrapata konpasatu  
eta lasaigarri bat txertatzen ziena, eta seme-ala-  
beekin eserita zegoenean sehaska kanta baten  
hitzak, naturak murmurikatuak, «Zu zaintzen  
nago, zure euskarria naiz» kontsolamendu  
moduan behin eta berriro errepikatzen zituela,  
baina beste zenbaitetan, bat-batean eta usteka-  
be, batez ere eskuarteko lanetik burua zertxo-  
bait altxatzean, soinu hark ez zeukan hain zen-  
tzu atsegina, aitzitik, parte gaiztoko danbor erre-  
pika baten antzera bizitzaren neurria markatzen  
zuen gupidarik gabe, inori gogora ekarriz irlaren  
suntsipena eta itsasoan hondoratzea, eta eguna  
huskeriatan jardun zuenari abisatzera zetorren,  
dena Erromako zubia bezain galkorra zela —  
soinu hark, beste soinuen azpian ilundua eta  
gordea egonak, bat-batean durundi hots lodi bat  
jo zuen bere belarrietan, eta izuzko zarrada  
batekin begirarazi zion goialdera.

Hitz egiteari utzi zioten; hori zen esplikazio  
bakarra. Bere buruaz nagusitutako estutasun  
hartatik segundo batean igaroz beste mutur

hotz, dibertitu eta baita maltzur samar hartara ere, nolahalako ordaina bere alferrikako emozio jario harengatik, Charles Tansley gizarajoa baztertua izan zela atera zuen ondorio. Gutxi axola. Senarrak sakrifizioak behar bazituen (hala behar baitzituen) atseginez oparitzen zion Charles Tansley, mutikoa mindu zuena.

Beste pixka batean egon zen aditzen, burua altxatuta, itxoiten bezala ohiko soinuren bati, soinu mekaniko erregularren bati; eta orduan, lorategian hasitako zerbait erritmikoa aditu zue-  
nean, erdi hitz egina erdi kantatua, senarra terrazan gora eta behera zebilen bitartean, makakorroa eta kantaren arteko zerbait, berriro lasaitu zen, dena ostera ongi zegoen seguran-  
tziarekin, eta belaunean zeukan katalogoari begiratuz sei ahoko labana baten irudia aurkitu zuen, Jamesek kontu handiz bakarrik ebakitzeko modukoa.

Bat-batean garrasi ozen bat zabaldu zen, erdi esnatutako sonanbulu batena bezalakoa

*Su eta gar ekinda*

antzeko zerbait aditu zuen bere belarrian indarrik handienarekin, kezkatu burua itzularaziz, inork hari aditu ote zion begiratzeko. Lily Briscoek bakarrik, poztu zen; eta honengatik ez zitzaion axola. Baina neskatxaren imajinak, belardi ertzean zutik pintaketan, gogora ekarri zion; ahalik eta geldiena eduki behar zuen burua, Lily pintatzen ari zen koadrorako. Lilyren koadroa! Ramsay andreak barre egin zuen. Begi txinatar txiki haiek eta aurpegi ximur harekin ez zen inoiz ezkonduko; pintaketa hura ez zen oso aintzakotzat hartzekoa; baina umetxoa bere buruaren jabe zen, Ramsay andreak begiko zuen horregatik, eta hala, emandako hitzaz oroitu eta burua saihestu zuen.

## 4

Gutxigatik ez zion astoa irauli, eskuak astinduz azaldu zenean, «Zaldiz aurrera eginda» oihuka, baina, zorionez, agudo jiratu eta jarraitu zuen zaldiz, ustez behintzat lorioski hiltzera Balaclavako gainetan. Behin ere ez zen inor, aldi

berean, hain barregarri eta zalapartari izan. Baina hark hala jarraitu bitartean, eskuak astinduz eta oihuka, bera seguru zegoen; ez zen bertan geldituko bere koadroari begira. Horixe baitzen Lily Briscoek eraman ezingo zuena. Baita begiratzen zionean masari, lerroei, koloreari, leihoan Jamesekin eserita zegoen Ramsay andreari, orduan ere antena bat edukitzen zuen bere inguruan zabaldua, badaezpada, norbait ezkutuan hurbildu eta bat-batean bere koadroari begira ez ikusteko. Baina oraingoan, zentzu guztiak hain zorrotz, so eginez, grinati, hormaren eta atzeko klematideen koloreak begietan erre zioten arte, konturatu egin zen norbait zetorrela etxetik, beragana zetorrela; baina nola hala, ibileragatik, igarri egin zuen William Bankes zela, eta orduan bere pintzelak dardara egin zuen, eta Tansley jauna, Paul Rayley, Minta Doyle edo beste nornahi izan balitz egingo zuen moduan, ez zuen oihala belar aldera jiratu, baizik bertan utzi.

Gela bana zeukaten herrian hartua, eta hala, sar-ateran, berandu zebiltzalarik elkarri ate aurrean agur esaterakoan, kontu hutsalak esan



ohi zizkioten elkarri, zopari buruz, umeei buruz, honetaz eta hartaz, eta horrek kideko egin zituen; eta hala, ondoan geratu zitzaionean epaile jarrera harekin (bere aita izateko ere nahikoa adina zeukan, botanikoa, alarguna, xaboi usainduna, oso eskrupulotsu eta garbia), bera ere mugitu gabe geratu zen. Hura bezalaxe. Oinetako apartak zeramazkiela aipatu zion Williamek. Berezko zabalera eskaintzen zieten behatzei. Etxe berean zeukatenez ostatu, bera ere jabetu zen zer metodikoa zen Lily, gosalaurretik jaiki eta han joaten zen pintatzera, ustez bakar-bakarririk: segur aski pobrea, eta Miss Doyleren izaera edo xarmarik gabea, noski, baina zentzuduna, horrek, bere gusturako behintzat, beste andereño gazte haren gaintetik jartzen zuelarik. Orain konparazio batera, seguru zegoen: Ramsay beraiengana oldartu zenean, oihuka, imintzioka, Miss Briscoek ongi ulertu zuen.

*Hutsa egin zuen norbaitek.*

Ramsay jaunak begiratu egin zien. Begiratu egin zien batere ikusiko ez balitu bezala. Horrek

ezinegon apur bat sortu zien biei. Ikusi ez beharrek zerbait ikusi zuten. Beste norbaiten esparuan sartu ziren. Hala, pentsatu zuen Lilyk, segur aski aitzakia bat izan zen handik joateko, entzumenetik urruntzeko, Bankes jaunari berehala esanarazi ziona fresko egiten zuela eta paseatzeko eskaintza bati buruz zer edo zer. Bera ere joango zen, bai. Baina nekez baztertu zituen begiak koadrotik.

Klematidea bioleta distiratsua zen; horma berriz zuri nabarmena. Horrela ikusten zituenez ez zitzaion ondratua iruditzen bioleta distiratsua eta zuri nabarmena lardaskatzea, nahiz eta modan egon, Paunceforte jaunaren bisita ezgero, dena zurbil, apain, erdi garden ikustea. Gainera, kolorearen azpian forma zegoen. Dena ikus zezakeen ezin argiago, ezin gailenago, begiratzen zuenean: baina pintzela eskuetan hartu orduko aldatzen zen guztia. Irudia eta oihalaren artean zegoen momentu hartako hegaldian erasotzen zioten deabruak, sarritan negar egiteko zorian jarriz eta ideiatik lanera bitarteko pasabide hura ume batentzako pasabide ilun bat bezain beldurgarri bihurtuz. Horrela sentitzen

zen askotan — izugarritzko etsaien kontra borrokan, adoreari eusteko; esan ahal izateko: «Baina hau da ikusten dudana; hau da ikusten dudana», eta hala bere bisionearen hondar eskasen bat bere bularrean eransteiko, nahiz milaka indarrek kosta ahala kosta erauzi nahi zioten. Eta orduan, bide fresko eta haizetsu hartan, pintatzen hasi zenean, abaildu zitzaizkion gainera beste gauza haiek, bere gaitasun eza, bere hutsaltasuna, Brompton Roaden ondoan bizi zen aitari etxea zaindu beharra, eta lan handiak zeuzkan bere burua kontrolatzeko (Jainkoari eskerrak ordura arte eutsi ahal izan zion) Ramsay andrearen aurrean belauniko jartzetik eta esatetik — baina zer esan ziezaiokeen? «Maitemindua nago zurekin?» Ez, hori ez zen egia. «Maitemindua nago guzti honekin», eskua luzatuz hesiari, etxeari, umeei? Ez zuen zentzurik, ez zen posible. Ez zegoen esaterik benetan uste zena. Orain beraz pintzelak kutxatilan txukun sartu, bata bestearekin, eta William Bankesi esan zion:

«Hoztutzen ari du bat-batean. Eguzkiaren beroa gutxituz doala dirudi», esan zuen ingurura begira, artean argi aski baitzegoen, belarra

artean berdetasun trinko leunekoa, etxearen berdetasuna pasio lore purpurez izarreztatua, eta beleak orro hotzak jalkiz goiko alde urdinetik. Baina han bazebilen zerbait, distiratzen, airean zilarrezko hego bat astintzen. Iraila zen azken batean, irailaren erdialdea, eta arratsaldeko seiak pasatuta. Han joan ziren beraz lorategian behera betiko norabidean, tenis zelaitik aurrera, panpako belarretik aurrera, hesi estuko ataka hartaraino, surtako ikatz txingarren antzeko sugalda loreek zaindua, haien artetik badiako ur urdinek inoiz baino urdinago ematen zutelarik.

Beharren batek bultzatuta joan ohi ziren haraino arratsaldero. Bazirudien urak oroitzape-nak azaleratu eta nabigatzen jartzen zituela, ordura arte lehorrean estankaturik egonak, eta beren gorputzei arinaldi fisiko antzeko bat ematen ziela. Lehenik, koloreen taupadek badia urdinez gainezkatu eta bihotza zabaldu egiten zen horrekin, eta gorputza igeri hasten, harik eta hurrengo istantean bertan gelditu eta izozten zen arte olatu harroen belztasun arantzadunagatik. Ondoren, atzeko harkaitz beltz handian gora, ia arratsaldero zutitzen zen irregularki, hartara

talaian egotera behartuz eta gozamen handia eraginez azaltzen zenean, ur zuriko sorburu bat; eta orduan, horren zain egon bitartean ikusten zen, olatuak joan olatuak etorri, hondartza erdi borobil zuriztan behin eta berriro nakarrezko mintz bat emeki isurtzen.

Biak zeuden irribarretsu, bertan zutik. Biek sentitzen zuten poztasun bera, olatuen mugimenduak piztua; eta geroago baita belaontzi baten lasterketa zorrotzak piztua ere, badian arku bat xerratu ondoren geldituz; eta dardara eginez; eta belari jaisten utziz; eta gero, irudia osatzeko senez, mugimendu azkar honen ondoren, biek begiratu zuten urrutiko dunetara, eta bozkarioaren ordezkari tristura sentitu zuten beren gainera jausten — aldeaz gauza hura jadanik osatua zegoelako, eta aldeaz badirudielako urrutiko ikuskizunak (pentsatu zuen Lilyk) begiralea baino milioi bat urte gehiago biziko direla, eta jadanik bat eginda daudela zeruarekin, honek zeharoko atsedenean kontenplatuak duelarik lurra.

Hondarrezko muino urrunei begira, Ramsay-ekin gogoratu zen William Bankes: Westmorlan-

deko bide batekin gogoratu zen, Ramsayrekin gogoratu zen, nola joaten zen bidean bere gisa, berezkoa zirudien bakardade giro hartan bildua. Baina bat-batean eten egin zen hau, William Bankesi gogora etorri baitzitzaion (eta benetako gertakariren batekin eduki behar zuen honek zerikusia) oilo bat, txita talde bat babesteko hegoak zabaldurik, eta orduan Ramsay gelditu, bastoiarekin seinalatu, eta «Politta-politta» esan zuen, hura Bankesi argi printza bakan bat iruditu zitzaion, haren lainotasuna eta gauza xehe-kiko zuen errukiaren erakusle; baina beren adiskidantza bukatu egin zela uste izan zuen, hantxe, bide bazter hartan. Gerora, Ramsay ezkondu egin zen. Gerora, bata zela eta bestea zela, galdu egin zen adiskidantza haren muina. Ezin esan noren errua izan zen, baina, handik gutxira, errepikak hartu zion berritasunari leku. Errepikarako elkartzen ziren. Baina hareazko dunekiko solas mutu hartan aldarrikatu zuen ez zela bate-re gutxitu Ramsayganako bere begikotasuna; aitzitik, hantxe zegoen, mende oso batez turba gainean egondako gizon gazte baten gorpua bezala, freskotasun gorria ezpainetan, hantxe

zegoen bere adiskidantza, garratz bezain zinezko, hareazko muinoen artean badiaren zabalera guztian etzanda.

Kezkatuta zegoen adiskidantza honengatik, eta agian ere, bere burua zuritzeko lehortu eta ihartu egin zeneko salaketaz —zeren Ramsay ume arteko nahaspila batean bizi baitzen, eta bera berriz seme-alabarik gabe eta alargun— kezkatuta zegoen Lily Briscoek gutxietsi ez zezan Ramsay (gizon bikaina, bitxi samarra izanagatik), eta uler zezan nola zeuden bien arteko gauzak. Aspaldi jaio ondoren, beren adiskidantza makaldu egin zen Westmorlandeko bide batean, non oiloak hegoak zabaldu zituen txiten aurrean; ondoren Ramsay ezkondu, eta beren bideek norako desberdina izan zuten, joera zegoen, ez zen noski inoren errua, elkartzen zirenero gauzak errepikatzeko.

Bai. Hori zen. Kito. Ikusmira hartatik jiratu zen. Eta buelta eman ez beste aldetik joateko, paseoan zehar, Bankes jauna zenbait gauzetaz ohartu zen, bestela atentzioa deituko ez ziotenak, baldin eta hareazko muino haiek erakutsi ez baliote bere adiskidantzaren gorpua turba gai-

nean etzanda, gorritasun harekin ezpainetan — esate baterako Cam, neskatoa, Ramsayren alaba gazteena. Latxortanak ari zen maldan biltzen. Basatia eta elkorra zen. Ez zion «gizonari lore bat» eman nahi, inudeak esan bezala. Ez! Ez! Ez! Ez zuen nahi! Ukabilak estutu zituen. Ostikoz jo zuen lurra. Eta Bankes jauna zahartua eta goibeldua sentitu zen, eta ume hark nola hala errudun sentiarazi zuen adiskidantza haren-gatik. Bera, nonbait, lehortua eta ihartua zegoen.

Ramsaytarrak ez ziren aberatsak, eta miresgarria zen nola iristen ziren denera. Zortzi seme-alaba! Zortzi seme-alabei filosofiaren bidez jaten ematea! Hemen zegoen beste bat, oraingoan Jasper, handik barrena, txoriei tiroz jotzera omen, axolarik gabe, pasaeran Lilyren eskuari ur-bonba girten bati bezala eraginez, eta horrek Bankes jaunari saminki esanarazi zion denak Lilyren zale zirela. Heziketa ere hartu behar zen kontutan (egia, Ramsay andreak ere agian bazuen zer edo zer bere aldetik), eta urradurei buruz zer esanik ez, makina bat arropa, oinetako eta galtzerdi beharko baitzuten «gazte jator»



haiek, denak koxkortuak, mardul eta ankerrak. Bakoitza zein zen edo zein ordenetan zetozen, ez zen esateko gai. Bere artean, Ingalaterrako Errege-Erreginen arabera deitzen zien: Cam Zitala, James Ankerra, Andrew Zuzena, Prue Ederra —zeren Prue lerdena izango baitzen, ez zegoen hori ebitatzerik— eta Andrew azkarra. Paseoan zehar, eta Lily Briscoek baietz eta ezetz esan eta bere oharrak osatu bitartean (Lily maitemindua baitzegoen denekin, mundu honekin maitemindua) Ramsayren kasua aztertzen zuen, erruki zion, inbidia zion, hura ikusi balu bezala gaztetan koroatzen zuten bakardade eta garrastasunaren loria guzti haietatik eranzten, ondoren bere buruari enbarazua sortzeko hegoen zalaparta eta etxeko lokaldiekin. Zer edo zer ere bereganatu zuen — aitortzen zuen, bai, William Bankesek; atsegina izango zen Camek berari paparrean lorea jarri balio edo sorbaldan gora igo balitzaio, aitari bezala, Vesuvioaren leherketak erakusten zuen irudi bati begiratzeko; baina hauek zerbait suntsitu zioten ere, hori antzematzen zuten aspaldiko lagunak. Zer pentsatuko luke orain arrotz batek? Zer pentsatzen zuen Lily

Briscoe honek? Nola ez antzeman ohiturak ari zela hartzen? Baita bitxikeriak ere, ahultasunak agian? Harrigarria zen adimen hartako gizona hain behera makurtu izana —baina oso esaldi gogorra zen hori— horrenbesteraino egotea inoren lausenguen peskizan.

«Oh, baina...» esan zuen Lilyk, «har ezazu bere lana kontutan».

Lilyk «bere lana kontutan» hartzen zuenero, sukaldeko mahai handi bat ikusten zuen aurrez aurre. Andrewren kulpa zen. Behin honi galdetu zion ea zertaz ziren aitaren liburuak. «Sujetoa eta objektua eta errealitatearen izaera», erantzun zion Andrewk. Eta berak orduan Ene bada esan zuenean, ez zekiela zer esan nahi zuen horrek, «imajina ezazu sukaldeko mahai bat», erantzun zion Andrewk berriro, «bertan ez zaudenean».

Hala, Lilyk Ramsay jaunaren lanean pentsatzen zuenero beti ikusten zuen sukaldeko mahai fregatu bat. Udareondo baten adar artean ageri zen oraintxe, baratzeraino iritsiak baitziren. Eta kontzentratzeko ahalegin mingarri batekin bere gogoia enfokatu zuen, ez arbolaren azalera, zila-

rrezko kozkorduna, edo arrain itxurako hostoetara, baizik eta sukaldeko mahai fantasma batera, egurrezko mahai fregatu horietako batera, pinporta eta korapiloduna, besoko giharren urtetako sasoiagatik soilduak geratu izana dutelarik bertute bakarra, hantxe erantsita, lau hankak goratuta. Jakina, norbaitek egunak igaroez gero honelako izaki kantoidunei begira, ilunabar guztien hodei flamingoak eta urdina eta zilarra mugatuz lau hankako pinuzko mahai batera, jakina ez zegoela norbait hori beste edonoren antzera epaitzerik.

Bankes jaunak gogoko zuen Lily, «haren lana kontutan hartzea» eskatzen ziolako. Hartua zuen kontutan, sarri askotan. Ezin konta ahala bider esan zuen, «lanik onena berrogei urteak baino lehen egiten duten gizon horietakoa da Ramsay». Hogeita bost urte besterik ez zituenean kontribuzio sendoa egin zuen filosofia arloan liburu txiki batekin; handik aurrerakoa, gutxi gorabehera, zabalpena izan zen, errepika. Baina oso txikia da edonolako kontribuzio sendoa egiten duten gizonen kopurua, esan zuen udareondoaren alboan geldituz, txukun asko, zehaztasun

eskrupulotsuz, fintasun osoko epailea. Bat-batean, haren eskuko mugimenduak askatuta bezala, hari buruz Lilyk pilatua zeukan inpresioen zama okertu eta goitik behera jausi zen ibai-ka. Hori izan zen sentsazio bat. Ondoren, ke artean altxatu zen haren izaeraren funtsa. Hori izan zen bestea. Transfiguraturik sentitu zen bere pertzepzioaren intentsitatearekin; haren gogortasuna zen; haren ontasuna. Errespetu handia diot (mintzatu zitzaion isilka) zure atomo bakoitzari; ez zara harroa; erabat inpersonala zara; Ramsay jauna baino jatorragoa zara; eza-gutzen dudan gizasemerik jatorrena zara; ez daukazu ez emazte eta ez haurrik (inolako senti-mendu sexualik gabe, Bankes jaunaren bakardade hura besarkatu nahi zuen), zientziari emana bizi zara (nahi gabe, patata xerrak azaldu zitzaiz-kion begi aurrean); edozein laudorio iraina da zuretzat; gizon eskuzabal, bihotz garbi, heroiko-a! Baina aldi berean, gogoratu zitzaion morroi bat ekarri zuela haraino; ez zituela zakurrak aulki gainetan ametitzen; ordutan jarduten zuela hizketan (Ramsay jaunak atea danbateko bate-

kin itxiz joan arte) barazkientzako gatza eta sukaldari ingelesen maltzurkeriari buruz.

Zer irteten zen guzti honetatik? Nola epaitu jendea, iritzia osatu? Nola elkartu bata eta bestea, eta onespina ala gaitzespina atera ondorioztat? Eta, azken batean, zer esanahi egokitu hitz horiei? Orain, zutik, itxuraz transfiguratua, udareondoaren alboan, bi gizon haien inpresioak zetozkion barra-barra, eta bere pentsamenduari segitzea zen arkatzez hartzeko arinegia den ahots bati segitzea bezala, eta ahots hura bere baitakoa zen, beste inoren eraginik gabe gauza ukaezinak, eternalak, elkarren kontrakoak esaten ari zena, hartara udareondoaren azaleko pitzadura eta kozkorrak ere eternitate osorako derrigorrez bertan itsatsiak geratzen zirelarik. Zuk handitasuna daukazu, jarraitu zuen, baina Ramsay jaunak batere ez. Ziztrina da, berekoia, harroa, egozentrikoa; gaizki ohitua dago; tiranoa da; Ramsay andrea latz oinazetzen du; baina zuk ez daukazuna (mintzatu zitzaion Bankes jaunari) dauka berak: izpiritualtasun basatia; ez daki ezer huskeriez; zakurrak eta seme-alabak maite ditu. Zortzi dauzka. Zuk bakar bat ere ez. Ez al zen

lehengo gauean jaitsi bi berokitan bildua Ramsay andreak ilea budin formarekin moztu ziezaion? Hau dena gora eta beheara zebilen dantzari, euli konpainia bat bezala, zein bere aldetik, baina denak ederki kontrolatuak sare elastiko ikusiezina batean — gora eta beheara dantzari Lilyren gogoan, udareondoko adar batetik bestera, non artean zintzilik baitzegoen sukaldeko mahai fregatuaren efigiea, Ramsay jaunaren adimenarizazio errespetu sakonaren sinboloa, harik eta bere pentsamendua, gero eta jira-bira bizkorragoan poderioz, intentsitate harengatixe lehertuzen arte; askaturik sentitu zen; tiro bat entzuzen handik hurbil, eta han etorri zen, perdigoieki ihesi, izuturik, asaldatuak, istiluan, zozo saldo bat hegan.

«Jasper!» esan zuen Bankes jaunak. Zozoek hegaz etorritako bidea hartu zuten, terrazan barrena. Zeruan sakabanatzen ari ziren txori haiei jarraituz, hesi altua zeharkatu eta Ramsay jaunarekin egin zuten topo, tragikotasunez ozenki esaka, «Hutsa egin zuen norbaitek!»

Honen begiak, zirrararekin kristalduak, intentsitate tragikoz desafiakor, haienekin elkartu

ziren segundo basez, eta dardara egin zuten ezagupenaren atarian; baina orduan, aurpegiaren erdibidera eskua altxatuz haien begirada normala baztertzeko, ezabatzeko bezala, lotsa setati batekin agonian, erregutuko balie bezala pixka batean eusteko berak ebitaezina zela zekien hari, eten zutelako zeukan sumindura xaloaz jabe zitezen nahiko balu bezala, nahiz eta aurkitu zutenean bere burua sustraitik ateratzen ez utzi, baizik eta gogor heltzeko asmoa eduki zirrara goxo haren zerbaiti, rapsodia likits hari, lotsagarria iruditu baina aldi berean amets eginarazten ziona — zakar jiratu zen, aurrean itxizien bere ate pribatua; eta, Lily Briscoe eta Bankes jauna, enbarazuz zerura begira, konturatu ziren Jasperek eskopetaz uxatutako zozo saldoa makalen gailurretan pausatu zela.

## 5

«Eta bihar eguraldi onik egiten ez badu», esan zuen Ramsay andreak, begiak altxatuz William Bankes eta Lily Briscoeri so egiteko han-

dik pasatzen ziren unean, «beste noizbait izango da. Ea orain», esan zuen, pentsatuz Lilyren xarma begi txinatar haiek zirela, bere aurpegitxo zuri ximur hartan zeharka jarriak, baina azkarra izan behar zen hartaz jabetzeko, «ea orain zutitu, utzidazu hanka neurtzen», azkenean behar bada farora joango baitziren, eta ikusi egin nahi zuen galtzerdiak pittin bat luzeagoa izan behar ote zuen.

Irribarrez, zeren orduantxe ideia zoragarri batek argitu baitzion gogoia —William eta Lilyk elkarrekin ezkondu behar lukete— txilar koloreko galtzerdia hartu, zuloan altzairuzko orratzak gurutzaturik, eta Jamesen hankaren ondoan neurtu zuen.

«Egon geldirik, maitea», esan zuen, farozainaren semearentzat neurtzeko tresna bat izan nahi ez eta bere tema hartan James propio mugitzen baitzen; eta hartara nola ikusi luzeegia ala motzegia zen? galdetu zuen Ramsay andreak.

Gora begiratu zuen —zer deabru zeukan barruan bere semetxoak, bere kuttunak?— eta koartoa ikusi zuen, aulkiak ikusi zituen, izugarri narras ematen zuten. Haien erraiak, Andrewk



lehengoan esan bezala, lurrean botata zeuden; baina zer zentzu zeukan aulki onak erosteak, galdetu zion Ramsay andreak bere buruari, zer eta bertan hondatzen uzteko negu osoan, etxeari hezetasuna zerionean, edadeko emakume bakar batek zainduta? Berdin zion: hutsaren hurrengo zen errenta; umeek oso gustukoa zuten; senarrari mesede egiten zion liburutegi, hitzaldi eta ikasleengandik hiru mila miliatara egoteak, edo zehatzago esanez hirurehunera; eta leku aski zegoen bisitentzat. Esterak, ohe tolesgarriak, aulki eta mahaien hondar zarpailak, Londresen beren buruak ongi pagatutakoak — hainbestean zetozen honako; eta argazki bat edo beste, eta liburuak. Liburuak, pentsatu zuen, beren kabuz ugaltzen ziren. Inoiz ez zeukan haiek irakurtzeko betarik. Ai! berari emandako liburuak ere, poetak berak izenpetuak: «Bere desirak agindu diren honentzat» ... «Gure aroko Helena zoriontsuarentzat» ... lotsagarria zen esatea, irakurri gabe zeuzkan. Eta Adimenari buruzko Croomena eta Polinesiako Ohitura Basatiei buruzko Batesena («Egon geldirik, maitea», esan zuen) — ezin zuen haietako bakar bat ere

farora bidali. Noizbait etxea zeharo narrastu eta zerbait egin beharko zen, noski. Irakatsi ahal balitzaie oinak garbitzen, harea etxe barrura ekarri gabe — alde ederra litzateke. Ametitu beharra zeukan Andrewk karramarroak diseckatu nahi izatea, eta Jasperek algekin zopa egin zitekeela uste bazuen, ezin galarazi: edo Rosen objektuak — maskorrak, kainaberak, harriak; denek zuten talentua, bere umeeck, baina bakoitzak bere moduan. Eta horren ondorioz, hasperen egin zuen gela osoari zorutick sabairaino so eginez, galtzerdia Jamesen hanka parean zeukan bitartean, gauzak gero eta narrasago zeuden, uda joan eta uda etorri. Estera marzte;: ari zen; hormako papera laxatzen. Jadanick ez zegoen antzematerick gainekoak arrosak zirenick. Baina noski, etxe bateko ate guztiak zabalick uzten badira beti, eta Eskozia osoan ez badago sarraila-zalerick kriscket bat konpon dezakeenick, gauzek hondatu beharra daukate. Zertarako bota katxemirazko txal berdea koadro baten marko gainean? Bi asteren buruan ilar-zoparen kolorea leukake. Baina bera ateeckin amorrarazten zen; ate guztiak uzten zituzten zabalick. Entzuten jarri

zen. Saloiko atea zabalik zegoen; halleko atea zabalik; bazirudien logeletako atea zabalik zedula; eta eskailerarteko leihoa zabalik zegoen noski, berak ireki baitzuen hura. Leihoek zabalik eta ateen itxita egon behar zutela — hain erraza izan eta, ezin al zuten gogoan hartu? Gauez neska batean logeletara joan eta labe-zuloak bezala aurkitzen zituen itxita. Marierena izan ezik, neska suitzarra, bainua lehenago utziko zuena aire freskoa baino, baina han etxean, esan zuen honek, «mendiak hain dira ederrak». Aurreko gauean esan zuen hori malkoekin begietan, leihotik begira. «Mendiak hain dira ederrak». Han ari zen bere aita hiltzen, bazekien Ramsay andreak. Umezurtz utziko zituen. Errietan eta erakusten ari zitzaion bitartean (nola egin ohea, nola ireki leihoa, emakume frantses batek bezala eskuak itxi eta zabalduz), neskek bat-batean hitz egin eta dena bere inguruan bil-bil egin zen emeki, hala nola eguzkitan hegatu ondoren txoriaren hegoak emeki biltzen diren eta bere lumajearen urdintasuna altzairu distiratsutik purpura leunera aldatzen den. Bera berriz isilik geratu zen, zer esanik ezean. Aitak eztarriko minbizia

zeukan. Gogora etorri zitzaionean — nola geratu zen neskamea bertan, nola esan zuen «Etxean mendiak hain dira ederrak», eta itxaropenik ez, batere itxaropenik ez, amorraziozko dardarizo bat antzeman zuen eta zorrotz hitz eginez esan zion Jamesi:

«Egon geldirik. Ez gogaitu», eta semeak berehala antzeman zuen tinkotasun hura benetakoa zela, eta hanka luzatu zuen neurtu ahal ziezaion.

Galtzerdia motzegia zen behatz erdi bategatik gutxienez, kontutan harturik ere Sorleyren mutikoa ez zegoela James bezain koxkortua.

«Motzegia da», esan zuen, «askogatik da motzegia».

Inork ez zuen behin ere hain itxura tristea eduki. Samin eta beltz, ilunpetan, eguzkitatik osin-zulora zihoan argizko adar haren erdibidean, agian malko bat sortu zen; malko bat erori zen; urak batera eta bestera harrotu, malkoa jaso, eta atsedenean geratu ziren. Inork ez zuen behin ere hain itxura tristea eduki.

Baina Ramsay andrearena itxura hutsa al zen? zioen jendeak. Zer zegoen atzean — eder-

tasun haren, oparotasun haren atzean? Bere burua tiroz jota garbitu ote zuen, galdetzen zuten, ezkondu aurreko astean hil ote zen — lehenagoko beste maitale hura, zurrumurruek aipatzen zutena? Edo ez ote zegoen ezer? edertasun paregabe hura besterik ez, bera harexen atzean bizi zelarik, eta okertu ezin zuena? Izan ere, nahiz intimitatezko momenturen batean, pasio handiak, ezinezko amodioak, zapuztutako handinahien kontakizunen aurrean aise asko esan ahal izango zuen berak ere ezagutu, sentitu edo pairatu zuela, ez zuen inoiz txintik atera. Beti egon zen isilik. Berak bazekien — ikasi gabe zekien. Bere soiltasunak igarri egiten zion jende azkarraren faltsukeriari. Bere tinkotasunak harria bezain sendo erorarazi, txoria bezain zehatz pausarazi, eta gaitasuna ematen zion egiari naturaltasunez ekin eta atxikitzeko, besteak gozatuz, arinduz, babestuz — faltsuki agian.

(«Naturak buztin gutxi dauka», esan zion behin Bankes jaunak, zeharo hunkitua bere ahotza entzun zuenean telefonoz, nahiz eta tren bati buruz ari zitzaion hizketan, «zu osatzeko erabili zuen borren antzekorik». Linearen beste aldean

ikusten zuen Ramsay andrea, greziarra, begi-urdina, sudur zuzena. Zentzugabea ematen zuen horrelako emakumeari telefonoz hots egitea. Bazirudien Graziek asfodelo soro batean bildu eta elkarri eskua eman ziotela, aurpegi hura sortzeko. Bai, hamar t'ereditakoa hartuko zuen Eustonen.

«Baina ume bat baino gutxiago jabetzen da bere edertasunaz» esan zuen Bankes jaunak, entzungailua eseki eta gela zeharkatuz, ahalik eta ikusteko zer aurrerapen egin zuten etxe atzean hotela eraikitzen ari ziren langileek. Eta bukatu gabeko hormen arteko joan-etorri hari begira, Ramsay andreagan pentsatu zuen. Izan ere, pentsatu zuen, beti tartekatzen zen zerbait desegokia haren aurpegiko harmonian. Ehiztari kapela eramaten zuen soinean; botak jantzita joaten zen belardian barrena korrika, ume bat arriskutik salbatzeko. Hala, haren edertasunean bakarrik pentsatuz gero, gogoratu beharra zegoen zera dardarati, zera bizi hartaz (begiratzeko zien bitartean, adreiluak ari ziren garraiatzen ohol txiki batean gora), eta irudi hartan tartekatu; edo soilik emakume gisa pentsatuz

gero harengan, idiosinkrasiako bitxikeria bati egotzi behar zitzaion hori; edo bestela suposatu desira ezkuturen bat zeukala bere erregina-itxuraz biluzteko, aspertua balego bezala bere edertasunarekin eta gizonezkoek edertasunaz zioten guztiarekin, eta beste gainontzekoak bezalako-xea izan nahi balu bezala, hutsala. Auskalo. Auskalo. Lanera joan behar zuen).

Galtzerdi marroi gorritzat iletu hura puntuz egiten, burua urrezko markoan zentzurik gabe inguratua, txal berdea botata marko izkinara eta Michael Angeloren maisulan benetako aitortuaren gainera, Ramsay andreak lehenxeagoko bere jarrera zakarra goxatu, burua jaso eta muxu eman zion semeari kopetan. «Bila dezagun mozteko beste irudi bat», esan zion.

## 6

Baina zer gertatu zen?

Hutsa egin zuen norbaitek.

Hausnarketatik esnatuz, denbora askoan bere gogoan esanahi gabetzat edukitako hitzei

esanahia eman zion. «Hutsa egin zuen norbaitek» — Ondora zetorkion senarragan josiz bere begi miopeak, adi-adi begiratu zion, harik eta hurbiltzean konturatu arte (lelo hark gorputz hartu zuen bere buruan) zerbait gertatu zela, hutsa egin zuela norbaitek. Baina inondik inora ezin igarri zer ote zen.

Ramsay jaunak dardara egin zuen; ikara egin zuen. Bere harrotasun guztia, bere handitasunarekin zeukan gozamen guztia, tximista bezala zaldiz, heriotzaren haranean barrena bezala bere gizonen buruzagi, den-dena erraustu, suntsitu zen. Sua eta kea zeriola, zaldi gainean ausart, ziztu bizian heriotza-haranean barrena, erauntsi eta tximista — zuzenean Lily Briscoe eta William Bankes zeudeneraino. Ramsay jaunak dardara egin zuen; ikara egin zuen.

Inolaz ere ez zion senarrari hitz egingo, jabetzen baitzen, aztarna ezagun haietatik, begi saihestuak eta bere baitan biltzeko joera berezi harengatik, bere burua tolestu eta bakardadea behar balu bezala bere oreka berreskuratzeko, mindua eta ezinez zegoela. Ramsay andreak burua laztandu zion Jamesi; honengana zuzendu



zuen senarragatik sentitzen zuena, eta hau Army and Navy Stores katalogoko gizon baten etiketazko alkandora zuria horiz nola pintatzen zuen begira zegoen bitartean, burura etorri zitzaion zenbat poztuko zen, semea artista iaio bihurtuez gero; zergatik ez? Bekoki ederra zeukan. Orduan, senarra berriro ondotik igaro zenean, gora begiratu eta lasaitu egin zen hondamena ezkutatua ikusirik; etxekeitasuna garaille; usadioak bere erritmo barea xaramelatu zuen, eta hala, berriro itzultzerakoan leiho ondoran propio gelditu eta Jamesek agerian zeukan belauna zerbaiten adaxkarekin kilimatzeko makurtu zenean, apetatsu eta isekati, emazteak purrust egin zion «gazte gizarajo hura», Charles Tansley, ondotik bidali zuelako. Baina Tansleyk bere gelara joan behar izan omen zuen, tesi doktoralara idazteko.

«Hauetako egunen batean Jamesek ere idatzi beharko du bere tesi doktoralara», gaineratu zuen ironikoki, txotxari eraginez.

Aita gorrotatuz, Jamesek baztertu egin zuen kilimatzeko txotx hura, harekintxe zirikatzen baitzuen seme gazteenak agerian zeukan hanka,

hain modu berezian, seriosotasun eta umore artean.

Galtzerdi txatxu haiek bukatu nahian ari zen, biharamunean Sorleyren mutikoari igortzeko, esan zuen Ramsay andreak.

Ez zegoen aukera bakar bat biharamunean farora joateko, jalki zuen Ramsay jaunak sumindurik.

Nolaz zekien hori? galdetu zion emazteak. Haizea maiz aldatzen zen.

Sutan jarri zuen ateraldi haren zentzurik ezak, emakumeen eromenak. Heriotzaren haranean ibilia zen zaldiz, zirtzilaturik eta dardarka; eta orain emazteak gogor egiten zion begi-bistakoa zenari, ezinezko itxaropenak ernetzen zituen seme-alaben baitan, eta berez, gezurretan ari zen. Ramsay jaunak hankaz jo zuen harrizko koska. «Zoaz pikutara», esan zuen. Baina zer zen emazteak esandakoa? Agian eguraldi ona egingo zuela biharamunean. Agian bai.

Barometroa beheraka eta haizea mendebala izanik ez.

Egiari atzaparra bota nahia, inoren sentipenekiko begirune eza harrigarri harekin, hain

antsikabe, hain anker urratzea zibilizazioaren errezela xareak, hori hainbesteko laidoa iruditu zitzaion gizalegearen kontra non Ramsay andreak, ihardetsi ere gabe, zorabiatu eta itsuturik, burua apaldu baitzuen, txingor zakarraren jasak, ur zikinaren blaituak, txintik atera gabe zipriztindu zezan onartuz bezala. Ez zeukan ezer esateko.

Isilik geratu zen emaztearen alboan. Apaltasun handiz, azkenik, kostazainengana joango zela galdetzera esan zion, hala nahi bazuen.

Beste inor baino gehiago miresten zuen Ramsay andreak senarra.

Hartara sinetsiko zuen, esan zion. Orduan ez zuten ogitartekoak prestatu beharrik — hori zen kontua. Emakumea zenez, noski, beragana etortzen ziren egun guztian zehar, hau zela edo hura zela; batak hau nahi zuela, besteak hura; hazten ari ziren umeak; bera esponja bat zela iruditzen zitzaion sarritan, giza sentimenduz basitua. Eta orduan senarrak berari Zoaz pikutara, esan zion. Euria egingo du, esan zuen. Ez du euririk egingo, esan zuen; eta berehala segurtasunezko zeru bat zabaldu zen Ramsay andrearen aurrean.

Beste inor baino gehiago miresten zuen senarra. Ez zen gai haren oinetako lokarriak ere lotzeko, iruditzen zitzaion.

Jadanik lotsaturik bere handiuste hartaz, esku imintzio haietaz gudaroste buruan erasotzerakoan, herabe samar zirikatu zituen berriro semeak agerian zeuzkan hankak, eta gero, emaztearen baimena baleuka bezala, honi harri-garriro zooko itsas-lehoi handia gogorarazten zion mugimendu batekin, arraina irentsi ondoren buruz gora zerraldo erori eta igeri joaten zenean, horrela urmaeleko ura alderik alde astinduz, Ramsay jauna murgildu egin zen ilunabarreko airean, jadanik xumea, hosto eta hesien mamia hartzen ari zena, baina, ordainetan bezala, arrosa eta krabelinei egunez eduki ez zuten distira berreskuratuz.

«Hutsa egin zuen norbaitek», esan zuen berriro, pauso luzez terrazan gora eta behera.

Baina zer harrigarri aldatu zen haren doinua! Kukuaren antzera; «garagarrilean gelditzen da mutu»; praktikatzen ari balitz bezala, zalantzati bilatu nahian aldarte berri baterako esaldiren bat, eta eskura zeukan bakarra izanik huraxe

erabiliz, sobera entzuna egon arren. Baina barre-  
garria ematen zuen —«Hutsa egin zuen norbait-  
tek»— horrela esanda, ia galdera baten antzera,  
batere konbentzimendurik gabe, melodi baten  
antzera. Ramsay andreak ez zion irribarreari  
eusterik izan, eta laster, zinez, batera eta beste-  
ra zebilelarik, senarra xuxurlatzen hasi zen, isil-  
tzen, mututzen.

Salburik zegoen, intimitatea berreskuraturik.  
Pipa pizteko gelditu, emazteari eta semeari  
leihoan behin begiratu, eta hala nola trenean  
doanak begiak orritik altxatu eta bertako ilustra-  
zio edo baieztapen gisa ikusten dituen baserria,  
zuhaitza, etxalde multzoa, era horretan lehengo  
orrira indarturik eta kontent itzuliz, horrelaxe  
ere, semea eta emaztea bereizi gabe, haiek iku-  
sita indartu eta poztu egin zen, eta bere ahale-  
gin guztiak zuzendu zituen ongi ulertu ahal izat-  
eko arazo hura, une hartan bere adimen bikai-  
naren kemen guztia lanean zerabilena.

Bikaina zuen adimena. Zeren eta pentsamen-  
dua pianoaren teklatura bezalakoa bada, hain-  
beste notatan banakatua, edo alfabetoa bezala  
badago hogeita sei hizkitan sailkatua ordenan,

orduan bere adimen bikainak ez zeukan zailtasunik banan bana letra horien gainetik joateko, tinko eta zehatz, harik eta, esate baterako, Q hizkira iritsi arte. Q-raino iritsi zen. Ingalaterra guztian oso jende gutxi iristen zen inoiz Q-raino. Hartan, geranioen harrizko urna ondoan pixka batean geldituz, hantxe ikusi zituen, baina orain oso-oso urruti, umeak txirlak biltzen dituztenean bezala, aingeruen inozentziaz eta oinazpiko xaborrekin jardunean eta nolabait inolako babesik gabe, berak bai igarri zezakeen patuaren aurrean, emaztea eta semea, elkarrekin, leihotan. Bere geriza behar zuten; ematen zien. Baina Q-ren ostean? Zer dator hurrena? Q-ren ostean hainbat hizki daude, azkenekoa ozta-ozta ikus dezakete inoren begi hilkorrek, baina gorriz distirutzen du urrunean. Belaunaldi batean gizon bakarra iristen da inoiz Z-raino. Hala ere poliki legoke R-raino iritsi ahal baledi. Q behintzat hemen zegoen. Q-ri gogor eusten zion. Q segurtaturik zeukan. Q frogatzeko moduan zegoen. Q beraz Q bada, — R — Honenbestez pipa hustu zuen, urnako girten lanak egiten zituen ahari adarrean bizpahiru kolpe ozen emanaz, eta

aurrera segitu zuen. «Orduan R...» Haizea eman zion bere buruari. Irmotu egin zuen bere burua.

Hainbat bertute, sei gaileta eta ur pitxer batekin itsaso zakarraren menpe dagoen eski-faia salbatuko zuketena — tinkotasuna eta zuzentasuna, zuhurtzia, saiatzea, trebezia, etorri zitzaizkion laguntzera. R beraz da — zer da R?

Leihatila bat, muskerraren larruzko betilearen antzekoa, bere begirada trinkoaren gainera abaildu eta R hizkia lausotu zuen. Ilunpezko tximista hartan jendeari entzun zion esaten —kale egin zuela berak— ez zeukala K eskura. Ez zela inoiz R-raino iritsiko. Ekin berriro R-ri. R —

Hainbat bertute, polo aldeko bakardade izoztuetan barrena espedizio desolatu batean bera buruzagi, gidari, aholkulari bihurtuko zuketena, izaera ez grinati eta ez etsiarekin gertaerak zuhur aztertu eta gaindituz, berriro etorri zitzaizkion laguntzera. R —

Berriro abaildu zen muskerraren begia. Puztu egin zitzaizkion kopetako zainak. Urnako geranioa harritzeko moduan nabarmendu zen, eta hosto artean agerian ikus zezakeen, nahi izan gabe, bi gizon klaseen arteko bereizketa argi,

antzinako hori; alde batean gizagaindizko indarra daukaten ekintzaile tinkoak, tirriki-tarraka eta saiatur alfabeto osoa ordenan errepikatzen dutenak, hogeita sei hizki denera, hasieratik bukaeraraino; beste aldean dohaina, etorria dutenak, hizki guztiak batera hartzen dituztenak, miragarri, tximistak bezala — jenioaren moduan. Bera ez zen jenioa; ez zuen hori eskatzen: baina bazeukan, edo eduki ahal izan zuen alfabetoko hizki bakoitza Atik Z-raino orden zehatzean errepikatzeko ahalmena. Artean, Q-n zegoen trabaturik. Ekin bada, ekin R-ri.

Sentipenak sortu zitzaizkion, buruzagi baten izena belztuko ez zutenak, elurra hasi eta mendi gailurra laino denean etzan eta egunak argitu aurretik hil behar duela jakin arren, eta begieta-ko kolorea zurbildu zitzaion, zahartzaro ihartuaren itxura zurizta emanez, baita terrazan bi minutu bakar haietan ibili bitartean ere. Baina bera ez zen etzanda hilko; aurkituko zuen harkaitzen bat, eta hantxe, begiak ekaitzari josita, bukaera arte ilunpea zulatzeke ahaleginetan, zutik hilko zen. Inoiz ez zen iritsiko R-raino.



Zirkinik egin gabe gelditu zen, urnaren ondoran, geranio loreak zintzilik zeuden hartan. Mila milioi gizonen artean, galdetu zion bere buruari, zenbat iritsi zen azken batean Z-raino? Helburu eskuragaitz bat duen buruzagiak seguru hori galdetuko liokeela bere buruari, eta erantzun, atzeko espedizioari iruzur egin gabe, «Agian bakar bat». Belaunaldi batean bakarra. Haren errua al zen, beraz, bakar hori ez izatea bera? baldin eta lana fin egin badu, ahal duen ondoena jardun badu, emateko beste ezer geratu ez zaion arte? Noiz arte dirau haren ospeak? Hilzorian dagoen heroiak ere zilegi du hil aurretik pentsatzea nola hitz egingo duten gizonak beratzaz aurrerantzean. Agian bi mila urtez iraungo du haren ospeak? (galdetu zuen Ramsay jaunak ironiaz, hesiari begira). Mendi gailur batetik beheko mendeen mortu luzeei begiratu ez gero, zer? Botarekin ostikoz jotako harriak ere gehiago iraungo du Shakespearek baino. Inoren argitxoak distira egingo luke, ez sobera, urtebete edo biz, eta ondoren argi handiagoren batek zurrupatuko luke, eta hau beste hirugarren handiago batek. (Ilunpera begiratu zuen, adarren anaba-

sara). Nork egotzi ezer, beraz, helburu eskuragaitza duen talde horretako buruzagiari, azken batean nahikoa gora igo dena urteen mortua eta izarren suntsipena ikusteko, baldin eta, herioak mugitzeko gaitasuna kenduta, gorputz atalak gogortu aitzin, konorte apur batekin behatz suminduak bekokira altxatzen baditu, eta sorbaldak tinkatzen, ahalik eta ikertaldea datorrenean bere postuan hilik aurki dezaten, soldadu jarrera ederrean? Ramsay jaunak sorbaldak tinkatu eta erabat tentetu zen urnaren ondoan.

Nork egotzi ezer berari baldin eta, pixka batean horrela zutik, hausnartzen arituez gero ospeari buruz, ikertaldeein buruz, eskerroneko jarraitzaileek bere hezurren gainean jasotako oroitarriei buruz? Azkenik, nork egotzi ezer espedizio galduaren buruzagiari baldin eta mutur muturreraino ausartu, bere indarra azken hondar-reraino erabili, eta esnatuko den ala ez deus gutxi arduratuz lo hartu ostean jabetzen bada orain, behatzetako sastada batengatik, bizirik dagoela, eta oro har ez duela ezer bizitzearen kontra, baizik ulerpena behar duela, eta whiskia, eta baten bat bere sufrikarioen istorioa berehala

esan ahal izateko? Nork egotzi ezer hari? Nor ez da bere golkorako poztuko heroiak armadura erantzi, eta leiho ondoan gelditu eta begiratzen badie emazteari eta semeari, hauek hasieran oso urruti baina pixkana gero eta hurbilago, hauen ezpainak eta liburua eta burua argi asko aurrean dauzkan arte, nahiz eta hari dena artean maitagarria eta arrotza iruditu bere bakardade minagatik eta mendeen mortuagatik eta izarren suntsipenagatik, eta azkenik pipa poltsikoan sartuz eta bere buru aparta emaztearen aurrean makurtuz — nork egotzi ezer, halakok omen egi-ten badio munduaren edertasunari?

## 7

Baina semeak gorroto zion. Gorroto zion beren ondora etortzen zelako, gelditu eta goitik begiratzen zielako; gorroto zion etena sortzen zuelako; gorroto zion imintzio sutsu eta handios haiengatik; buru aparta harengatik; etengabeko eskakizun eta egotismo harengatik (hantxe zegoen zutik, aintzakotzat har zezaten agin-

tzen); baina batez ere gorroto zien aitaren zirra-  
ra sudurzulokari eta garrasilariei, hauek dardara  
egin eta oztopatu egiten baitzuten amarekiko  
harreman sinple eta zuhurtzia perfektukoa. Begi-  
rada orrian josiz, hari alde eginaraztea espero  
zuen; behatzarekin hitz bat seinalatuz, amaren  
arreta bereganatzea espero zuen, haserre kon-  
turatzen baitzen berehala barreiatzen zitzaiola,  
aita aldamenean gelditu bezain laster. Baina ez.  
Ezerk ez zion Ramsay jaunari alde eginaraziko.  
Hantxe zegoen zutik, ulerpen eske.

Ramsay andreak, ordura arte trankil eserita  
egona semea besotan hartuta, kemena bildu  
zuen, eta, erdizka itzuliz, bazirudien esfortzu  
batekin zutitzera zihoala, eta orduantxe ener-  
giazko ibai zuzen bat, aparrezko zutabe bat isu-  
riko zuela airera, aldi berean itxura animatu eta  
bizikoa, bere energia guztiak indar bihurtzen ari  
balira bezala, su eta argi emanez (isilik eserita  
egon arren, galtzeta-lanei berrekinda); eta jorita-  
sun goxo honetan, bizitzaren iturri eta apar  
honetan murgildu zen arraren antzutasun hiltzai-  
lea, latoi puska bezala, agor eta soil. Ulerpena  
nahi zuen. Kale egin omen zuen. Emazteak gal-

tzeta-burdinei distirarazi zien. Senarrak berriro esan zuen, emaztearen aurpegitik begiak behin ere aldendu gabe, kale egin zuela. Emazteak bidali egin zizkion atzera hitzak. «Charles Tansley...» esan zuen. Baina hori baino gehiago jaso behar zuen. Ulerpena jaso nahi zuen, jenioa zela segurta ziezaioten, ezer baino lehen, eta ondoren bizitzaren zirkulu barrura eraman zezaten, epelera eta patxadara, bere zentzuen jabe egin zezaten berriro, bere agortasuna emankor bihurtu, eta etxeko gela guztiak bizitzaz bete — saloia, saloi atzeko sukaldea, sukalde gaineko logelak, eta harantzagoko jolasgelak; jantzi egin behar ziren, bizitzaz bete behar ziren.

Charles Tansleyren ustetan garaiko metafisikorik onena zen, esan zuen emazteak. Baina hori baino gehiago jaso behar zuen. Ulerpena jaso behar zuen. Bera ere bizitzaren bihotzean bizi zela segurtatu behar zioten; bere beharra zegoela; hemen ez ezik baita mundu osoan barrena ere. Galtzeta-burdinei bristadak atera bitartean, konfiantzaz, tente, saloia eta sukaldea kreatu zituen, denak jarri zituen argitan; bertan eroso egotera gonbidatu zuen, sartu eta atera zedin,

disfruta zezan. Barre egin zuen, galtzeta eginez. Amaren belaunetan, oso irmo, Jamesek amaren indar guztia sentitu zuen furi-furian, zer eta gero ito eta agortzeko latoi puskaren aurrean, arraren zimitarra idorraren aurrean, errukirik gabe joka ari zena, behin eta berriro, ulerpen eske.

Galtzaile bat zen, esan zuen berriro. Tira, begira ezazu bada, senti ezazu bada. Galtzeta-burdinei bristadak atereaz, ingurura begira, leihoaz bestalde, gela barrura, Jamesi berari, segurtatu egin zion, zalantza arrastorik gabe, bere barre, bere jarrera, bere gaitasun haren bitartez (gela ilun batetik barrena kandela bat daraman inudeak ume bihurriari segurantzia ematen dion moduan), dena benetakoa zela; etxea beterik zegoela; baratza loretan. Beragan fede isila edukiez gero ezerk ez zuela kaltetuko; lur azpian ehortzi edo zeruraino igoez gero ere, berak ez ziola huts egingo. Ramsay andreari, dena besarkatu eta babesteko zeukan ahalmen harekin harroturik, ia ez zitzaion ezer bererik geratzen; dena oparitu eta xahutzen zuen; eta Jamesek, amaren belaunetan irmo, sentitu egin zuen lore arrosako fruta-arbola baten antzera

ama zutitzen, hostoak eta adarrak kulunka, bitartean latoi puska hura, aitaren zimitarra agorra, gizon egotista hura zulatu eta joka ari zelarrik, ulerpen eske.

Emaztearen hitzekin aserik, atseginez lokartzen den umearen antzera, azkenean, eskerron apalez begira, bere oneratua, berritua, bueltatxo bat ematera zihoala esan zuen; umeak crictean jolasten ikustera. Hala joan zen.

Berehala, Ramsay andrea bil-bil egin zela eman zuen, petaloak bata bestearen gainean, eraikuntza osoa erori egin zela nekez leher, eta hala, bere burua nekearen altzoan abandonaturik, Grimmen amandre istorioko orritik behatza eramateko indar doia zeukan, artean barrenean taupaka zeukalarik, udaberria zeharo zabaldu ondoren emeki ahitzen doan pultsuaren antzera, kreazio arrakastatsuen bozkarioa.

Senarra handik zihoala, bazirudien pultsuhonen taupada bakoitzak barruan hartzen zituela biak, eta arinaldi bat ematen ziela, bi nota desberdinek, bata altua, bestea baxua, batera jo eta konbinatzean ematen dutena bezalakoa. Oihartzuna mututu, ordea, eta berriro Amandre

Ipuinera itzuli zenean, Ramsay andrea ez zen sentitu gorputzez bakarrik nekatur (gerora, artean ez, beti sentitzen zen horrela), zeren bere unadura fisikoa beste jatorriko sentsazio desatsegin samarren batek ere likisten baitzuen. Ez zekien, Arrantzalearen Emaztearen istorioa buila handian irakurtzerakoan, sentsazio hura zehatz-mehatz nondik zetorkion; ez zion atsekabe hura bere buruari hitzez adierazten utzi, jabetu zenean, orria pasatu eta olatu bat motel, mehatxukor, erortzen entzutean, haren jatorriaz: ez zuela gogoko, ezta instant batez ere, bere burua senarra baino gorago sentitzea; eta areago, ezin zuela jasan, senarrari mintzo zitzaionean, hari esaten ziona egia ote zen zalantzan jartzea. Unibertsitateek eta jendeek maite zutela, bere hitzaldi eta liburuak garrantzi handikoak zirela — hori dena ez zuen momentu batez ere zalantzan jartzen; baina bien arteko harremana zen, eta baita beragana honela etortzea ere, agerian, edonork ikusteko moduan, egonezina sortzen ziona; emaztearen menpe zegoela esaten baitzuen orduan jendeak, aitortu beharrean, alde-rantziz, senarra anitzez garrantzitsuagoa zela,



eta berak munduari ematen ziona, senarrak ematen zionaren aldean, hutsa zela. Baina gainera beste gauza hura ere bazegoen — hari egia ezin esan izatea, beldurra, adibidez, negutegiko sabaia aipatzeko, haren konponketa gastua, berrogeita hamar libra agian; eta gainera liburuak zirela eta, bere susmo hura igarriko ote zion beldurra, alegia azken liburua ez zela libururik onena (William Bankesengandik antzeman zuen hori); eta gainera eguneroko gauza txikiak gordetzea, eta umeez igartztea, eta horrek bizkarrean jartzen zien zama — horrek denak urritu egiten zuen batera jotako bi noten poz osoa, poz hutsa, eta soinu hura geldotasun hits batekin isildu zen bere belarran.

Errainu bat azaldu zen orrian; Ramsay andreak gora begiratu zuen. Augustus Carmichael zen handik zirrin-zarran igarotzen, noiz eta orduan, hain mingarria zenean inork gogoraraztea giza harremanak desegokiak zirela, perfektuenak ere bazuela akatsik, eta ezin zuela jasan berak egiarako senez eta senarraganako maitasunez erabiltzen zuen azterketa; hain mingarria zenean sentitzea berari duintasun eza lepora-

tzen ziotela, eta jarduera zuzena oztopatzen zio-  
tela gezur hauek, exajerazio hauek — orduan  
bertan, hain modu makurrean amorrarazita  
zegoenean bere asaldura hura zela medio, Car-  
michael jauna igaro zen zirrin-zarran, txapin  
zuriekin, eta barruko deabruren batek hots egi-  
narazi zion, hura handik igarotzerakoan,  
«Barrualdera, jauna?»

## 8

Ez zuen ezer erantzun. Opioa hartzen zuen.  
Umeez ziotenez horregatik horitu zitzaion biza-  
rra. Beharbada. Ramsay andrearentzat argi  
zegoen gizarajoa ez zela zoriontsu, ihesbide  
moduan etortzen zela urtero beraiengana; eta  
hala ere urtero gauza bera sentitzen zuen: Car-  
michael jauna ez zela berarekin fidatzen. Esan  
zion, «Herrira noa. Ekarriko al dizkizut seiluak,  
papera, tabakoa?» eta haren dardarizoa sentitu  
zuen. Carmichael jauna ez zen berarekin fida-  
tzen. Emaztearen kulpa zen. Gogoan zeukan  
emazteak harekiko zuen zitalkeria, honengatik

bihurtu zen Ramsay andrea altzairua eta diamantea bezain gogor, St. John's Woodeko gela txiki zatar hartan bere begiekin ikusi zuenean emakume ziztrin hura senarra etxetik bidaltzen. Gizon enasa zen; gauzak erortzen zitzaizkion berokira; munduan zereginik gabeko agure baten asperdura zeukan; eta emazteak gelatik bidali zuen. Higuingarri esan zion, «Tira, Ramsay andreak eta biok hitz-aspertu bat egin nahi dugu», eta Ramsay andreak ikusi egin zituen, begi aurrean baleuzka bezala, Carmichael jaunaren bizitzako miseria ugariak. Nahikoa diru bate zeukan tabakoa erosteko? Dirua eskatu beharra izaten ote zuen? koroa erdia? hemezortzi penike? Oh, ezin zituen eraman emazteak hari sufriarazten zizkion laido txikiak. Eta orain beti (ezin zuen asmatu zergatik, non eta emakume harengatik ez zen) ihes egiten zion berari. Ez zion inoiz ezer esaten. Zer gehiago egin zezakeen berak? Gela eguzkitsu bat paratu zion. Umeak ondo portatzen ziren harekin. Berak inoiz ez zuen ezagutzera eman gogokoa ez zuenik. Berak ahalegin guztiak egiten zituen jatorra izateko. Nahi al dituzu seiluak, nahi al duzu taba-

koa? Agian liburu hau gustatuko zaizu, eta abar. Azken finean — azken finean (une honetan, oharkabean, bere baitara bildu zen, fisikoki, zeren andre ederra zeneko irudipena ari baitzitzaien nagusitzen, gutxitan bezala) — azken finean, berak ez zuen normalean inongo zailtasunik jendea beratzaz zaletzeko; esate baterako, George Manning; Wallace jauna; ospetsuak izan arren, arratsalde-pasa etortzen ziren beragana, patxadan, sutondoan berarekin hitz egitera. Soinean zeraman, bera ere ezin egon konturatu gabe, edertasunaren zuzia; tente eramaten zuen sartzen zen edozein gelatan; eta azken finean, nahiz eta hura ezkutatu ahal izan, eta hark agintzen zion jokabide monotonoari muzin egin, nabaria zen bere edertasuna. Miretsia izan zen. Maitatua izan zen. Lutodunak eserita zeuden geletara sartu izan zen. Malkoak hegaldatu izan ziren bere presentzian. Gizonek, eta baita emakumeek ere, gauzen aniztasuna aintzat hartu gabe, berarekin sinpleziaren lasaitasuna erabili izan zuten. Iraingarria zen Carmichael jauna berarekin hala izutzea. Mina hartzen zuen. Eta hala ereargiro ez, zuzenki ez. Hori zen esan nahi

zuena, senarragatik zeukan atsekabeari gaineraturik; Ramsay andrearen irudipen hura, Carmichael jauna zirrin-zarran igarotzean, galderari baiezkoa soilik eginez, liburu batekin galtzarbean, txapinak soinean, alegia bere susmoa zeukala; eta bere eman behar hura, lagundu behar hura, hutsala zela. Bere buruari atsegin ematearren nahi al zuen senez lagundu, oparitu, jendeak beratzaz esan zezan, «Oh, Ramsay andrea! Ramsay andre jatorra... Ramsay andrea, noski!», hartara besteek bere beharra izan eta deitu eta mirets zezaten? Ez al zuen ezkutuan horixe nahi, eta horrela, Carmichael jaunak ihes egiten zionean, orduantxe bezala, izkinen batera joanda etengabe akrostikoak egitera, bere sena bazterturik sentitzeaz gain, antzematen zuen bere baitako alderdi batzuk kaxkarrak zirela, eta giza harremanak ere beren onenean okerrak zirela, ziztrinak, berekoiak. Narras eta akituta, eta segur aski (masailak hexurtuta zeuzkan, ilea zurituta) jadanik inoren begiak atseginez betetzeko gauza ez zenez, hobe zuen bere arreta eskaini Arrantzalea eta Emaztearen istorioari, eta hartara nola hala goxatu sentikortasunezko

mataza hura (beste seme-alabarik ez zeukan hura bezain sentikorrik), bere seme James.

«Gizonaren bihotza goibeldu egin zen», irakurri zuen ozenki, «eta ez zuen joan nahi. Bere artean esan zuen “Ez da zuzena”, baina hala ere joan egin zen. Eta itsasora heltzean ura zeharo purpura eta urdin iluna zegoen, eta arrea eta lausoa, eta ez lehen bezain berde eta hori, baina artean bare. Eta bertan zutik zegoelarik esan zuen...»

Ramsay andreak nahiago izango zukeen senarrak momentu huraxe aukeratu ez balu bertan gelditzeko. Zergatik ez zen joan arestian esan bezala umeak cricketean jolasten ikustera? Baina ez zen mintzatu; begiratu, baiezkoa egin, oniritzi eta aurrera jarraitu zuen. Handik lerratu zen, aurreko hesiari begira, zeinak behin eta berriro borobiltzen baitzituen etenaldiak, eta ondorioak eragiten, emaztea eta semea ikusita, urna haiek berriro ikusita, gogoetak eta asperraldiak hainbeste aldiz apaindu zituzten geranio gorri dilindakorrekin bitartez, hosto artean idatziz, irakurri ahala oharrak zirriborratzeko paper muturrak balira bezala — guzti honi begira,

emeki lerratu zen *The Times*-eko artikulu batek iradokitako hausnarketara, Shakespearen etxea urtero bisitatzeko duen amerikar kopuruari buruz. Shakespeare bizi izan ez balitz, galdetu zuen, mundua oso desberdina izango ote zen gaur egungoaren aldean? Gizon handien menpe al dago zibilizazioaren aurrerapena? Faraoiak baino hobea al da orain gizaki arruntaren bizi-maila? Nolanahi ere gizaki arruntaren bizi-maila al da, galdetu zion bere buruari, zibilizazioa neurtzeko irizpidea? Segur aski ez. Ongizate handienak segur aski esklabo klase bat egoitea eskatzen du. Metroko igogailu-zaina premia eternala da. Desatsegina zitzaion gogoeta hau. Burua astindu zuen. Hori ebitatzeko, bideren bat aurkituko zuen artearen nagusigoa zapuzteko. Mundua gizaki arruntarentzat zela argudiatuko zuen; artea apaingarri bat besterik ez dela, giza bizitzaren gailurrean ezarria; ez dela bizitzaren adierazpen. Shakespeare ere ez dela beharrezkoa bertan. Zehatz jakin gabe zergatik gutxietsi nahi zuen Shakespeare, eta eternalki igogailuaren atarian dagoen gizona salbatzera joan, hosto bat hartu zuen hesitik gogor. Hau dena jarri

beharko zitzaien mahai gainean Cardiffeko mutil gazteei hurrengo hilean, pentsatu zuen; hemen, bere terrazan, zulomiran eta picnic-ean besterik ez zebilen (bota egin zuen hain haserre bildutako hostoa), arrosa sorta bat biltzeko zaldi gaine-tik eskua luzatzen duen gizona bezala, edo pol-tsikoak intxaurrez betetzen dituen bezala, bere gisa dabilen bitartean mutil kozkorretatik ezagu-tzen duen lurralde bateko bidezidor eta soroeta-tik. Dena zen etxekoia; bihurgune hau, hesiko ataka hura, soroan zehar zihoan bide-zidor hura. Arratsalde-ordu osoak igaro ohi zituen horrela, pipa erretzen, gora eta behera eta harantz eta honantz aspaldiko bidezidor eta auzo-lur zahar ezagunetatik, denak mukururaino beteak harako kanpaina haren kondairarekin, honako agintari honen bizitzarekin, olerki eta pasadizoekin, baita pertsonaiekin ere, pentsalari hau, soldadu hura; guztia bizkor eta argi; baina azkenean bidezido-rrak, soroak, auzo-lurrak, intxaurrondo emanko-rrak eta hesi loratuak errepideko bihurgune urrun hartaraino eramaten zuten, eta bertan beti zalditik jaitsi, zuhaitz bati lotu, eta oinez jarrai-



tzen zuen bakarrik. Belardi ertzera iritsi eta beheko badiara begiratu zuen.

Patu huraxe zuen, berezitasun huraxe, berak nahi ala ez, itsasoak pixkana jaten duen lur adarrera iritsi eta bertan geratzea, itsas hegazti desolatuaren antzera, bakardadean. Boterea zeukan, dohaima, azaleko guztia berehala jaurtitzeko, bere burua murriztu eta ñimiñotzeko, horrela biluzago eman eta iharrago sentituz, baita gorputzez ere, hala ere bere izpirituak trinkotasun izpirik galdu gabe, eta hala bere koska txikian egoteko, giza ezjakintasunaren ilunpearekin aurrez aurre, ikusiz nola ezer ez dakigun eta nola jaten duen itsasoak gu gauden lurra — botere hori zuen, dohain hori. Baina zalditik jais-tean harrika bota zituenez imintzio eta huskeria guztiak, intxaur eta arrosazko sari guztiak, eta bere burua murriztu zuenez ospea ez ezik bere izena ere ahazteraino, desolazio horren erdian ere fantasmarik onartzen ez zuen ernetasun bati eusten zion eta ez zuen inongo bisionirekin gozatzeko, eta era honetan sortzen zuen William Bankesengan (aldian behin) eta Charles Tansleygan (apaltasunez) eta emazteagan ere oraintxe,

honek gora begiratu eta belardi ertzean zutik ikusi zuenean, begirune sakona, eta errukia, eta baita eskerrona ere, hala nola ubide zolan iltzatutako hesolak, gainean kaioak pausatu eta olatuek erasotzen dutena, eskerronezko sentimendua sortzen duen ontzilari alaien artean, bere gain hartu duelako ubidea markatzeko ardura, hortxe, itsasgoraren bakardadean.

«Baina zortzi umeren aitak ez dauka aukerarik...» Erdi ozenki marmarrean, isildu, jiratu, suspiriatu, begiak jaso eta mutikoari ipuinak irakurtzen ari zitzaion emaztearen irudia bilatu zuen; bere pipa bete zuen. Jiratu egin zen gizakiaren ezjakintasunetik eta gizakiaren patutik eta gu gauden lehorra jaten duen itsasoa ikustetik, nahiz huraxe arretaz kontenplatu izan balu agian zerbait lortuko zukeen; eta orduantxe aurrean zeukan gai gorenaren aldean hain huskeria kaxkarretan aurkitu zuen kontsolamendu, non gogoia izan baitzuen atsegin hari ezikusia egin eta gaitzesteko, mundu negargarri batean zoriontsu izatea balitz bezala krimenik makurrena gizon ondratuarentzat. Egia, gehienetan zoriontsu zen; emaztea zeukan; seme-alabak;

hitza emana zeukan sei asteren buruan «txorakeria batzuk» esango zizkiela Cardiffeko mutil gazteei Locke, Hume, Berkeley eta Iraultza Frantsesaren arrazoiei buruz. Baina hau dena, eta bere perpausek, gaztetako sugarrak, emaztearen edertasunak, Swansea, Cardiff, Exeter, Southampton, Kidderminster, Oxford, Cambridgetik zetozkion laudorioek ematen zioten plazera — dena gaitzetsi eta ezkutatu behar zen «txorakeriak esan» perpausaren azpian, zeren, izan ere, ez baitzuen egin zezakeen guztia egin. Mozorro bat zen; bere sentimenduen jabe izateari beldur dion gizon baten gordelekua zen, ezin zuen esan Niri hau gustatzen zait, ni hau naiz; eta errukarri eta desatsegin samarra iruditzen zitzaien William Bankes eta Lily Briscoeri, halako ezkuteriak zergatik ziren beharrezkoak galdetzen baitzioten beren buruari; zergatik behar zuen beti goraipamena; pentsamendutan hain ausarta zen gizona zergatik ote zen bizitzan hain lotsatia; zer modu harrigarrian zen, aldi berean, miresgarri eta barregarri.

Irakasteak eta predikatzeak giza indarra gainditzen dute, susmatzen zuen Lilyk. (Bere

tresnak jasotzen ari zen). Goratzen bazaituzte joko duzu nola hala behea. Ramsay andreak errazegi eman dio beti senarrari eskatzen zuena. Horregatik sortuko luke ondoeza handia edozein aldaketak, esan zuen Lilyk. Liburu artetik etorri eta denok jolasean eta txorakeriak esaten aurkitzen gaitu. Kontu egizu zenbateko aldea dagoen hortik berak pentsatzen dituen gauzetara, esan zuen.

Bazetorkien gainera. Orduan gelditu eta itsasoari begira jarri zen isilik. Gero buelta eman zuen berriro.

## 9

Bai, esan zuen Bankes jaunak, hura nola urruntzen zen begira. Ikusgarrizko pena zen. (Lilyk zerbait esan zuen, beldurra ziola edo — hain agudo aldatzen baitzen umorez). Bai, esan zuen Bankes jaunak, ikusgarrizko pena zen Ramsay jaunak gainerako jendearen antzerago ez jokatzea. (Lily Briscoe gustatzen zitzaion; argiro solasta zitekeen honekin Ramsayri buruz).

Horrexegatik, esan zuen, gazteek ez dute Carlyle irakurtzen. Olo-ahia hotzagatik muturtu egiten zen purrustero zahar petral batek zergatik predikatu guri? uste zuen Bankes jaunak esaten zutela gazteek gaur egun. Ikusgarrizko pena zen uste izatea, hala uste zuen berak ere, gizateriaren irakasle bikainenetako bat zela Carlyle. Lilyk lotsaturik aitortu beharra zeukan ez zuela eskola garaiaz gero Carlyle irakurri. Baina Lilyren iritziz are atseginagoa zen Ramsay jauna, zeren honek behatz txikerrean mina bazeukan mundua bukatzera zihoala uste baitzuen. Baina hori ez zen Lilyri axola zitzaiona. Izan ere, nor engaina zezakeen hark? Argiro eskatzen zuen losintxa zezaten, mirets zezaten, haren amarru txikiek ez zuten inor engainatzen. Harengan gustatzen ez zitzaiona hertsikeria hura zen, itsukeria hura, esan zuen, Ramsayri atzetik begiratu bitartean.

«Zuri samarra?» iradoki zuen Bankes jaunak, bera ere Ramsay jaunaren bizkarrari begira, zeren ez al zeukan gogoan bere adiskidetasuna, eta Camek lorea ukatu izana, eta neska-mutil horiek denak, eta bere etxea, eroso askoa baina emaztea hil zenetik hain isila? Lan asko egina

zen, noski... Nolanahi ere gustura hartuko zuen Lily berarekin ados etortzea Ramsay jauna «zuri samarra» zela esatean.

Lily Briscoek pintzelak biltzen jarraitu zuen, gora begira, behera begira. Gora begira, hantxe zegoen —Ramsay jauna— eurenganetzen, gerriei eragiten, antsikabe, bere baitaraturik, urrun. Zuri samarra? galdetu zuen. Oh, ez —gizonik egiazaleena, leialena (ondoan zuten berriro), onena; baina behera begira, pentsatu zuen, bere inguruan dago bildua, tiranoa da, okerra da; eta behera begira jarraitu zuen, propio, soilik horrela jarraitu baitzezakeen lasai, Ramsaytarrenean egon bitartean. Zuzenean gora begiratu ez gero han agertzen zen familia osoa, berak «maitemina» deitzen zionaz gainezka. Partaide bilakatzen ziren unibertso irreal baina sarkor eta zirraragarri batekoak, alegia maitasunaren begiz ikusitako mundukoak. Eurei erantsia zegoen zerua; eurengandik zehar kantatzen zuten txoriek. Eta are zirraragarriagoa zena, baita ere sentitu zuen, Ramsay jauna hurbiltzen eta aldentzen ikustean, eta Ramsay andrea leiho ondoan Jamesekin eserita, eta

hodeia mugitzen eta zuhaitza makurtzen, nola bizitza, inork banaka-banaka bizitzen dituen gertaera txiki separatuz osatuta egotetik, bat-batean kuzkurtu eta harrotzen zen olatua bezala, berarekin batera inor gora altxatu eta berarekin batera mor beheara boteaz, hantxe, burrunba batekin, hondartzan.

Bankes jaunak esperantza zeukan Lily Briscoek erantzun egingo zuela. Eta bazihoan hau zer-bait esatera Ramsay andrea kritikatz, alegia hura ere, bere modu berezian, estutasun sortzaillea zela, larderiatsua, edo antzeko hitzak, baina edozein solas alferrikako bihurtu zen Bankes jaunaren orduko estasiarekin. Hala izan zuen, kontuan hartuez gero haren adina, hirurogeietan sartua, eta haren txukuntasuna eta haren jarra inpersonala, eta itxuraz soinean zeraman estalki zuri zientifikoa. Ramsay andreari modu hartan begiratzea, Lilyk ikusi bezala, estasia zen, Lilyren ustez dozenaka gizon gazteren maitasunen parekoa (eta agian Ramsay andreak ez zuen inoiz dozenaka gizon gazteren maitasuna piztu). Maitasuna zen, pentsatu zuen Lilyk, oihala mugitzeko itxura eginez, eta gainera destilatua eta

iragazia; xedeari atxikitzen inoiz saiatzen ez zen maitasuna; aitzitik, matematikoek beren sinbolo-ei dien maitasuna bezala, edo poetek beren esaldiei, munduan zehar sakabanatzeko eta giza ondarearen zati bihurtzeko jaiotakoa. Halaxe zen, bai. Ongi egongo zen munduak estasi hura ikusi ahal izatea, Bankes jaunak adierazi ahal izan balu zergatik atsegin zitzaion hainbeste emakume hura; ea zergatik emazteak semeari ipuina irakurtzen ikusteak sortzen zion zirrara hura, problema zientifiko bat argitu osteko berbera; hartara, hura kontenplazten geratu, eta landareen sistema digestiboari buruzko zerbait absolutua frogatzen zuenean bezala, sentitu zuen basakeria otzandua zegoela, eta kaosaren erresuma menperatua.

Estasi hark —zeren nola deitu bestela?— esatera zihoan guztia ahaztarazi zion Lily Briscoeri. Ez zen garrantzizko ezer; Ramsay andreari buruzko zerbait. Indarra galdu zuen berak hainbeste eskertzen zuen «estasi» haren, begirada isil haren aldean; izan ere beste ezerk ez zion hainbeste barrena goxatzen, bizitzaren aurreko txundidura arintzen, eta bertako zamak mirariz



bezala altxatzen, botere goren honek adina, zeruetako dohain honek adina, eta honi, iraun bitartean, ezin zitzaion kalterik sortu, hala nola ezin den hautsi zoruaren mailan etzanda dagoen eguzkiaren argi arrastoa.

Jendeak honela maitatzea, Ramsay andrea-gatik hau sentitzea Bankes jaunak (hausnarkor begiratu zion honi), lagungarria zen, goresgarria. Zapi puska zahar batean garbitu zituen pintzelak bata bestearen ondoren, umil, propio. Ezkutatu egin zen emakume guztiengana heltzen zen mirespenetik; laudaturik sentitu zuen bere burua. Begiratzen utzi zion; berak kirika egingo zion bere koadroari.

Negar egiteko modukoa zen. Txarra zen, txarra, izugarri txarra! Beste era batean egin ahal izan zuen, noski; kolorea urritu eta lausotu ahal izan zuen; forma etereoak; horrela ikusiko zuen Pauncefortek. Baina berak ez zuen modu horretan ikusten. Kolorea sutan ikusi zuen altzairuzko eraikin batean; mitxeleta-hegal baten argia katedral bateko arku gainean etzaten. Guzti horretatik badaezpadako arrasto bakar batzuk soilik geratu ziren oihal gainean zirriborraturik.

Eta inoiz ere ez zen ikusia izango, inoiz ere ez eskegia, eta hantxe zeukan Tansley jauna belarrira xuxurlatzen, «Emakumeek ez dakite pinta-tzen, emakumeek ez dakite idazten...»

Orain gogoratu zitzaion lehen Ramsay andreari buruz esateko zorian egon zena. Ez zekien nola adierazi izango zuen; baina kritika-ren bat izango zen. Amorrarazi egin zen iragan gaueko larderia batekin. Bankes jaunak begira-tzen zuen angelu beretik begiratzuz Ramsay andreari, pentsatu zuen inongo emakumek ezin zuela beste emakume bat miretsi gizon honek adina; Bankes jaunak bien ganean zabaldutako gerizpean soilik bila zezaketen babesak. Honen begiradaren argiari jarraituz, berak ere bere izpi berezia gaineratu zuen, bere artean pentsatuz Ramsay andrea zalantzarik gabe pertsonarik zoragarriena zela (liburu ganean burua apaldu-ta); onena agian; baina, era berean, han ikusten zen forma perfektuaren aldean desberdina. Baina zergatik desberdina, eta nola desberdina? galdetu zion bere buruari, bere paletatik karras-katuz tontor urdin eta berde guzti haiek, orain bizitzarik gabeko lur zokorren antzekoak, baina

zin egin zuen arnasa emango ziela, mugitu eta jariatzera behartu, bere agindua betearaziko ziela biharamunean. Zertan zen Ramsay andrea desberdina? Zer izpiritu zeukan barruan, zer funtsezko gauza, posible egiten zuena sofa izkinan goante bat aurkituez gero, jakitea, behatz okertuagatik, inondik ere harena zela? Abiaduragatik txoria zen, zuzentasunagatik gezia. Egoskorra zen; aginduzalea (noski, gogorarazi zion Lilyk bere buruari, emakumeekin dituen harremanetan ari naiz pentsatzen, ni askoz gazteagoa naiz, hutsaren hurrengo neskatxa, Brampton Road bazterrean bizi dena). Logeletako leihoak zabaldu. Ateak itxi. (Horrela saiatzen zen bere baitan pizten Ramsay andrearen doinua). Gauean berandu iritsi, logelako atean kraskatako txiki bat jo, larruzko beroki zahar batean bilduta (horrelakoa baitzen beti haren edertasunaren antolaketa — presakakoa baina egokia), eta edozein gauza antzeztuko zuen — Charles Tansley aterkia galtzen; Carmichael jauna sudurrari tira eta tira; Bankes jauna esaten, «landareek gatza galdu dute». Oso trebe ematen zion guzti honi itxura; baita maltzurki itsustu ere; eta, leiho

aldera joanez, joan beharra baleuka bezala egin —egunsentia zen, eguzkia jaiotzen ikus zezakeen erdizka jiratu, intimitate handiagoz baina hala ere beti barrez, eta insistitu egiten zuen, beharrezkoa zela Lilyrentzat, beharrezkoa Mintarentzat, beharrezkoa zela ezkontzea denentzat, zeren eta, norberari hainbat erramu-lore botata ere (baina Ramsay andreari bost axola zitzaion Lilyren pintura), eta hainbat garaipen lortuta ere (seguruenik Ramsay andreak ere bildu zuen hauetatik bere parte), eta une honetan tristatu egiten zen, goibeldu, eta aulkira itzultzen zen, ez baitzegoen zera zalantzan jartzerik: ezkondu gabeko emakumeak (orduan eskua hartzen zion pittin batean goxoki), ezkondu gabeko emakumeak bizitzaren alderdi ona huts egin duela. Ume lokartuz betea ematen zuen etxeak, eta Ramsay andrea entzuten; argi moteldu eta arnasa erregularrez betea.

Oh baina, esan ohi zuen Lilyk, berak aita zeukan; etxea; baita, esatera ausartu balitz, bere pintura ere. Baina guzti honek huskeria ematen zuen, birjina, bestearen aldean. Gauak aurrera egitean, ordea, eta argi zuriek gortinak erdibi-

tzean, eta lantzean behin txoriren bat lorategian txioka hastean, berak orduan etsi-etsian kemena bilduz bere burua salbuespentzat aurkezten zuen lege unibertsal hartan; bere buruaren alde egiten zuen; bakarrik egotea gustatzen zitzaiola; bere buruaren jabe izatea gustatzen zitzaiola; bera ez zela horretarako egina; eta orduan topo egin behar izaten zuen sakonera paregabeko begirada irmo harekin, eta baita aurre egin ere Ramsay andrearen segurtasun xumeari (umearen antzekoa bihurtzen zen hura orduan), alegia Lily kuttuna, Briscoe txikia, tuntuna zela. Ondoren, gogoan zeukan, burua Ramsay andrearen magalean jarri ohi zuen, barre eta barre eta barre, ia histeriaz barrez, pentsaturik zer patxada ederrean kontrolatzen zituen Ramsay andreak besteren destinuak, inondik inora ulertu ezin zituenak. Hantxe zegoen eserita, xume, serio. Lilyk zentzua berreskuratu zuen berriro — hau zen goantearen behatz okertua. Baina zein santutegitan sartu berri zen? Azkenean gora begiratu eta hantxe zegoen Ramsay andrea, Lilyren barrea zerk eragin zuen igarri gabe, artean kontrolatzen, baina ordurako egoskorke-

ria zantzu guztiak deseginda, eta borren ordeztasun bat zegoen, hodeiek azkenean agerian utzitako espazioaren antzera — ilargi ondoan lo egiten duen espazio puska.

Zuhurtzia al zen? Jakinduria al zen? Edertasunaren engainua al zen berriro, hartara inoren pertzepzio guztiak, egiaren erdibidean zeudenak, urrezko lardaska batean nahasten zirelarik? edo hark barruan sekreturen bat al zeukan giltzapean, Lilyren ustez jendeak eduki beharrekoa ahalik eta munduak aurrera egin ahal izan dezan? Denek ez zeukaten zalaparta berean bizitzerik, egunean egunekoarekin. Baina inork ezer baldin bazekien, ba al zeukan inori esaterik zekien hura? Lurrean eserita, besoak Ramsay andrearen belaun inguruan, ahal bezain ondoan, Ramsay andreak kixkurtze haren arrazoia inoiz ez zuela jakingo pentsatzean irribarretsu, imajinatu zuen gorputzez ukitzen zuen emakume haren buru eta bihotz txokoan aurki zitezkeela, erregeen hilobietako altxorrak bezala, izkribu sekretuen oholak, deszifratu ahal izanez gero den-dena irakatsiko ziotenak edonori, baina inoiz ez zirenak agerian jarriko, ezagutzera emango.

Zer modu ote zegoen amodioa edo azkartasunaren bidez txoko ezkutuetan sartu ahal izateko? Zer tresna ote zegoen gurtutako objektuarekin batasun bakarra eta bera osatzeko, pitxer bereira isuritako urak bezala? Hori erdiesteko gauza al zen gorputza, edo adimena, garuneko pasabide korapilatsuetan fin-fin elkartzuz? edo bihotza? Gauza al zen amodioa, jendeak zioen moduan, bera eta Ramsay andrea bat egiteko? zeren ez baitzen jakinduria, batasuna baizik, berak desio zuena; ez inongo ohol izkribu, ez gizonak ezagutzen zuen edozein hizkuntzan idatzitako ezer, baizik intimitatea bera, hori baita jakinduria, pentsatu zuen Lilyk, burua Ramsay andrearen belaun gainean kokatuz.

Ez zen deus gertatu. Deus ez! Deus ez! burua Ramsay andrearen belaunaren kontra eduki bitartean. Eta hala ere bazekien jakinduria eta zuhurtzia zeudela Ramsay andrearen bihotzean jasota. Baina nola, galdetu zion bere buruari, inori buruz hau edo beste jakin, zigilupean baldin badago? Erlearen antzera soilik, ukitu edo dastatu ezin den aireko gozotasun edo mintasun batek erakarrita, hurbil zitekeen kupula formako

erlategira, zeharka zitezkeen aireko mortuak munduko lurraldeetan barrena bakardadean, eta hurbil zitekeen ondoren erlategiko zurrumurru eta ardailara; erlategi hauek jendea ziren. Ramsay andrea zutitu egin zen. Lily zutitu egin zen. Ramsay andrea joan egin zen. Egunetan zehar, hala nola amets baten ondoren aldaketa xume bat sumatzen den ametseko pertsonagan, aldamenean eduki zuen zurrumurru hotsa, esandako edozein gauza baino biziago, eta saloiaren leiho ondoko zumitzezko besaulkian esertzen zenean itxura goresgarria hartzen zuen Lilyren begietan; kupula baten forma.

Bankes jaunaren argi izpiaren parean joan zen bere argi izpia ere zuzenean Ramsay andreaganaino, hau James belaunetan jarrita zegoelarik irakurketan. Baina bera begiratzen ari zen bitartean, Bankes jaunak amaitu egin zuen. Jantzita zeuzkan betaurrekoak. Atzeraka joanda zegoen. Eskua jasota zeukan. Begi urdin argiak pittin bat kizkurtuta zeuzkan, orduantxe Lily esnatu eta konturatu zenean hura zertan ari zen, eta aztoratu egin zen, jotzera doakion eskua ikusten duen zakurrak bezala. Gustura erauziko



zukeen koadroa astotik, baina bere artean esan zuen: hola behar du. Animoak eman zizkion bere buruari, norbait bere koadroari begira egotearen estutasun latza jasan ahal izateko. Hola behar du, zioen, hola behar du. Eta ikusi beharrekoa bazen, Bankes jauna ez zen beste zenbait bezain asaldatzaile. Baina beste norbaiten begiek ikus-tea bere hogeita hamahiru urteen kondarra, eguneroko bizitzaren hondakina, hura dena nahasturik ikuslea bitarte guzti hartan inori aipatu edo agertu gabeko zerbait sekretuagoarekin, sekulako agonia zen. Halaber, ikusgarri zirraragarria zen.

Ez zegoen hotzago eta lasaiago izaterik. Labana atereaz, Bankes jaunak oihala ukitu zuen hezurrezko girtenarekin. Zer adierazi nahi zuen forma hirukitu purpura harekin, «horko horretan?» galdetu zion.

Ramsay andrea Jamesi irakurtzen, erantzun zuen. Bazekien haren juzkua — ez zeukala giza tankerarik. Baina bere asmoa ez zen izan antzeko zerbait egitea, esan zuen. Zergatik jarri zituen orduan han? galdetu zion. Bai, zergatik? — bada han, ertz hartan argia zegoelako, eta hemen,

honetan, ilunpe beharra sentitu zuelako. Hain xume, bistako, arrunt izan arren, Bankes jaunak interesa zeukan. Beraz ama-sembleak —gorazarre unibertsaleko gaiak, eta kasu honetan amak eder ospea zeukan— desohorerik gabe urritu ahal ziren, oldoztu zuen, itzal purpura bihurtzeraino.

Baina ez zen haien erretratu bat, esan zuen Lilyk. Ez behintzat Ramsay jaunak emandako zentzu berean. Bazeuden modu gehiago ere haiek gorestekoa. Hemengo itzal hau edo horko argitasun horren bitartez, esate baterako. Horrela ematen zion gorputz bere omenaldiari, baldin eta, erdizka uste zuenez, koadroak omenaldi izan behar bazuen. Ama-sembleak desohorerik gabe urritu ahal ziren itzal bihurtzeraino. Hemengo argitasunak haranzko itzala eskatzen zuen. Hausnartzen zegoen Bankes jauna. Interesa zeukan. Ikuspegi zientifikotik hartzen zuen, borondate on osoarekin. Egia esan bere aurreiritzi guztiak alderantzizkoak ziren, azaldu zuen. Bere saloiko koadrorik handiengan, pintoreek goraiapatua eta ordaindu baino garestiago iritzi ziotena, Kennet ibai bazterreko gereziando lora-

tuak ageri ziren. Kennet ibai bazterretan igaro zuen eztilargia, esan zuen. Joan behar zuen Lilyk koadro hura ikustera, esan zuen. Baina orain — betaurrekoak goraturik jiratu zen oihala zientifikoki aztertzeke. Arazoa zera zenez, zer-nolako harremana zegoen masa, argi, eta itzalen artean, oneski esanda inoiz kontuan hartu ez zituen gauzak, esplikatzea nahiko zukeen — zer erdietsi nahi zuen Lilyk? Eta beren aurreko eszena seinalatu zuen. Hara begiratu zuen Lilyk. Ezin zion erakutsi zer erdietsi nahi zuen, berak ere ezin antzeman, pintzelik gabe eskuetan. Berriro hartu zuen lehengo pintatzeko jarrera, begiak lauso eta bere baitaraturik, emakume zen alde-tik jasotzen zituen inpresio guztiak zerbait askoz jeneralagoaren menpe jarritz; bere burua berriro bisione harixe uztartuz, behin argiro ikusi izandakoa, eta orain hesiak eta etxeak eta amak eta umeen artean haztaka bilatu beharrekoa — koadroan bertan. Kontua zen, etorri zitzaion gogora, nola lotu eskuineko masa ezkerrekoarekin. Adarraren arrastoa zeharka eramanez egin zezakeen, holaxe; edo aurreko hutsunea objektu baten bidez (James agian) apurtuz, holaxe. Baina

horren arriskua zen batasuna apur zitekeela. Isildu egin zen; ez zuen Bankes jauna aspertu nahi; arin kendu zuen oihala astotik.

Baina ikusi egin zioten; harrapatu egin zioten. Gizon honek oso barruko zerbait elkarbanatu zuen berarekin. Eta horregatik eskerrak eman ez Ramsay jaunari eta Ramsay andreari eta orduari eta lekuari, ordura arte susmatu ez zuen botere bat iritziz munduari, alegia posible zela galeria luze hartan behera joatea, jadanik bakar-dadean ez, baizik norbaiti besotik helduta — munduko sentipenik arraroena eta suspergarriena— bere pintura-estutxearen gakoa beharrezko baino gogorrago itxi, eta bazirudien gako hark zirkulu berean batu zituela betirako pintura-estutxea, belardia, Bankes jauna eta bihurri basati hura, Cam, korrika batean handik barrena igaro zena.

## 10

Gutxigatik ez zuen Camek astoa ukitu; ez zen Bankes jauna eta Lily Briscoegatik gelditu; nahiz

eta Bankes jaunak, alabaren bat gustura hartuko zuenak, eskua luzatuta eduki; ez zen gelditu gutxigatik jo ez zuen aitagatik ere; ezta amagatik ere, honek hots egin zionean «Cam! Zurekin egon nahi dut!» handik korrika igarotzerakoan. Txoria, bala edo gezia legez egin zuen ihes, zein desiok bultzatuta, nork jaurtita, norantz, nork jakin? Zer ote zen hura? Zer ote? hausnartu zuen Ramsay andreak, hari begira. Bisione bat agian — maskor batena, esku-orga batena, amandreen erresuma batena, han urrun hesiaz bestalde; edo abiaduraren gloria agian; ez jakin. Baina Ramsay andreak «Cam!» hots egin zionean bigarren aldiz, jaurtigaia lasterketaren erdian jausi zen, eta Cam nahiezik itzuli zen amagana, bidean hosto bat erauzita.

Zerekin ari ote zen ametsetan, galdetu zuen Ramsay andreak bere artean, hura han aurrean ikusita, bere baitaratua, barruko gogoetaren batekin, mezua birritan errepikatu behar izate-raino — galdetzeko Mildredi ea Andrew, Doyle andrea eta Rayley jauna itzuli ziren. Bazirudien hitz haiek putzu batera erori zirela, ur gardenak zituena, baina aldi berean hain deformatzaileak

non jaitsi ahala ikus zitezkeen kiribiltzen, umearen buru zolan jainkoak daki zer itxura hartu arte. Zer mezu emango ote zion Camek sukaldariari? galdetu zuen Ramsay andreak bere artean. Eta hain zuzen ere soilik pazientziarekin itxoin ondoren, eta entzun ondoren emakume zahar musugorri bat zegoela sukaldean antoisinetik zopa edaten, Ramsay andreak azkenean ernearazi ahal izan zuen alabarengan lorito sen hura, Mildreden hitzak zehatz jaso eta jalkitzeko gai, itxoinez gero, lelo motelean. Hanka batekin eta bestearekin txingoka errepikatu zuen Camek: «Ez, oraindik ez, eta tea biltzeko esan diot Elle-ni».

Minta Doyle eta Paul Rayley ez ziren beraz artean itzuli. Gauza bakarra esan nahi zuen horrek, pentsatu zuen Ramsay andreak. Mintak behingoz Paul onartu ala baztertu beharra. Bazkalondoan paseatzera joateak, nahiz eta Andrew beraiekin izan — zer esan nahi zezakeen? bada Mintak erabaki zuela, oso zuzen Ramsay andreaken ustez (eta oso-oso begiko zuen Minta), gazte jator hura onartzea, agian azkarra ez zena, baina hala ere, pentsatu zuen Ramsay andreak, kontu-

ratuz James gonatik tiraka ari zitzaiola Arrantzalea eta Emaztea irakurtzen jarrai zezan, Mintak, bihotz barreanean, askoz nahiago zituen inozoak, tesiak idazten jarduten zuten gizon burutsuak baino; Charles Tansley adibidez. Nolanahi ere bazen hura gertatzeko garaia, batera ez bazen bestera.

Baina irakurri egin zuen, «Biharamunean emaztea esnatu zen lehenik; arturratzen ari zuen, eta ohetik ikusi zituen lur sail ederrak bere aurrean zabaldurik. Nagiak ateratzen ari zen senarra artean...»

Baina Mintak artean nola esan zezakeen ez zuela ondoan hartuko? Ezin zuen, konforme egon ondoren arratsalde osoak biak bakarrik mendian harantz eta honantz ibiltzeko —Andrew karramarro bila joaten baitzen— baina segur aski Nancy beraiekin joan zen. Bien ikuskizuna saiatu zen gogora ekartzen, atarian zutik bazkaldondoan. Hantxe zutik, zeruari begira, eguraldiarekin zalantzan, eta berak esan zuen, alde beren lotsa gordetzeko, alde haizea emateko joan zitezten (Paulen zale zen ere),

«Hainbeste miliatan ez da hodei bakar bat ere ageri», eta orduan Charles Tansley gixona antzeman zuen, han ere beren atzetik irtenda, farriduriz. Baina berak propio esan zuen hura. Buru barruan bati eta besteari begira, ez zegoen ziur Nancy bertan ote zen.

Irakurtzen jarraitu zuen: «Ah, emazte», esan zuen gizonak, «zergatik izan behar dugu Errege? Nik ez dut Errege izan nahi». «Tira», esan zuen emazteak, «zu ez bazara Errege izaten, ni izango naiz; zoaz Lengoraduagana, nik Errege izan nahi dut eta».

«Barrura ala kanpora, Cam», esan zuen, bai baitzekien «Lengoradu» hitzak soilik erakartzen zuela Cam, eta berehala hasiko zela Jamesekin beti bezala hika-mika eta sesioan. Airean alde egin zuen. Ramsay andreak irakurtzen jarraitu zuen, lasaiturik, berak eta Jamesek zaletasun berak baitzeuzkaten eta gustura egoten ziren elkarrekin.

«Eta itsasora heldu zenean, gris iluna aurkitu zuen, urak zutituta eta ustel usainarekin. Orduan bertan gelditu eta esan zuen:



*Lengoradu, lengoradu itsasoko.  
Zatoz, arren, niri entzuteko;  
zeren ene emazteak. Il-sabil onak,  
ez baititu nire desio berdinak».*

«Zer nahi du bada?» esan zuen Lengoraduak. «Non ote zeuden? galdetu zuen Ramsay andreak bere artean, irakurtzen eta pentsatzen, biak batera, aise asko; zerren Arrantzalea eta Emaztearen ipuin hura baxua bezalako baitzen, doinuari goxoki akonpainatzen ziona, noizean behin melodian ustekabe tartekatuz. Noiz esango ote zioten? Inongo berririk ez bazen, serio-ski hitz egin beharko zuen Mintarekin. Ezin baitzuen honek lurralde guztian barrena paseatzen ibili, nahiz eta Nancy beraiekin joan (berriro ahalegin-du zen, arrakastarik gabe, bidean behera zihoa-zen haien bizkarrak ikusi eta zenbatzen). Bera zen erantzule Mintaren gurasoen aurrean — Ontza eta Laratza. Irakurtzerakoan oroitu zen bat-batean goitizenez. Ontza eta Laratza — bai, haserretuko liriateke entzunez gero — eta noski entzungo zutela — alegia Minta, Ramsaytarrekin zegoelarik, hola eta hola eta hola ikusi zutela.

«Gizonak *House of Commons*-ean ileordea zera-  
man soinean eta andreak iaio asko laguntzen  
zion atariko eskaileretan» errepikatu zuen, haiek  
biak kanaberaz burutik atereaz esaldi haren  
bitartez, behin berak senarrari barre eginarazte-  
ko esana, festa batetik etxerakoan. Ene bada,  
zioen Ramsay andreak bere artean, nolaz sortu  
zuten alaba bakan hau? Minta marimutil hau,  
galtzerdian zuloarekin? Nolaz bizi zitekeen hain  
giro gaiztoan, non neskamea beti loritoak saka-  
banatutako harea pala batekin biltzen, eta elka-  
rriketa ia erabat baitzegoen mugatua —interes-  
garria agian, baina nolana ere murrizta— txori  
haren balentrietara? Noski, bazkaldu, tea hartu,  
afaldu, eta azkenean beraiekin egunak pasatze-  
ra gonbidatu zuten Finlay-en; horrek istilu zer-  
bait sortu zuen Ontzarekin, amarekin, eta dei  
gehiago, eta elkarrizketa gehiago, eta harea  
gehiago, eta azkenerako bizitza guztian irauteko  
adina gezur jalki zituen loritoei buruz (hala esan  
zion senarrari gau hartan, festatik etxerakoan).  
Dena den, Minta etorri egin zen... Bai, etorri egin  
zen, pentsatu zuen Ramsay andreak, arantzen  
bat susmatuz pentsamendu honen mataza

barruan; eta hura askatzean hau zela aurkitu zuen: emakume batek behin «alabaren maitasuna ari zitzaiola lapurtzen» bota zion aurpegira; Doyle andreak esandako zerbaitek salaketa hura gogorarazi zion berriro. Agindu nahia, tartean sartu nahia, bere nahia inori eginaraztea — hura zen bere aurkako salaketa, eta guztiz bidegabea iritzi zion. Nola galarazi itxura hori edukitzea? Ez zioten behintzat aurpegira botako inor hunkitu nahian jardutea. Askotan lotsatzen zen enasa izateaz. Ez zen ez aginduzale eta ez tiranoa. Egia handiagoak ziren erietxeak, estoldak eta esnetegiari buruzko kontuak. Grina handia sentitzen zuen halako gauzetarako, eta aukera izan balu gustura helduko ziokeen jendeari garondo edo leptik, hura ikus zezaten. Irla osoan erietxerik ez. Hura zoritxarra. Londresen etxe aurrera ekartzan zizuten esnea zikinkeriaz marroi-marroi. Debekatua egon behar zukeen. Esnetegi bikaina eta eritetxe bana hementxe — gustura egingo zituzkeen bi gauza horiek, bere gisa. Baina nola? Ume pila honekin? Koxkortzen zirenean agian edukiko zuen betarik; denak eskolara hastean.

Oh, baina ez zuen nahi James egun batez ere gehiago koxkortzerik, eta ezta Cam ere. Zeuden bezalaxe gustatuko zitzaiokeen haiek biak betirako mantentzea, deabru bihurriak, aingeru jatorrak, inoiz ere ez bihurtzea munstro hankaluze. Galera haren ordaina ez zen aski ona. Orduantxe Jamesi irakurri zionean «soldadu ugari azaldu ziren tinbal eta tronpetekin», eta honen begiak ilundu zirenean, bere artean pentsatu zuen, zergatik koxkortu eta hori dena galdu beharra? James zen dohain gehien zeuzkana, seme-alabetan sentikorrena. Baina denengan, pentsatu zuen Ramsay andreak, jarri zitezkeen itxaropenak. Prue aingeruaren parekoa zen besterekiko, eta orain batzuetan, bereziki gauez, arnasarik gabe uzten zintuen bere edertasunak. Andrew — senarrak ere aitortzen zuen berebiziko dohaina zeukala matematiketarako. Eta Nancy eta Roger ume basatiak ziren artean, egun osoa zitzu bizian mendian barrena. Rosek berriz aho handiegia zeukan, baina dohain zoragarria eskularetarako. Txaradetan jolasten bazuten, Rosek soinekoak egiten zituen; dena egiten zuen; mahaiak, loreak eta gainerakoak prestatzea gus-

tatzen zitzaion gehien. Ez zitzaion gustatzen Jasper txoriei tiroka aritzea; baina bizitzaren fase bat besterik ez zen hura; denek igarotzen zituzten faseak. Zer dela eta, galdetzen zuen kokotsa Jamesen buru gainean jarrita, horren arin hazi beharra? Zer dela eta eskolara joan beharra? Beti haurren bat edukitzea gustatuko zitzaiokeen. Besoetan halako bati eustea zen bere zorionik handiena. Esatea zuen orduan jendeak bera tiranoa zela, aginduzalea, menperatzailea, hala nahi bazuten; axola gutxi. Eta semearen ilea ezpaineekin ukituz pentsatu zuen, ez da inoiz orain bezain zoriontsua izango, baina bere buruari eutsi zion, hura esanez gero senarra zenbat haserretzen zen gogoratuta. Egia zen hala ere. Inoiz izango zirena baino zoriontsuago ziren orain. Hamar peniketako te joko batek egun oso-tarako egiten zuen Cam zoriontsu. Lurrari dandaka eta makakorroka entzuten zituen esnatu orduko goiko aldean. Zalapartan etortzen ziren pasabidetik. Orduan atea indarrean zabaldu eta han non sartzen ziren, arrosak bezain fresko, adi-adi, erabat esna, gosalongoan jangelara etortze hura, eguneroko zeregina, berebiziko

gertakizuna balute bezala; eta horrelaxe dena, bat ez zenean bestea, egun guztian, ondoloegin esatera igo arte, eta beren ohetxoetan harrapatu- turik aurkitzen zituen, txoriak gerezi eta franbue- sen artean bezala, artean istorioak sumatzen txorakeriaren bati buruz — entzundako zerbait zela, edo lorategian bildutako zerbait. Nork bere altxor txikia zeukan... Eta orduan jaitsi eta sena- rrari esaten zion, zergatik hazi eta hori dena galdu beharra? Inoiz ez dira orain bezain zorion- tsu izango. Eta senarra haserretu egiten zitzaion. Zergatik eduki bizitzaren hain ikuspegi iluna? esaten zion. Ez da zentzuzkoa. Bitxia zen, baina egia iruditzen zitzaion: senarraren iluntasun eta hertsipen hura gorabehera, hala ere bera baino zoriontsuagoa, itxaropentsuagoa zen, oro har. Gutxiago hunkitzen zuten hura inoren kezkek — agian horrexegatik. Beti zeukan lana eskura. Ez zen bera «pesimista» zelako, senarrak aurpegi- ratu bezala. Bizitzan pentsatu — eta denbora puska txiki bat azaltzen zitzaion begietara, bere berrogeita hamar urteak. Hantxe zeukan aurrean — bizitza. Bizitza: pentsatu bai, baina ez zuen pentsatzez bukatzen. Kirika egiten zion

bizitzari, argi antzematen baitzuen hantxe zegoela, benetako zerbait, berea bakarra, seme-alabekin edo senarrarekin elkarbanatu ez zuena. Hitzarmen antzeko bat zegoen bien artean erabakia, bera alde batean eta bizitza bestean, eta beti elkarren lehian ari ziren batak besteari onena kentzeko; eta zenbaitetan parlamentatu egiten zuten (bakarrik eserita zegoenean); orduan izaten ziren, gogoan zeukan, adiskidetzeko eszena handiak; baina gehienetan, harrigarria izan arren, onartu beharra zeukan bizitza izeneko gauza hura izugarria iruditzen zitzaiola, zakarra, aukera emanaz gero inori ekiteko gertu zegoena. Han zeuden betiko problemak: sufri-mena; heriotza; behartsuak. Beti zegoen aldamenen emakume bat minbiziarekin hiltzen. Eta hala ere berak umeei esana zien, Egingo duzue aurrera. Garraztasunez esan zien hori zortzi pertsonari (eta negutegiko kontua berrogeita hamar librakoa izango zen). Horregatik, zer ikusteko jaiok ziren jakinda —maitasuna eta handinahia eta leku goibeletan bizitzea bakardade negargarrian— sarritan sentitzen zuen, Zergatik hazi eta hori dena galdu? Eta orduan bere buruari esaten

zion, bizitzaren kontra ezpatari eraginez, txorakeriak zirela haiek. Guztiz zoriontsu izango dira. Eta hona non hasten zen, gogoan zeukan, berriro bizitzari izugarri samarra irizten, Mintari Paul Rayleyrekin ezkonarazten; zeren bere hitzarmen hari zernahi iritzita ere, eta denei gertatu beharrekoak ez ziren esperientziak ezagutu zituen berak (ez zizkion bere buruari aipatzen), indar batek bultzatzen baitzion, arinegi zela jakin arren, ihesbide bat balitz bezala berarentzat ere, ezkondu beharra zegoela esatera; haurrak eduki behar zirela.

Oker ari ote zen honetan, galdetu zion bere buruari, azken asteetako bere jokabidea gainbegiratzuz, eta galdezka ea gehiegi behartu ote zuen Minta, hogeita lau urte besterik ez zituena, erabakia har zezan. Egonezina nabari zuen. Ez al zuen hari buruz barre egin? Ez al zitzaion ahazten ari zer eragin handia zuen jendeagan? Ezinbestekoak ziren ezkontzeko — oh, makina bat kualitate bai (negutegiko kontua berrogeita hamar librakoa izango zen); bata —ez zeukan zertan aipaturik— baitezpadakoa; berak senarra-ekin zeukan gauza. Ba al zeukaten hura?



«Orduan gizonak galtzak jantzi eta eroa baino areago alde egin zuen handik», irakurri zuen. «Baina kanpoan ekaitz erauntsia ari zuen eta haizearen indarrak lanak ematen zizkion zutik egoteko; etxeak eta zuhaitzak erori, mendiak dar-dar, harkaitzak itsasora piririka, zerua bikea baino beltzago, trumoi eta tximista, eta itsasoa gorantz eliza-dorreak eta mendiak adina-ko olatu beltzekin, apar zuriarekin gailurrean».

Orria igaro zuen; lerro bakar batzuk geratzen zirenez bukatu egingo zuen ipuina, jadanik lotarako ordua pasea izanagatik. Berandutzen ari zen. Baratzeko argiak esaten zion hori; eta loreen zurbilak eta hostoen grisak bat hartu zuten, beragan larrialdi antzeko bat pizteko. Hasieran ez zuen igartzen zer zen. Orduan oroi-tu zen; Paul eta Minta eta Andrew ez ziren etxeratu. Berrito ekarri zuen gogo aurrera lehengo taldea terrazan sarrerako atarian, zeruari begira zutik. Andrewk sarea eta saskia zeuzkan. Beraz karramarroak-eta harrapatuko zituen. Beraz harkaitzen batera igoko zen; eta itsasgorak aislatu. Edo labar gaineko bide-zidor haietako batetik ilaran zetozenean bakarren bat eror zitekeen. Piri-

rika erori eta bertan mastrakatu. Zeharo ari zuen iluntzen.

Baina ez zion bere ahotsari den gutxiena ere aldatzen utzi ipuina bukatzerakoan, eta liburua itxiz gehitu zuen, azken hitzak berak asmatu balitu bezala, Jamesi begietara so: «Eta oraindik ere bertan bizi dira».

«Horrela amaitzen da», esan zuen, eta Jamesen begietan, ipuinaren interesa agortzen joan ahala, beste zerbait ikusi zuen haren lekua betetzen; harridurazko zerbait, zurbila, argi baten isla bezala, begirarazi eta liluratu egiten zuena aldi berean. Ramsay andrea jiratu, badiaz bestalde begiratu, eta hantxe, zalantzarik gabe, olatuetan barrena aldian-aldian bi distira azkar eta ondoren luze iraunkor bat bidaliz, faroko argia zegoen. Piztu berria.

Laster galdetuko zion Jamesek, «Joango al gara farora?» Eta berak erantzun beharko zion: «Ez, bihar ez. Aitak ezetz dio». Zorionez Mildred sartu zen beren bila, eta zalaparta hark distraitu zituen. Baina Mildredrek zeraman bitartean, sorbalda gainetik atzera begira jarraitzen zuen, eta Ramsay andrea seguru zegoen semeak bere

artean zioela, bihar ez gara farora joango; eta pentsatu zuen, bizitza guztian edukiko du hori gogoan.

## 11

Ez, pentsatu zuen, Jamesek moztutako irudi batzuk bateratuz —hozkailua, belarra ebakitzeko, gizasemea etiketaz jantzia— umeei ez zaie inoiz ahazten. Horregatik zuen hainbeste garrantzi inork esan eta egiten zuenak, eta lasaitasun handia zen oheratzen zirenean. Orain ez baitzeukan inorengan pentsatu beharrik. Bere buruari begira egon zitekeen, bere gisa. Eta horrexen beharra sentitzen zuen orain sarritan — pentsatu beharra; beno, pentsatzea ere ez. Isilik egotea; bakarrik egotea. Suntsitu egiten zen izate eta egite hedakor, bikain, ozen guztia; eta inor murriztu egiten zen, ukitu goren batekin, norbera bihurtu arte, adar formako ilunpe muin bat, besterentzat ikusiezina den zerbait. Nahiz puntua egiten jarraitu, tente eserita, horrela sentitzen zen; eta bere nortasuna, loturak erortzen

utzi ondoren, libre zegoen abentura bitxienetarako. Unetxo batez bizitza urperatzen zenean, esperientziaren esparruak amaigabea zirudien. Eta baliabideak amaigabeak zirela denen artean zabaldutako irudipena zen, suposatu zuen; berak, Lilyk, Augustus Carmichaelek, hirurek sentitu bide zuten umekeriak besterik ez direla gure aparizioak, inoren aurrean ezagun egiten gaituzten gauzak. Azpian dena ilun, dena barreiatzen, izugarri sakon; baina aldi behin azalera igotzen gara eta hori da gutaz ikusten dena. Amaigabea iruditzen zitzaion bere ortzimuga. Han zeuden artean ikusi gabeko leku guztiak; Indiako ordekak; Erromako eliza batean larruzko gortina lodi bat baztertzen sentitu zuen bere burua. Ilunpe muin hau edonora hel zitekeen, inork ez baitzuen ikusi. Ezinezkoa zen hura gelditzea, pentsatu zuen, bozkarioz. Han zegoen askatasuna, han zegoen bakea, han zegoen, denetan atsegina, elkar biltze bat, sendotasunezko plataforma batean atsedean hartze bat. Bere esperientziaren arabera, atsedean hura ez zen ohikoa (trebetasun handiz burutu ahal izan zuen orain zerbait galtzeta-burdinekin), baizik

ilunpezko adar baten gisakoa. Nortasuna galtzean galdu egiten da kezka, presa, ernetasuna; eta bere ezpainetan beti jaiotzen zen bizitzaren gaineko garaipen oihu bat, gauzak honela elkar-tzen zirenean, bake honetan, atsedean honetan, eternitate honetan; eta gogoeta hortxe etenaz kanpora begiratu zuen faroko distirarekin egokitzeke, distira luze iraunkorra, hiruretatik azkena, alegia berarentzako distira, zeren haiek beti ordu hartan aldarte hartan ikusita ez baitzegoen ebitatzerik inork bere burua atxikitzea ikusitako gauza bati; eta gauza hau, distira luze iraunkorra, berarentzako distira zen. Sarritan aurkitzen zuen bere burua eserita begira, eserita begira, zeregina eskuetan, begiratzen zuen gauza hura bihurtu arte — adibidez argi hura. Eta orduan esaldi labur bat edo beste altxatzen zen, ordura arte bere gogoan egona, hala nola —«Umeei ez zaie ahazten, umeei ez zaie ahazten»— huraxe errepikatuz eta aldi berean gaineratuz: Bukatuko da, Bukatuko da. Helduko da, helduko da, bat-batean gaineratu zuen arte: Jainkoaren eskuetan gaude.

Baina instant hartantxe haserretu egin zen bere buruarekin, hura esateagatik. Noten esana izan zen? berea ez; nahi ez zuen zerbait esanarazi zioten. Eskulanetik gora begiratu, hirugarren distirarekin egokitu, eta iruditu zitzaion bere begiek aurrez aurre egiten zutela topo bere begiekin, berak bakarrik azter zezakeen bere barruko gogo eta bihotzak aztertuz, bizitzatik garbituz gezur hura, edozein gezur. Argia laudatzerakoan bere burua laudatu zuen, harrotasunik gabe, zeren bera irmoa baitzen, azterzalea, argi hura bezain ederra. Bitxia zen, pentsatu zuen, bakarrik egonez gero nola jotzen zuen pertsonak gauzetarantz, bizigabeko gauzetarantz; zuhaitzak, ibaiak, loreak; norbera adierazten zutela sentituz; norbera bihurtzen zirela sentituz; norbera ezagutzen zutela sentituz, nola hala norbera zirela; hartara, norberari adinako xamurtasun zentzugabea sentituz haiengana ere (argi luze iraunkor hari so egin zion). Orduan jaiki zen, begira eta begira zegoelarik galtzeta-burdinekin airean, orduan goratu zen gogoaren zolan, altxatu zen norbere baitako lakutik, gandu bat, andre-gai bat bere maiteagana joateko.

Zerk esanarazi zion hura: «Jainkoaren eskue-  
tan gaude?» galdetu zion bere buruari. Egien  
artetik lerratutako zintasan ezarekin aztoratu,  
haserretu egiten zen. Puntua egiteari ekin zion  
berriro. Nola egingo zuen inongo Jainkok mundu  
hau? galdetu zuen. Bere adimenaren bitartez  
beti antzeman zuen ez zegoela arrazoi, ordenu,  
zuzenik, baizik sufrimena, heriotza, behartsuak.  
Ez zegoen munduak gauzatuko ez zuen gaizta-  
keria makurregirik; ondo asko zekien berak.  
Zorionak ez zuen irauten; ondo asko zekien  
berak. Lasaitasun tinkoz ari zen puntua egiten,  
ezpainak apur bat zimur, eta, jabetu gabe, bere  
ohiko irmotasun harekin aurpegiko egitea hain  
gogor eta lasai zeukan, non senarrak, handik  
igarotzean, nahiz bere artean barrez aritu pen-  
tsatuz Hume filosofoa, lar gizendua, lokazti  
batean trabatu zela, ez baitzuen ebitatzerik izan  
konturatzea, handik igarotzerakoan, emazte  
ederraren irmotasunaz. Horrek tristura eman  
zion, eta urruntasun hark mindu, eta emaztea  
ezin zuela babestu sentitu zuen handik igarotze-  
rakoan, eta hesira iristean triste zegoen. Ezin  
zuen ezer egin emazteari laguntzeko. Ondoan

begira egotea besterik ez. Berak gauzak okertzen zizkion, hori zen egia izugarria. Suminkorra, hunkibera irizten zion bere buruari. Bere onetatik atera zen faroaren kontuekin. Hesi barru hartara begiratu zuen, hango nahaspilara, hango ilunpera.

Beti, sentitu zuen Ramsay andreak, nork bere burua bakardadetik nahiezik ateratzeko, eutsi egiten zion honi ez bazen beste horri, hotsen bati, ikuskizunen bati. Entzuten jarri zen, baina dena isil isilik zegoen; cricket saioa bukatua; seme-alabak bainua hartzen; itsasoaren hotsa soilik. Puntua egiteari utzi zion; eskuetan zintzilik eutsi zion galtzerdi marroi gorritzari pixka batean. Lehengo argia ikusi zuen berriro. Ironia apur batez galdera egiterakoan, zeren inor esnatzen denean aldatu egiten baitira harremanak, argi egonkorrari begiratu zion, argi gupidagabe eta bihozgogor bart, hain neurri handian bera zena, baina baita hain txikian ere, harexen menpe (gauetz esnatu eta ohean zehar makurturik ikusten zuen, lurra laztantzen), liluraz begira, hipnotizaturik, zilarrezko behatz haiek bere baitako ontzi zigilatu bat laztantzen baleude bezala,



zapart eginez gero bera gozamenenez gainezka-  
tzeko; baina nolana ere, pentsatu zuen, zorion  
na ezagutu zuen berak, zorion goxoa, zorion  
mina, eta egunaren argia moteltzen joan ahala  
distira gehixeagoz zilarreztatu zituen olatu zaka-  
rrak, eta hartan, urdina desagertu itsasotik, eta  
hau limoi gardenezko olatutan piririkatzen zen,  
hondartzan kiribilduz eta harrotuz eta lehertuz,  
eta estasiak begietan eztanda egin eta gozamen  
gardenezko olatuek zeharkatu zuten bere gogo-  
aren zola, eta sentitu zuen, Aski da! Aski da!

Ramsay jaunak buelta eman eta emaztea  
ikusitako zuen. Ah! Aparta zen ederra, inoiz uste  
baino ederragoa oraintxe. Baina ezin hari hitz  
egin. Ezin enbarazurik egin. Harekin hitz egiteko  
premia zeukan, James joan eta azkenean baka-  
rrik geratuta. Baina ezetz erabaki zuen; ez enba-  
razurik egitea. Emaztea aparte zegoen, hain  
zoragarri, hain triste. Bakean utziko zuen, eta  
haren ondotik igaro zen txintik atera gabe, nahiz  
mina egiten zion emaztea hain urrun ikusteak,  
eta harengana ezin hurbilduak, eta ezertan  
lagundu ezinak. Eta txintik gabe igaroko zen  
haren ondotik, baldin eta orduantxe bertan

emazteak bere borondatez eman ez balio senarrak inoiz ez ziola eskatuko zekiena, eta atzetik deitu eta txal berdea hartu zuen koadroaren markotik, beragana joateko. Bai baitzekien senarrak babestu egin nahi zuela.

## 12

Ramsay andreak sorbalden gainean hartu zuen txal berdea. Besotik heldu zion senarrari. Hain zen gizon ederra, esan zuen, Kennedy lorazainaz hizketan hasiz; hainbestearino zen ederra non ezin baitzuen lanetik bidali. Eskailera bat zegoen negutegiaren kontra, eta ote mordoxkak han-hemenka erantsita, negutegiko sabaia konpontzen hasiak zirenez. Bai, baina handik barrena senarrarekin paseatzerakoan, bere kezka jatorria antzeman zuen. Mihiaren puntan zeukan esateko, handik barrena paseatzerakoan, «Berrogeita hamar libra kostatuko da», baina horren ordez, diru kontuekin kemena galtzen baitzuen, txoriei tiroka aritzeko Jasperen joera aipatu zuen, eta Ramsay jaunak berehala esan

zion, hartara emaztea segituan lasaituz, berezkoa zela hura mutikoengan, eta ziur zegoela luze gabe aurkituko zituela dibertitzeko modu hobeak. Senarra hain zen zentzuduna, hain zen zuzena. Eta hala, andreak esan zion, «Bai; ume guztiek igarotzen dituzte fase desberdinak», eta alor handiko daliez hasi zen pentsatzen, eta hurrengo urteko loraldia nolakoa izango ote zen bere artean galdezka, eta umeek Charles Tansleyri jarritako izengoitia entzun al zuen galdetu zion. Ateoa deitzen zioten, ateo txikia. «Fintasun handirik ez daukan kristaua da», esan zuen Ramsay jaunak. «Batere ez dauka, ez», esan zuen Ramsay andreak.

Ustez behintzat hura bere gisa uztea zen onena, esan zuen Ramsay andreak, bere artean galdezka ea merezi ote zuen ernamuinak ekarrazteak; aldatzen al zituzten? «Oh, bere tesia idatzi beharra dauka», esan zuen Ramsay jaunak. Ondotxo zekien horren berri, esan zuen Ramsay andreak. Hark ez zuen beste ezertaz hitz egiten. Norbaitek zerbaitetan zeukan eraginari buruzkoa zen. «Horixe bakarrik baitauka eskura» esan zuen Ramsay jaunak. «Baldinbaite-

re ez al da Pruerekin maiteminduko», esan zuen Ramsay andreak. Alaba deseredatuko zukeen harekin ezkonduetz gero, esan zuen Ramsay jaunak. Ez zegoen begira emazteak kontenplazten zituen loreei, baizik haiek baino apur bat goraxeago. Hala ere ez zen barren gaiztokoa, gaineratu zuen, eta esateko zorian egon zen hura zela Ingalaterrako gazte bakarra miresten zuena bere — baina eztarrian behera irentsi zuen. Ez zuen emaztea berriro aspertu nahi bere liburuak zirela eta. Lore hauek itxuraz hazi dira, esan zuen, begirada jaitsi eta zerbait gorria, zerbait marroia antzemanetz. Bai, baina hauek nire eskuekin jarritakoak dira, esan zuen Ramsay andreak. Arazoa zen zer gertatzen zen ernamui-nak ekarrarazita; aldatzen al zituen Kennedyk? Halako alferziririk, gaineratu zuen, aurrera jarraituz. Berak pala eskuetan hartu eta egun osoa harixe begira egonez gero, aldian behin egiten zuen lan pikoren bat. Horrela segitu zuten paseoan, su-galda loreetarantz. «Zure alabak zugandik ari dira exajeratzen ikasten», egin zion erantzuki Ramsay jaunak. Izeba Camilla askoz okerragoa izan zen, adierazi zuen Ramsay

andreak. «Nik dakidanez inork ez du behin ere zure izeba Camilla bertuteen eredutzat hartu», esan zuen Ramsay jaunak. «Inoiz ikusi dudan emakumerik ederrena zen», esan zuen Ramsay andreak. «Beste norbait zen holakoa», esan zuen Ramsay jaunak. Prue askoz ederragoa izango zen, esan zuen Ramsay andreak. Berak ez zuen horren aztarrenik ikusten, esan zuen Ramsay jaunak. «Begiraiozu bada gaur gauean», esan zuen Ramsay andreak. Gelditu egin ziren. Andrewri lan gehiago eginarazi nahi zion senarrak. Beste gainontzean beka aukera guztiak galduko zituen. «A zer gauza, beka!» esan zion emazteak. Ramsay jaunari txoroarena iruditu zitzaion ateraldi hura, beka bezain gauza serio baten ganean. Bera Andrewrekin oso harro zegokeen bekaren bat lortuez gero, esan zuen senarrak. Bada bera Andrewrekin berdin-berdin zegokeen harro, lortzen ez bazuen ere, erantzun zion emazteak. Ez zeuden inoiz honetan ados, baina ez zuen axola handirik. Gogoko zuten elkar, batak beketan sinesten zuelako eta bestea Andrewrekin harro zegoelako, honek zernahi

eginda ere. Ez non eta ez han, Ramsay andrea labar ertzeko bide-zidor haiekin gogoratu zen.

Ez al zen berandu? galdetu zuen. Artean ez ziren etxeratu. Ramsay jaunak erlojuaren tapa altxatu zuen ardurarik gabe. Baina zazpiak pasatxo besterik ez ziren. Zabalik eduki zuen erlojua pixka batean, terrazan sentitu zuena kontatzea erabakita. Hasteko, ez zela zentzuzkoa hain urduri jartzea. Andrew bere burua zaintzeko gauza zen. Ondoren, esan nahi zion ezen lehen-txeago terrazan zebilenean — honetan egonezina jarri zitzaion, apurtzen ari balitz bezala emaztearen bakardadea, apartetasuna, urruntasuna... Baina honek gogor egin zion. Ea zer kontatu nahi zion, galdetu zuen, farora joateari buruz zelakoan; eta damu zela «Zoaz pikutara» esateagatik. Baina ez. Ez zitzaiola gustatzen bera hain triste ikustea, esan zion senarrak. Burua beste gauzetan, ihardetsi zion emazteak, apur bat gorrituz. Biei jarri zitzaien ondoeza, aurrera ala atzera egin ez balekitez bezala. Jamesi amandre ipuinak irakurtzen aritu zen, esan zion emazteak. Ez, hura ezin zuten elkarbanatu; horretaz ezin ziren mintzatu.

Bi su-galda lore sorten arteko hutsunera heldu ziren, eta han zegoen faroa berriro, baina Ramsay andreak ez zion utzi bere buruari hari begiratzen. Senarra begira zeukala jakin izan balu, pentsatu zuen, ez zen bertan pentsakor eserita egongo. Ez zitzaion atsegin zerbaitek gogoraraztea pentsakor eserita egon zenik. Hala, sorbalda gainetik begiratu zuen, herri-rantz. Argiak jarioan zihoazen olatutan, haizeak itsatsitako ur tanta zilarrezkoak bailiran. Eta horixe bihurtu zen miseria guztia, sufrimen guztia, pentsatu zuen Ramsay andreak. Herriko, portuko eta barkuetako argiek sare fantasma bat ematen zuten, hondora joandako zerbait markatzeko hantxe flotatzen. Tira, emazteak ez bazituen pentsamenduak elkarbanatu nahi, esan zion Ramsay jaunak bere buruari, joan egingo zen, orduan, bere gisa. Pentsatzen jarraitu nahi zuen, bere buruari kontatzen Hume lokaztian trabatua geratu zeneko istorioa; farre egiteko gogoia zeukan. Baina, ezer baino lehen, txorakeria zen Andrewrekin kezkatzea. Andrewren urteekin bera egun osoan ibiltzen zen mendian barrena, gaileta bat besterik ez poltsikoan eta

beratzaz inor larritu edo labarretik behera erori zela pentsatu gabe. Eguraldiak eutsiez gero, egun-pasa oinez joateko asmoa zuela esan zuen ozenki. Askotxo jasan zituen Bankes eta Carmichael. Bakardade apur bat nahi zuen. Bai, esan zuen emazteak. Amorrazioa eman zion emazteak gogor egin ez izanak. Honek bai baitzekien inoiz ez zuela asmo hori beteko. Zaharregia zen egun-pasa oinez joateko gaileta bakar batekin poltsikoan. Emaztea umeein kezkatzen zen, baina berarekin ez. Aspaldi, ezkon aurretik, pentsatu zuen, badian barrena begira, su-galda lore sorten artean zeudelarik, egun osoan ibiltzen zen oinez. Otordurako aski zuen ostatuko gazta eta ogia. Hamar orduz egiten zuen lan etengabe; andre zahar baten burua azaltzen zen noizean behin, suaz arduratzeko. Inguru hura gustatzen zitzaion gehien, haranzko hura; hareazko muino haiek ilunpetan itzaltzen. Egun osoa ibil zitekeen arimarik topatu gabe. Ia etxerik ere ez zegoen, ezta herri bakar bat ere milia askotan. Bakardadean azter zitezkeen gauzak. Inor antzinatik izan gabeko hondartza txikiak zeuden. Fokak bertan eseri eta inon begira egoten ziren. Zenbaitetan



pentsatzen zuen hango etxe txiki batean, bakar bakarrik — eten egin zuen gogoeta hura, hasperen eginez. Ez zeukan eskubiderik. Zortzi ume-  
ren gurasoa — gogorarazi zion bere buruari. Eta basapiztia eta zitalarena litzateke ezer aldatu nahi izatea. Bera baino gizon hobea izango zen Andrew. Eder aparta izango zen Prue, amaren esanetan. Ordura arteko joera apur bat hobetuko zuten. Izan ere langile handi samarra zen — zortzi ume. Haiek frogatzen zuten berak ez zuela arras madarikatzen unibertso kaxkarra, zeren honelako arrats batean, pentsatu zuen iluntzen zihoan lurrari begira, irlatxoak tankera txiki penagarria baitzeukan, itsasoak erdi irentsia.

«Hau leku kaxkarra», murmurikatu zuen hasperen batekin.

Emazteak entzun egin zion. Gauzarik hitse-  
nak esan ohi zituen hark, baina bera antzemana zegoen haiek esan eta berehala bestetan baino alaiago ematen zuela. Honelako ateraldiak jolas bat ziren, pentsatu zuen, zeren senarrak esanda-  
ko erdiak esan balitu berak, aspaldi bere buruaz beste egina zen.

Amorrarazi egiten zen senarraren ateraldi haiekin, eta segurtasunik handienaz esan zion ilunabar aparta zela hura. Eta ea zertan ari zen marmarka, galdetu zion, erdi barrez erdi kexati, igartzen baitzion zertan ari zen pentsatzen — liburu hobeak idatziko zituzkeela ezkondu ez balitz.

Ez zen kexatzen ari, erantzun zion. Emazteak bazekien ez zela kexatzen ari. Bazekien ez zeukala zertaz kexaturik. Senarrak eskutik heldu, ezpainetara eraman eta hainbesteko berotasunez eman zion muxu non emazteari malkoak jalki baitzitzaizkion begietara, eta orduan senarrak eskua askatu zion bizkor.

Ikusmirari bizkarra eman eta lantza itxurako landare berde zilartsuen bidean gora abiatu ziren, besotik helduta. Haren besoak gizon gaztearena zirudien, pentsatu zuen Ramsay andreak, argala eta gogorra, eta pozez pentsatu zuen zer indartsua zen artean, nahiz hirurogei urteak paseak izan, eta zer hezigabe eta baikorra, eta zer bitxia zen hainbat izugarrikeriaz konbentzitu egon arren, itxuraz behintzat ez zapuztea, baizik bizkortzea. Ez al zen arraroa? pentsa-

tu zuen. Izan ere batzuetan beste inor ez bezala zegoela egina ematen zuen, gauza arruntan aurrean jaiotzez itsu, gor eta mutu, baina ezohikoan aurrean arrano-begiduna. Askotan harritzen zen haren zentzuaz. Erreparatzen al zien loreei? Ez. Erreparatzen al zion ikusmirari? Ez. Erreparatzen al zion alabaren edertasunari, edo platerean pudding-a edo haragi errea zeukan? Ametsetan dagoena bezala esertzen zen mahaian. Eta ozenki hitz egin edo olerkiak ozenki esateko ohitura ari zen hartzen, zoritxarrez; izan ere batzuetan komeriak zituzten.

*Onenak eta ederrenak, utikan!*

Giddins andereño gajoa, hori hots egin zionean ia bertan geratu zen zerraldo. Baina orduan, berehala senarraren alde jarriz munduko Giddins-tar txoro guztien aurka, orduan, pentsatu zuen Ramsay andreak, senarrari besoa apur bat estutuz, aldapan gora azkarregi zihoala adierazi nahiz, eta momentutxo batez gelditu beharra zeukala satorren muntoko lur piloak berriak ote ziren ikusteko, orduan, pentsatu

zuen, begiratu ahal izateko makurtuz, berea bezalako adimen bikainak erabat desberdina izan behar du besteearen aldean. Berak ezagututako gizon bikain guztiak, pentsatu zuen, untxiren bat sartu zela iritzita, halakoak ziren, eta mutil gazteentzat ona zen (nahiz bere ustez hitzaldi aretoetako giroa zakarra eta deprimentea izan, ia jasanezina) hari entzute soila, hari begiratze soila. Baina nola gutxitu untxiak tiroka ez bazen? galdetu zuen bere artean. Agian untxia zen; agian satorra. Piztiaren bat bere San Jose loreak hondatzen ari zen. Eta gora begiratu izarraren lehen taupada ikusi zuen zuhaitz meheen gainetik, eta hura ikusarazi nahi zion senarrari; atsegin handia ematen baitzion berari ikuskizun hark. Baina eutsi egin zion bere buruari. Senarrak ez zien inoiz gauzei begiratzen. Eta begiratu ez gero zera bakarrik esango zuen, Hau mundu kaxkarra, hasperen eginez.

Une hartan, loreak miresten balego bezala eginez, «Oso ederra» esan zuen, emazteari gustua emateko. Baina honek ongi zekien ez zituela miresten, han zeudenik ere ez zela konturatzen. Berari gustua emateko besterik ez... Ah, baina ez

al zen hura Lily Briscoe, William Bankesekin paseatzen? Bere begi miopeak zuzendu zituen urruntzen zihoan bikotearen bizkarretara. Bai, haiek ziren. Ez al zuen horrek esan nahi ezkontzekoak zirela? Bai, inondik ere! Ideia zoragarria! Ezkontzekoak ziren.

## 13

Amsterdamen izana zen, zioen Bankes jaunak belardian barrena Lily Briscoerekin paseatzerakoan. Rembrandtak ikusia. Madrilen izana. Zoritxarrez Ostiral Santu izan eta Pradoa itxirik zegoen. Erroman ere izana. Inoiz izan al zen Miss Briscoe Erroman? Oh, joan beharko zukeen — Esperientzia zoragarria izango zukeen — Kapera Sixtina; Michael Angelo; eta Padua, hango Giottoekin. Emaztea ondoezik egon zen urte askotan, eta beraz mugatu samarra izan zen beren bazter ikustea.

Bera, berriz, Brusselan izana zen; Parisen izana, baina hegazkinez joanda, izeba eri bat bisitatzerara. Dresden izana; makina bat koadro

ikus gabe geratua; nolana ere, pentsatu zuen Lily Briscoek, agian hobe zen koadrorik ez ikustea: norberaren lanarekiko egonezin etsia besterik ez zuten sortzen. Bankes jaunaren ustez urrunegi eraman zitekeen ikuspuntu hori. Ezin dugu denok Tiziano edo Darwin izan, esan zuen; zalan-tza egiten zuen gainera, Darwin edo Tizianorik izango zenik gu bezalako jende xehea egon ez balitz. Lilyk lausenguren bat egin nahiko zion; zu ez zara xehea, Bankes jauna, esan nahiko zion. Baina hura ez zen lausengu zale (gizon gehienak bai, pentsatu zuen), eta lotsatu samarra zegoen bere bultzadarekin eta isilik geratu zen, Bankes jaunak zioen bitartean agian ez zeukala koadroekin zerikusirik berak esan berri zuenak. Hala eta guztiz ere, esan zuen Lilyk, bere faltsukeria txikia gainera astinduz, beti jarraituko zuen pintatzen, interesgarria iruditzen zitzaiolako. Bai, esan zuen Bankes jaunak, horixe jarraituko zuela, eta belardi bukaerara iristean ea Londresen gaiak aurkitzeko zailtasunik zeukan ari zitzaien galdetzen, orduan jiratu eta Ramsayta-

rrak ikusi zituztenean. Hori da beraz ezkontza, pentsatu zuen Lilyk, senar-emazteak pilotan jostatzen dabilen neska bati begira. Hori adierazi nahi zidan Ramsay andreak lehengo gauean, pentsatu zuen. Honek soinean txal berdea zerman, oso elkarren ondoan zeuden, elkarri pilota botaka zebiltzan Prue eta Jasperi begira. Eta bat-batean, batere arrazoirik gabe, agian metrotik irteten edo ate bateko txirrina jotzen ari denari gainera esanahi bat jaisten zaion bezala, hura sinbolo, ordezkari bihurtuz, esanahi huraxe ezarri zen bi haien gainean ere, eta hala, ilunabarrean zutik, begira, ezkontzaren sinbolo bilakatu zituen, senar-emazte. Gero, handik pittin batera, berriro hondoratu zen benetako irudiak gainditzeko zituen ingurumari sinbolikoa, eta, aldame-nera heltzerako, Ramsay jaun-andreak ziren berriro, pilotan jostatzen zebiltzan umeei begira. Baina hala ere momentu batez, nahiz Ramsay andreak betiko irribarreez agurtu (oh, ezkontze-koak garela uste du, pentsatu zuen Lilyk) eta esan «Gaur ni txapeldun», adierazi nahian

bebingoagatik Bankes jauna konforme zegoela beraiekin afaltzeko, ostatura ihes egin gabe, non morroiak hain poliki paratzen baitzizkion barazkiak; hala ere, momentu batez jarraitu egin zuen leherketa, hustasun eta zabarkeriaren irudipe-nak, bitartean pilota gora zihoalarik, eta beraiek begiez hari segika, galdu arte, eta izar bakar bat eta adarrak zintzilik ikusi zituzten. Argiak indarra galdu ahala denek ematen zuten ertz zorrotzak eta etereoak eta bata besteagandik tarte handi-tara. Orduan, berebiziko hustasun hartatik ziztu bizian atzeraka (gauzen sendotasunak desegina ematen baitzuen), Prue beraiengana ziztuan eto-ri eta trebe asko atzeman zuen pilota goian ezker eskuaz, eta amak esan zion «Ez al dira oraindik etxeratu?», horrenbestez hango lilura hautsiz. Ramsay jauna libre sentitu zen barre egiteko Humeen bizkar, lokaztian trabatu eta andre zahar batek salbatua Aita Gurea esanez gerotan, eta bere artean ijika abiatu zen bulego aldera. Ramsay andreak Prue berriro familiarete-



ko bizitzara bilduz, alde eginda egon baitzen pilotan jostatzeko, galdetu zion,  
«Beraiekin joan al da Nancy?»

## 14

(Bai noski, Nancy beraiekin joan zen, Minta Doylek hala eskatu baitzion begirada mutu harekin, eskua luzaturik, Nancy bazkalondoan teilatupeko bere gelara zihoanean, familiako bizitza latzari itzuri. Joan egin beharko zuela pentsatu zuen. Ez zeukan joateko gogorik. Ez zuen bere burua hartaratua ikusi nahi. Zeren bidean barrena labarrerantz zihoazenean Mintak eskutik eusten baitzion. Ondoren askatu. Ondoren berriro eutsi. Zer nahi zuen? galdetzen zuen Nancyk berekiko. Jendeak beti nahi du, noski, zerbait; zeren Mintak eskua hartu eta eusten zionean, Nancyk, nahiezik bazen ere, mundu osoa ikusten baitzuen bere aurrean zabaldurik, Constantino-pla gandu artean bezala, eta orduan, nahiz norberak begiak moteldurik eduki, galdetu beharra zegoen: «Santa Sofia al da hori?» «Urrezko Ada-

rra al da hori?» Hala galdetzen zuen Nancyk bere artean, Mintak eskutik eusten zionean: «Zer nahi ote du? Hori al da?» Baina zer zen hori? Han-hemenka azaltzen zen gandu artetik (Nancyk bere azpian zabaldurik zegoen bizitzari begiratzean) pinakulu bat, kupula bat; bistako gauzak, izenik gabeak. Baina Mintak eskua askatzen zionean, adibidez aldapan behera jaisterakoan, guzti hura, kupula, pinakulua, zernahi izanik ere gandu artetik nabarmendutako hura, barru hartan hondoratu eta desagertzen zen.

Minta, aipatu zuen Andrewk, ibiltari on samarra zen. Emakume gehienek baino arropa zentzuzkoagoak janzten zituen. Gona oso motzak eta bonbatxo beltzak. Zuzenean errekan sartu eta alderik alde zeharkatzeko gauza zen. Gogoko zuen haren ausardia, baina hura ez zen itxura — modurik txoroenean hilko zen haietako egunen batean. Bazirudien ezeri ez ziola beldurrik — zezenei ezik. Soroan zezena ikusi orduko besoak gora altxatu eta marruka alde egiten zuen, zezena xaxatzeko gauzarik egokiena, noski. Baina ez zitzaion deus axola hori aitortzea; egia zen. Bazekien koldar hutsa zela zeze-

nekin, zioen. Pentsatzen zuen haur denboran, ume-kotxean zihoala, ekin egingo ziola bakarren batek. Ez zuen ematen axola zitzaionik zer esan edo zer egin. Bat-batean labar ertzera jauzi egin eta holatsu hasi zen kantari:

*Egon hadi bada, egon hadi bada*

Denek egin behar izan zuten bat eta leloa kantatu eta elkarrekin garrasi egin:

*Egon hadi bada, egon hadi bada*

baina latza izango zen itsasoa igo eta urak arrantzaleku on guztiak estaltzea haiek hondartzara iritsi aurrez.

«Latza», berretsi zuen Paulek jauzi eginez, eta irristaka jaisten ziren bitartean gida-liburua zitatzen jarraitu zuen, hala nota «irla honen egiazko ospea parke antzeko ikusmirak eta itsas berezitasunen ugaritasun eta aukeragatik». Baina ez ziren egokiak garrasi eta egon-hadi-bada haiek, pentsatzen zuen Andrewk labarretik jaisteko lekua bilatu bitartean, ezta bizkarreko

txapakak eta berari «aspaldiko» deitzea ere; ez ziren batere egokiak. Emakumeak paseatzera eramatearen alderdirik okerrena. Hondartzara iristean banakatu egin ziren, bera Aita Santua-  
ren Sudurrerantz, oinetakoak erantziz, galtzer-  
diak barruan sartuz eta bikotea bere gisa utziz;  
Nancyk bere harkaitzak badeatu, bere putzuak  
bilatu eta bere gisa utzi zuen bikotea. Makur-  
makur egin eta goma antzeko itsas anemona  
leunak ukitu zituen, harkaitz saihetsari erantsiak  
gelatina puskek bezala. Hausnartzearen pode-  
rioz, putzua itsaso bihurtu zen, eta arraintxoak  
tiburoi eta balea, eta eskua eguzki aldera jarriz  
hodei zabalak hedatu zituen mundu ñimiño har-  
tara, eta hala milioika gizaki ezjakin eta erruga-  
beri iluna eta desolazioa ekarri zien, Jainkoak  
berak bezala, eta ondoren eskua bat-batean  
kendu eta jarioan utzi zuen eguzkia. Itsasoak  
zeharka-meharka gurutzaturiko harea zuriztan,  
pauso luzez, litxak zintzilik, manoplekin, ezku-  
tuan zihoan berebiziko leviatana (putzua handi-  
tzen jarraitzen zuen), eta mendi magaleko pitza-  
dura zabaletatik lerratu zen. Eta ondoren, begiak  
oharkabeen putzutik jaso eta itsaso eta zeruaren

arteko lerro dardarati hartan pausatuz, bapore-ontzien keak ortzi-mugan dardarka jartzen zituzten zuhaitz enborretan, hipnotizaturik amaitu zuen olatuen oldar basatiarekin eta ezinbesteko atzerakadekin, eta zabaltasun eta txikitasun irudipenak (putzua berriro urritu zen) esku eta oinak loturik zeuzkala sentiarazi zion, mugitu ezinik hain sentimendu trinkoengatik, hauek betirako murrizten baitzioten bere gorputza, bere bizitza, eta baita munduko gizaki guztien bizitzak ere, hutsean geratu arte. Hala, olatuei entzunez, putzu ondoan makurturik, hausnartzeko zegoen.

Baina itsasoa igotzen ari zela hots egin zion Andrewk, eta orduan Nancy uretan plisti-plasta joan zen saltoka olatu axaletan barrena lehorre-raino, eta hondartzan gora korrika, eta bere lehia eta abiadura goseak harkaitz baten atzera eramane zuen, eta hantxe, ene bada! hantxe zeuden elkar besarkatzen Paul eta Minta! segur aski muxuka. Iraindua sentitu zen, sumindua. Andrewk eta berak oinetako eta galtzerdiak isilik jantzi zituzten, kontua aipatu ere egin gabe. Ondoren zakar mintzatu ziren elkarrekin. Nolaz

ez zion deitu karramarroa edo dena delakoa ikustean, purrustatu zion Andrewk. Nolanahi ere biek sentitzen zuten berdin, ez da geure errua izan. Ez zuten halako ezbehar ikaragarria gerta-zerik nahi izan. Hala eta guztiz ere Andrew amorrarazita zegoen Nancy emakumea zelako, eta Nancy berriz Andrew gizonezkoa zelako, eta oinetakoak oso txukun lotu eta estu samar korapilatu zituzten txibistak.

Berriro labar gainera igo zirenean, Mintak amonaren brotxea galdu zuela oihukatu zuen — amonaren brotxea, zeukan apaingarri bakarra— perlazko zume negartia (inondik ere gogoratu behar zuten). Inondik ere ikusia behar zuten, zioen, malkoak masailetan behera mara-mara, amonak bizi izan bitartean tokari eusteko erabilitako brotxea. Eta orain galdu. Nahiago zuen beste edozer galdu balu! Bila itzuliko zen. Denak itzuli ziren. Dena miatu, arakatu eta aztertu zuten. Buruak arras apaldurik, labur eta petral mintzo ziren. Paul Rayleyk eroa baino areago arakatu zituen eserita egondako harkaitz inguruak. Hainbeste berriketa brotxe batengatik, pentsatu zuen Andrewk, Paulek esan zionean

«arretaz aztertzeko hemendik hara bitarteko tar-  
tea». Bizkor ari zen itsasoa igotzen. Minutu  
baten buruan estaliko zuen eserita egondako  
lekua. Ez zegoen hura aurkitzeko inongo aukera-  
rik. «Bertan harrapatuko gaitu!» egin zuen Min-  
tak garrasi, bat-batean izuturik. Baita zera ere!  
Berriro ere zezenekin bezala — bere burua men-  
peratu ezina, pentsatu zuen Andrewk. Emakume  
kontuak. Paul gizarajoak baretu behar izan zuen.  
Gizonezkoek eztabaida labur bat eduki (Andrew  
eta Paul gizonezkoen pareko bihurtu ziren bere-  
hala, bestetan ez bezala) eta eserita egondako  
lekuan Rayleyren makila tinkatzea erabaki  
zuten, eta itsas beheran bueltatzea. Ez zegoen  
orain beste ezer egiterik. Brotxea han baldin  
bazegoen han egongo zen goizean ere, segurta-  
tu zioten, baina Mintak zizpuruka jarraitu zuen  
labar gainera bidean. Amonaren brotxea; nahia-  
go izango zuen beste edozer galtzea, baina hala  
ere Nancyri iruditu zitzaion, nahiz agian egia  
izan hari brotxea galduagatik penatzea, ez zela  
horregatik bakarrik negarrez ari. Beste zerbai-  
tengatik ari zen negarrez. Eseri eta negar egin

genezake denok, pentsatu zuen. Baina ez zekien zertarako.

Elkarrekin zihoazen aurrean Paul eta Minta, hark esanez, kontsolatu nahian, zer ospea zeukan gauzak aurkitzeagatik. Behin mutil kozkorretan urrezko erlojua aurkitu zuen. Argi urratzean jaiki eta seguru zegoen aurkituko zuela. Artean ilun egongo zela bururatu zitzaion, eta bakarrik egongo zela hondartzan, eta arriskutsu samarraedo izango zela. Nolanahi ere horixe aurkituko zuela, hasi zitzaion esaka, eta Mintak berriz ez zuela entzun ere egin nahi egunsentian jaikitzearena: galdu egin zen eta kito: ondotxo zekien: bihozkada bat eduki zuen arratsalde hartantxe hura janzerakoan. Eta Paulek bere artean erabaki zuen fitsik esan gabe etxetik alde egingo zuela denak lo zeudenean, egunsentian, eta aurkitzerik ez bazeukan Edinburgora joan eta bestea erosiko ziola, lehengoa baino are ederragoa. Zertarako gauza zen erakutsiko zion. Eta gailurra iritsi eta behean herriko argiak ikusi zituztenean, bat-batean banan bana jaiotzen ziren argi haiek bere etorkizuneko gertakariak iruditu



zitzaizkion — ezkontza, haurrak, etxea; eta berriro pentsatu zuen, sastraka altuen itzaletan zegoen errepidea iristean, elkarrekin bilduko zirela bakardadera, ibili eta ibili, beti Mintari bidea erakutsiz, eta hau saihetsean pega-pega eginda (orain bezalaxe). Bidegurutzeko bihurtuena hartzerakoan, pentsatu zuen zer esperientzia latza nozitu zuen, eta norbaiti esan behar ziola — Ramsay andreari, noski, zeharo pasatuta baitzegoen, zertan hasi eta zer egin zuen gogoratuta. Bere bizitzako momenturik okerrena izan zen, askogatik, Mintari berarekin ezkontzeko eskatu zion hura. Zuzenean Ramsay andreagana joateko asmoa zeukan, nola hala harengatik uste baitzuen egin zuela hura. Hark pentsarazi zion zer-nahi-hura egin zezakeela. Beste inork ez zuen aintzat hartzen. Hark sinestarazi zion zer-nahi-hura egin zezakeela. Haren begiak sentitu zituen egun osoan, etengabe segika (nahiz behin ere hitzik esan ez), esanez bezala: «Bai, egin dezakezu. Zugan sinesten dut. Hori espero dut zugandik». Hori guztia sentiarazi zion, eta itzuli

bezain laster (etxeko argiak bilatu zituen badia gainean) harengana joan eta esango zion: «Egin dut, Mrs. Ramsay; zuri eskerrak». Eta hala, etxerako bidexka hartzean, argiak ikus zitzakeen goiko leihoetan mugitzen. Izugarri berandutu zitzaien, beraz. Denak afaltzeko prest egongo ziren. Etxe guztia zegoen pizturik, eta ilunpe ondorengo argi haiek begiak ase zizkioten, eta bere artean esan zuen, umearen gisa, atariko bidean gora zihoalarik, Argiak, argiak, argiak, eta txunditurik berriro ere Argiak, argiak, argiak, etxean sartzen ziren heinean, aurpegi seriosez ingurura begira. Baina jainko santua, esan zuen berekiko, eskua gorbatara eramanez, ez dut txoroarena egin behar).

## 15

«Bai», esan zuen Pruek bere tankera hausnarkor harekin, amaren galderari erantzunez, «Uste dut Nancy beraiekin joan dela».

Tira, Nancy beraiekin joana zen beraz, pentsatu zuen Ramsay andreak, bere artean galdezka, zipilua utzi, orrazea hartu, ateko takatekoari «Aurrera» erantzun (Jasper eta Rose sartu ziren), ea Nancy beraiekin egoteak erraztu edo zaildu egiten ote zuen ezer gertatzea; nola hala zaildu egiten zuen, iruditzen zitzaion Ramsay andreari zentzuzko arrazoirik gabe, nahiz azken finean uste izan ez zela probablea tamaina hartako hondamendia. Ezinezkoa zen denak itotzea. Eta berriro ere bakarrik sentitu zen aspaldiko arerioa zuen bizitzaren aurrean.

Jasper eta Rosek esan zuten Mildredak jakin egin nahi zuela afaria atzeratu ala ez.

«Ezta Ingalaterrako Erreginagatik ere», esan zuen Ramsay andreak irmoki.

«Ezta Mexikoko Enperatrizagatik ere», gaineratu zuen Jasperi begira barrez, honek ere amaren bizioa baitzeukan: exajeratzekoa.

Eta Jasperek mezua eraman bitartean, Ramsay andreak Roseri esan zion nahi izanez gero

aukeratzeko zein bitxi jantzi. Hamabost afaltiarrekin ezin dira gauzak etengabe itxoiten eduki. Haserretzen hasia zen berandu zetozelako; begirunerik ez izatea zen, eta kezka gain amorratioa ematen zion gau huraxe aukeratu izana berandu etortzeko, afari atsegina eduki nahi baitzuen, azkenean William Bankesek beraiekin afaltzea onartu zuenez; eta Mildreden gutizia zeukaten jateko — boeuf en daube. Gauzak prest zeuden momentuan bertan zerbitzatzean zegoen koska. Haragia, erramu hostoa eta ardoa — dena bere garaian. Ez zen posible zain edukitzea. Baina hala ere hainbeste gautatik hartantxe berandutu zitzaien, eta janaria atzera bildu eta bero eduki beharra zegoen; erabat alferrikalduko zen boeuf en daube hura.

Jasperek opalozko koilarea eskaini zion; Rosek urrezkoa. Zeinek ematen zuen hobeto soineko beltzarekin? Zeinek ordea? zioen Ramsay andreak distraiturik, ispiluan lepoa eta sorbalde begira (baina aurpegia ebitatuz). Eta orduan, umek bere gauzetan lardaskatu bitartean, leihotik kanpora begiratu zuen ikuskizun beti gogoko batera — beleak, zein zuhaitzetan pau-

satu erabaki nahian. Bazirudien aldioro iritziz aldatu eta berriro hegatzten zirela, zeren, bere ustez, bele zaharra, bele aita, Joseph zaharra deitzen zion, izaera gogaikarri eta bihurrikoa baitzen. Omen txarreko txori zaharra, hegoetako lumen erdiak galdurik. Ostatu aurre batean tronpeta jotzen ikusitako gizaseme zahar, narras, kopazko sonbreirudun baten antza zuen.

«Beitu!» esan zuen barrez. Borrokan ari ziren. Joseph eta Mary borrokan. Hala ere berriro hegatu ziren denak, eta beren hego beltzek airea baztertu eta zimitarraren forma zoragarritan moztu zuten. Hegoen mugimenduaren dinbidanba hura —ezin inoiz bere gustura deskribatu— denetan ederrentxoena iruditzen zitzaion. Beitu horri, esan zion Roseri, berak baino argiago ikusi ahal izango zuelakoan. Zeren seme-alabek sarritan bultzada txiki bat ematen baitzioten aurrerantz norberaren begiztapenei.

Baina zein hautatu? Zabalik zeuzkaten bere bitxien kutxako kaxoi guztiak. Urrezko koilarea, italiarra hura, ala opalozko koilarea, osaba Jamesek Indiatik ekarria; edo bestela amatistak?

«Aukera ezazue, laztanak, aukera ezazue», esan zuen, lehenbailehen egingo zuten esperantzaz.

Baina aukeratzeko beta aski utzi zien: bereziki Roseri utzi zion, batean hau eta bestean hura hartu eta bitxiak soineko beltzaren ondoan jartzzen, bai baitzekien bitxiak aukeratzeko zeremonia txiki hura, gauerokoa, beste ezer baino gehiago atsegin zitzaiola Roseri. Honek bazeukan bere baitan arrazoi gorderen bat hainbeste garrantzi emateko amaren jantzi aukeraketari. Zein ote zen arrazoi hura, galdetzen zuen Ramsay andreak berekiko, geldi-geldirik jarrita alabak aukeratu zion koilarea lepo inguruan itxi ahal izateko, iraganetik igarri nahian berak ama-rengana zer sentimendu sakon, ezkutu, adierazi ezinezko eduki ote zuen Rosen adinean. Nork bere buruarekiko dituen sentimendu guztiak bezala, pentsatu zuen Ramsay andreak, tristea zen hura. Hain baitzen kaxkarra norberak ordainetan eman zezakeena; eta Rosek beragatik sentitzen zuena erabat neurritz kanpo zegoen bera berez zenaren aldean. Eta Rose hazi egingo zen; eta Rosek, ustez behintzat, sufritu egingo

zuen sentimendu sakon hauekin, eta jadanik prest zegoela esan zuen, eta behera jaitsiko zirela, eta Jasperek, gizasemea zen aldetik, besoa eskainiko zion, eta Rosek, andereñoa zenez, eskuzapia eramango zion (eskuzapia eman zion), eta zer gehiago? Oh, bai, hotz egiten bazuen ere: txala. Aukeraidazu txala, esan zuen, poztu egingo baitzen horrekin Rose, gerora hainbeste sufritu beharrekoa. «Horratx», esan zuen eskailerarteko leiho ondoan geldituz, «horratx non diren berriro». Joseph beste zuhaitz gailur batean zegoen kokatua. «Ez al duzu uste min handia hartzen dutela», galdetu zion Jasperi, «hegoak apurturik?» Zergatik jotzen zien tiroz Joseph zaharra eta Maryri? Jasperek oinak apur batean zoruan igurtzi eta errieta jaso ondoren bezala sentitu zen, baina ez gehiegi, amak ez baitzuen ulertzen txoriak tiroz jotzearen gozamen; ez ziren hon sentitzeko gai; eta ama munduko beste sail batean bizi zen, baina berak hala ere gogoko zituen istorio haiek Mary eta Josephi buruz. Barregura ematen zion. Nola jakin horiek zirela Mary eta Joseph? Zer uste zuen, gauero etortzen zirela txori berak zuhaitz beretara? gal-

detu zuen. Baina honetan, bat-batean, jende heldu guztiaren antzera, amak kasu egitez utzi zion. Sarrerako ardaila entzuten zegoen.

«Etixeratu dira!» hots egin, eta berehala haserre sentitu zen haiekin, lasaiturik baino askoz gehiago. Gertatu ote zen? galdetu zuen bere artean. Jaisten zenean kontatuko zioten — baina ez. Ezingo zioten fitsik ere kontatu, inguruan hainbeste jende egonik. Jaitsi, afaltzen hasi eta itxoin egin behar, beraz. Eta erreginaren antzera, menpekoak sarreran bildurik aurkitu, goitik begiratu, beraien artera abiatu, beren gorazarreak isilik eskertu eta, beren debozio eta ahopez jartzeak onartu ondoren (Paulek, gihar bakar bat mugitu gabe, aurrera begiratzen zuen zuzenean, bera pasatzerakoan), behera jaitsi zen, sarrera zeharkatu eta oso emeki egin zuen gur buruaz, esan ezin ziotena onartuz bezala: bere edertasunaren gorazarrea.

Baina bertan gelditu zen. Erre usaina zegoen. Gehiegi utzi ote zuten boeuf en daube-a surtan? baldinbaitere! eta orduan adierazi zuen gongaren harrabotsak, handikiro, agintari, ezen teilatupean, logelan, nor bere txokoan sakabanaturik



zeuden guztiak, irakurtzen, idazten, ileari azken leundua ematen edo soinekoak lotzen, bertan uzteko tokadore eta konketa gainerako purtxile-riak, mesanotxe gainerako nobelak eta hain pribatuak ziren egutegiak, eta jangelara biltzeko afarrirako.

## 17

Baina zer egin dut nire bizitzarekin? pentsatu zuen Ramsay andreak, mahaiburuko bere lekua hartu eta zirkulu zuriak egiten zituzten plater guztiei begira. «William, eseri nire ondoan», esan zuen. «Lily», esan zuen ahots nekatuarekin, «zu hortxe». Haiek —Paul Rayley eta Minta Doylek— beste zera hura zeukaten, eta berak hau bakarrik — bukaerarik gabeko mahai luzea eta platerak eta labanak. Beste muturrean senarra zegoen eserita, kuzkur-kuzkur, kopetilun. Zergatik? Auskalo. Bost axola. Ezin zuen ulertu inoiz harengatik zirrara edo zaletasuna sentitu izana. Zopa banatzerakoan, iruditu zitzaion bera ororen gaineratik, ororen barrena, orotatik kanpo-

ra zegoela, hantxe bertan zurrumbilo bat balego bezala, barruan ala kanpoan egon zitekeelarik, eta bera kanpoan balego bezala. Akabo da dena, pentsatu zuen, bitartean bata bestearen ondoren sartu, Charles Tansley —«Eseri hor, mesedez», esan zion— Augustus Carmichael, eta esertzen zirelarik. Eta bien bitartean zain zegoen, pasiboki, norbaitek berari erantzungo ote, zerbait gertatuko ote. Baina hau ez da, pentsatu zuen zopa burruntzaliarekin zerbitzatuz, hitzez esaten den zerbait.

Desadostasun honengatik betileak goratuz —hori buruan eta hau egiten, zopa banatzen— gero eta indar handiagoz sentitu zen zurrumbilotik kanpora; edo errainu bat gainera erori eta gauza guztiak, kolorea ebatsirik, egiaz ikusten ari balitz bezala. Gela hura (ingurura begiratu zuen) oso narras zegoen. Inon edertasunik ez. Tansley jaunari ezikusia egiten zion. Ezer ez zela mamitu ematen zuen. Denak aparte zeuden eserita. Eta bere gain zegoen mamitu, jario eta sortze lan guztia. Berrero sentitu zuen, gaitzik gabe ko egia baten antzera, gizonen antzutasuna, zeren berak egiten ez bazuen inork ez baitzuen

egin, eta hartara, gelditutako erlojuari ematen zaion kolpe txikia emanaz bere buruari, taupaka hasi zen familiako pultsu zaharra, erlojua tikitaka bezala — bat, bi, hiru, bat, bi, hiru. Eta abar eta abar, errepikatzen zuen, artean xumea zen pultsu hura entzunez, babestuz eta sustatuz, sugar ahula egunkariarekin zaintzen duenak bezala. Eta beraz, amaitu zuen, William Bankesengana isilik jiratuta harekin pentsatzen — gizarajoa! ez emazte, ez seme-alaba, ostatuan bakarrik afaltzen, gaur izan ezik; eta, harekiko errukiz, bizitzak orain bera ere berriro aurrera eramateko indar aski zeukanez, langite honetan hasi zen, hala nola marinela sentitzen duen, ez ahidurarik gabe, haizeak bela puzten diola eta hala ere abiatzeko gogo gutxi daukala, pentsatuz, ontzia urperatu balitz, zurrunbiloaren jirabiran joan eta atsedena aurkituko zukeela itsas zolan.

«Aurkitu al dituzu zuretzako gutunak? Sarrean esan diet zuretzat uzteko», esan zion William Bankesi.

Lily Briscoek irristatzen ikusi zuen Ramsay andrea jaberik gabeko lurralde horretara, inori

atzetik segitzea ezinezkoa den lekura, baina hala ere inor joaten ikusteak halako hotzikara sortzen dio begiraleari non hau begiradaz bederen segitzen saiatzen baita, hala nola segitzen zaion lausotzen doan ontziari, belak ortzi-muga-pean hondoratu arte.

Zer zahartua dirudien, zer zarpaildua, pentsatu zuen Lilyk, eta zer urrun. Ondoren William Bankesengana irribarrez jiratu zenean, bazirudien ontzia itzuli eta eguzkiak berriro jotzen zuela haren beletan. Eta lasaiturik zegoelako pentsatu zuen Lilyk alegrantzia pixka batekin, Zergatik errukitzen du Ramsay andreak? Inpresio hori eman baitzion, gutunak sarreran zeuzkalla esaterakoan. William Bankes gizarajoa, ematen zuen zioela Ramsay andreak, bere neke hura hein batean jendeari erruki izatetik baletor bezala, eta erruki horrexek emango balio bezala haizea bere bizitzari, berriro bizitzeko erabakiari. Baina hori ez zen egia, pentsatu zuen Lilyk; bere juzku oker horietako bat zen, senaz sumatua nonbait, eta beste inorenean ez baizik bere premia batean oinarritua zirudiena. William Bankes ez da batere errukarria. Bere lana dauka, zioen

Lilyk bere artean. Orduan oroitu zen, bat-batean altxorra aurkiturik bezala, berak ere bere lana zeukala. Tximistaren antzera bere koadroa ikusi eta pentsatu zuen, Bai, erdirago jarriko dut zuhaitza; hala osatuko dut hutsune baldar hori. Horixe egingo dut. Horixe zen nire buruhaustea. Gatzontzia hartu eta manteleko lore-irudi baten gainean ipini zuen, zuhaitza mugitu beharra gogorarazteko bezala.

«Xelebrea da korreoz ia inoiz fundamentuzko ezer jaso ez eta hala ere beti gutunen peskizan egotea», esan zuen Bankes jaunak.

A zer txorakeriak ari diren esaten, pentsatu zuen Charles Tansleyk, koilara plateraren erdi-erdian utziz, hango hondarrak zibizkatu ondoren, otordua segurtatzeko asmoz bezala, pentsatu zuen Lilyk (aurrean zeukan Charles Tansley eserita, leihoari bizkarra emanda, ikusmiraren erdi-erdian). Inguru guztian zeukan irmotasun urri hura, xarmarik eza hura. Nolanahi ere, artean egia zen ezinezkoa zela norbait gogoko ez izatea, begiratu ondoren. Gogoko zituen haren begiak; urdinak, barru-barruan ezarriak, beldur-garriak.

«Gutun asko idazten al dituzu, Tansley jauna?» galdetu zuen Ramsay andreak, errukior, orduan ere, Lilyren ustez; horrelakoa baitzen Ramsay andrea —beti zien gizonei erruki, zerbaiten eskasia balute bezala— emakumeei berriz inoiz ez, zerbaiten jabe balira bezala. Amari idazten zion; beste gainontzean gehien jota ilean gutun bat edo, esan zuen Tansley jaunak, labur.

Ez zeukan asmorik jende honek esanarazi nahi zizkion txorakeriak aipatzeko. Ez zeukan asmorik emakume tuntun haien mailara makurtzeko. Irakurtzen egona zen bere gelan, eta orain jaitsi eta dena ergela, axala, belaxka iruditzen zitzaion. Zergatik dotoretzen ziren? Bera ohiko arrokekin jaitsi zen. Ez zeukan arropa dotorerik. «Korreoz ia inoiz ez da fundamentuzko ezer jasotzen» — tankera horretako gauzak ari ziren beti esaten. Tankera horretako gauzak esanarazten zizkieten gizonezkoei. Bai, egia galanta, pentsatu zuen. Inoiz ez zuten fundamentuzko ezer jasotzen urte guztian zehar. Beti tar, tar, tar, jan, jan, jan. Emakumeak ziren errudun. Emakumeek ezinezkoa bihurtzen zuten zibi-

lizazioa, beren «xarma» harekin, beren tuntun-keria harekin.

«Bihar ez da farora joaterik egongo, Ramsay andrea», esan zuen bere burua adierazi nahian. Gogoko zuen Ramsay andrea; miresten zuen; artean gogoan zeukan estoldako gizonak hari begiratu zion aldia; baina beharrezkoa iruditu zitzaion bere burua adieraztea.

Tansley jauna, pentsatu zuen Lily Briscoek, nahiz begi haiek eduki, ez zegoen haren sudurra-ri, haren eskuei begiratzea besterik, inoiz ezagutu-  
tako gizaseme xarma gutxikoena zen. Orduan zergatik axola zitzaion haren esana? Emaku-  
mEEK ez dakitela idazten, ez dakitela pintatzen — zergatik arduratu, argi egonik ez zela benetan ari, baina nola hala lagungarri gertatzen zitzaio-  
la hori esatea? Zergatik makurtzen zuen bere izate guztia, garia haizearen menpe bezala, apa-  
laldi hartatik berriro jaikitze-ko ahalegin handi eta mingarri baten ostean? Berriro zeukan egin beharra. Horra hor mantel gaine-  
an adaska; horra hor nire pintura; erdira aldatu behar dut zuhaitza; hori axola zait — besterik ez. Ezin al zion horri indarrez eutsi, zioen bere artean, eta

bere onetatik atera ez, eta eztabaidatu ez; eta, mendeku pittin bat nahi izanez gero, haren bizkar barre eginez eskuratu?

«Oh, Tansley jauna», esan zion, «eraman nazazu zurekin farora. Zoratzen joango nintzateke».

Gezurretan ari zitzaion, eta bai Tansley jaunak antzeman ere. Benetan ez baizik amorrarazteko ari zen, arrazoiren batengatik. Bere bizkar barrez. Franelazko galtza zaharrak zeramazkien berak soinean. Besterik ezean. Oso baldar eta isolatu eta bakarti sentitu zen. Bazekien ziria sartu nahi ziola, arrazoiren batengatik; ez zuen farora berarekin joan nahi; gutxietsi egiten zuen: Prue Ramsayk bezalaxe; dendenek bezalaxe. Baina ez zegoen emakumeen txorizogarri izateko asmotan, eta beraz aulkian propio jiratu, leihotik begiratu, eta tupustean, oso elkor, biharamunean eguraldi zakarra izango zela esan zuen. Lilyri ondoeza egingo zitzaiola.

Amorrarazi egin zen Lilyk modu hartan hitz eginarazi ziolako, Ramsay andrea entzuten egonda. Bere gelan lanean egoterik baleuka behinik behin, pentsatu zuen, liburu artean. Han



sentitzen zen denetan lasaiana. Eta inoiz ez zuen penike bakar baten zorrik eduki; hamabost urteez gero ez zitzaion aitari penike bat ere kostatu; bere aurrezkiekin lagundu zuen etxean; bere gain zeukan arrebaren heziketa. Hala ere Miss Briscoeri zuzen erantzuten jakitea gustatuko zitzaion; hain tupustean jalki ez izana. «Ondo-eza egingo litzaizuke». Ramsay andreari esateko zerbait bururatzea gustatuko zitzaion, bera uste-handi lehor bat ez zela erakutsiko zion zerbait. Hala irizten baitzioten denek. Harengana jiratu zen. Baina berak inoiz aditu gabeko jendeaz ari zitzaion Ramsay andrea hizketan William Bankesi.

«Bai, eraman ezazu», esan zuen labur, Bankes jaunari esaten ari zitzaiona etenaz neska-meari hitz egiteko. «Izango dira hamabost —ez, hogeit hamar— azkeneko ikusi nuenetik», ari zen Ramsay andrea esaten, berriro Bankes jaunagana jiratuta, solas hartako momentu bakar bat ere galtzerik ez baleuka bezala, hizketa harekintxe buru-belarri. Haren berri jaso zuela gau hartan bertan? Eta Marlowen bizi al zen artean Carrie, eta dena lehengoan al zegoen? Oh, atzo balitz

bezala oroit zitekeen — ibaian barrena, hotzez puskatzen. Baina Manningdarrek plan bat antolatuez gero, beharko hari eutsi! Inoiz ez zuen ahaztuko Herbertek ibai ertzean erlea te-koilarekin hil zuen aldia! Eta dena garai batean bezala, pentsatu zuen Ramsay andreak, mamu baten antzera lerratuz aulki eta mahaietan barrena egongela hartan Thamesaren ondoan, non hotzez puskatzen egon baitzen duela hogeitau urte; baina orain mamu baten antzera zihoan handik barrena; eta liluraturik zegoen, bera aldatzen joan bitartean, egun berezi hark, orain oso isil eta eder bihurtua, bere hartan jarraitu zuelako, hainbeste urtez. Carriek berak idatzi al zion? galdetu zuen.

«Bai. Billarrerako saloi berria ari omen dira egiten», esan zuen. Ez! Ez! Oraindik holakorik! Billarrerako saloia egiten! Ezinezkoa iruditzen zitzaion.

Bankes jaunak ez zion hain tankera arraroa ematen. Zeukatenak ziren orain. Nahi al zuen Carrieri eskumuinak ematea?

«Oh», esan zuen Ramsay andreak asaldura txiki batekin, «Ez», gaineratu zuen, billarrerako

saloi berria eginarazten ari zen Carrie hura eza- gutzen ez zuelakoan. Bai gauza arraroa, errepi- katu zuen Bankes jaunari barregura emanaz, haiek han jarraitzea. Handia zen gero pentsatzea hainbeste urtetan gauza izan zirela bizitzen jarraitzeko, nahiz bera haietaz behin ere gogora- tu ez bitarte guzti hartan. Makina bat gertakari ezagutu zituen bere bizitzak bitarte hartan. Baina agian ere Carrie Manning ez zen berarekin gogoratu. Ideia arraro eta desatsegina.

«Agudo laxatzen dira jendarteko loturak», esan zuen Bankes jaunak, hala eta guztiz ere satisfakio apur bat sentituz, berak azken batean nola Manning-darrak hala Ramsaytarrak ere eza- gutzen zituela eta. Berak ez zuen loturarik laxa- tu, pentsatu zuen, koilara utzi eta bere ezpain alde ongi afeitatua fintasun handiz garbituz. Baina agian bera bakan samarra zen honetan, pentsatu zuen; inoiz ez zuen sustrairik hartu. Giro guztietan zeuzkan lagunak... Ramsay andreak honetan hitza moztu behar izan zuen, neskameari zer edo zer esateko janaria bero mantentzeari buruz. Horregatik nahiago zuen William Bankesek bakarrik afaldu. Amorrazioa

ematen zioten etenaldi guzti hauek. Tira, pentsatu zuen, kortesia fin hari eutsiz eta ezker eskuko behatzak mantelaren gainean luzatuz, ederki pulitu eta erabiltzeko prest dagoen erre-minta bat mekanikoak aztertzen duen bezala atsedendaldi batean, halakoxeak dira lagunek inori eskatzen dizkioten sakrifizioak. Mindu egingo zuen Ramsay andrea, etortzera ukatu balitz. Baina hala ere ez zuen merezi izan. Bere eskuari begira, pentsatu zuen bakarrik egon balitz aforia ia bukatua edukiko zuela; lanerako moduan egongo zela. Bai, pentsatu zuen, hau denbora alferrikaltzea da. Umeak artean banaka-banaka sartzen ari ziren. «Nahiago nuke zuetako bat Rogeren gelara igoko balitz», zioen Ramsay andreak. Hau da hutsalkeria, hau da aspertzea, pentsatzen zuen, beste zeraren aldean — lanaren aldean. Behatzekin mantelari tapatakoak ematen, beste hartan aritu beharrean — kirika batekin gainbegiratu zuen bere lana. Hura zen gero denbora alferrikaltzea! Nolanahi ere, pentsatu zuen, nire lagunik zaharrenetakoa da Ramsay andrea, ia erabat beragana emana nago. Orain hala ere haren presentziak ez zuen bera-

rentzat fisik esan nahi: haren edertasunak ez zuen berarentzat fisik esan nahi; seme gazteenarekin eserita egoteak leiho ondoan — ezta fisik ere. Berak bakarrik egon nahi zuen, eta berriro liburuari heldu. Egonezina sumatzen zuen; traidorea iruditzen zitzaion bere burua, haren alboan eserita egon zitekeelako harengana ezertxo ere sentitu gabe. Berez, ez zen famili bizitzaren zale. Egoera honelatsuan galdetzen zion inork bere buruari, Zertarako bizi? Zergatik inork hainbeste lan hartu gizateriaren aurreraparen alde? Hain desiragarria al da hori? Atseginak al gara espezie gisa? Ez sobera, pentsatu zuen, ume ñar samar haiei begira. Bere kuttuna, Cam, ohean zegoen nonbait. Galdera txoroak, galdera eskasak, zereginen bat zeukanak inoiz egiten ez zituen galderak. Hau al da bizitza? Hori al da bizitza? Ez zegoen inoiz astirik hartan pentsatzeko. Baina hona non zegoen bera halako galderak egiten bere buruari, Ramsay andrea mirabeei aginduak ematen ari zelako, eta baita ere burura etorri zitzaiolako, pentsaturik Ramsay andrea zenbat harritu zen Carrie Manning artean bizirik egoteaz, zer gauza ahulak diren adiskide-

tasunak, onenak ere. Loturak laxatzen dira. Berriro egin zion bere buruari erantzuki. Ramsay andrearen ondoan eserita eta ez zeukan ezertxo ere hari esateko.

«Arren barka ezazu», esan zuen Ramsay andreak, azkenean beragana jiratuta. William Bankes gogortua eta agorra sentitzen zen, bota pare bezala, zeharo blaitu eta gero lehortu ondoren oinak ozta-ozta sartu ezinik. Hala ere haiexetan sartu beharrak zeuzkan. Bere buruari hitz eginarazi beharra. Arreta handiz jokutzen ez bazuen, Ramsay andreak igarri egingo zion trai-zio hari; ez zitziola harengatik ipitzik ere axola, eta hori ez litzateke batere atsegina, pentsatu zuen. Beraz, burua okertu zuen kortesiaz haren-gana.

«Nazka emango dizu, inondik ere, basapizti hauen ondoan afaltzeak», esan zuen Ramsay andreak, distrahituta zegoenero bezala gizabide-tsu jardunez. Batzar batean hizkuntz lehia dago-enean, lehendakariak, batasuna erdiesteko, denek frantsesez solastatzea proposatzen du. Beharbada frantses traketsa; frantsesak agian ez ditu edukiko hiztunaren pentsamenduak adie-

raziko dituen hitzak; frantsesez solastatzeak, nolana ere, ordena ezartzen du, berdintasuna. Hizkuntza berean erantzunez, Bankes jaunak esan zuen, «Ez, deus ez», eta Tansley jaunak, hizkuntza hau ezagutu gabe, nahiz silaba bakarreko hitzetan ebakia izan, berehala sumatu zuen faltsukeria. Txorakeriak esaten ari ziren Ramsaytarrek, pentsatu zuen; eta pozez murgildu zen adibide berri honetan, ohar hura gogoan hartuz, hauetako egunen batean lagun bati edo biri ozenki irakurriko ziona. Han, edozein gauza esatea libre zen bilkura hartan, sarkasmoz deskribatuko zuen «Ramsaytarreneko egonaldia», eta zer lelokeriez hitz egiten zuten. Behin aipatuko zuen; baina birritan ez. Hain ziren emakumeak aspergarri, esango zuen. Ramsay jaunak bere burua hondatu zuen emakume eder batekin ezkondu eta zortzi seme-alaba edukiz. Halatsu izango zen bere aurkezpenaren itxura, baina orain, momentu honetan, aulki huts baten aldamenean tinko eserita, han ez zegoen ezeren itxurarik. Dena puska eta zatitan. Izugarritzko egonezina sentitzen zuen, baita gorputzekoa ere. Bere burua adierazteko aukera nahi zuen

norbaitek ematea. Hainbestekoa zen bere grina hartarako, non batera eta bestera mugitzen baitzen aulkian, honi begiratu, hari begiratu, inori hitza nondik etengo, ahoa zabaldu eta berriro itxiz. Arrantzuaz ari ziren. Zergatik ez zion inork iritzia galdetzen? Zer zekiten haiek arrantzuaz?

Lily Briscoe guzti horretaz jabetzen zen. Bankes jaunaren aurrean eserita, ez al zen gai ikusteko, erradiografia batean bezala, gizon gaztearen nabarmentzeko grinaren saihetsezur eta femurrak ilunpetan, haragiaren laino artean — konbentzioak ezarritako laino xumea, elkarrizketan parte hartzeko zeukan irrika sutsuaren gainean? Baina, pentsatu zuen, bere begi txinatarrak kizkurtuz eta hark emakumeei iseka nola egiten zien oroitzuz, «ez dakite pintatzen, ez daki-te idazten», zergatik nik honi lagundu bere burua arintzen?

Berak jokabide arautegi bat ezagutzen zuen, zazpigarren artikuluan dioena (agian) gisa hone-tako egoeretan emakumearentzat komenigarria dela, edozein gauzatan jarduten egonik ere, aurreko gizon gazteari laguntzea, honek bere harrotasuna, bere burua nabarmentzeko grina-



ren femur eta saihetsezurak agerian jarri eta arindua eman ahal izan diezaien; halaber, gizon gazteen zeregina da, hausnartu zuen neskazar batek bezain zuzen, guri laguntzea, metroan sutea zabal baledi. Halakoan Tansley jaunak ni handik ateratzea esperoko nuke noski. Baina zer gertatuko litzateke, pentsatu zuen, biok huts egiten badugu gure zereginen? Hala, irribarrez jarraitu zuen, hantxe eserita.

«Ez duzu bada farora joateko asmorik izango, eh Lily?» esan zuen Ramsay andreak. «Gogora zaitez Langley jaunarekin; dozenaka aldiz zeharkatu zuen mundua, baina ez omen zuen inoiz sufritu nire senarrak hara eraman zuenean hainbat. Marinel ona al zara zu, Tansley jauna?» galdetu zuen.

Tansley jaunak mailua altxatu, airean eragin, baina beheratzerakoan konturatu zen ezin zuela halako tresnarekin tximeleta zanpatu, eta bizitza osoan ez zela zorabiatu esan zuen soilik. Baina perpauz bakar honetan zegoen bil-bil eginda, bolbora bezala, aitona arrantzale zuela; aita botikaria; bere kabuz egin zuela aurrera; harro zegoela horrekin; Charles Tansley zela bera —

hemengo inor itxuraz konturatzen ez zen gauza; baina hauetako egunen batean den-denek jakingo zutena. Muturturik begiratu zuen aurrera. Ia errukia zion jende ikasi, bare honi, hauetako egunen batean hankaz gora joango zirenak, artilezko balak eta sagar barrikak bezala, bere barruko bolboragatik.

«Eramango al nauzu zerorrekin, Tansley jauna?» esan zuen Lilyk, agudo, jator, zeren Ramsay andreak esaten bazion, eta hain zuzen ere hala esan zion, «Itotzen ari naiz, maitea, suzko itsasotan. Non eta oinaze hau ukendu batez igurtzi, eta horrako gizon gazte horri zer-bait atsegina esaten ez diozun, harkaitzen kontra joko du bizitzak — aditzen nago karraska eta burrunba-hotsa. Biolin sokak bezain tenk dauzkate nerbioak. Beste ukitu batekin etengo zaizkit» — Ramsay andreak hau dena esatean, begietan seinale zuen moduan, noski, Lily Briscoek ehun eta berrogeita hamargarren aldiz uko egin bere esperimentuari —ea zer gertatzen den horrako gizon gazte horrekin jator jokatzeko ez bada— eta jator jokatu beharra izan zuen.

Lilyren umore aldaketari ongi igarriz —jator hasi zen berarekin jokatzek— Tansley jauna berekoikeriatik libre sentitu zen, eta kontatu zuen umetan txalupatik bota zutela; aitak beti haga batekin harrapatzen zuela; horrela ikasi zuela igeri. Bere osabetako bat argizaina izan zela Eskoziako harkaitz mutur batean. Berarekin egona zela ekaitz batean. Azken hau ozenki esan zuen, etenaldi batean. Entzun egin behar zioten, esaterakoan ekaitz orduan osabarekin egon zela faroan. Ah, pentsatu zuen Lily Briscoek, elkarrizketak joera egoki hau hartzean eta Ramsay andrearen eskerrona sentitzean (zeren Ramsay andreak aukera zeukan orain pixka batean bere artean hitz egiteko), ah, pentsatu zuen, baina zer ez dut pagatu behar izan zuri hori eskuratzeko! Faltsuki jokatu zuen.

Ohiko trikimailua erabili zuen — jator jokatzea. Hartara ez ziren inoiz elkar ezagutzera iritsiko. Giza harreman guztiak ziren horrelakoak, pentsatu zuen, eta denetan okerrenak (Bankes jaunagatik izan ez balitz) gizon eta emakumeen artekoak. Hauek ikusgarri faltsuak ziren derrigorrez. Orduan bere begiek gatzontziari erreparatu

zioten, arestian bertan ipinia gogoragarri moduan, eta hurrengo goizean zuhaitza erdialderago mugitu beharraz oroitu zen, eta bere umorea hainbeste alaitu zen biharamunean pintatzen jarduteko ideiarekin non ozenki egin baitzion barre Tansley jauna esaten ari zenari. Aritzea zuen gau osoa hizketan, hala gura bazuen!

«Zenbat denboran egoten da inor faroan?» galdetu zuen. Bai Tansley jaunak erantzun ere. Harrigarria zen zenbat kontu zekizkien. Eta hark eskerrona sentitzen zuenez, eta hark bera gogoko zuenez, eta hura disfrutatzen hasia zenez, orain, pentsatu zuen Ramsay andreak, ametsen lurralde hartara itzul naiteke, leku irreal baina liluragarri hartara, Manning-darren sabia duela hogeit hamar urte Marlowen, presa edo estutasunik gabe ibiltzeko lekua, etorkizunari buruzko kezkarik ez zegoenez. Bazekien zer gertatu zitzaien haiei, eta zer berari. Liburu on bat berriro irakurtzea bezala zen, ezagutzen zuen ipuinaren bukaera, duela hogeit hamar urte gertatutakoa baitzen, eta bizitza, jangelako mahaitik ere ibaika jarioan zihoana auskalo nora, bertan zegoen zigilaturik, laku baten antzera goxoki etzanda kantoi haien

barruan. Billarrerako gela egin omen zuten — ba ote? Jarraituko ote zuen Williamek hizketan Manning-darrei buruz? Bai berak nahi. Baina ez — arrazoiren batengatik ez zegoen jada umorean. Bera saiatu bai, baina hark erantzun ez. Ezin behartu. Desilusionaturik zegoen.

«Lotsagarriak dira ume hauek», esan zuten berak hasperenka. Orduan hark zer edo zer esan zuen, alegia puntualtasuna dela bertute txikieta-ko bat edo, urteen poderioz bakarrik eskuratzen dena.

«Orduan ere nahikoa lan», esan zuen Ramsay andreak, betegarri moduan soilik, pentsatuz neskazahartzen ari zela William. Bere traizioaz jakitun, zerbait intimoagoaz hitz egiteko Ramsay andrearen gogoaz jakitun, baina hala ere artean horretarako umorerik gabe, bizitzaren atseginez sentitu zuten bere gainera erortzen, bertan eserita zain. Zerbait interesgarria ari ote ziren besteak esaten? Zer ari ziren esaten?

Arrantzarako sasoi txarra izan zela; gizonak atzerrira zihoazela. Soldatak eta langabezia. Gizon gaztea gobernuagatik gaizki-esaka. William Bankesek, pentsatuz zer lasaitasuna zen

honelako zerbaiti heldu ahal izatea bizitza pribatua desatsegina zenean, «gaurko gobernuaren ekintza eskandalosoenetako bat» aditu zion aipatzen. Lily entzuten ari zen; Ramsay andrea ere entzuten; denak entzuten. Baina jadanik asperturik, Lilyk zerbaiten hutsunea antzeman zuen; Bankes jaunak zerbaiten hutsunea antzeman zuen. Bere txalean bilduz, Ramsay andreak zerbaiten hutsunea antzeman zuen. Entzun ahal izateko aurrera makurturik, denak ari ziren pentsatzen, «Baldinbaitere ez al dira nire barruko gogoetak azaleratuko», zeren denak ari baitziren pentsatzen, «Besteek hau sentitzen dute. Gobernuarekin sutan eta haserre daude arrantzaleak direla eta. Nik berriz ez dut ezer sentitzen». Baina agian, pentsatu zuen Bankes jaunak Tansley jaunari begira, hau da gizona. Beti gaude norbaiten zain. Beti dago aukera bat. Noiznahi zutitu daiteke buruzagia; jenioa, nola politikan hala beste guztian ere. Segur aski elkor hutsa izango da antigoalekoak garenokin, pentsatu zuen Bankes jaunak, bihotz-zabal izateko ahalegin guztiak eginez, bai baitzekien, gorputzeko sentrazio bitxi batengatik, bizkarrezurreko ner-

bioak tente baleuzka bezala, inbidia ziola, aldez Tansley jaunari berari, aldez haren lanari, haren ikuspuntuari, haren jakinduriari; eta Tansley jauna ez zen guztiz gogo irekikoa edo erabat gizalegetsua, zeren bazirudien honela zioela, Zuen bizitzak alferrikaldu dituzue. Oker zaudete denok. Aitona-amona errukarriok, itxaropenik gabe geratu zarete antzinako garaietan. Arras seguru ematen zuen, gizon gazte honek; eta modu txarrak zeuzkan. Baina Bankes jaunak haren adorea ikusarazi zion bere buruari; haren trebetasuna; gaur egungo berriak zehatz zekizkiela. Segur aski, pentsatu zuen Bankes jaunak, Tansley gobernuagatik gaizki-esaka ari zen bitartean, arrazoi franko du esaten ari den horretan.

«Baina esadazu...» hasi zen. Hala, politikari buruz jardun zuten, eta Lily mantel gaineko hostoari begira zegoen; eta Ramsay andrea, eztabaida erabat bi gizonen esku utziz, bere buruari galdezka ea zergatik aspertzen zen hainbeste solas harekin, eta desiratzen zegoen, mahaiaren beste muturreko senarrari begira, honek zerbait esan zezan. Hitz bakar bat, zioen bere artean.

Haren hitz bakar batekin alde handia antzeman-  
go zen. Hark gauzen muinari heltzen zion. Arran-  
tzale eta hauen soldatei buruz kezkatzen zen.  
Loa kentzen zion haiengan pentsatzeak. Berebi-  
ziko aldea zen hark hitz eginez gero; orduan  
inork ez zuen pentsatuko, baldinbaitere ez al  
zarete jabetuko zer gutxi axola zaidan, zeren  
orduan denei axolako baitzitzaien. Orduan, kon-  
turatzean senarra hainbeste miresteagatik zego-  
ela hark noiz hitz egingo zain, iruditu zitzaion  
norbait aritu zela bere senarra eta beren ezkon-  
tza goraiatzeko, eta txingarra adina gorritu zen,  
konturatu gabe bera izan zela senarraren gorai-  
patzaile. Begiratu egin zion, aurpegian ageri  
izango zuelakoan; itxura bikaina edukiko zuen...  
Baina ezta hurrik ere! Bekozko ilunez zegoen,  
muturturik eta aurpegi oker, masailak haserrez  
sutan. Zergatik ote? Zer gertatzen ote zen? Bada  
Augustus zahar gizarajoak beste platerkada  
zopa eskatu zuela — hori zen dena. Onartezina  
zen, jasanezina (hala egin zion senarrak keinu  
mahaiaren bestaldetik) Augustus berriro zopare-  
kin hastea. Gorroto zuen inork jaten segitzea  
berak bukatu ostean. Ramsay andreak amorrua



ikusi zuen ehiza-zakur saldo bat bezala igotzen zitzaiola senarrari begietara, kopetara, eta konprenitu zuen zerbait indartsua lehertuko zela laster, eta orduan — baina Jainkoari eskerrak bere buruari eutsi eta gurpila galgatzan ikusi zuen senarra, eta bazirudien haren gorputzak txinpartak isurtzen zituela, baina hitzik ez. Kopetilun jarraitu zuen. Ez zuen deus esan, hala berretsi beharko zuen gero Ramsay andreak. Hala aitortu beharko zuen. Baina zergatik ez zuen Augustus zaharrak beste platerkada zopa eskatu behar? Elleni besoa ukitu eta esatea besterik ez zuen egin:

«Ellen, mesedez, beste platerkada zopa», eta orduan muturtu zen hainbeste Ramsay jauna.

Eta zergatik ez? jakin gura zuen Ramsay andreak. Noski Augustusek zopa gehiago barrezakeela nahi izanez gero. Gorroto zuen inork harrapazka jatea, belztu zuen Ramsay jaunak kopeta. Gorroto zuen era honetan gauzak ordutan luzatzea. Baina ikuskizuna higuigarria izan arren bere burua menperatu zuen, hala berretsi beharko zuen gero emazteak. Baina zergatik hain argi ezagutzera eman? jakin gura zuen

Ramsay andreak (mahai luzean zehar begiratzen zioten elkarri, galdera eta erantzun hauek bidaliz batak besteri, norberak zehatz jakinez bestearen sentimendua). Denek ikusteko moduan, pentsatu zuen Ramsay andreak. Horra Rose aitari begira, horra Roger aitari begira; algara bizian hasteko zorian zeudela antzeman eta berehala esan zuen (garaia ere bazen):

«Piztu kandelak», eta umeak airean altxatuta joan, eta hastaka aritu ziren ontzitegian.

Zergatik ezin zituen senarrak inoiz bere sentimenduak ezkutatu? galdetu zuen Ramsay andreak bere artean, eta Augustus Carmichael konturatu ote zen ere galdetu zuen. Agian bai, agian ez. Ezin zuen errespetatzez utzi haren eserita egoteko patxada, zopa hartu bi tartean. Zopa nahi bazuen, zopa eskatzen zuen. Berdin zitzaion jendeak bere bizkar barre egitea edo haserretzea. Ramsay andreak bazekien ez zuela bera gogoko; baina hein batean arrazoi horrexegatik errespetatzen zuen hura, eta zopa hartzen ikusten zuen bitartean, hain handi eta lasai ilunabarraren argitan, monumentu baten gisa eta hausnarkor, zer ari ote zen sentitzen galdetu

zuen Ramsay andreak berekiko, eta zergatik ote zegoen beti alegera eta duin; eta pentsatu zuen ere zenbateko zaletasuna zeukan Andrewgana, honi bere gelara deitzeko, eta, Andrewren esanetan, «gauzak erakusteko». Eta hantxe egongo zen egun osoa belardian etzanda, segur aski bere olerkiekin gogoetan, txoriei zelatan dagoen katua gogorarazi arte inori, eta hitza aurkitzean txalo egiten zuen atzaparrekin, eta senarrak hala zioen, «Augustus zahar gizarajoa — benetako poeta da», senarraren aldetik gorai pamen handia, hain zuzen ere.

Orain zortzi kandela zeuden mahai gainean, eta lehen kizkurraldiaren ondoren sugarrak tentetu eta argitara bildu zuten mahai luze osoa, erdian fruta-erretilu hori purpura bat zeukana. Zer egin zuen Rosek harekin, galdetu zuen Ramsay andreak berekiko, zeren mahatsa eta udareak, arrasto arrosako maskor zakarra, platanak antolatzeko moduak, gogora ekarri baitzion itsas zolari ostutako trofeoa, Neptunoren orritsa, Bacok sorbaldatik zintzilik daukan mahats tortoa (koadroren batean), lehoinabar larru eta gorri eta urrez jauzika doazen zuzien artean... Honela,

bat-batean argitara ekarrita, bazirudien erretiluak sekulako tamaina eta sakonera zeuzkala, mundu baten pareko, nora eta makila harturik joan eta mendian gora igo zitekeen, pentsatu zuen, eta haranetara jaitsi, eta bere zorionerako (harekek une batez harremanean jarri baitzituen biak), Augustus ere fruta-erretilu berean begiei gozatua ematen ikusi zuen, bertan murgiltzen, hemen lorea eta han galburua hausten, eta gozatua hartu ondoren erlauntzera itzultzuten. Hori zen haren ikusteko modua, berea ez bezalako. Baina biak batera begira egoteak batu egin zituen.

Orain pizturik zeuden kandela guztiak, eta kandela-argiak elkarrengana hurbildu zituen mahaiaren alde bakoitzeko aurpegiak, eta ares-tiko ilunabar argitan ez bezala, mahai inguruko lagunarte bat bihurtu zen hura, zeren gaua orain kristalezko xaflek mugatzen baitzuten, eta hauek, kanpoko munduaren ikuspegi zehatza eman beharrean, hain modu arraroan ondultzen zuten hura non bazirudien hemen gela barruan ordena eta lehorra zirela nagusi; han

kanpoan berriz isla bat, non gauzek urtsuki balantzatu eta desagertu egiten ziren.

Aldaketa batek zeharkatu zituen berehala denak, hau benetan gertatu balitz bezala, eta denak jabeturik baleude bezala talde bat osatzen zutela denen artean zulo batean, irla batean; kanpoko jario haren aurka ekiteko bat eginda bezala. Ramsay andreak, ordura arte urduri Paul eta Minta noiz sartuko zain, eta ezertan hasi ezineko irudipen batek hartuta, orain bere urduritasuna ikusmin bihurturik sentitu zuen. Iristeko zorian behar baitzuten, eta Lily Briscoek, bat-bateko bozkarioaren arrazoia aztertu nahian, tenis zelaiko lehengo momentuarekin alderatu zuen, noiz eta sendotasun guztia bat-batean desagertu eta beren arteko espazioak hainbeste zabaldu baitziren; eta orain, urri jantzitako gela hartan, ondorio hura bera erdiesaten zuten hainbeste kandelek, eta baita gortinarik gabeko leihoek, eta baita aurpegien maskara itxurako begirada distiratsuek ere kandela-argitan. Pisuren bat arindu zitzaien; zernahi gerta zitekeen, sentitu zuen. Orain etorri behar zuten, pentsatu zuen Ramsay andreak ateari begira,

eta orduantxe Minta Doyle, Paul Rayley, eta eskutan erretilu handi bat zekarren neskamea sartu ziren elkarrekin. Ikaragarri berandu zetozen; izugarri berandu zetozen, esan zien Mintak, nor bere aldetik mahaiko alderdi desberdinetara joanez.

«Brotxea galdu dut — amonaren brotxea», esan zuen Mintak lantura doinu batekin eta begi marroi handiak malkoz gainezka, beheara begira, gora begira, Ramsay jaunaren ondoan esertzera-koan. Hau adarra jotzen hasi zitzaion, bere galanteria iratzarrita.

Nolaz izan zen hain txoraa, galdetu zion, har-kaitzetan txirristan ibiltzeko bitxiak jantzita?

Minta izaturik bezala zegoen — beldurtzeko moduan baitzen Ramsay jauna azkarra, eta lehen gauean haren ondoan eseri eta George Elioti buruz hitz egin zionean benetan ikaratu zen, zeren trenean ahaztu baitzitzaion *Middlemarch*-en hirugarren alea, eta ez zekien zer gertatzen zen azkenean; baina gerora ederki etorri ziren elkarrekin, eta berez zena baino ezjakinago egin zuen Mintak bere burua, Ramsay jaunak gogoko baitzuen berari tuntuna deitzea. Eta

beraz gau honetan, hark barre egin bezain laster, beldurra joan zitzaion. Izan ere jangelan sartu bezain laster jakin zuen miraria gertatu zela; urrezko gandua biltzen zuen. Zenbaitetan soinean zeraman; bestetan ez. Inoiz ez zekien zergatik azaldu edo zergatik desegiten zen, edo soinean ote zeraman, harik eta gela batean sartu arte, eta orduan berehala jakiten zuen gizonen batek begiratzen zion moduatik. Bai, gau hartan soinean zeraman, berealdikoa; Ramsay jaunak tuntu ez izateko esan zion moduatik jakin zuen. Haren ondoan eseri zen, irribarrez.

Hala gertatu zen nonbait, pentsatu zuen Ramsay andreak; ezkon hitza eman diote elkarri. Eta momentu batez Inoiz sentitzea espero ez zuena sentitu zuen — jelsia. Senarrak ere sentitzen baitzuen — Mintaren distira; honelako nesken zale zen, ile gorritza argiak, aldakorak, buruarin eta axolagabe samarrak, «ile-tximak zintzilik» zituztenak, «eskasak» ez zirenak, Lily Briscoe gajoari esaten zion moduan. Bazegoen ezaugarriren bat Ramsay andreak berak ez zeukana, erlantzen bat, oparotasunen bat, senarra

erakarri, dibertitu, eta Mintaren moduko neskak haren kuttun bihurtzen zituena. Halakoek libre zuten hari ilea moztu, erloju-kateak txirikordatu edo laneko orduan hoska etetea (entzuna zuen berak), «Zatoz, Ramsay jauna; gure txanda da hauei jipoia emateko», eta han irteten zen tenisean jolastera.

Baina Ramsay andrea ez zen berez batere jeloskor; noizean behin soilik, ispiluan begiratzera behartzen zuenean bere burua, apur bat mindurik sentitzen zen zahartu zelako, agian bere erruz. (Negutegiko faktura eta). Eskertzen zien haren bizkar barre egitea. («Zenbat pipa erre dituzu gaur, Ramsay jauna?» eta abar), gizon gazte ematen zuen arte; emakumeentzat oso erakargarri zen gizona, burua makurtu edo erasan gabea zeregin ugariekin, munduko nahiga-beekin, ospe edo hutsegiteekin, baizik berak hasieran ezagutu zuen eran, erkitua baina xarmanta; berari txalupatik irteten lagundu zion aldia zeukan gogoan; gizabide zoragarritz, orain bezalaxe (hari begiratu eta harritzeko moduan ematen zuen gazte, Mintari adarra jotzen). Berak berriz —«Uztazu hementxe», esan zuen, Suitza-



ko neskari bere aurrean emeki jartzen lagunduz boeuf en daube-aren lapiko marroi erraldoia—berak bere aldetik nahiago zituen bere mutiko mozoloak. Paulek bere ondoan eseri behar zuen. Lekua zeukan harentzat gordeta. Zinez, batzuetan uste zuen mutiko mozoloak zituela beste inor baino nahiago. Ez zuten inor gogaitzen tesi doktoraleskin. Izan ere zenbat gauza huts egiten zituzten gizon ham azkar hauek! Zenbat ihartzen ziren, alafede. Paulek bazeukan, pentsatu zuen hura esertzerakoan, xarma berezi bat. Zoragariak iruditzen zitzaizkion haren moduak, haren sudur zorrotza eta begi urdin argiak. Oso arretatsua zen. Kontatuko ote zion berari —orain denak berriro hizketan ari zirenez— zer gertatu zen?

«Mintaren brotxea bilatzeko itzuli gara gu», esan zuen bere ondoan eseriz. «Gu» — aski zen horrekin. Ahalegin hartan, hitz zail bat gainditzeko haren ahots goratzean, antzeman egin zuen lehen aldia zuela «gu» esaten. «Guk» hau egin genuen, «guk» hura egin genuen. Bizitza guztian esango dute hori, pentsatu zuen, eta azeituna, olio eta salda usain goxoa altxatu zen erretilu

marroi handitik, Martheek tapa jaso zuenean garaipenezko keinu batekin. Sukaldariak hiru egun zituen igaroak jaki harekin. Eta kontu handia eduki behar zuen orain berak, pentsatu zuen Ramsay andreak masa bigun hura miatuz, William Bankesentzat ahalik puska xamurrena aukeratzeko. Eta saihets distiratsuko erretilura begiratu, non nahasian baitzeuden haragi marroi eta hori zapoetsuak, eta erramu hostoak eta ardoa, eta pentsatu zuen, Honen bidez ospatuko dugu — eta horrekin batera irudipen berezi bat erne zen bere baitan, aldi berean xeblete eta xamurra, alegia jai bat ari zirela ospatzen, bere baitan bi emozio esnatu balira bezala, bata sakona — zeren ba al zegoen gizonaren maitasuna emakumeagana baino ezer serioagorik, ezer aurreagoko eta bikainagorik, altzoan heriotzaren hazia daramanez; maitale hauei, halaber, ilusioaren munduan begiak ñirñirka sartzen zen jende honi, dantza bat egin behar zitzaion inguruan txantxetan, eta giraldekin apaindu.

«Arrakasta itzela», esan zuen Bankes jaunak, apur batean labana utziz. Arretaz jaten zuen. Aparta zegoen, xamurra. Ederki prestatua. Nola

egin zitzakeen halako gauzak bazter hartan? galdetu zion. Emakume zoragarria zen. Bankes jaunari maitasuna eta mirespen guztia itzuli zitzaion; eta Ramsay andreak antzeman egin zuen.

«Nire amonaren errezeta frantsesa da» erantzun zuen, ahotsean atsegin handiko doinuarekin. Noski frantsesa zela. Ingalaterran sukaldaritza deitzen zaiona izugarrikeria bat da (denak bat etorri ziren). Aza uretan sartzea. Haragia erretzea zapatila zorua baino areago. Barazkien azal goxoa zuritzea. «Bertan dago», esan zuen Bankes jaunak, «barazkien indar guztia». Eta zenbat alferrikaltzen den, esan zuen Ramsay andreak. Familia frantses oso bat bizi liteke sukaldari ingeles batek harrika botatakoarekin. Irudipen hark bultzatuta, alegia Williamen adiskidetasuna berreskuratu, dena berriro bere oneratu, estutasuna amaitu, eta orain bai garaipena eta bai isekarako libre zegoela, barrez hasi zen, keinuka, harik eta Lilyk pentsatu zuen arte, Zer umea, zer burugabea zen, hantxe eserita egotea edertasuna berriro zabaldurik, barazki azalei buruz hizketan. Bazegoen harengan zerbait bel-

durgarria. Indar eutsiezina. Azkenean beti egiten zuen berea, pentsatu zuen Lilyk. Orain hau lortu zuen — Paulek eta Mintak, itxura zenez, elkarri hitza ematea. Bankes jauna hemen egotea afaltzen. Nahi izate hutsarekin sorgintzen zituen denak, aise eta zuzen; eta Lilyk ugaritasun hori bere izpiritu pobrearekin konparatu zuen, eta segurutzat jo zuen (zeren Ramsay andrearen aurpegia zeharo argitua baitzegoen — gazte ez baina distiratsu ematen zuen) gauza arraro, izugarri hori sinesteagatik zegoela Paul Rayley dardara batean, han erdian, baina hala ere bere baitaratua, hausnarkor, isilik. Barazki azalei buruz hitz egin bitartean, Ramsay andreak, hala sentitu zuen Lilyk, gauza hori goraipatzen zuen, miresten zuen; eskuak gauza haren gainean jartzten zituen, epeltzeko, babesteko, baina ondoren nola hala barre egin eta aldarera eramaten zituen bere biktimak, Lilyk sentitu zuenez. Orain beraganaino ere heldu zen — maitasunaren zirrara, dardara. Zer hutsala sentitzen zuen bere burua Paulen ondoan! Hura gori-gori, sutan; bera urrun, satiriko; hura abenturarako gertu; bera lehorrari itsatsia; hura irrikatsu, ausart; bera

bakarti, bazterrean — eta haren hondamenditik, baldin hondamendirik suertatzen bazen, zati bat behinik behin arren eskatzeko prest, herabe galdetu zuen:

«Noiz galdu du Mintak brotxea?»

Paulek irribarre eztena agertu zuen, oroitzapenen beloak gordea, ametsek ñabartua. Buruari eragin zion. «Hondartzan», esan zuen.

«Baina aurkituko dut», esan zuen, «goizean goiz jaikita». Baina hau Mintaren isilean zeukan, ahotsa apaldu eta begiak zuzendu zituen hura eserita zegoen aldera, Ramsay jaunaren ondoan irribarrez.

Lilyk bortitz eta garratz aldarrikatu nahi zuen Pauli laguntzeko zeukan gogo, iragarriz egunsentian berak topatuko zuela hondartzan brotxea harriren batek erdi ezkutatua, hartara bere burua marinel eta abenturazaleen artean sartuz. Baina zer erantzun zion hark eskaintza honi? Gutxitan azaltzen zuen emozio batekin esan zuen berak, «Utzidazu zurekin joaten», eta hark orduan barre. Bai ala ez esan nahi zuen — agian biak. Baina ez zen esan nahi zuena — baizik barre-iduri xelege hura, esanez bezala, Zeure

burua amildegian behera bota nahi baduzu ere, niri bost axola. Masailera bidali zion maitasunaren bera, izua, laztasuna, eskrupulurik eza. Lilyk, horrekin kiskalita, begiratzuz mahaiaren beste muturrean Ramsay jaunarekin jator asko ari zen Mintari, beldurrez dardara egin zuen betortz haien menpe zegoelako Minta, eta berak izandako zortea eskertu zuen. Zeren azken batean, esan zion bere buruari, mantel gaineko gatzontziari kirika eginez, berak ez zeukan ezkondu beharrik, Jainkoari eskerrak: ez zeukan degradazio hura jasan beharrik. Salbatua zegoen txepelkeria hartatik. Erdialderago eramango zuen zuhaitza.

Halakoa zen gauzen konplexutasuna. Zeren berari gertatzen zitzaiona zen, bereziki Ramsay-tarrenean, elkarren aurkako bi gauza sentitzen zituela aldi berean bortizki: bata zeuk sentitzen duzuna; bestea neuk sentitzen dudana, eta ondoren bere baitan jarduten zuten lehian, orain bezala. Maitasun hau hain da ederra, hain zirraragarria, non dardara egiten baitut honen aldamenean, eta neure burua eskaintzen dut, neure ohituraren kontra, hondartza batean brotze bat

bilatzeko; giza pasioen artean txoroena eta bar-  
baroena ere bada, eta gizon gazte jatorra, gema  
baten perfila duena (Paulena aparta zen), liskar-  
ti hutsa bihurtzen du, palanka batekin Mile End  
Roaden (harro zegoen, batere lotsarik gabe).  
Hala ere bere buruari esan zion, mundua mundu  
denetik kantatu izan zaizkio maitasunari odak;  
oparitu izan zaizkio erramuzko koroa eta arro-  
sak; eta hamar laguni galdetzen badiezu, hauxe  
dutela desio bakarra esango dute bederatzik;  
emakumeek aldiz, bere esperientziaren arabera,  
denbora guztian sentituko lukete, Hau ez da guk  
nahi duguna; ez dago maitasuna baino gauza  
aspergarri, umekeriazko eta inhumanoagorik;  
baina aldi berean eder eta beharrezkoa da.  
Beraz? Beraz? galdetu zuen bere artean, ezta-  
baidarekin besteek jarraituko zutelakoan, nor-  
baitek gezia bota, nabarmenki laburregi geratu,  
eta hura aurrera eramatea besteen gain utziz  
bezala. Hala, haiek ziotena entzuten jarri zen  
berriro, badaezpada, maitasun gaia argitzen  
bazuten ere.

«Horretaz gain», esan zuen Bankes jaunak, «hor dago ingelesek kafea deitzen dioten isurkin hori».

«Oh, kafea!» esan zuen Ramsay andreak. Baina arazoa gehiago omen zen (erabat aztoratua zegoen, Lilyk antzeman zezakeenez, eta enfasi handiarekin hitz egiten zuen) benetako gurina eta esne garbia. Berotasun eta etorri oparoz deskribatu zuen esnegintza ingelesaren zitalkeria, eta nolako egoeran banatzen zen esnea etxe atarrietara, eta bere salaketaren frogei ekitera zihoan, oso jantzia baitzegoen gai hartan, baina orduantxe mahai guztian barrena, erdiko Andrewgandik hasiz, txilar sasi batetik bestera lasterka doan sutea bezala, seme-alabak barrez hasi ziren; senarra ere barrez; beragatik barrez, suak inguraturik, behartu egin zuten kasko gaineko gandorra gordetzera, bateriak desmuntatzera, eta mendeku bakar gisa Bankes jaunari erakustera, adibide moduan, sufritu beharreko iseka eta burlak baldin norbaitek erasoez gero Britainia Handiko publikoaren aurreiritziei.

Nahita, hala ere, kontutan zeukanez Lily handik kanpo zegoela, honek lagundu egin baitzion



Tansley jaunarekin, bereizi egin zuen beste guztien artetik; esan zuen «Lilyk behintzat arrazoi ematen dit» eta bere ondora ekarri zuen hura, urduri samar, asaldatu samar. (Maitasunari buruz ari baitzen gogoetan). Biak zeuden handik kanpo, aritu zen Ramsay andrea pentsatzen, bai Lily eta bai Charles Tansley. Biak zeuden sufritzen beste bien distiragatik. Mutila, argi zegoen, baztertua sentitzen zen; inongo emakumek ez zion begiratuko, baldin Paul Rayley gela berean bazegoen. Gizarajoa! Hala ere tesi hura zeukan idatzia, norbaitek zerbaitetan daukan eraginaz edo: bere burua zaintzeko gauza zen. Lily ez bezala. Honi kolorea moteltzen zitzaion Mintaren distirapean; inoiz baino hutsalago bihurtzen zen, soineko gris txiki hura, aurpegi ximur txiki hura eta begi txinatar txiki haiekin. Honengan dena zen ñimiñoa. Nolanahi ere, pentsatu zuen Ramsay andreak, Lily Mintarekin alderatuz, eta bitartean harixe laguntza eske (zeren Lilyk baietsi beharra baitzeukan berak ez zuela esnetegiez gehiago hitz egiten senarrak oinetakoez baino — orduak igaro zitzakeen oinetakoei buruz hizketan), berrogei urterekin Lily izango zela bietan

onena. Bazeukan Lilyk zerbaiten ukitua; zerbaiten garra; bere baitako zerbait Ramsay andreak oso gogoko zuena, baina zoritxarrez gizonak ez. Ezta inolaz ere, non eta ez zen askoz gizon zaharragoren bat, William Bankes edo. Baina honek, emaztea hil zitzaionetik, pentsatzen zuen zerbaitetan Ramsay andreak, agian beraganako joera zeukan. Ez zegoen «maitemindua», noski; sailkatu gabeko atxikimendu horietako bat zen, hain ugari direnak. Txorakeriak, pentsatu zuen; Williamek Lilyrekin ezkondu behar du. Gauza franko dauzkate parekoak. Lily oso lorezalea da. Biak dira hotzak, urrunak eta besteon beharrik gabeak. Ibilaldi luze bat antolatu behar zien bie.

Tuntunarena izan zen bata bestearen aurrean eseraraztea. Hurrengo egunean konpon zitekeen hori. Eguraldi ona egiten bazuen picnic-a egitera joan beharke zuket. Dena posible zirudien. Dena zuzen zirudien. Oraintxe (baina honek ezin du irau, pentsatu zuen, bere burua etenaz oinetakoei buruzko hizketatik) oraintxe segurtasuna erdietsi zuen; belatzaren antzera zegoen goian hegada gelditurik; banderaren antzera zegoen flotatzen pozezko ingurugiro

batean, gorputzeko kirio bakoitza zeharo eta goxoki aserik, zaratatsu ez baizik handikiro, zeren, pentsatu zuen denei jaten begiratu bitartean, bai senarra, bai seme-alaba eta bai lagunengandik ernetzen baitzen; guzti hura, isiltasun sakon hartatik ernetzen ari zena (William Bankesi beste puska txiki bat zerbitzatu eta kirika egin zuen buztinezko lapiko barrura), bazirudien bertan gelditu zela, arrazoi jakinik gabe, gorantz doan kea bezala, lurrina bezala, denak seguruan bilduz. Ez zegoen deus esan beharrik; ez zegoen deus esaterik. Hantxe zegoen hura, denen inguruan. Eternitatearekin zeukan zerikusia, sentitu zuen, Bankes jaunari puska biziki samurra kontu handiz zerbitzatu bitartean; arratsalde hartantxe lehenago beste zerbaitekin sentitu izan zuen bezala; gauzen artean lotura bat dagoela, sendotasuna; zerbaiti ez diotela aldaketek eragiten, eta distira egiten duela (zelata egin zien leihoko argi islen ondulazioei) jariakorra, iheskorra, espektrala den guztiaren aurrean, errubiaren antzera; beraz berriro nagusitu zitzaion egun hartako irudipen bera, bakearena, atsedenarena. Honelako momentuekin egituratzen da, pen-

tsatu zuen, betirako dirauen gauza. Honek bai iraungo zuela.

«Bai», segurtatu zion William Bankesi, «denontzat dago aski».

«Andrew», esan zuen, «behera ezazu platera, bestela kanpora isuriko dut eta». (Berebiziko arrakasta zuen boeuf en daube-ak). Hemen zegoen, pentsatu zuen burruntzalia lapikoan utziz, gauzen bihotzeko txoko geldia, non norberak mugitu ala atsedean har dezakeen; entzuten zain egon zitekeen (denak zeuden zerbitzaturik); eta ondoren, goiko talaiatik bat-batean abailtzen den belatza bezala, bere burua adierazi eta algaraz hasi zitekeen aise, bere pisu guztia jarriz senarrak mahai bestaldetik zioenaren gainean, alegia mila berrehun eta berrogeita hamahiruren erro karratua, bere tren txartelaren zenbakia hain zuzen ere.

Zer esan nahi zuen horrek guztiak? Ez zeukan egundaino ideiarik ere. Erro karratua? Zer zen hura? Semeek bazekiten. Haien gainean apoiatu zen; kuboak eta erro karratuen gainean; horretaz ari ziren orain hizketan; Voltaire eta Madame de Staëlen gainean; Napoleonen iza-

raren gainean; frantses sistemako lur jabetzaren gainean; Lord Roseberyren gainean; Creeveyren Memorien gainean: onartu egin zuen bere burua eutsi eta sostenga zezan gizonezko adimenaren egitura miresgarri hark, gorantz eta beherantz zihoana, alderik alde zeharka, burdinazko habeek egitura balantzakorra biltzen bezala, munduari eusten, horrela bere burua hartan erabat konfia zezakeelarik, baita begiak itxi ere, edo momentu batez kliskatu, hala nola burkotik begira dagoen umeak keinu egiten dien zuhaitz hostoen geruza ugariei. Esmatu egin zen orduan. Egitura eraikitzen ari ziren artean. Waverley nobelak ari zen William Bankes goraiatzeko.

Sei hilero irakurtzen zuen haietako bat, esan zuen honek. Eta zergatik haserretu behar zuen horregatik Charles Tansleyk? Honek hitza eten (zer eta, pentsatu zuen Ramsay andreak, Prue berarekin jator jokatzeko ari ez delako) eta Waverley nobelak gaitzetsi zituen haietaz fisik ere jakin gabe, ezta ezertxo ere, pentsatu zuen Ramsay andreak, hari entzuten baino areago hari begira. Jarreran bertan ezagun zuen — bere burua adierazi nahi zuen, eta halaxe jardungo

zuen katedra erdietsi edo ezkondu arte, eta horrela gehiago esan beharrik gabe «Ni, ni, ni». Horretara mugatzen baitziren Sir Walter gizara-joari egiten zizkion kritikak, edo agian Jane Austenengatik ari zen. Bere buruaz eta ematen ari zen inpresioaz ari zen pentsatzen, Ramsay andreak antzeman zezakeenez haren ahots doinuan, eta haren enfasian eta haren egonezinean. Arrakastak mesede egingo zion. Zernahigisaz, berriro ekin zioten lehengoari. Orain Ramsay andreak ez zeukan entzun beharrik. Bazekien ezin zuela iraun, baina une hartan bere begiak hain zeuden zabalik non bai baitzirudien mahaian barrena zihoazela, hango jendea agerian jarriz, eta baita haien gogoeta eta sentimenduak ere, batere nekerik gabe, argi printza bezala ur azpira irristatu eta hango olatuak, eta ihiak, eta orekan dauden arraintxoak, eta amuarrain isil zaluak, denak batera argituz, dilindan, dardarka. Horrela ikusten zituen denak; aditzen zien denei; baina haiek zernahi esanda ere halakoxea zen, haien esana amuarrainaren mugimendua bezalako balitz bezala, aldi berean ikus daitezkeenean uraren izurrak eta harri txintxarrak,

eskuinera zerbait, ezkerrera zerbait; eta oro bat eginik; zeren nahiz eta bizitzako harremanetan gauza bakoitza bere aldetik sareratu eta bereiziko zuen, nahiz eta Waverley nobelak gogoko zituela edo ez zituela irakurri esango zuen, nahiz eta bere burua aurrerantz eramango zuen, orain behintzat ez zuen deus esan. Momentuz airean zintzilik zegoen.

«Ah, baina noiz arte uste duzu iraungo duela?» esan zuen norbaitek. Bazirudien Ramsay andreak antenak zeuzkala kanpora irten eta dardarka, hauek zenbait esaldi atzeman eta bere arretan indartsu sartzen zituztelarik. Hau zen haietako bat. Arriskua usnatu zuen senarrarentzat. Horrelako galderak, segur aski, erantzunen bat sortuko zuen senarrari bere porrota gogoraziko ziona. Noiz arte izango zen bere lana irakurria — pentsatuko zuen berehala. William Bankesek (halako handinahitik libre) barre egin, eta esan zuen ez ziela garrantzirik ematen moda aldaketei. Nork esan zezakeen zerk iraungo zuen — nahiz literaturan, nahiz beste edozertan?

«Atsegin har dezagun atsegin ematen digunarekin», esan zuen. Haren fintasuna miresga-

ria iruditzen zitzaion Ramsay andreari. Ez zirudien hark inoiz pentsatzen zuenik, Zer eragin edukiko du honek nigan? Baina bestelako tenperamentua baldin badaukazu, alegia laudorio beharra, alegia adore beharra, egonezina hasten zaizu (eta Ramsay andreak bazekien senarrari hasia zitzaiola); gogoia erretzen zaizu norbaitek esateko, Oh, baina zeure lanak iraungo du, Ramsay jauna, edo antzeko zerbaite. Argi asko agertu zuen egonezin hura, sumindura apur batekin esanez nolana ere Scottek (edo Shakespeare ote zen?) bera bizi bitartean behintzat iraungo zuela. Sumindurik esan zuen. Denak sentitzen ziren deseroso samar, pentsatu zuen emazteak, inork zergatik jakin gabe. Orduan Minta Doylek, sena bikainekoa bera, bururik gabe esan zuen, baldar, ez zuela sinesten inork atsegin hartzen zuenik Shakespeare irakurriz. Ramsay jaunak zakarki esan zuen (baina bere gogoia berriro ere beste norabait joana zen) aitortu hainbat oso jende gutxiri gustatzen zitzaiola hura. Baina, gaineratu zuen, haren antzerki batzuek hala ere meritu franko daukate, eta Ramsay andreak dena ederki zihoala ikusi zuen, momentuz behin-



tzat; Ramsay jaunak barre egingo zuen Mintaren bizkar, eta honek, konturatzean zer larri zegoen hura, bere modu berezian hartuko zuen aintzakotzat, eta nola hala goraipatu, antzeman zuen Ramsay andreak. Baina nahiago zuen hura beharrezko ez izatea: agian bere kulpa zen beharrezko izatea. Dena den, orain jada libre zegoen entzuteko Paul Rayleyk esan nahi zuena, mutil kozkorretan irakurritako liburuei buruz. Haiek bai, irauten omen zuten. Tolstoiren zer edo zer irakurri zuen eskolan. Beri gogoratzen zen haietako batez, baina ahazturik zeukan izena. !zen errusiarrekin ezin zen, esan zuen Ramsay andreak. «Vronsky», esan zuen Paulek. Gogoan zeukan hura, izen egokiena iruditzen baitzitzaion bilau batentzat. «Vronsky», esan zuen Ramsay andreak; «Oh, *Anna Karenina*», baina ez zuten harekin jarraitu; ez ziren liburu zale. Ez, Charles Tansleyk berehala argitu ahal izango zituen liburuei buruzko beren zalantza guztiak, baina hain zeukan orain barrena nahasia, Egoki ari al naiz hizketan? Inpresio ona ari al naiz ematen? non, azken batean, gehiago jakiten baitzen hartaz Tolstoiri buruz baino; aitzitik,

Paul gaiari bakarrik lotzen zitzaion, ez bere buruari. Txoro guztien moduan, apaltasun antzeko bat zeukan, inork sentitzen duenarekiko begirunea, Ramsay andreari aldian behin atsegina iruditzen zitzaiona. Orain ere ez zen pentsatzen ari bere buruaz edo Tolstoiez, baizik Ramsay andreak hotza ote zeukan, haize-lasterra sentitzen ote zuen, udarea nahi ote zuen.

Ez, erantzun zion Ramsay andreak, ez zuen udarerik nahi. Berez, fruta-ontzia zaintzen egona zen grinati (ohartu gabe), hura inork ez ukitzeko itxaropenetan. Bere begiak batera eta bestera ibiliak ziren frutaren kurba, borobiltasun eta errainuen artean, Lowlandseko mahatsaren purpura kolore ugarien artean, ondoren maskorren ertz zakarraren gainean, horia purpurarekin parekatuz, kurba borobiltasunarekin, jakin gabe hura zergatik egiten zuen, edo zergatik sentitzen zen gero eta lasaiago hura egiten zuenero; harik eta —oh, zer pena!— esku batek, luzatu, udarea hartu eta dena hondatu zuen arte. Errukiz begiratu zion Roseri. Jasper eta Prueren artean eseritako Roseri begiratu zion. Bai arraroa bere ume batek holako zerbait egin izana!

Bai arraroa denak han eserita ikustea, erreskadan, bere seme-alabak: Jasper, Rose, Prue, Andrew, erdi isilik, baina bazebilkiten bromaren bat beren artean, haien ezpain bihurrietatik antzematen zuen. Erabat berezia zen zer bait, ondoren beren geletan barrez aritzeko pilatzen ari zirena. Ez al zen behintzat beren aitari buruz izango. Ez, ez zuen halakorik uste. Zer ote zuten, galdetu zuen berekiko, triste antzean, bera bertan ez zegoenean jardungo zutela barrez iruditzen baitzitzaion. Hura dena zegoen pilatua aurpegi irmo, geldi, maskara gisako bajen atzean, ez baitzuten hain erraz solasean parte hartzen; begirale, ikerleen antzekoak ziren, jende helduaren aldean goratu edo aldenduak. Baina gau hartan Pruei begiratu zionean, hori harengan ez zela egia antzeman zuen. Hasi berritan zegoen, orduantxe mugitzen, orduantxe jaisten. Argi xume bat zegoen haren aurpegian, bertan islaturik baleuka bezala Mintaren goritasuna, hau da, zirrararen bat, zorionaren iragarpenen bat, gizon-emakumeen maitasunaren eguzkia mantelaren hegitik gora altxatzen ari balitz bezala, eta hura zer ote zen jakin gabe harengana

makurtu eta diosala egin zion. Mintari begira jarraitu zuen Pruek, lotsati baina kuriostasunez, eta bitartean Ramsay andreak batari eta besteari begiratu eta bere artean hizketan ari zen Prue-rekin. Hauetako egunen batean bera bezain zoriontsu izango zara. Askoz zoriontsuago izango zara, gaineratu zuen, zu nire alaba zara eta; beste inoren alabak baino zoriontsuago izan behar zuen bere alabak. Baina afaria bukatua zegoen. Joateko garaia zen. Platereko azken kondarrekin ari ziren jostatzen. Senarra kontatzen ari zen pasadizoarekin haiek barre egitez bukatu arte itxoingo zuen. Txantxetan ari zen Mintarekin apustu bati buruz. Ondoren zutituko zen.

Gogoko zuen Charles Tansley, pentsatu zuen bat-batean; gogoko zuen haren irribarrea. Gogoko zuen hain haserre zegoelako Paul eta Mintarekin. Gogoko zuen haren baldarkeria. Izan ere gauza asko zeuden gizon gazte haren baitan. Eta Lily, pentsatu zuen eskuzapia plater ondoan utziz, beti zebilen bere gisa txantxetan. Ez zegoen inoiz Lilyrengatik kezkatu beharrik. Zain zegoen. Plater ertzaren azpira bildu zuen esku-zapia. Bukatu al zuten jada? Ez. Pasadizo hura

beste pasadizo baterako bide izan zen. Senarra oso aldarte onean zegoen gau hartan, eta, antza zenez, zoparen eszenaren ondoren Augustus zaharrarekin adiskidetzeko, solasera bildu zuen hura ere — biek unibertsitatean ezagututako norbaiti buruz ari ziren kontu kontari. Leihora begiratu zuen, non kandelaren sugarrek argiago distiratzten baitzuten kristal belztuetan, eta kanpo hartara begiratzerakoan oso arrotz iristen zitzaizkion ahotsak, katedral bateko ospakizunaren ahotsak balira bezala, zeren ez baitzituen hitzak entzuten. Bat-bateko algara leherketek eta ondorengo ahotsak (Mintarena), bakarrik hizketan, burura ekarri zizkion gizon eta mutilak latinezko hitzak oihukatzen katedral katoliko erromatarren bateko ospakizunean. Zain zegoen. Senarra hizketan. Zerbait errezitatzen ari zen, eta berak olerkia zela antzeman zuen, erritmoagatik eta ahotsaren asaldura eta malenkonia doinuagatik:

*Irten zaitetz lorategiko bidera,  
Luriana, Lurilee*

*Txinako arrosa loretan eta erle horia inguruan txistuka.*

Han kanpoan uretan flotatzen zuten loreak iruditu zitzaizkion hitz haiek (leihotik begira zegoen), denengandik apartatuak, inork esanak ez baizik beren kabuz jaiotakoak balira bezala.

*Eta inoiz bizitu ditugun bizitzak oro*

*Eta geroko bizitzak oro*

*Beteak daude zuhaitzez eta hosto aldakorrez.*

Ez zion igartzen esanahiari, baina, musikaren antzera, bazirudien bere ahotsez zeudela hitz haiek esanak, bere buruaz kanpo, eta erraz eta naturalki esaten zutela gau osoan gogoan eduki zuena, hainbat gauza esan bitartean. Bazekien, ingurura begiratu gabe, mahaiko guztiak entzuten zeudela hitz haiek esaten zituen ahotsari:

*Hala uste ote duzu zuk ere,*

*Luriana, Lurilee*

berearren tankerako lasaitasun eta atsegin berdinarekin, haxe balitz bezala, azkenean, esateko gauzarik naturalena, denen ahotsa balitz bezala hizketan ari zena.

Baina ahotsa isildu egin zen. Ingurura begiratu zuen. Bere burua altxarazi zuen. Augustus Carmichael zutiturik zegoen, eta eskuzapiari helduz tunika zuri luze baten antzera, kantari jardun zuen:

*Erregeren zalduneria*

*Belardi eta txibiriten zelaian da ageri*

*Eskuetan palmondo hosto eta zedro sortak*

*Luriana, Lurilee*

eta Ramsay andrea haren ondotik igarotzerakotan, beragana emeki jiratu eta azken hitzak errepikatu zituen:

*Luriana, Lurilee*

eta omen eginez bezala apaldu zuen beragana burua. Zergatik jakin gabe, Augustusek bera inoiz baino maiteago zuela sentitu zuen Ramsay

andreak; eta lasaitasun eta eskerronez buru apaldura itzuli eta hark berarentzat zabalik zeukan atletik barrena igaro zen.

Beharrezko zen orain hura dena urrats bat aurrerago eramatea. Hanka atalondoan zeukalarik itxoin zuen gehixeago, begi aurrean suntsitzen zihoan eszena hartan, eta gero, mugitu eta Mintari besotik heldu eta gelatik irtetean, dena aldatu zen, beste itxura bat hartu zuen; hura dena, antzeman zuen sorbalda gainetik azken begiratua luzatuz, iragana bihurtua zen jadanik.

## 18

Betikoa, pentsatu zuen Lilyk. Beti zegoen orduantxe bertan egin beharreko zerbait, Ramsay andreak arrazoi jakinen batengatik berehala egitea erabakitako zerbait, nahiz denak berrikeritan aritu zutituta, orain bezala, erabaki ezinik erretzeko gelara joan, ala saloira, ala teilatupe-  
ra. Orduan ikusten zen Ramsay andrea iskanbila horren erdian Mintari besotik helduta zutik, besteiei gogorarazten «Garaia da», eta segituan alde



egiten zuen zerbait bakarrik egitera, sekretu itxurarekin. Eta bera joan bezain laster desintegratio antzeko bat hasten zen; harantz eta honantz, nor bere aldetik; Bankes jaunak besotik Charles Tansley hartu eta honekin joan zen politikari buruz afarian hasitako eztabaida terrazan amaitzeko, horrela ilunabarreko oreka guztiari joera bat emanaz, pisua beste aldera eroraraziz, pentsatu zuen Lilyk, haiek joaten ikusi eta hitzen bat edo beste aditu ondoren alderdi laboristaren politikari buruz, itsasontziko aginte-zubira igo balira bezala ibilbidea zehazteko; irudipen hori eman zion olerkitik politikara aldatze hark; Bankes jauna eta Charles Tansley irten egin ziren beraz, besteek, zutik, Ramsay andreari begiratzeko zioten bitartean, lanpararen argitan eskailetan gora bakar-bakarrik zihoala. Nora ote zihoran, galdetzen zion Lilyk bere buruari, horren arin?

Ez zen berez korrika edo presaka joan; egia esan poliki samar joan zen. Momentu batez gogoia etorri zitzaion hitz jario haren ondoren bertan geldirik geratu, eta gauza zehatz bati atxikitzeko; garrantzizko gauzari; hura bereizi;

hura apartatu; hura garbitu emozio eta zabor eta kondar guztietatik, eta huraxe bere buruaren aurrean ipini, eta tribunalera eramanez, non epai-leak baitzeuden batzarturik, berak deituta hone-lako gauzak erabakitzeke. Ona al da, txarra al da? Zuzena ala okerra? Zertan bukatuko dugu? eta abar. Zirraren ostean horrela bildu zuen kemena, eta guztiz oharkabea eta zentzurik gabea bazen ere, kanpoko zumarren adarrak erabili zituen bere jarrera sendotzen laguntzeko. Bere mundua aldatzen, baina haiek lehengoan zeuden. Arestiko gertaerak mugimenduzko irudi-pen bat utzi zion. Ordenan jarri beharra zegoen dena. Honako hau eta bestea zuzendu beharra, pentsatu zuen, konturatu gabe zuhaitz geldien duintasunari oniritziz, eta ondoren berriro zumar adarren igotze bikainari (ontzi baten espoloia bezala olatuan gora), haizeak harrotu zituenean. Haizea baitzebilan (Ramsay andrea gelditu egin zen apur batean, kanpora begiratzeko). Haizea zebilen, hartara hostoek noizean behin txoko bat uzten zioten izar bati, eta bazirudien izarrak berak ere beren buruak astintzen ari zirela, eta argia jaurtitzen, eta hosto ertzen artetik distira

egin nahian. Bai, eginik zegoen hori, erdietsirik; eta egindako gauza guztien antzera solemne bihurturik. Orain hartan pentsatuz gero, berri-tsuketa eta emoziorik gabe, bazirudien beti han egon baina orain agertzen zela, eta agertze horrek gauza guztiak sendotzen zituela. Haiek, pentsatu zuen aurrera jarraituz, edozein adinetara heldurik ere, gogora ekarriko zuten gau hau; ilargi hau; haize hau; etxe hau: eta baita bera ere. Bere burua losintxatua sentitu zuen, losintxarako erraztasun gehien zeukan lekuan, pentsatzean edozein adinetara heldurik ere, haiek beren buruei bilbaturik, bihotzean txirikordaturik edukiko zutela bera; eta hau, eta hau, eta hau, ari zen pentsatzen, eskaileretan gora, eskailerarteko sofagatik (amarena) barrez, baina goxotasunez, eta baita kulunka-aulkiagatik ere (aitarena); Hebridetako mapagatik. Hura dena berpiztuko zen Paul eta Mintaren bizitzetan; «Rayleytarrak» — saiatu zen izen berriarekin; eta eskua umeen jolasgelako atean zeukalarik antzeman zuen lagun-hurkoarekiko sentimendu batasuna, emozioak eman ohi duena, bereizketaren hormak erabat mehetuz (lasaitasuna eta zorionez-

koa zen sentimendu hura), dena jario bakar bat bihurtu balitz bezala, eta aulkiak, mahaiak, mapak, nahiz bereak nahiz beraienak balira bezala, eta Paulek eta Mintak jario hartan segituko balute bezala bera hildakoan ere.

Heldulekua irmoki jiratu, intziri egin ez zezan, eta barrura sartu zen, ezpainak pittin bat zimurtuz, bere buruari gogorarazteko bezala ez zuela ozenki hitz egin behar. Baina sartu bezain laster ikusi zuen, amorrazioz, arreta hura alferrik zela. Umeak ez zeuden lo. Amorrazioa edukitzekoa zen. Mildredak kontu gehiago izan beharko zukeen. Jamesek ilargia adinako begiak, Cam txorimaloa bezain tente, eta Mildred jaikita oinutsik, ia hamaikak eta denak hizketan. Zer zuten ordea? Kaskezur nazkagarri hura berriro. Esana zion Mildredi hura tokiz aldatzeko, baina honi ahaztu, noski, eta orain Cam eta James ilargia adinako begiekin sesioan, nahiz eta aspaldian lotan behar zuten. Zer dela-eta bidali zion Edwardek kaskezur nazkagarri hau? Bere tuntu-nean, utzi egin zion han goian zintzilikatzen. Sendo zegoen iltzatua, zioen Mildredak, eta

Camek ezin lo hartu hura gela barruan bazegoen, eta James berriz hura ukituez gero garrasika.

Baina Camek lo hartu behar zuen (adar handiak zeuzkan, zioen Camek), lo hartu eta jauregi ederrekin amestu, zioen Ramsay andreak, ondolan eserita ohean. Adarrak ikusten zituen ordea, zioen Camek, gela guztian zehar. Egia zen. Argia nonahi jarririk ere (eta Jamesek ezin argirik gabe lo egin) beti zegoen errainuren bat nonbait.

«Baina pentsa ezazu, Cam, txerri zahar bat besterik ez dela», zioen Ramsay andreak, «txerri beltz polit bat, baserriko txerriak bezalakoxea». Baina Cami izugarria iruditzen zitzaion zera hura, gela guztian zehar zabaltzen zena.

«Tira», esan zuen Ramsay andreak, «orduan estali egingo dugu». Eta begira geratu zitzaizkion denak, komodara joan eta kaxoi txikiak bata bestearen ondoren zabaltzen zituen bitartean, arin-arin, baina ezer egokirik aurkitu ezeari bere txala arin erantzi eta harekin bildu zuen kaskezurra, bil-bil egin arte, eta ondoren Camengana itzuli eta ta erabat ezarri zuen burua Camen burkoan, esanez zer itxura ederra zeukan orain; zenbat gustatuko zitzaien huraxe iratxoei; txori-

habia bezalakoa zela; berak atzerrian ikusitako-  
en antzeko mendi zoragarria zela, ibarrak eta  
loreak eta ezkila-hotsa eta txoriak kantari eta  
antxume eta antilopeak... Hitz haiek erritmikoki  
esan ahala, Camen gogoan ikusi zituen oihar-  
tzun egiten, eta Camek ondoren errepikatu zuen  
mendiaren antzekoa zela, txori-habia, lorategia,  
eta antilope txikiak zeudela, eta begiak itxi eta  
berriro ireki zitzaizkion, eta Ramsay andreak  
esaten jarraitu zuen, gero eta doinu monotonoa-  
goz, erritmo mantsoago eta zentzu gutxiagoz,  
begiak itxi behar zituela eta lo hartu eta amets  
egin mendiekin, eta ibar eta izar iheslari eta lori-  
to eta antilope eta lorategiekin, eta ederra zen  
guztiarekin, esan zuen, emeki-emeki burua jaso  
eta gero eta geldoago hitz eginez, azkenean ten-  
tetu eta Cam lotan ikusi zuen arte.

Eta orain, xuxurlatu zuen Jamesen ohe alde-  
ra joanez, honek ere lo hartu behar zuen, zeren  
begira, esan zion, artean bertan zegoen basurde  
kaskezurra; ez zuten ukitu; esandakoa egin  
zuten; minik hartu gabe zegoen hantxe. Jamesek  
sinetsi egin zuen kaskezurrak txal azpian jarrai-

tzen zuela. Baina beste zerbait galdetu nahi zion amari. Joango al ziren farora bihar?

Ez, bihar ez, erantzun zion, baina aurki, hitz eman zion; eguraldi ona egiten zuen lehen egunean. James txintxoaren zen. Etzan egin zen. Amak tapa-tapa egin zuen. Baina honek ez zuen inoiz ahaztuko, ondotxo zekien amak, eta bera haserre zegoen Charles Tansleyrekin, senarrarekin, eta baita bere buruarekin ere, berak piztu baitzizkien itxaropenak. Orduan behatzekin txala bilatu, baina basurde kaskezurraren inguruan bildu zuela gogoratzean zutitu, eta leihoa apur bat gehixeago zirrikitu, eta haizea aditu, eta gaueko aire fresko guztiz arduragabea arnastu, eta Mildredi ondoloegin xuxurlatu, eta gelatik irten, eta sarraila-zuloan krisketa astiro irristatuz, joan egin zen.

Ez al zuen behintzat orain goian liburuekin lurra joko, pentsatu zuen, artean Charles Tansley gogaikarria buruan. Oso lo arina baitzeukaten; ume asaldagarriak ziren, eta hark faroari buruz halako gauzak esaten zituenez, posible zen trakets hark ukalondoz bultzatuta liburu pila bat mahaitik behera botatzea, umeak lo hartze-

ra zihoazen une berean. Segur aski gora joana izango baitzen lanera. Hala ere erabat desolaturik ematen zuen; hala ere lasaitua hartuko zuen hura joandakoan; hala ere bihar hura hobeki trata zezaten saiatuko zen; hala ere hura ikusgarri jatorra zen senarrarekin; hala ere haren moduek bazeukaten hobetzeko premia; hala ere gogoko zuen haren irribarrea... honetan pentsatzen ari zelarik, beherako bidean, eskaileretako leihotik ilargia ikus zezakeela konturatu —udazkeneko ilbete horia— eta jiratu egin zen, eta haiek ikusi egin zuten bera, goiko aldeko eskaileretan zutik.

«Nire ama da hori», pentsatu zuen Pruek. Bai; Mintak hari begiratu behar zion; Paul Rayleyk hari begiratu behar zion. Bera da benetako gauza bakarra, iruditu zitzaion, mundu osoan horrelako pertsona bakarra balego bezala; bere ama. Eta lehentxeago besteekin hitz egiterakotan nagusi izatetik ume bihurtu zen berriro, eta egiten aritu zirena jolas bat zen, eta amak beren jolasa onetsi ala gaitzetsi egingo ote zuen, galdetzen zion bere buruari. Eta pentsatuz zer aukera ona zeukaten Minta, Paul eta Lilyk hura



ikusteko, eta sentituz zenbateko zortea zen berarentzat hura amatzat edukitzea, eta bera inoiz ez zela haziko eta ezta etxetik joango ere, umearen antzera esan zuen, «Hondartzara jaitisiko ote ginen geunden, olatuak ikusteko».

Bat-batean, inongo arrazoirik gabe, Ramsay andrea hogeituro urteko neska antzeko bihurtu zen, alaitasunez gainezka. Festarako gogo nagusitu zitzaion segituan. Noski joan behar zutela; noski joan behar zutela, hots egin zien barrez; eta azken hiru edo lau mailak korrika jaitziz, burua batagandik besteagana jiratzen hasitzen, eta barrez, eta Mintari lepokoa jartzen eta ahal balu bera ere gustura asko joango zela esaten, eta ea berandu etxeratuko ziren, eta ea inork erlojurik bazeraman.

«Bai, Paulek bai», esan zuen Mintak. Paulek urrezko erloju eder bat atera zuen orkatz-larruzko kutxatila batetik berari erakusteko. Eta esku ahurrean eutsi bitartean sentitu zuen: «Dendena daki. Ez daukat deus esan beharrik». Erlojuak erakutsi bitartean ari zitzaion esaten, «Lortu dut, Ramsay andrea. Zuri eskerrak dena». Eta haren eskuko urrezko erlojuari begira sentitu

zuen Ramsay andreak, Berebiziko zortea izan du Mintak! Larruzko zorroan urrezko erlojua daukan gizon batekin da ezkontzekoa!

«Gustora asko joango nintzateke neu ere!» hots egin zuen. Baina zerbaitek eusten zion, hain indartsu non inoiz ez baitzitzaien burutik pasatu ere egin hura zer ote zen galdetzea. Noski ezinezkoa zuela haiekin joatea. Baina gustatuko zitzaion, beste zera harengatik izan ez balitz; eta burutapen haren zentzurik ezak kilimaturik (erlojuarentzat larruzko zorroa daukan gizonarekin ezkontzearen zortea), ezpainetan irribarre batekin sartu zen beste gelara, senarra eserita irakurtzen zegoen lekura.

## 19

Noski, esan zion bere buruari gelan sartzera-koan, nahi zuen zerbaiten bila etorri behar izan zuen hona. Lehenik besaulki jakin batean eseri nahi zuen, lanpara jakin baten azpian. Baina beste zerbait ere nahi zuen, nahiz jakin ez, nahiz pentsatzerik eduki ez zer zen. Senarrari begiratu

(galtzerdiari berrekin eta galtzeta egiten hasiz), eta etenik ez zuela nahi igarri zion — argi zegoen. Zer edo zer oso hunkigarria ari zen nonbait irakurtzen. Barre-iduria zeukan, eta hartatik antzeman zion emozioei eusten ari zela. Zartada batekin pasatzen zituen orriak. Antzetzten ari zen — agian bera liburuko pertsonaia zelakoan. Zer liburu ote zen? Oh, Sir Walter zaharraren bat, ikusi zion, lanpararen pantaila egokituz argiak galtzeta-lanean jo zezan. Izan ere, Charles Tansley (gora begiratu zuen, gaineko solairuan liburu zalaparta entzungo ote) esaten aritu zen gaur egun jendeak ez duela Scott irakurtzen. Orduan senarrak pentsatu bide zuen, «Hori esango dute nigatik ere»; horregatik hona etorri eta liburu haietako bat hartu zuen. Eta «Egia da» ondorio-ra helduez gero Charles Tansleyk esandakoari buruz, onartu egingo zuen Scotten kasuan. (Irakurri bitartean antzeman zion parekatzen ari zela, hausnartzen, bata bestearekin alderatzen). Baina ez bere kasuan. Senarra beti zalantzati zegoen bere buruarekin. Bera kezkatu egiten zen hori ikusirik. Hura beti bere liburuekin larriturik — irakurriko ote dira, onak ote dira, zerga-

tik ez ote dira hobeak, zer irizten ote dit jendeak? Eta senarra horrela imajinatu nahi ezik, eta bere artean galdezka besteak konturatu ote ziren zergatik sumindu zen bat-batean afalorduan haiek ospea eta liburuen iraupena aipatzean, eta bere artean galdezka ea umeez horregatik egin ote zuten barre, galtzerdia astindu zuen, eta bere ezpain eta kopetako grabatu fin guztiak altzairuzko tresnekin zizelkatu ziren, eta geldi-geldi geratu zen, ordura arte inarosten eta dardarka egondako zuhaitza bezala, orain, itsas airea emetzean, hostoz hosto irmotzen doana.

Axolarik gabeko gauzak ziren haiek denak, pentsatu zuen. Gizon bikaina, liburu bikaina, ospea — nork esan zezakeen hori? Berak ez zuen horretaz ezer ulertzen. Baina jokabide horixe zeukan senarrak, egiazaletasuna — afalorduan esate baterako senez etorri zitzaion burura, Nahiago nuke hitz egingo balu! Erabateko konfiantza baitzeukan harengan. Eta hau dena saihestuz, urpean ibiltzerakoan noiz alga, noiz lasto printza, noiz burbuila baten ondotik igaroz bezala, berriro sentitu zuen, hondorago murgiltzeaz bat, hallean sentitu bezala besteek hizke-

tan jardun bitartean, Zerbait nahi dut — zerbaiten bila etorri naiz, eta gero eta hondorago jausi zen, hura zer ote zen zehatz jakin gabe, begiak itxirik. Eta apur bat itxoin zuen, galtzeta eginez, zalantzati, eta afalorduan esan zituzten hitz haiek, «Txinako arrosa loretan eta erle horiak inguruan txistuka», pixkana hasi ziren bere gogoan alderik alde erritmoz jarioan, eta jario haren hitzak, argi txiki motelduak bezala, bere gogoaren ilunpetan piztu ziren, noiz gorri, noiz urdin, noiz hori, eta bazirudien goiko beren pausalekuak utzi eta batera eta bestera hegatzten zirela, edo garrasi egin eta oihartzuna zabaltzen zela; horregatik jiratu eta bilatu zuen libururen bat aldameneko mahaian haztaka.

*Eta inoiz bizitu ditugun bizitzak oro*

*Eta geroko bizitzak oro,*

*Beteak daude zuhaitzez eta hosto aldakorrez,*

murmurikatu zuen, galtzeta-burdinak galtzerdian sartuz. Eta liburua zabaldu eta han-hemenka hasi zen nonahi irakurtzen, eta hori egiterakotan atzeraka zihoala aldapan gora sentitu zuen,

burua estaltzen zioten petaloen pean bidea  
zabalduz, eta hau zuria da, edo hau gorria da  
besterik ez zekien. Hasieran ez zien hitzei inon-  
go esanahirik hartzen.

*Zuzendu honantz zeuon masta hegalariak,  
marinel akituok*

irakurri eta orria pasatu zuen, bere burua kulun-  
katuz, harat-honat sigi-saga, lerro batetik beste-  
ra adar batetik bestera bezala, lore zurigorri  
batetik bestera, zarata txiki batek asaldatu zuen  
arte — senarra bere buruari izterkada jotzen.  
Bien begiak elkartu ziren segundo batez; baina  
ez zeukaten elkarrekin mintzatzeko gogorik. Zer  
esanik ez zeukaten, baina nolana ere baziru-  
dien zerbait zetorrela senarragandik beragana.  
Bizitza zen, indarra zen, sekulako umore hura  
zen, emazteak ere bazekien, izterra joarazi  
ziona. Ez gero ni eten, ematen zuen ari zela esa-  
ten, ez gero ezer esan; egon hortxe eserita. Eta  
irakurtzen jarraitu zuen senarrak. Ezpainak dar-  
dara. Ase. Sendoturik. Erabat ahaztu zituen ilu-  
nabarreko hika-mika guztiak, eta zenbat eta zen-

bat aspertu zen eserita egotez, besteek etengabe jan eta edan bitartean, eta emaztearekin hainbeste erretxindu eta hainbeste sumindu eta tematu izana bere liburuak aipatu ere egin ez zituztenean, existituko ez balira bezala. Baina orain, hala sentitzen zuen, bost axola zitzaion nor iristen zen Z-raino (baldin eta pentsamendua alfabetoaren antzera bazihoan A-tik Z-raino). Norbait iritsiko zen — bera ez bazen, besteren bat. Halako gizonen indar eta zuhurtziak, gauza prestu xumeetarako horien senak, arrantzale horiek, Mucklebackit etxolako gizarajo erdi-ero zaharrak, hauek denek hain kementsu sentiarazi zuten, zamaren batetik hain arindurik, non susperturik eta garaile sentitu eta ez baitzuen malakoak menderatzerik eduki. Liburuak apur bat altxatuz aurpegia gordetzeko, haiei isurtzen utzi, buruari alde batetik bestera eragin eta zeharo ahaztu zen bere buruarekin (baina ez gogoetaren bat edo besterekin, moralari buruz eta nobela frantsesak eta nobela ingelesak eta Scotten eskuak loturik egon arren haren ikuspuntua agian bestea bezain egiazkoa zela), zeharo ahaztu zen bere kezka eta hutsegiteekin, Stee-

nie gizarajoa ito zen aldiari leku utziz, eta Muc-  
klebackiteko atsekabeei (hartan zen Scott  
onena) eta horrek denak berari ematen zion  
gozamen harrigarria eta kemenezko sentipenari.

Ahal duenak hobe dezala, pentsatu zuen  
kapitulua irakurtzez bukatzean. Norbaitekin  
eztabaidan aritu eta berak irabazi zuela iruditzen  
zitzaion. Ez zegoen hura hobetzerik, haiek zer-  
nahi esanik ere; eta bere jarrera irmoagoa bihur-  
tu zen. Maitaleena txorakeria zen, pentsatu  
zuen, dena berriro gogora ekarriz. Honako hau  
txorakeria, horko hori ezin hobea, pentsatzen  
zuen bata bestearen ondoan jarriz. Baina berriro  
irakurri behar zuen hura. Ezin zuen gogoratu  
guzti haren forma. Bere iritzia kolokan utzi beha-  
rra zeukan. Eta beraz beste ideiarda itzuli zen —  
gazteei ez bazitzaien hau axola, berea ere ez  
zitzaien noski axola. Ez zegoen kexatzen haste-  
rik, pentsatu zuen Ramsay jaunak, bere irrika  
itotzeko ahaleginetan, alegia gazteek ez zutela  
miresten esatekoa. Baina erabakia zeukan; ez  
zion berriro enbarazu egingo. Nola irakurtzen  
zuen begiratu zion. Oso patxadan ematen zuen.  
Atsegina zen pentsatzea denek alde egin eta



emaztea eta biak bakarrik zeudela. Bizitza guztia ez zen oinarritzen emakume batekin ohera joatean, pentsatu zuen, Scott eta Balzacengana itzuliz, nobela ingelesa eta nobela frantsesera.

Ramsay andreak burua altxatu zuen, eta lo arina daukan norbaiten antzera ematen zuen senarrari esanez ari zela, nahi bazuen esnatuko zela, benetan esnatuko zela, baina bestela ezin al zuen lotan jarraitu beste pixka-pixka batean bakarrik. Adar haietan gora zihoan, harantz eta honantz, lore baten gainean eskua ezarriz, eta ondoren beste batean.

*Ez laudatu ere arrosaren gorri iluna,*

irakurri zuen, eta hori irakurriz ari zen igotzen, hala sentitu zuen, gailurrera, tontorrera. Hura asetasuna! Hura atsedena! Eguneko saskinahaski guztiak iman honi itsatsi ziren; garbiturik sentitzen zuen bere gogoan, xahaturik. Eta bat-batean hona non zegoen, bere eskuetan bat-batean gorputz harturik, eder eta zuhur, argi eta oso, bizitzatik edoskitako mamia hementxe borobildurik — sonetoa.

Baina ohartzen hasiazzen senarra begira zeukala. Berari barrez ari zen, ironiatsu, goxotasunez iseka eginez bezala egun-argitan lo zegoelako, baina aldi berean pentsatzen zuen, Jarrai ezazu irakurtzen. Orain ez duzu triste ematen, pentsatu zuen. Eta emaztea zer ari ote zen irakurtzen galdetu zion bere buruari, eta honen ezjakintasun eta xalotasuna exajeratu zituen, gustatu egiten baitzitzaion pentsatzea ez zela azkarra, ez zela batere ikasia. Ulertzen ote zuen irakurtzen ari zena. Segur aski ez, pentsatu zuen. Harrigarria zen emaztearen edertasuna. Edertasuna handitzen zihoakiola zirudien, hori posible bazen.

*Nahiz artean negua eman  
eta zu urrun egon  
Zure itzalarekin bezala  
jolastu nuen nik hauekin,*

bukatu zuen irakurtzez.

«Eta?» esan zuen, senarraren irribarreari erdi ametsetan erantzunez, liburutik begiak altxatuta.

*Zure itzalarekin bezala  
jokatu nuen nik hauekin,*

murmurikatu zuen, liburua mahai gainean uzte-  
rakoan.

Zer gertatu ote zen galdetu zion bere burua-  
ri, galtzeta-lanari berrekinez, senarra azkeneko  
aldiz bakarrik ikusi zuenetik? Gogoan zeukan  
bera jantzi eta ilargiari begira egon zela;  
Andrewk afarian gehiegi altxatu zuela platera;  
goibeldu egin zela Williamek esandako zerbaite-  
kin; txoriak zuhaitzetan; eskailerarteko sofa;  
umeak esna; Charles Tansleyk esnatu zituela  
liburuak erorita — oh ez, hori berak asmatua  
zen; eta Paulek larruzko zorroa zeukala erloju-  
arentzat. Zeinez hitz egin senarrari?

«Konprometiturik daude», esan zuen galtzeta  
egiten hasiz, «Paul eta Minta».

«Pentsatzen nuen», izan zen arrapostua. Ez  
zegoen hartaz zer esan handirik. Emaztearen  
gogoia gora eta behera zebilen artean, gora eta  
behera olerkiekin; senarra oso kementsu senti-  
tzen zen artean, oso egiazale, Steenieren hileta-

ri buruz irakurri zuenetik. Isilik egon ziren beraz eserita. Orduan Ramsay andreak antzeman zuen zer gogoa zeukan, senarrak zer edo zer esateko.

Zernahi, zernahi, pentsatu zuen galtzeta egiten jarraituz. Zernahi izanda ere.

«Atsegina izan behar du erlojuarentzat larruzko etxea daukan gizonarekin ezkontzea», esan zuen emazteak, tankera horretako bromak egiten baitzituzten elkarrekin.

Senarrak indartsu haize eman zuen. Edozein konpromisoz zeukan iritzi bera zeukan konpromiso honetaz ere; neska onegia mutil horrentzat. Pixkana etorri zitzaion emazteari burura, zergatik nahi da orduan jendea ezkontzea? Zer balio, zer esanahi zeukaten gauzek? (Orain esatera zihoazen guztia egia izango zen). Esan ezazu zerbait, pentsatu zuen, senarraren ahotsa entzuteko irrikaz. Zeren biak biltzen zituen itzal hura, zera hura, hasia baitzen bera berriro inguratzen. Zernahi esan ezazu arren, zioen bere artean, senarrari begira, laguntza eske bezala.

Baina hau isilik zegoen, erloju kateko iparrotzari batera eta bestera eragiten, eta Scotten nobelak eta Balzacen nobelei buruz pentsatzen.

Baina bien intimitatearen ilunabarrezko hormetatik barrena, senarraren gogoia sentitu zuen esku goratu baten antzera bere gogoari itzala ematen, zeren hurbiltzen ari baitziren, nahi gabe, elkarrengana alboratzen, ondo-ondoraino; eta emaztearen gogoetek berari atsegin ez zitzaion joera hartu zuten —berak «pesimismoa» deitzen zion hartarako joera— urduritzen hasi zen, nahiz ezer esan ez, eskua kopetara altxatu, ile-txima bat kiribildu eta berriro erortzen utziz.

«Ez duzu galtzerdi hori gaur bukatuko» esan zuen, emaztearen galtzerdia seinalatuz. Horixe nahi zuen honek — senarraren ahots zakarra berari errietan. Pesimista izatea oker dagoela esaten badu berak, segur aski oker egongo da, pentsatu zuen; ezkontza hau ongi irtengo da.

«Ez», esan zuen, galtzerdia belaun gainean berdinduz, «ez dut bukatuko».

Eta ondoren zer? Antzematen baitzuen senarra artean begira zeukala, baina bestelako begirada batekin. Zerbait nahi zuen — emateko hain zaila zen gauza nahi zuen; maite zuela esatea. Eta hori ez, ezin zuen esan. Harentzat askoz

errazagoa zen hitz egitea, berarentzat baino. Hark gauzak esan zitzakeen — berak inoiz ez. Beraz beti hura zen gauzak esaten zituena, eta zenbaitetan horregatik bat-batean damutu eta purrusta egiten zion berari. Emakume bihozgabe deitzen zion; inoiz esan ez ziolako maite zuenik. Baina ez zen hala — ez zen hala. Zenbaitetan ezin zuen esan sentitzen zuena. Ez al zeukan papurrik txamarran? Ezertan lagun al ziezaiokeen? Zutitu eta leiho ondoan geratu zen galzterdi marroi gorritzarekin eskuetan, aldez senarragandik ihes egiteko, aldez orain ez zitzaiolako axola faroari begira egotea, senarra txelatan egon arren. Bai baitzekien senarrak burua jiratu zuela, berarekin batera; berari begira zegoen. Bazekien pentsatzen ari zela, Inoiz baino ederra go zaude. Eta bera oso eder sentitzen zen. Ez al didazu behingoagatik esango maite nauzula? Hori ari zen senarra pentsatzen, asaldatua baitzegoen, bateko bere liburua eta Mintagatik, besteko egunaren bukaeragatik, eta azkenik farora joateaz edukitako sesioagatik. Baina emazteak ezin zuen hori egin; ezin zuen hori esan. Baina hura txelatan zeukala jakinik, zer-

bait esan ordez jiratu, galtzerdiari eutsiz, eta hari begira jarri zen. Eta begiratu bitartean irribarrez hasi zen, hitzik ez esan arren hark bai baitzekien, jakingo ez zuen bada, emazteak maite zuela. Ezin uka. Eta leihotik kanpora begiratu eta esan zuen (bere artean pentsatuz, Munduan beste ezer ez dago zorion honen parekorik)

«Bai, arrazoi zenuen. Euria egingo du bihar». Ez zuen esan, baina senarrak bazekien. Eta irribarrez begiratu zion senarrari. Berriro ere bera baitzen irabazle.

# II

## DENBORAK AURRERA

### 1

«Tira, geroak erakutsi arte itxoin beharko», esan zuen Bankes jaunak, terrazatik azalduz.

«Ilunegi dago ezer ikusteko», esan zuen Andrewk, hondartzatik iritsiz.

«Ia ez dago antzematerik zein den itsasoa eta zein lehorra», esan zuen Pruek.

«Piztuta utziko al dugu argi hori?» esan zuen Lilyk, etxe barruan txamarrak eranzterakoan.

«Ez», esan zuen Pruek, «denak barruan badaude ez».

«Andrew», hots egin zuen berriro, «itzali sarrerako argia».

Banan-banan lanpara guztiak iraungi ziren, Carmichael jaunarena izan ezik, ohean apur bat Virgilio irakurtzen egoteko gogoz, besteek baino luzaroxeago eduki baitzuen kandela pizturik.



## 2

Hala, lanpara guztiak itzalita, ilargia gordeta eta euri xehea teilatuan hotsarekin joka, berebiziko ilunpe jasa hasi zuen. Bazirudien deus ez zela bizirik irtengo uholde hartatik, ilunpe jori hartatik, sarraila-zulo eta zirrikituetatik irristan, leihosare inguruan ezkutuan, logeletara sartuz, hemen pitxerra eta antoisina irentsiz, hor dalia gorri-horien txarroa, han komodaren ertz zorrotzak eta gorputz sendoa. Ez ziren altzariak baka-rik desegin; ia ez zen geratzen izaki edo izpiritu hondarrik esan ahal izateko «Hau hura da» edo «Hau bestea da». Batzuetan esku bat altxatzen zen zerbaiti atxiki edo zerbait oztopatzeke, edo batek hasperen edo besteak algara egiten zuen, ezerezarekin txantxetan bezala.

Ezer ez zen mugitzen, ez saloian, ez jangelan, ez eskaileretan. Soilik misagra herdoildueta-tik eta itsasoko hezetasunak puztutako izkineta-tik lerratu eta ausartzen ziren barrura zenbait aire, haizete nagusitik aldenduak (azken batean etxea gainbeheratua zegoen). Ia imajinatu ere

egin zitezkeen haiek, saloian sartuta, galdezka eta zalantzan, hormako paper puska libratu batekin jolasten, jakin nahian askoz gehiago iraungo ote zuen zintzilik, noiz eroriko zen. Ondoren hormak emeki igurtzi eta hausnarkor zeharkatzen zituzten, hango arrosa gorri-horiei galdezka bezala ea ihartuko ziren, eta itaunka ere (goxo-goxo, denbora franko zeukatenez) zakarrontziko gutun puskatuei, loreei, liburuei, orain denak haien aurrean zabalik baitzeuden, eta galdezka, Aldekoak al ziren? Arerioak al ziren? Noiz arte jardukiko zuten?

Hala, badaezpadako argi batek, estali gabeko izar batena, itsasontzi errari batena edo faroarena, eskailera eta felpudoaren gainean oinatz zurbila utzirik, bidea erakutsi zien aire txikiei, eskailera-zulotik igo eta logeletako ateak usnatzeko. Baina hemen gelditu beharra daukate. Beste edozer suntsitu eta desagerturik ere, hemengoa tinko dago. Hemen posible zen argi irristakor haiei esatea, ohe gainetik haize eman eta makurtzen diren aire haztakatzaile haiei esatea, hemengoa ezin duzue ez ukitu eta ez triskatu. Orduan haiek, akiturik, fantasmen antzera,

lumazko behatz arinak eta lumen setakeria arina baleukate bezala, itxitako begi haiei eta indarge estuturiko behatz haiei begiratu, behin bakarrik, beren jantziak akiturik tolestu eta desagertu ohi ziren. Eta hala joan ziren, usnaka, igurzten, eskailera-zuloko leihora, mirabeen logelara, tei-latupeko geletara; jaisterakoan, jangela mahaiko sagarrak zuritu, arrosa-hostoak haztatu, astoko koadroa ukitu, felpudoa ferekatu eta harea pixka bat zabaldu zuten lurrian. Azkenean, amore emanez, denak batera gelditu, denak batera bildu, denek batera suspiriatu zuten; denek batera jalki zuten lantura alfer bat, eta ondoren sukaldeko aterean batek erantzun zuen, erabat zabalduz, sarrera galaraziz, eta danba itxiz.

[Honetan, Virgilio irakurtzen ari zen Carmichael jaunak kandelari haize eman eta itzali zuen. Gauerdia pasea zen.]

### 3

Baina zer da azken finean gau bat? Tarte labur bat, bereziki ilunpea hain agudo argitzen

denean, eta txoriak hain agudo kantatzen, oilarrak kukurruku egiten, edo kolore berde xumea hosto aldakorraren antzera indartzen denean olatuaren altzoan. Gauaren ondoren, dena den, gaua dator berriro. Neguak sorta oso bat dauka jasota, eta berdin eta zuzen banatzen ditu behatz nekaezinekin. Luzatzen; iluntzen. Batzuk planeta distiratsuei, argitasunezko guneei eusten. Udazkeneko zuhaitzek, zirtzilaturik, beren gain hartzen dute bandera piltzarren distira, hauek argia ematen dutenean katedral hotzen hilobi ospeletan, non urrezko letrek marmolezko orritan azaltzen baitute gatazkako heriotza eta nola zuritu eta kiskaltzen diren hezurak Indiako hondar-arte urrunetan. Udazkeneko zuhaitzek ilargiaren argi horitan distiratzen dute, iraileko ilbetearen argitan, lanerako kemena ontzen duen argia, eta sastraka goxatzen, eta olatu urdindua lehorrera mihizka ekartzen.

Orain bazirudien ontasun zerutiarrak, giza-kiaren penitentzia eta nekeagatik hunkiturik, gortina zabaldu eta agerian jarri zuela, soil eta argi, erbia zutik; olatua jausten; barkua kulunkan, mereziko bagenitu betirako geureak izango

liratekeenak. Baina ai!, ontasun zerutiarrak sokari tira eta gortina ixten du; ez zaio atsegin; kazkabar erauntsi baten pean ehorzten ditu bere altxorrak, eta hainbeste apurtzen ditu, hainbeste nahaspilatzen ditu, non ezinezkoa baitirudi haiek patxada inoiz berreskuratzea edo guk haien zatietatik inoiz multzo perfekturik osatzea edo puska sakabanatuetan egiaren hitz gardenak irakurtzea. Gure penitentziagatik kirika bat soilik merezi baitugu; gure nekeagatik atsedenaldi bat soilik.

Orain gauak haize eta txikizioz beteak daude; zuhaitzak okertu eta makurtu, eta hostoak zalapartan hegatzan dira, belardiari adabakiak jarriz, eta erretenetan metatzen eta tuberiak trabatzen eta bide bustietan barreiatzen dira. Itsasoa ere oldartu eta bertan lehertzen da, eta baldin lokarturen bat, bere zalantzen erantzuna edo bakar-dadea elkarbanatzeko norbait aurkituko duela-koan oheko tapakiak baztertu eta hondartzara jaitsiko balitz bakar-bakarrik paseatzera, ez litzaioke inongo irudi eskura etorriko zerbitzatze-ko itxuraz eta arintasun zerutiarrez, gaua ordenan jartzera eta munduari arimaren mugak isla-

raztera. Eskua bere eskuan ahitzen da; ahotsak bere belarrian egiten du marru. Ia badirudi halako nahasmenean alferrik dela gauari galdetzea zer, zergatik eta zertarako, galdera hauek zirikatzen baitute lokartua erantzun bila ohetik kanpora.

[Ramsay jaunak, pasilloan zehar balantzaka, besoak luzatu zituen goiz ilun batean, baina Ramsay andrea aurreko gauean hil zenez bat-batean, besoak luzatzea besterik ez zuen egin. Hutsik jarraitu zuten.]

## 4

Hala, etxea hutsik eta atea giltzez itxiak eta koltxoiak bildurik, aire deslai hauek, gudaroste handien abangoardia hauek, burrunban, apal soilak igurtziz, horzka eta haize emanez, ez zuten topatu logela eta saloian gogor egiten zien ezer, bakarrik zintzilikarioak far-far, egurrak intzirika, mahaien hanka luzeak, lapikoak eta portzelana ilaundu, uhertu, pitzatua. Jendeak bota eta utzi zuena —oinetako pareta, ehizarako

kapela, gona eta txamarra maiztu batzuk armai-ruetan— hauek bakarrik mantentzen zuten giza itxura, eta, beren hustasunaren bidez, garai batean beterik eta bizirik egon zirela erakusten zuten; garai batean eskuak zereginean aritu zirela kakotx eta botoiekin; garai batean ispiluak aurpegi bat eduki zuela bere altzoan; mundua-ren zati bat eduki zuela bere altzoan, non irudi bat jiratu, esku bat azaldu, atea zabaldu, eta umeak sartu baitziren zalapartan korrika; eta berriro irten. Orain, egunak joan eta egunak etorri, argiak, uretan islatutako loreak bezala, bere buruaren irudi gardena erakusten zuen aurreko horman. Haizeak eragindako zuhaitzen itzalek bakarrik egiten zuten hormaren gainean gurke-  
ra, eta momentu batez urmaela iluntzen zuten, non argiak bere burua islatzen zuen; edo txoriek, hegaz, belzgune xume bat irristarazten zuren astiro logelako zorutik.

Hala, edertasuna eta lasaitasuna ziren nagusi, eta biek batera edertasunaren forma hartu zuten, bizitzak alde egin ondorengo forma; ilunabarrean treneko leihotik urruti ikusitako lakua bezain bakarti, ilunabarrean zurbil, hain bizkor

ezkutatzen non ia batere ez baita lakuari osten  
zaion bakardadea, behin ikusia izan arren. Eder-  
tasuna eta lasaitasuna elkarri besotik helduta  
zeuden logelan, eta zapiz bildutako pitxer eta  
izarez estalitako aulkietan zehar ez haize zelata-  
riek eta ezta itsas aire umelen sudur eztiak ere,  
igurzten, usnatzen, beren galderak berritzen eta  
arraberritzen —«Zimelduko al zarete? Galduko al  
zarete?»— la batere ez zuten hondatzen hango  
bakea, axolarik eza, osotasun itxura, galdera  
haiek ia erantzun beharrik ez balute bezala:  
hemen geratzen gara.

Bazirudien ezerk ezin zuela irudi hura hautsi,  
xalotasun hura likistu eta isiltasunezko geruza  
kulunkaria hondatu, honek gela hutsean asterik  
aste bere baitan bilbatzen zituelarik txorien txi-  
lio apalduak, barkuen sirena-hotsak, soroen txis-  
tu eta burrunba, zakurraren zaunka, gizonaren  
oihua, etxe inguruan tolestuz isil-isilik. Behin  
bakarrik askatu zen eskailerarteko ohol bat;  
behin, gauaren erdian, harrabots batekin, eten-  
dura batekin, gizalditako patxadaren ondoren  
menditik erauzi eta ibarrean ziztu bizian leher-  
tzen den harkaitza bezala, txalaren tolestura bat



libratu eta dilindan geratu zen. Orduan berriro bakea abaildu, itzalak dardara egin, eta argia bere buruaren irudi aurrean makurtu zen logelako horman, adoratzera; harik eta McNab andrea, isiltasunaren errezela urratuz eta xehatuz, kubelan aritutako eskuekin, harri txintxarra zanpatutako botekin, agindutako moduan etorri zen arte leiho guztiak zabaldu eta logeletako hautsak kentzera.

## 5

Aldaroka (barkua itsasoan barrena bezala balantzan) eta zeharka begira (ez zion ezeri zuzenean begiratzen, baizik saihetsetik, munduaren mespretxua eta amorrua gaitzetsiz — bazekien tuntun samarra zela), barandari atxiki eta bere burua gorantz eraman eta gelaz gela balantzaka joan bitartean, kantari ari zen. Ispilu luzeko kristala igurtzi, eta bere buruaren irudi kulunkariari zeharka begiratzuz, doinu bat jalki zen bere ezpainetatik — hogei urte lehenago agian antzezlekuen gainean alaia izandako zer-

bait, denean tarareatu eta dantzatu izandakoa, baina orain, hortzik gabeko administratzaile tokadun harengan ez zeukan inongo zentzurik, gehiago ematen zuen tuntunkeria, nahikeria, setaren ahotsa, oinazpian zapaldu baina berriro zutitzen dena; hala, aldaroka zihoan bitartean, hautsak kentzen eta garbiketean, bazirudien esaten ari zela bizitza etengabeko atsekabe eta kezka zela, goizean jaiki eta gauean oheratu, gauzak atera eta berriro jaso. Ez zen samurra edo eroso ia hirurogeita hamar urtez ezagutu-tako mundu hau. Makurturik zegoen ahidurarekin. Noiz arte, galdetu zuen bere artean, ohea egin eta mahaietako hautsak kentzerakoan intzirik eta belaunak kirrika, noiz arte iraungo ote zuen bizitzak? baina berriro herrenka altxatu, bizkarra tentetu, eta berriro ere zehar-begiratu harekin, atsekabe guztiei eta bere aurpegiari ere ihes eta muzin eginez, ispilura begira jarri zen, arrazoirik gabe barrez, eta berriro hasi zen tirriki-tarraka, koltxoiak altxatu, portzelana bere lekuan ipini, ispilura saiheska begiratu, azken batean zerekin kontsolatua baleuka bezala, bere lantura hotsak itxaropen menderaezin bat baleu-

ka bezala txirikordaturik. Segur aski izanak zituen zorionezko bisioneak kubelan, edo seme-alabekin (nahiz bi sasikoak izan eta batek bera abandonatu), edo tabernan edanean, edo bere kaxoian purtxileria lardaskatzen. Segur aski bazegoen arrakalaren bat ilunpetan, zirrikituren bat belztasunaren osinean, nahikoa argi sartzen uzten zuena ispilu aurrean imintzioa egiteko, eta, berriro lanari ekinez, music halleko kanta zahar hura murduskatzeko. Mistikoak eta aztiak, bien bitartean, hondartzatik paseatu, putzu batean aztarrikatu, harri bati begiratu eta beren buruari galdetzen dioten «Zer naiz ni?» «Zer da hau?», eta erantzun bat oparitzen zitzaien bat-batean (ezin zuten esan zer nolakoa): horrela, antzigarretan epel eta basamortuan eroso zeuden. Baina McNab andreak lehenago bezala jarraitu zuen edaten eta esamesaka.

## 6

Udaberria, astindu ahal izateko hosto bakar bat ere gabe, soil eta argi, kastitate grinati eta

xahutasun mesprezutzaileko birjin baten antzera hedatu zen soroetan, begi zabalik eta erne eta batere axolarik gabe ikusleek egin edo pentsatzzen zutenaz.

[Prue Ramsay, aitaren besoetan apoiaturik, maiatz hartan izan zen ezkontzan emana. Zer egokiagorik? zioen jendeak. Eta bai ederra zegoela, gaineratu zuten.]

Uda hurbildu ahala, arratsaldeak luzatu ahala, hondartzatik paseatu eta putzuan aztarrikatu bitartean, itxaropentsu eta itzarrien baitan irudipen arraroenak jaio ziren — atomotan desgindako haragia haizeak zeramala, beren bihotzetan izarrek distiratzen zutela, labar, itsaso, hodei eta zero nahita batu zirela barruko bisione honen zati sakabanatuak elkarri eransteke, kanpotik. Giza arimen ispilu haietan, ur artegako putzu haietan, non hodeiak etengabe irristatzen eta itzalak sortzen ziren, ametsek tinko zirauten, eta ezinezkoa zen gogor egitea kaio, lore, zuhaitz, gizon-emakume bakoitzak, eta lur zuriak berak ere itxuraz aitortzen zuen ideia arraroari (baina edozein galdera berehala baztertzen zen), alegia ontasuna dela garaile, zorio-

na nagusi, ordena agintari; eta ezinezkoa zen ere gogor egitea estimulu itzel hari, han-hemenka ibiltzera bultzatzen zuena ontasun absoluturen baten bila, kristal trinkoren baten bila, betiko atsegin eta dohain ezagunak ez bezalako izango zena, eguneroko jardueren aldean arrotza, zerbait bakana, gogorra, argia, diamantea hareatzen bezala, jabeari segurtasuna lekarkiokeena. Gainera, erleak burrunban eta eltxoak dantzan zebiltzkieen udaberri hark, goxaturik eta etorkor, bere estalkipean bildu, begiak gorde, burua itzuli, eta pasaerako itzalak eta langar boladen artean bazirudien bere bizkar hartu zuela giza atsekabeen jakintza bat.

[Prue Ramsay uda hartan hil zen erditze garaiko gaitzen batengatik, benetako tragedia, jendearen esanetan. Beste inork baino gehiago merezi omen zuen hark zoriona.]

Eta orain, udako sargorian, haizeak berriro bidali zituen bere zelatariak etxe ingurura. Euliek sarea irun zuten gela eguzkitsuetan; gauez ia leihoraino hazitako belar gaiztoek aldian-aldian kolpatzen zuten kristala. Iluna abailtzean, faroko distira, alfonbra gainean halako nagusitasunez

etzan eta bere forma bertan ezarri ondoren ilunpetan, orain, udaberriko argi goxoagoan, ilargiarekin nahasturik etorri zen, emeki labainduz, bere laztana zabalduz bezala, eta luzaroago geratu eta begiratu eta berriro etorri zen eztiro. Baina laztan maitagarri honen barealdian, distira luzea ohe gainean makurtzean, harkaitza pitzatu zen; txalaren beste izur bat urratu zen; han zegoen zintzilik, dilindan. Udako gau labur eta udako egun luzeetan zehar, gela hutsak murmurioka zeudela zirudienean soroen oihartzun eta eulien burrunbarekin, filda luze hura emeki astindu, noraezean kulunkatu zen; eguzkiak gela guztiak alderik alde arrastoz eta gandu horiz hainbeste bete zituen non McNab andreak, bertan aldaroka sartzean garbiketa egin eta hautsak kentzeko, arrain tropikala ematen baitzuen eguzki printzez zeharkaturiko uretan barrena lerratzen.

Baina geldotasuna eta lozorrea nagusitu arren, uda aurreratzean parte gaiztoko hotsak heldu ziren, larru gainean moteldutako mailukada neurtuen antzera, behin eta berriro erasoz, txala are gehiago urratuz eta te kikirak pitzatuz.

Noizean behin basoren baten hotsa aditzen zen arasan, erraldoi batek hilzorian garrasi eginik arasa barruko ontziak ere dardarka jarri balitu bezala. Ondoren berriro abaildu zen isiltasuna; eta ondoren, gauero-gauero, eta zenbaitetan eguerdian bertan ere bai, arrosak argitan zeudenean eta eguzkiak bere errainu garbia aurreko horman ezartzen zuenean, bazirudien isiltasun, axolarik eza eta osotasun honetara zerbait erortzen zela, danbateko batekin.

[Frantzian granada bat lehertu zen. Hogei edo hogeita hamar gizon gazte errautsi zituen, tartean Andrew Ramsay, zorionez berehala hil zena.]

Garai hartan, hondartzatik paseatzera jaitsi eta itsasoari eta ortziari zer berri zen edo zer bisione eskaintzen zuten galdezka aritutako haiek, kontutan hartu beharra izan zuten, eman-kortasun zerutiarraren ohiko ikurren artean — eguzkiaren sarrera itsasoan, egunsentiko zurbiltasuna, ilargiaren jaiotza, ilargiaren alboko arrantzontziak eta umeak belar eskukadak botatzen elkarri— bozkario eta patxada honekin harmonian ez zegoen zerbait. Errauts koloreko

barku baten agerraldi isila adibidez, etorri eta joan; lohidura purpura itsaso batearen gainean, zerbait irakin eta urtu balitz bezala, ezkutuan, azpian. Intrusio honek, gogoeta gorenak eta ondorio lasaigarrienak eragiteko eszena hartan, beren urratsa mantsotu zuen. Zaila zen hori eta horrenbestez haiei ezikusia egitea, paisaia zeukaten garrantzia deuseztatzea, itsasertzetik ibili bitartean miresten jarraitzea nola kanpoko edertasunak barruko edertasuna ispilatzen zuen.

Naturak gehitu egiten ote zuen gizakiak aurreratutakoa? osatu egiten ote zuen honek hasitakoa? Ederrespen berdinez ikusten zuen naturak gizakiaren miseria, honen zitalkeria barkatzen eta honen oinazea onartzen. Elkarbanatu, osatu, eta hondartzako bakardadean erantzun bat aurkitzeko amets hura, beraz, ez ote zen ispilu bateko isla besterik, eta ispilua bera ere ez ote zen kristalezko mintza besterik, gelditasunean formatua botere prestuagoak azpian lo daudenean? Luzeiritzita, etsipenez baina joan nahi ezik (edertasunak bere lilurak eskaintzen baititu, baditu bere kontsolamenduak), ezinez-



koa zen hondartzan ibiltzea; jasanezina zen kontenplazioa; ispilua hautsirik zegoen.

[Carmichael jaunak poema liburua argitaratu zuen udaberri hartan, ustekabeko arrakastarekin. Gerrak jendearen interesa piztu omen zuen poesiaren aldera.]

## 7

Gauetik gauera, udan eta neguan, ekaitzen iskanbilak eta eguraldi ederraren gezi antzeko patxadak beren erregetza eduki zuten, elkarri galarazi gabe. Etxe hutsaren goiko geletatik entzunez (inor egon balitz bertan entzuteko), tximistek astindutako kaos itzela bakarrik aditu ahal izango zen zalapartan eta amorraturik, hai-zeak eta olatuak jolasean zebiltzanean leviatanen masa amorfoen antzera, kopeta barruan zentzu aztarnarik gabeak, eta bata bestearen bizkarrera igotzen, zanbuluka eta zanbuluka nahiz ilunpetan nahiz egun-argitan (zeren gaua eta eguna, hilabetea eta urtea formarik gabe zihoazen jarioan), joko txorotan, unibertsoa bere

buruarekin borrokan eta zalapartan balego bezala, nahasmen basatiz eta desira gordinez, arrazoirik gabe.

Udaberrian lorategiko urnak, haizeak ekarritako haziekin kasualitatez beteak, beti bezain alai zeuden. Bioletak jaio ziren eta baita nartzi-soak ere. Baina eguneko patxada eta argitasun hura gaueko kaosa eta iskanbila bezain arraroa zen, zuhaitzak hemen eta loreak han, aurrera begira, gora begira, baina ezeri erreparatu gabe, begirik gabe, izugarri.

## 8

Txarkeria asmorik gabe, familia ez baitzen inoiz itzuliko, zenbaitek zioenez behintzat, eta etxea agian Michaelmas-i salduko baitzitzaion, McNab andrea makurtu eta lore-sorta bildu zuen bere etxera eramateko. Mahai gainean ipini zuen, hautsak kendu bitartean. Oso lorezalea zen. Lastima zen haiek ihartzen uztea. Etxea salduz gero ere (besoak saihetsetan jarrita zegoen ispilu aurrean) zaindu beharra zegoen — horixe

bai! Han egon zen hainbeste urtetan arimarik gabe barruan. Liburuak-eta zimeldurik zeuden; izan ere, gerra zela medio laguntza lortzea zaila izan zenez, etxea ez zen garbitu berak nahi adina. Orain berriz, lagun bakarraren eginahalak hura dena taxutzeko aski ez. Zaharregia zen bera. Hanketako mina zeukan. Belardiko eguzkitan zeuden liburu guztiak zabaldu beharrak; igeltsua zegoen sarreran eroria; bulegoaren leiho ondoko erretena trabatu eta itogina zegoen barrura; zeharo hondaturik zegoen alfonbra. Haiek etorri behar zuten eta! Norbait bidali behar zuten ikustera. Arropak zeuden armairuetan; arropak utzi zituzten logela guztietan. Zer egin zezakeen berak haiekin? Sitsak jota zeuden — Ramsay andrearen gauzak. Gajoa! Ez zituen inoiz gehiago beharko. Hila omen zen; aspaldi, Londresen. Han zegoen lorategi lanetarako jantzi ohi zuen xira gris zaharra (McNab andreak eskutan ibili zuen). Bere aurrean ikus zezakeen Ramsay andrea, bidean gora lixibarekin zetorrela, loreen aldera makurtuz (penagarria zegoen orain lorategia, berebiziko anabasa, eta untxiak lore-piloen artetik ihesi norbait inguratuez gero)

— bere aurrean ikus zezakeen Ramsay andrea, seme-alabetako bat ondoan, xira grisa soinean. Han zeuden botak eta oinetakoak; eta zipilua eta orrazea tokadore gainean utzirik, biharamunean itzultzea espero balu bezalaxe. (Oso azken azkarrak izan omen zuen). Behin batean etortzekotan egon ziren, baina bertan behera utzi zuten, gerra zela-eta bidaiatzea hain zaila izanik; hainbeste urtetan ez ziren behin ere etorri; berari dirua bidali eta kito; ez behin ere idatzi, ez etorri, eta hala ere utzi bezala esperoko zuten gauzak aurkitzea, ai ene! Tokadoreko kaxoiak gauzez beteak zeuden (zabaldu egin zituen), eskuzapiak, xingolak. Bai, aurrean ikus zezakeen Ramsay andrea, bidean gora lixibarekin zetorrela.

«Arratsaldeon, McNab andrea», esan ohi zion.

Oso jatorra zen berarekin. Neskatoek ere maite zuten. Baina jainko santua, gauza asko aldatu ziren ordutik (kaxoia itxi zuen); familia askok galdu zuten beren kuttuna. Hila zen beraz; eta Andrew jauna gerran eroria; eta Prue ande-reñoa ere hila, agidanean lehen haurra izatera-koan; baina denek galdu zuten norbait azken

urteotan. Prezioak lotsagarri igo ziren, atzera jaitsi gabe. Ondo gogoratzen zen xira grisa soinean zeraman hartaz.

«Arratsaldeon, McNab andrea» esan, eta platerkada esne-zopa gordetzeko agintzen zion sukaldariari — nahi izango zuelakoan, saski astun hura herritik haraino igo ondoren. Aurrean ikus zezakeen orain, loreen aldera makurtuz; (eta gandu artean gir-gir, printza hori bat edo teleskopioaren muturreko zirkulua bezala, soinean xira grisa zeraman andre bat, breen aldera makurtua, paseoan igaro zen logelako horman zehar, tokadorean gora eta lababo gainetik, McNab andrea tirriki-tarraka zebilen bitartean, hautsak kentzen, txukuntzen).

Eta zer izen zuen bada sukaldariak? Mildred? Marian? — holako izenen bat. Ah, ahaztua zeukan — dena ari zitzaion ahazten. Sutsua, emakume ilegorri guztien moduan. Makina bat barre algara eginak ziren. Bera beti ongi hartzen zuen sukaldean. Harexek denei eginarazten zien barre. Igualakoak ziren lehengo garaiak oraingoen aldean.

Hasperen egin zuen; lan handiegia zen emakume bakarrarentzat. Alde batera eta bestera eragin zion buruari. Hau zen umeen gela. Hara, dena umel zegoen hemen; igeltsua berriz Jarioan. Zertarako eskegi ote zuten hor pizti baten kaskezurra? hura ere zimeldua. Eta teilatupeko gela guztietan arratoiak. Euria sartzen zen. Baina ez zuten inor bidali; ez ziren inoiz etorri. Hainbat krisket hondaturik zegoen, eta ateen danba jotzen zuten. Ez zuen ilunabarrean goi honetan bakarrik egon nahi izaten. Gehiegi zen emakume bakarrarentzat, gehiegi, gehiegi. Belaunek kirrikatu eta antsi egin zuen. Danbatekoa jo zion ateari. Giltza eman eta han utzi zuen etxea, itxita, bakarrik.

## 9

Utzia zegoen etxea; abandonatua zegoen etxea. Abandonatua zegoen txirla bat hondarrezko muino baten gainean bezala, bizitzak bazterrean utzia gatzale lehorrez bete zedin. Bazirudien gau luzearen eraso hasia zela; bazirudien

irabazle gertatu zirela aire jostalariak, hozka, eta  
arnasa umelak, haztaka. Herdoildua zegoen  
kazola, eta alfonbra berriz onenak emanda.  
Muturra sartu zuten zapoek. Harantz eta  
honantz zebilen txala dilindan, nagi, noraezean.  
Janaritegiko teilan artetik aurkitu zuen txokoa  
kardo batek. Saloian zeukaten enarek habia;  
lasto izpiak zeuden lurrean sakabanaturik; plas-  
ta-plasta erortzen zen igeltsua; agerian zeuden  
gapirioak; hau eta beste zeramaten arratoiek,  
hormako oholtzaren atzean karraskatzeko. Txi-  
meleta nakaratuak krisalidetatik jarri eta hil arte  
aritzen ziren leihoko kristala jotzen. Dallen  
artean zabaltzen zuten amapolek beren hazia;  
belar luzea kulunkatzen zen zelaian; alkatxofa  
erraldoiak zutitzen ziren arrosa artean; krabelin  
bat loratu zen azen artean; belar gaiztoen leiho-  
ko ukitu leunak, neguko gauetan, zuhaitz sendo  
eta sasi arantzatsuen danbor-hots bihurtu ziren,  
eta horrek sortu zuen udako berdetasun hura  
gela barruan.

Zer boterek galaraz zezakeen orain natura-  
ren joritasuna eta ardurarik eza? McNab andrea-  
ren ametsak dama batekin, ume batekin, esne-

zopa platerkada barekin? Ametsa hormen gaine-  
tik eguzki argiune baten antzera kulunkatu eta  
desagertu zen. McNab andreak atea giltzez itxi  
eta joan zen. Emakume bakarraren indarra ez  
zen aski, zioen. Ez zuten inor bidali. Ez zuten  
inoiz idatzi. Usteltzen ari ziren gauzak kaxoietan  
— lotsagarria zen haiek hala uztea, zioen. Egoi-  
tza osoa zegoen goiak behea jota. Faroaren dis-  
tira bakarrik sartzen zen momentu batez gele-  
tan, kirika egiten zuen ohe eta horma aldera  
neguko ilunpetan, begiratzen zion axolarik gabe  
kardoari eta enarari, arratoiari eta lasto izpiari.  
Ezerk ez zien hauei gogor egiten; ezerk ez zien  
hauei ezetz esaten. Ibil dadila haizea; amapolak  
hazia zabaldu eta txerta daitezela krabelina eta  
aza. Egin dezala enarak saloian habia; eta kardoa-  
k teilak baztertu, eta tximeletak eguzkia hartu  
besaulkien zintz maiztuaren gainean. Egon dadi-  
la zelaian edontzi eta portzelana hautsirik, bela-  
rra eta basoko haziz estalita.

Heldua baitzen beste momentu hura, beste  
zalantza hura, egunsentiak dardara egin eta  
gaua bertan gelditzen denean, luma bat pausa-  
tuez gero balantzaren platera eraitsiko zuenean.



Luma bakar bat, eta etxea, erortzen, hondoratzen, bertan irauli eta buruz behera amilduko zen ilunpearen osin-zuloetan. Gela erraustuan jarriko zituzten eskursionistek beren eltzeak surtan; bertan bilatuko zuten maitaleek aterpea, ohol soilduen gainean etzanik; eta bertan utziko artzainak bere otordua adreiluen gainean, eta bertan lo egingo arloteak berokian bilduta hotza uxatzeko. Ondoren teilatua ereriko zen; bidea, eskailera eta leihoa desegingo zituzten sasiak eta asta-perrexilak; hauek munto gainean haziko ziren, nahasian baina ugalkor, hank eta sarkinen batek, bidea galdurik, asunen arteko su-galda lore batengatik edo asta-perrexil arteko portzelana puskatatik bakarrik antzeman ahal izan arte hemen antzina norbait bizi izan zela; etxea egon zela.

Luma erori balitz, platera beherantz okertu balu, etxe osoa osin-zuloan murgildu eta ahanzturaren hondar gainean pausatuko zen. Baina indar bat zegoen han lanean; erabat jakinaren gainean ari ez zen zerbait; alderoka ibili eta zeharka begiratzen zuen zerbait; lanean jarduteko orduan erritual ohoragarritan eta salmodia

gorenetan inspiratua ez zegoen zer bait. McNab andrea hasperenka; Bast andrea belaunak kirrika. Zaharrak; gogortuak; hanketako minez. Erratzak eta pertzak hartuta etorri ziren azkenean; lanari ekin zioten. Halako batean, ea McNab andrea arduratuko zen etxea prest edukitzeaz, idatzi zuen andereñoetako batek: ea hau egingo zuen; ea bestea egingo zuen; dena presaka. Beharbada udan etorriko ziren; azkenera arte itxoin zuten; utzi bezala espero zuten dena aurkitzea. Astiro eta nekez, erratza eta pertza hartuta, fregatzen, marruskatzen, hondamena eta ustela geldiarazi zuten; batean antoisina eta bestean armairua salbatu zuten Denboraren putzutik, honek erdi irentsiak zeuzkanean; Waverley nobela guztiak eta te zerbitzu bat berreskuratu zuten goiz batean ahanzturatik; arratsaldean aire eta eguzkitan jarri zituzten latoizko sutondo-babes bat eta altzairuzko suburdin multzo bat. Bast andrearen semeak, Georgek, arratoiak harrapatu eta belarra ebaki zuen. Etxeginak etorrarazi zituzten. Misagren kirrika eta morroiloen intziria, hezetasunak hanpatutako ateen danbateko eta mailukadak lagun

zirela, bazirudien erditze neketsu herdoildu bat ari zela han burutzen, emakumeak makurtzen zirelarik, altxatzen, aieneka, kantari, dinbidanba, noiz teilatupean noiz sotoan. Oh, esaten zuten, hau lana!

Zenbaitetan logelan hartzen zuten tea, edo bestela bulegoan; eguerdian lana etenez, aurpegiak zikin eta esku zaharrak okertuta eta suminduta erratz kirtenengatik. Aulkietan zapla eserita begiratzen zioten kanila eta bainu-ontziarekin izandako garaipen bikainari; beste batean garaipen astunago, mugatuago bati, liburu ilara luzeekin izandakoari edo, lehen kedarra baino beltzagoak, orain alderdi zuriekin, onddo zurizten haztegi eta armiarma iheskorren gordeleku. Berriro ere, bere barruan tearen epela sentitu zuenean, McNab andrearen begietara egokitu zen teleskopioa, eta argi borobil batean ikusi zuen jaun zaharra zelaian, oilo-luma baino argalagoa, buruari eragiten, ustez bere artean hizketan, bera lixibarekin zetorrela. Inoiz ez zen bera tzaz ohartzen. Batzuek hil zela zioten; besteek emaztea zela hildakoa. Zein ote? Bast andreak

ere ez zekien seguru. Jaun gaztea hila zen. Hori bazekien. Egunkarian irakurri zuen izena.

Sukaldaria ere bazen, Mildred, Marian, horrelako zer edo zer — emakume ilegorria, tankera horretako guztien antzera suminkorra, baina bai jator askoa ere, nota tratatu jakinez gero. Maki-na bat barre algara eginak zituzten elkarrekin. Platerkada zopa jasotzen zuen Maggierentzat; urdaiazpiko muturra batzuetan; sobera geratutako edozer. Ederki bizi ziren garai haietan. Nahi zuten guztia zeukaten (hiztuna, pozik, tearen beroa barruan, bere gogoeten mataza ari zen askatzen, zumitzezko besaulkian eserita jolasgelako leiho-babesaren alboan). Zeregin franko zegoen beti, gonbidatuak etxean, batzuetan mahai inguruan hogeit hamar lagun, eta gauerdia ongi aurreratu arte garbiketan.

Bast andreak (berak ez zituen ezagutu; Glasgowen bizi zen garai hartan) galdetu zion, kikara beheratuz, zertarako eskegi zuten han piztia haren kaskezurra? Atzerrian ehizatua, inondik ere.

Baliteke, erantzun zion McNab andreak, bere gogoetekin jolasean; lagunak zeuzkaten ekialde-

ko lurretan; bertaratutako jaunak, gau soinekoz jantzitako damak; jangelako atetik ikusi zituen behin denak eserita afaltzen. Hogeiren bat izango ziren, bitxiak aukeran, eta geratzeko eskatu zioten berari, garbiketan laguntzeko, gauerdia pasatu arte edo.

Ah, esan zuen Bast andreak, aldatuta aurkituko zuten dena. Burua atera zuen leihotik. Bere seme George belarra ebakitzen ikusi zuen. Hura zertan zen galdetuko zuten agian, ustez Kennedy zaharra baitzen hartaz arduratzekoa, baina hanka gaizkitu zitzaion gurditik erori ondoren; eta inor ez, beraz, urte osoan edo gehienez; eta ondoren Davie Macdonaldek haziak bidaltzeko eskatu zuen, baina auskalo erein zituen ala ez. Aldatuta aurkituko zuten dena.

Segan ari zen semeari begiratu zion. Oso egokia zen lanerako — pertsona trankil horietakoa. Tira, armairuekin hasi beharko zuten orain. Beren buruak altxatu zituzten.

Azkenean, egunetan zehar lanean aritu ondoren barruan, kimatzen eta aldatzen kanpoan, hautsak kentzeko zapiak leihoetatik astindu,

leihoak itxi, etxe guztikogiltzei eman eta danbategoa jo zioten aurreko ateari; bukatu zuten.

Eta orain, garbitzeak eta fregatzeak eta segatzeak eta kimatzeak ordura arte itota eduki balu bezala, erdizka aditutako melodia hori zabaldu zen, belarriak erdizka atxiki baina erortzen utzi izandako musika eten hori; zaunka, marrua; irregularra, etena, baina nola hala harremandua; zomorroaren burrunba, belar ebaikiaren hotzikara, bereizia baina nola hala elkartua; kakalardoaren hozki-hotsa, gurpilaren intzioria, ozen, isil, baina misterioetsuki harremandua; belarriak eginahal guztian hauek denak bateratu nahi eta beti dago hauek harmonizatzeko zorian, baina ez ditu inoiz guztiz aditzen, ez ditu inoiz erabat harmonizatzen, eta azkenean, iluntzean, bata bestearen ondoren ahitzen dira soinuak, eta harmonia makaltzen, eta isiltasuna abailtzen. Eguzkia sartzean galdu zen gardentasuna, eta gandu jaioberria bezala jaio eta zabaldu zen baretasuna, atertu zuen haizeak; askaturik etzan zen mundua loaren altzoan, ilunpetan, argi bakar bat ere gabe, soilik hostoetatik barrena

berdeturik zetorrena, edo leiho ondoko lore zurietara zurbildurik zetorrena.

[Lily Briscoek etxeraino igoarazi zuen bere poltsa irail arratsalde batean. Tren berean etorri zen Carmichael jauna.]

## 10

Horrenbestez etorri zen bakea. Itsasoaren arnasak bakezko mezuak haize ematen zituen lehorrera. Honen loa ez zuela gehiago etengo, are atseden goxoagoa izan zezan kulunkatuko zuela, ameslarien amets sakratu eta zuhur guzti guztiak indartuko zituela —zer beste ari zen xuxurlatzen?— Lily Briscoek gela isil garbiko burkoan burua ipini eta itsasoari aditu bitartean. Leiho irekitik zetorren murmurioka munduko edertasunari buruzko mintzoa, zer zioen zehatz ulertzeko emeegi —baina esanahia argi bazegoen zer axola?— lokartuei arren eskatuz (etxea betea zegoen berriro; Beckwith andrea zegoen bertan, eta baita Carmichael jauna ere), hauek berez hondartzaraino jaisten ez baziren ere,

gutxienez pertsiana altxatu eta kanpora begiratzeko. Hartara gaua ikusiko zuten purpurez jantzita jarioan; buruan koroa; zetroan bitxiak; eta haurrek ere begira zezaketela haren begietara. Eta hala ere zabartzen baziren (Lily leher eginda zegoen bidaiarekin eta ia berehala hartu zuen lo, baina Carmichael jauna liburua irakurtzen ari zen kandela-argitan), hala ere uko egiten bazuten, adierazi nahiz bezala lurrin hutsa zela gauaren oparotasun hau, eta ihintzak indar gehiago zeukala, eta nahiago zutela lo egin; orduan, kexa edo eztabaidarik gabe, samur, mintzoak bere kanta kantatuko zuen; eztiro lehertuko ziren olatuak (lotan aditzen zituen Lilyk); emeki jausi zen argia (Lilyren betazaletatik zetorrela zirudien). Eta denak, pentsatu zuen Carmichael jaunak, liburua itxiz, lo hartuz, aspaldiko urte haietan bezala ematen zuen.

Izan ere, honela hasi zitekeen berriro mintzoa, ilunpearen gortinek etxea, Beckwith andrea, Carmichael jauna eta Lily Briscoe estali zituztenean, beren begi gaintan pausatuz, belztasunezko tolesturekin, zergatik ez honi ameto eman, honi askietsi, oniritzi eta amore eman?



Irlen inguruan aldian-aldian lehertutako itsaso guztien antsiek goxatu zuten haien loa; gauak bildu zituen; ezerk ez zien loa eten, harik eta txoriak beren ahots meheak egunsenti zuriari txirikordatzen hasi arte, orga bat kirrika, zakurra nonbait zaunka, eguzkiak gortinak jaso, beren begi gainetako beloak urratu, eta Lily Briscoek, lotan mugituz, maindireei eutsi zien, erortzen ari denak amildegi ertzeko zotalari eusten dion bezala. Begiak zabaldu zituen. Hemen zegoen berriro, pentsatu zuen, ohean bizkarra tenteturik eseriz. Esna.

# III FAROA

## 1

Zer esan nahi du honek, zer esan nahi ote du honek denak? galdetzen zion Lily Briscoek bere buruari, bakarrik utzi zutenetik erabaki ezinik zer ote zen hobe, beste kafe kikara baten bila sukaldera joatea ala bertan geratzea. Zer esan nahi du honek? — lema bat zen hori, libururen batetik bildua, bere gogoetekin aldez edo moldez egokitzen zena, ezinezkoa egiten baitzitzaion, lehen egun honetan Ramsaytarrenean, bere sentimenduak murriztea; egin zezakeen bakarra zen esaera baten hotsa zabaltzea, bere baitako hustasuna estali zezan, lamara hauek desagertu arte. Izan ere zer sentitzen zuen berez, honenbeste urte eta gero itzuli eta Ramsay andrea hilda egonik? Deus ez, deus ez — hitzez adierazteko moduko deus ez.

Aurreko gauean iritsi zen, dena ilun, misterio-  
tsu zegoenean. Orain esna zegoen, gosal mahai-  
ko bere aspaldiko txokoan, baina bakarrik. Goi-  
zegi zen hala ere, artean zortziak ez. Txango  
hura zuten egitekoa — farora ziren joatekoak,  
Ramsay jauna, Cam eta James. Ordurako joanak  
behar zuten — itsasgora-edo zeukaten hartu  
beharra. Eta Cam ez zegoen prest eta James ez  
zegoen prest eta Nancyri ogitartekoak egiteko  
agintzea ahaztu eta Ramsay jauna bere onetatik  
atera eta atea danbateko batez itxita irten zen  
kanpora.

«Zertarako joan orain?» bota zuen purrustan.

Ez zegoen Nancyren aztarrenik. Han zebilen  
orain Ramsay jauna, terrazan gora eta behera  
zeharo amorrarazita. Bazirudien atea kolpeka  
eta ahotsak deika aditzen zirela etxe guztian  
barrena. Orain bat-batean Nancy agertu eta  
gelan zehar begira galdetu zuen, modu xelege  
batean, erdi txunditu erdi etsita, «Zer eraman  
diezaiekegu farokoei?» bere burua behartzen ari  
balitz bezala, inoiz egin ahal izatea espero ez  
zuen zerbait egitera.

Farokoei zer eraman beraz! Beste noiznahi Lilyk zentzu osoz proposatuko zuen tea, tabakoa, egunkariak. Baina goiz honetan ikusgarri xeblebre ematen zuen denak, eta Nancyrena bezalako galderak —Zer eraman diezaiekegu farokoei?— atek zabaltzen zituen inoren baitan, danbaka hasi eta batera eta bestera astindu eta galdetzera behartzen zuten inor, ahoa bete hortz, Zer eraman diezaiekegu? Zer egin dezaiekegu? Zertan gaude hemen eserita?

Bakarrik eserita (berriro irten baitzen Nancy) mahai luzeko katilu garbien aurrean, besteen-gandik bereizita sentitu zen, eta begira, galdezka, zalantzan jarraitzeko gauza soilik. Etxea, ingurua, goiza, dena iruditzen zitzaion arrotza. Ez zeukan loturarik hemen, sentitu zuen, batere harremanik ez, zernahi gerta zitekeen, eta edozer izanik ere, nahiz urrats bat kanpoan, nahiz ahots bat deika («Ez dago armairuan; eskailerartean dago», oihukatu zuen norbaitek), galdera bat zen, normalean gauzak lotzen zituen katea etenda balego bezala, eta flotatzen baleude bezala, hemen goian, hor behean, kanpoan, nolana. Zer zentzugabea zen hura, zer kaoti-

koa, zer irrealak, pentsatu zuen, bere kafe kikara hutsari begira. Ramsay andrea hilik; Andrew eroria; Prue ere hilik — behin eta berriro errepikatu ta ere ez zuen horrek beragan sentimendurik ernetzen. Eta hemen bildu gara denok holako etxe batean holako goiz batean, esan zuen, leihotik begira — patxadako egun eder bat zen.

Bat-batean Ramsay jaunak pasaeran burua jaso eta zuzenean begiratu zion, begirada nahasi, basati, baina hala ere hain zorrotza zen harekin, lehen aldiz ikusiko bazintu bezala, segundo bakar batez, behin betirako; eta Lilyk kafe kikara hutsetik edaten ari zen itxura egin zuen, harengandik ihesi — haren eskakizunei ihesi, premia larri hura geroxeagorako uzteko momentu batez. Eta berari buruaz imintzioa egin, eta oinez jarraitu zuen («Bakarrik» entzun zion esaten, «Hilda» entzun zion esaten) eta, beste guztia bezala, goiz bakan honetan hitz haiek sinbolo bihurtu ziren, horma berde grisaxka guztietan zehar idatziak. Haiexek bateratzerik baleuka, pentsatu zuen, denak esaldiren batean idazterik, orduan gauzen egiara helduko zen. Carmichael jaun zaharra tipi-tapa sartu, kafearen bila joan,

kikara hartu eta eguzkitan esertzera alde egin zuen. Beldurgarria zen berebiziko irrealitate hau; baina baita zirraragarria ere. Farora joatea. Baina zer eraman diezaiekegu farokoei? Hilda. Bakarrik. Argi berde grisaxka aurreko horman. Hutsuneak. Hauek ziren zatietako batzuk, baina nola elkartu denak? galdetzen zuen bere artean. Mahai gainean osatzen ari zen irudi xumea edozein etenaldik hautsi ahal baleza bezala, bizkarrara eman zion leihoari, Ramsay jaunak ikusi ez zezan. Alde egin beharra zeukan nola hala, nonbait bakarrik egon. Bat-batean oroitu zen. Hamar urte lehenago bera han bertan eserita egon zenean, adar edo hosto irudi txiki bat zegoen mantelean, eta hari begira egon zen errebelaziozko momentu batean. Problemaren bat eduki zuen koadro baten lehen planoarekin. Zuhaitza erdialdera, esan zuen garai hartan. Inoiz ez zuen koadro hura bukatu. Bere buruan egon zen gordeta hainbeste urtetan. Orain pintatuko zuen koadro hura. Non ote zeuden bere pinturak? Bere pinturak, bai. Sarreran utzi zituen aurreko gauean. Berehala hasiko zen. Agudo zutitu zen, Ramsay jauna itzuli aurretik.

Aulki baten bila joan zen. Neskazar baten mugimendu zehatzekin kokatu zuen astoa zelai ertzean, Carmichael jaunagandik hurbilegi ez, baina haren babesetik nahikoa hurbil. Bai, hementxe bertan egon bide zen hamar urte lehenago. Hara han horma; hesia; zuhaitza. Masa horien arteko harremanen batekin zeukan arazoa. Gogoan eraman zuen hura hainbeste urtetan. Bazirudien konponbidea iritsi zuela: orain bazekien zer egin nahi zuen.

Baina ezin zuen fitsik ere egin Ramsay jauna zelatan edukita. Hura urreratzen zenero —terrazan gora eta behera zebilen— hondamendia urreratzen zen, kaosa urreratzen zen. Hala ezin pintatu. Makurtu, jiratu, hemengo zatarrak hartu, hango tuboa estutu, baina hura momentu batez uxatzea besterik ez zuen erdiesten. Ezinezkoa egiten zion ezertan jardutea. Zeren aukerarik txikiena ematen bazion, edo momentu batez haren aldera begiratzen bazuen, berehala eraso-ko zion, eta aurreko gauean bezala esan, «Oso aldatuak aurkitzen gaituzu, noski». Aurreko gauean Ramsay jauna zutitu, aurrean makurtu, eta hitz haiexek esan zizkion. Mutu eta begirada

josita eserita egon arren sei umeak, Ingalaterra-ko Errege-Erreginen arabera deitu ohi zituztenak —Gorria, Ederra, Zitala, Ankerra— horrekin zenbat amorrarazten ziren antzeman zuen. Beckwith andre jator zaharrak zentzuzko zerbait esan zuen. Baina elkarrekin zerikusirik gabeko pasioz betea zegoen etxe hura — iluntze osoan antzeman zuen hori. Eta kaos hau areagotzeko, Ramsay jauna zutitu, berari eskutik heldu, eta esan zuen: «Oso aldatuak aurkituko gaituzu, noski» eta haietako bakar batek ere ez zuen hitzik edo zirkinik egin; bertan jarraitu zuten eserita, hark hura esatea onartu beharra baleukate bezala. Jamesek bakarrik (Petralak noski) begiratu zion bekozko ilunez lanparari; eta Camek bere esku-zapia kiribildu zuen behatz inguruan. Orduan hark denei gogorarazi zien farora joango zirela biharamunean. Sarreran prest egon behar zuten zazpi t'erdietan puntuan. Ondoren, eskua atearren heldulekuan, bertan gelditu zen; haiengana jiratu zen. Ez al zuten joan nahi? galdetu zien. Ezetz esatera ausartu balira (Ramsay jaunak bazeuzkan hainbat arrazoi hala nahi izateko), tragikoki amilduko zen atzeraka etsipenaren



uholde saminetan. Dohain berezia zuen imintzio-  
etarako. Errege erbesteratua ematen zuen.  
Setati esan zuen Jamesek baietz. Camek atseka-  
betuago totalkatu zuen. Bai, oh bai, biak egongo  
ziren prest, esan zuten. Eta burura etorri zitzaion  
Lilyri, hau tragedia bat da — ez beztidura,  
errauts eta hil-atorrarik, baizik ume derrigortuak,  
izpiritu menderatuak. Jamesek hamasei urte  
zeuzkan, Camek hamazazpi, agian. Ingurura  
begiratu zuen, bertan ez zegoen norbait ikusiko  
ote, segur aski Ramsay andrea. Baina Beckwith  
andre jatorra bakarrik zegoen han, bere marraz-  
ki orriak lanpararen azpian pasatzen. Ondoren,  
nekatua, bere gogoa artean itsasoarekin gora  
eta behera, urrunaldi luzearen ondoren bazte-  
rren usain eta zaporea bere buruaz jabeturik,  
kandelak bere begietan dilindan, bidea galdu eta  
hondora joan zen. Izar-gau zoragarria zegoen;  
olatu hotsa zabaldu zen eskailerak igotzen zituz-  
ten bitartean; ustekabean atzeman zituen ilar-  
giak, berealdikoa, zurbila, eskailerarteko leiho  
albotik igaro zirenean. Berehala hartu zuen lo.

Esku irmoarekin ipini zuen oihal garbia asto-  
aren gainean, barrera moduan, ahula, baina

Ramsay jauna eta honen hertsitasuna uxatzeko aski sendoa izango zelakoan. Hark bizkarra eman zionean, ahalegin guztiak egin zituen koarduari begiratzeko; hemengo lerro honi, horko masa horri. Baina alferrik zen. Ramsay jauna handik ehun pausotara egonda ere, zuri batere hitz egin gabe ere, zu ikusi gabe ere, iragazi egiten zen, nagusitu egiten zen, bere burua gailentzen zuen. Dena aldatzen zuen. Halakoetan Lily ez zen kolorea ikusteko gauza; ez zen lerroak ikusteko gauza; hark bizkarra emanda ere, ez zitzaion burutik joaten, Noiznahi etorriko zait aldamenara, eskatzera — eman ezin ziola jabetzen zen zerbait. Pintzel bat baztertu zuen; beste aukeratu zuen. Noiz etorriko ote ziren umeak? Noiz abiatuko ote ziren denak? urduritu zen. Gizon horrek, pentsatu zuen gero eta haserreago, inoiz ez zuen ematen; hartu bakarrik. Bera, berriz, ematera behartuko zuten. Ramsay andreak ere eman zuen. Eman eta eman eta eman hil zen — eta hau dena utzi zuen. Egia esan, haserre zegoen Ramsay andrearekin. Pintzela eskuetan apur bat dardarka zeukalarik begiratu zuen hesira, koskara, hormara. Dena

Ramsay andrearen lana. Hilda zegoen. Hemen zegoen Lily, berrogeita lau urterekin, denbora alferrikaltzen, ezertxo ere egiteko gai ez, hantxe zutik, pintaketan jolasten, jolasten ez den gauza bakarrean jolasten, eta dena Ramsay andrearen kulpagatik. Hilda zegoen. Hutsik zegoen hura eseri ohi zen koska. Hilda zegoen.

Baina zergatik hau behin eta berriro errepikatu? Zergatik etengabe saiatu berak ez zeukan sentimendu bat ernearazten? Blasfemia antzekoa zen hura. Idorra zegoen dena: zimeldua dena: xahutua dena. Hobe zuten gonbidatu ez balute; hobe zuen etorri ez balitz. Berrogeita lau urterekin ez dago denbora alferrikaltzerik, pentsatu zuen. Gorroto zuen pintaketan jolastea. Pintzela, fidatzeko gauza bakarra, borroka, suntsipen eta kaosezko mundu batean — ez zen zilegi horrekin jolastea, ezta jakinaren gainean ere: gorroto zuen hori. Baina Ramsay jaunak hartara behartu zuen. Ez gero oihala ukitu, ematen zuen esaten ziola beragana makurtuta, zugandik nahi dudana ematen didazun arte. Hementxe zegoen, berriro ere beragandik gertu, grinati, nahastuta. Tira, pentsatu zuen Lilyk etsipenez,

eskuineko eskuari saihetsetik erortzen utziz, errazagoa izango da behingoz bukatzea. Noski, bere oroitzapenen arabera aise imita zezakeen hainbeste emakumeren aurpegietan (Ramsay andrearenean, esate baterako) ikusi izandako sugalda, aztoramena, amore ematea, honelakoetan —gogoan zeukan Ramsay andrearen aurpegiko begirada-errukizko estasiaren sua pizten zitzaienean, jasotako sariaren gozamenaz; sari honek, arrazoia ez jakin arren, bistan zegoen inorengan posible den bozkario minena txertatzen ziela emakume haiei. Hementxe zegoen Ramsay jauna, bere ondoan geldituta: Ahal zuena emango zion.

## 2

Pittin bat xigortua dago, pentsatu zuen Ramsay jaunak. Itxura eskasa, iharra; baina hala ere erakargarria. Gogoko zuen. Garai batean William Bankesekin ezkonduko ote zen zurrumurrua ibili zen, baina ez zen gauzatu. Emaztea ere haren zale zen. Gosaltzerakoan apur bat atera zen bere

senetik. Eta gainera, gainera — honelako momentuetan bultzatzen zion berebiziko premia hark, zer ote zen antzeman ahal izan gabe, edozein emakumerengana hurbiltzeko, haiek derrigortzeko, berdin zitzaion nola, hain baitzen handia bere premia, behar zuena eman ziezaiten: errukia.

Kasu egiten al zion inork? galdetu zion. Ba al zeukan behar zuen guztia?

«Oh, milesker, guzti guztia», erantzun zuen Lily Briscoek urduri. Ez; ez zen gauza. Berehala bildu beharko zuen errukizko hitz jariora: sekulako presioa sentitu zuen. Baina bertan josita jarraitu zuen. Isilune beldurgarria egon zen. Biak zeuden itsasoari begira. Zergatik, pentsatu zuen Ramsay jaunak, begiratzen ote du itsasora ni hemen nagoenean? Faroan lur hartu ahal izateko nahikoa bare egotea espero zuen, esan zuen Lilyk. Faroa! Faroa! Zer ikusi dauka horrek? pentsatu zuen Ramsay jaunak luzeiritzita. Orduantxe, antzinako haize boladaren baten indarrez (izan ere ezin zion bere buruari gehiagoan eutsi), halako antsia jalki zuen non mundu osoko beste edozein emakumek zer edo zer egin, zer edo zer

esango baitzuen — nik ez beste guztiek, pentsatu zuen Lilyk, bere baitara saminki bilduz, ni ez bainaiz emakumea, baizik eta neskazahar petral, erretxin, elkorra.

Ramsay jaunak luze egin zuen intziri. Zain geratu zen. Ez ote zion ezer egingo? Ez ote zuen ulertzen zer nahi zuen? Farora joateko arrazoi berezi bat zeukala esan zuen orduan. Emazteak gauzak bidali ohi zizkien gizonei. Mutiko gizarajo bat zegoen aldakako tuberkulosiarekin, argizainaren semea. Sakon egin zuen intziri. Esanguratsua zen intziri hura. Lilyk nahi zuen bakarra zen tristurazko uholde ikusgarri honek, erruki gose aseegin honek, haren aurrean amore emateko demanda honek (eta hala ere bizitza osoan banatzeko adina atsekabe bazeuzkan hark), bera bakean utz zezan, desbidera zedin (etxeari begira jarraitu zuen, etenaldi baten itxaropentan), ibai hark bera ere eraman aurretik.

«Holako espedizioak», esan zuen Ramsay jaunak, oin muturrarekin lurra aztarrikatuz, «oso mingarriak dira». Hala ere Lilyk ez zuen ezer esan. (Egur puska bat da, harri kozkor bat da, esan zion Ramsay jaunak bere buruari). «Oso

nekagarriak dira», gaineratu zuen bere esku eder haiei begira, Lilyri nazka eman zion begirada belaxka batekin (antzezten ari zen, sentitu zuen Lilyk, gizon bikain hau bere burua dramatizatzen ari zen). Izugarria zen, itxuragabea zen. Ez ote ziren besteak inoiz etorriko, galdetu zuen bere artean, ezin baitzion eutsi nahigabearen zama ikusgarri honi, ezin baitzituen jasan tristuraren oihal astun hauek (zeharo zarpailduaren itxura egiten ari zen Ramsay jauna; apur bat totalkatu ere egiten zuen zutik zegoen bitartean) momentu bakar batez ere gehiago.

Baina hala ere ezin zion hari deus esan; ortzimugatik hizketagai guztiak ezabatu zirela zirudien; Ramsay jauna han egon bitartean, berak egin zezakeen bakarra zen harriturik sentitzea nola erortzen zen haren begirada mingotsa belar eguzkitsuaren gainera, eta kolorea galarazten zion, eta nola botatzen zuen krespoi beltz bat etzaulkian nobela frantses bat irakurtzen ari zen Carmichael jaun musugorri, logaletu, ezin alege-ragoaren gainera, honelako bizimodua, oinazeko munduan zoriona harro nabarmentzen zuena, aski balitz bezala gogoeta goibelenak sortzeko.

Begirai-ozu, ematen zuen esaten ari zela, begirai-  
dazu; eta hark etengabe sentitzen zuen bere  
artean, Pentsa nigan, pentsa nigan. Ah, haizeak  
gorputz hura beren albora ekartzerik baleuka,  
desio zuen Lilyk; Carmichael jaunagandik pauso  
bat edo beste hurbilago ipini balu astoa; gizon  
batek, edozein gizonak agortuko zuen jario hau,  
geldituko zituen lantura hauek. Bera emakume  
zenez, berak eragin zuen izugarrikeria hau; ema-  
kume zenez, berak jakin beharko zuen honekiko-  
ak nola egin. Bere sexuko norbaitentzat berebi-  
ziko lotsa zen bertan mututurik egotea. Halakoe-  
tan zera esaten zen —zer esaten zen halakoe-  
tan?— Oh, Ramsay jauna! Ramsay jaun maitea!  
Marrazkiak egiten zituen andre zahar jator hark,  
Beckwith andreak, horixe esango zuen berehala,  
zuzen asko. Baina ez. Hantxe zeuden biak, gai-  
nerako mundutik bananduak. Ramsay jaunak  
bere buruaganako zeukan gupida itzel hura,  
erruki demanda hura, denean isuri eta putzuen  
eran zabaltzen zen bere oinetan, eta berak,  
bekatari ziztrin alaena, egin zuen bakarra izan  
zen belaun aldean gona gehixeago biltzea, ez



bustitzearren. Erabateko isiltasunean zegoen hantxe, pintzelari eusten.

Ezingo zitzaion inoiz zeruari nahikoa esker eman! Hotsak aditu zituen etxean. James eta Cam zetozen, nonbait. Baina Ramsay jaunak, denbora ahitzen ari zitzaiola baleki bezala, Lily-ren irudi bakartiaren gainean ezarri zuen, sekulako presioarekin, bere oinaze trinkotua; bere adina; bere ahuldadea; bere desolazioa; halako batean, luzeiritzita buruari eraginez, bere amorrazio hartan —izan ere zein emakumek egin zitezaioken berari aurre?— boten lokarriak askatuta zeuzkala konturatu zen. Aparteko botak ziren, pentsatu zuen Lilyk, beherantz begira: eskulturrak; berealdikoak; Ramsay jaunak zeraman guztiaren antzera, gorbata higatutik hasi eta erdizka lotutako gerruntzera arte, dena berezia. Botak beren gisa gelara joaten ikus zitezakeen, Ramsay jauna gabe ere patetismoa, haserrea, petralkeria eta xarma aldarrikatuz.

«Horiek bota ederrak!» hots egin zuen berak. Bere buruarekin lotsatu zen. Haren botak gorai-patzea, hura arima goxatzeko eskatzen ari zitzaionean; hura esku odolduak erakusten ari

zitzaionean, bihotz erdiratuarekin eta gupidatze-ko eskatuz, zer eta «Ah, horiek bota ederrak daramazkizu!» alai asko esateak merezi zuen bakarra, ondotxo zekien berak, eta gora begiratu zion hura jasoko zuelakoan Ramsay jaunaren haserrezko orro haietakoren baten bidez, bera zeharo deuseztatzea zen.

Horren orde, irribarre egin zuen Ramsay jaunak. Beztidura, oihal eta ezin guztiak lurrera erori zitzaizkion. Horixe bai, esan zuen, hanka goratuz Lilyri erakusteko, bota apartak ziren. Ingalaterra guztian gizon bakarra zegoen halako botak egin zitzakeena. Gizakiaren madarikazio handienetako bat dira botak, esan zuen. «Bota-gileen grina», hots egin zuen, «inoren oina okertu eta oinazetzea da». Gizaki egoskor eta zitale-nak dira, gainera. Gazte garai gehiena igaro zuen behar bezalako botak eginarazten. Erreparatzeko eskatu zion (lehenik eskuina eta ondoren ezkerreko hanka altxatu zuen) inoiz ez zuela forma hartako botarik ikusi. Munduko larrurik onenaz zeuden eginak gainera. Larrua gehiengan paper latza eta kartoi hutsa zen. Atseginez zegoen bere oinari begira, harixe airean eusten.

Irla eguzkitsu batera helduak ziren biak, hala sentitu zuen Lilyk, bota bikainen irla bedeinkaturra, non bakea nagusi, zuhurtzia agintari eta eguzkiak beti argitzen baitzuen. Ramsay jaunarekin zaletzen hasi zen. «Ea txibista egiten bada-kizun», esan zion. Baina eskasa iritzi zion Lilyren lotzeko sistemari. Bere asmakizuna erakutsi zion. Behin lotuez gero inoiz askatzen ez zena. Hiru aldiz egin zion txibista Lilyren oinetakoari; hiru aldiz desegin zuen.

Momentu ezin desegokiago honetan, Ramsay jauna bere oinetakoaren gainean makurtuta zegoenean, zergatik tormentatzen ote zion barrena harenganako errukiak, hainbestekoa non bera ere makurtu zenean odolak aurpegia hartu baitzion, eta bere gogorkeriaz oroiturik (aktore deitu zion behin Ramsay jaunari) begiak malkoz puztuta eta erretzen sentitzen baitzi-tuen? Patetismo amaigabeko figura iruditu zitzaion hura, langite hartan. Korapiloak lotu, botak erosi, ez zegoen Ramsay jaunari bidaia hartan laguntzerik. Baina orduantxe bertan, berak zer edo zer esateko gogoia zeukanean, agian zer edo zer esan zezakeenean, hona non

azaldu ziren — Cam eta James. Terrazan azaldu ziren. Pausoa arrastaka zetozen, elkarren ondoran, bikote serio eta goibela.

Baina zergatik ote zetozen tankera *hartan*? Ez zion haserreari eusterik izan; alaiago etor zitezkeen; orain bazihoazenez, eman ziezaioketen Ramsay jaunari berak eman ahal izan ez ziona. Bat-bateko hustasuna sentitzen zuen berak; frustrazioa. Beranduegi heldu zitzaion sentimendu hura; hantxe zeukan prest; baina hark ez zeukan jada beharrik. Gizaseme adindu eta prestua bihurtu zen orain, bere inongo beharrik ez zeukana. Baztertua sentitzen zuen bere burua. Ramsay jaunak bizkarrean hartu zuen motxila. Zorroak banatu zituen — mordoxka bat ziren, gaizki lotuak, paper latzean bilduak. Bero-ki bila bidali zuen Cam. Espediziorako prestatzen ari den gidariaren itxura guztia zeukan. Ondoren zakar jiratu eta bidea zabaldu zuen ibilera sendo, militarrekin, bota zoragarri haiek soinean, paper latzean bildutako zorroak garraiatzen, bidean behera, seme-alabak atzetik zituelarik. Bi hauek, pentsatu zuen Lilyk, bazirudien zeregin zorrotzen baterako kotsakratu zituela patuak,

eta harantz zihoazela, nahiz eta artean gazteegiak izan aitaren aztarnei jarraitzeko, esanekoak baina begiak zurbil, eta honexegatik iritzi zion Lilyk haiek biek isil-isilik pairatzen zuten sufri-menduak beren urteak gainditzen zituela. Hala, belardi ertzetik igaro zirenean, Lilyri iruditu zitzaion prozesioa ari zela ikusten, estutasun orokorren batek abiarazi zuena, horrela taldetxo bat elkartuz eta harritzeko moduan zirrargarri bihurtuz, balantzaka eta motel joan arren. Jator, baina oso urrunetik, Ramsay jaunak eskua altxatu eta agur egin zion pasaeran.

Hori da gero aurpegia, pentsatu zuen, berehala antzeman ez kanpora irteteko borrokan zebilela inork eskatu gabeko errukia. Zerk bihurtu ote zuen halako? Pentsatzeak, gaua joan eta gaua etorri, suposatu zuen — sukaldeko mahaien errealitateari buruz, gaineratu zuen, sinbolo huraxe gogora ekarriz, Ramsay jaunaren gogoetei buruz zeuzkan zalantzak zirela-eta Andrewk berari emana (granada printza batek hila, oroitu zen Lily). Sukaldeko mahaia irudimezko zerbait zen, garratza; zerbait soila, gogo-

rra, ez apaingarria. Kolorerik gabea; ertzak eta angeluak denean; xumetasun tinkokoa. Baina Ramsay jaunak hartantxe eduki zituen beti begiak josita, inoiz ez zion bere buruari utzi beste inoratzea edo saihestea, harik eta bere aurpegia ere higatu, egite aszetikoa hartu eta apaindu gabeko edertasun honen partaide bihurtu arte, Lilyren ustez ezin hunkigarriagoa. Orduan gogoratu zen (Ramsay jaunak lehentxeago bera utzitako leku hartantxe zutik, pintzelari eusten) kezkek hondatu zutela haren aurpegia — ez oso modu noblean. Hark mahaiari buruzko zalantzak eduki bide zituen, antza; benetakoa ote zen mahaia; merezi ote zuen hari- xe hainbeste beta eskaintzea; azkenean hura aurkitzeko gai izango ote zen. Zalantzak eduki zituen hark, bururatu zitzaion Lilyri, bestela ez zion jendeari hainbeste eskatuko. Horretaz mintzatu ohi ziren haiek biak zenbaitetan berandura arte gauean, susmatzen zuen berak; eta bihar- amunean Ramsay andreak nekatua ematen zuen, eta haren senarrarekin amorrarazten zen Lily,

huskeria txororen batengatik. Baina orain hark ez zeukan norekin mintzaturik mahai hartaz, edo bota haietaz, edo txibista haietaz; norbait irentsi nahian dabilen lehoiaren antzekoa zen, eta aurrepegiaren etsipen eta exajerazio arrastoa zeukan, Lily hainbeste larrituz eta inguru guztian gona bilaraziz. Eta ondoren gertatu zen, gogoan zeukan, bat-bateko berpizkunde hura, bat-bateko sugalda hura (berak haren botak goraiatu zituenean), bizitasuna eta gauza arruntekiko interesa berreskuratzea, hauek ere igaroz eta aldatuz (etengabe ari baitzen hura aldatzen, ezertxo ere gorde gabe), azken fase honetara iritsi arte, Lilyrentzat berria, eta, hala aitortu zuen, bera hain suminkor izateagatik lotsa sentiarazi ziona, orain bai baitzirudien Ramsay jaunak kezka eta handinahiak, erruki itxaropena eta goraiamen egarria alde batera utzi eta beste lurralde batera sartu zela, eta jakin-minez edo, bere buruarekin edo beste norbaitekin elkarrizketa mutuan, bultzada sentitu zuela prozesio txiki haren buru izateko, inoren bistatik galdu

arte. Bai aurpegi berezia! Ateak danbatekoa jo zuen.

### 3

Joan dira beraz, pentsatu zuen, lasaitasun eta desilusioz hasperen eginez. Harenganako errukiak laharraren antzera jotzen ziola aurpegian iruditu zitzaion. Modu bitxian zatitua sentitzen zuen bere burua, puska bat zabalik balego bezala kanpo hartan — egun lasai, gandutsua zen; faroak izugarri urrun ematen zuen goiz honetan; beste puska berriz hemengoxe belardian itsatsi zen temati, sendo. Oihalari begiratu zion, gorantz hegaldatu eta atzera bere aurrean pausatuta balitz bezala, zuri eta tinko. Bazirudien errietan ari zitzaiola hura, begirada hotzez, zalaparta eta istilu guzti honengatik; zoramen eta sentimenduen alferrikaltze honengatik; bere onera zorrotz etorrarazi eta bakea zabaldu zion barreanean, bere sentsazio nahasiak (Ramsay jauna joana zen eta harengatik hainbeste hunkitu arren ez zion ezer esan) zelaitik ihesi zihoaze-



nean; eta gero, hustasuna. Begirada zuri tinko harekiko oihalari so egin zion, arretarik gabe; ondoren lorategiari. Bazegoen zerbait (bere aurpegi ximurreko begi txiki txinatarrak kizkurtuta zegoen), gogoan zeukan bazegoela zerbait zeharka eta goitik behera elkar moztan zuten lerro haien harremanean, eta baita kolore urdin eta marroien kobazuloa zeukan hesiaren masa hartan ere, bere gogoan jasota egon zena; bere gogoan korapiloa lotu ziona, eta hartara noizean behin, nahi izan gabe, Brompton Roaden barrera joaterakoan, ilea zepilatzerakoan, bere burua topatzen zuen koadro hau pintatzen, honixe kirika egiten eta irudimenean korapiloa askatzen. Baina berebiziko aldea zegoen oihaletik urrun asmaketa arinean aritu, ala berez pintzela hartu eta lehen arrastoa egin.

Ramsay jaunaren presentziarekin aztoratu eta okerreko pintzela hartu zuen, eta astoa, lurrean urduri kokatua, okerreko angeluan zegoen. Eta orain zuzendu ondoren, eta horren bidez baita menperatu ere zakarkeria eta huskeria guzti haiek, berari arreta galarazi eta bera hola eta holazela eta jendearekiko bere harremanak

hola eta hola zirela gogorarazi ziotenak, esku batekin besteari eutsi eta pintzela altxatu zuen. Momentu batez airean gelditu zen dardarka, estasi mingarri baina zirraragarrian. Non hasi? — horra hor koska; zein tokitan egin lehen arrastoa? Oihalean lerro bakar bat ipintzeak ezin konta hainbat arrisku, erabaki atzeraezin eta ugariren peskizan jartzen zuen bera. Gogoan erraza zirudien guztia korapilatsu bihurtzen zen berehala praktikan; labar gainetik itxura simetrikoa daukaten olatuen antzera, baina han tartean dabilen igerilariarentzat leize sakon eta gailur apartuz daude erdibituak. Hala ere arriskuari aurre egin beharra zegoen; behingoz arrastoa egin beharra.

Gorputzeko sentrazio berezi batekin, zerbait aurrera bultzatu baina halaber bere buruari eutsi beharra baleuka bezala, lehen kolpe bizkor erabakigarria jo zuen. Pintzela beheara jaitsi zen. Dardara marroi bat azaldu zen oihal zuriaren gainean; arrasto luze bat geratu zen. Bigarren aldiz egin zuen — eta hirugarren aldiz. Eta horrela, geldituz eta dardara eginez, dantza mugimendu erritmiko bat erdietsi zuen, geldialdiak erritmoa-

ren zati bat eta pintzelkadak beste bat balira bezala, denak elkarrekin harremanean; horrela, ez tiro eta bizkor geldituz eta igurtziz, lerro marroi luze urduriekin zeharkatu zuen oihala, bertan ezarri orduko itxitura bat sortzen zutelarik (bere aurrean sentitu zuen izugarri sortzen). Olatu baten barrenean hurrengo olatua ikusi zuen, bere gainetik gero eta gorago dorrea adina igotzen. Zer egon zitekeen itxitura hura baino beldurgarriagorik? Hona non zegoen bera berriro, pentsatu zuen, begiratu ahal izateko atzerantz joanez, esamesak, lanbidea eta jendeekiko elkarbizitzatik baztertuta eta bere aspaldiko etsai honen aurrera eramanda — gauza honek, egia honek, errealitate honek bat-batean berari eskua gainean jarrita, itxura guztien gibelean elkor zutitu eta arreta edukitzeko agindu zion. Erdi nahiezik zegoen bera, erdi gogoz kontra. Zergatik beti baztertuta eta bultzatua izan? Zergatik ez bakean utzia izan, Carmichael jaunarekin belardian hitz egiteko? Erlazio mota nekagarria zen, nolana ere. Beste objektu beneragarriek aski irizten zioten beneratuak izateari; gizonek, emakumeek, Jainkoak, denek behartzen

zuten belaunikatzera inor; baina forma honek, nahiz zumitzezko mahai baten gainean beldur-garri dagoen pantaila zuri baten egitea eduki, betiereko gatazkara zirikatzen zuen inor, galera seguruko borroka desafioa egiten zion inori. Beti (bere izaeragatik edo sexuagatik, ez zekien bietan zein), dariola doan bizitzaren ordeztasunaren trinkotasuna hartu aurretik, biluztasunezko hainbat momentu izaten zuen, arima jaio gabearen antzera, gorputza falta zaion arimaren antzera, tontor haizetsuren batean duda-mudan eta inongo babesik gabe zalantzaren enbata guztien mendean. Zergatik hartan aritu orduan? Oihalari begiratu zion, lerro luzez arinki zeharkatua. Mirabeen logeletan eskegiko zuten. Bil-bil egin eta sofaren azpian galkatuko zuten. Zertarako hartan jardun beraz, eta ahotsen bat aditu zuen ez zekiela pintatzen esaka, ezin zuela ezer sortu, denboraren poderioz buruan osatu ohi diren korrante horietako batek harrapatu balu bezala, hitzak errepikatuz, jadanik jabetu gabe aurren berritan nork esanak diren.

Ez pintatzerik, ez idazterik, murmurikatu zuen modu monotonoan, urduri hausnartuz era-

sorako zein plan hartu. Bere aurrean zutitzen baitzen masa hura; bere aurrean nabarmentzen zen; begi barrenetan sentitzen zuen haren prezioa. Orduan, bere gaitasunak zalutzeko beharrezko den zukuren bat berez isuri balitz bezala, kili-kolo hasi zen urdin eta okreetan bustitzen, pintzela harat-honat mugitzen, baina orain astunago eta polikiago, bat egin balu bezala ikusmirak Lilyri agintzen zion erritmoarekin (hesiari eta oihalari begira jarraitzen zuen); hala, bere eskuak bizitzaren aurrean dardara egin bitartean, erritmo honek aski indar zeukan bera ere jario hartara eramateko. Noski, kanpoko gauzei buruzko zentzua galtzen ari zen. Eta zentzua galtzen joan ahala kanpoko gauzei buruz, eta bere izena eta nortasuna eta itxurari buruz, eta Carmichael jauna han ote zegoen ala ez, bere buruak etengabe jaurtitzen zituen barrenetik eszenak, eta izenak, eta esaldiak, eta oroitzapen eta ideiak, barra-barra darion iturria bezala, distira erregarriko zuri-gune haren gainera, itsuski nekagarria, berak berdez eta urdinez modelatu bitartean.

Hori esan ohi zuen Charles Tansleyk, oroitu zen, emakumeek ez dakite pintatzen, ez dakite idazten. Atzetik etorriz gelditu zen hura bere aldamenean, gauza gorrotagarriagorik!, bera hementxe bertan pintatzen ari zen bitartean. «Tabako xehatua», esan zuen orduan hark, «bost penike ontzako», bere pobrezia eta printzpioak nabarmen aditzera emanez. (Baina gerrak Lilyri emakumetasunaren akuilua kamustu zion. Errukarriak, pentsa zezakeen edonork, errukarriak bi sexuak, halako nahaste-borrastean sartuak). Hark liburu bat zeraman beti besapean — liburu purpura bat. «Lanean» ari zela alegia. Eguzki galdetan eseri ohi zen lanera, oroitzen zen Lily. Afalorduan ikusmiraren erdi-erdian eseri ohi zen. Eta horretaz gain, hausnartu zuen, hondartzako eszena hura gertatu zen. Gogoangarria. Goiz haizetsua zen. Denak ziren hondartzara joanak. Ramsay andrea eserita zegoen, gutunak idazten harkaitz ondo batean. Idatzi eta idatzi. «Hara!» esan zuen halako batean, azkenean gorantz begiratzuz itsasoan flotatzen zuen zerbaiti, «otientzako sarea al da hura? Ala txalupa iraulia?» Hain zeukan bista laburra non ezin

antzeman zezakeen, eta orduan Charles Tansleyk ahal bezain jator jokatu zuen. Harriei jauzi eginarazten hasi zen. Besteek ere harri beltz txiki zapalak aukeratu eta punpaka hasi ziren. Noizean behin Ramsay andreak antiojoen gaine-tik begiratu eta barre egiten zien. Ez zeukan gogoan zertaz hitz egin zuten, bakar-bakarrik Charles eta biak harriak botaka aritu eta ez non eta ez han oso ongi zetozela elkarrekin, eta Ramsay andrea begira zeukatela. Ederki oroi-tzen zen. Ramsay andrea, pentsatu zuen, apur bat atzeratuz eta begiak kizkurtuz. (Hura Jame-sekin koskan eseri zenean gogotik aldatu bide zen diseinua. Itzalen bat egon bide zen). Ramsay andrea. Gogoratzean bera Charlesekin harriak jauzika botatzen aritu zen aldi hartaz, eta hon-dartzako eszena osoaz, bazirudien hura dena Ramsay andreari esker zela, harkaitzaren babe-sean eserita, kaiera belaunetan hartuta, gutunak idazten. (Erruz idatzi zituen gutunak, eta zenbai-tetan haizeak eraman eta Charlesek eta berak larri-larri salbatu zuten orri bat itsasora erortze-tik). Baina hura boterea giza arimarena! pentsa-tu zuen. Emakume hura han eserita egoteak,

harkaitzaren babesean idazten, ezin soilago bihurtu zuen dena; zatar zaharren antzera erorazi zituen haserre eta sumindura guztiak; hau beste honekin eta azkenik harekin elkartu zituen, eta horrela, txorakeria eta seta ziztrin hartatik (Charlesek eta biak hika-mikan, sesioan, txoro eta setati) beste zerbait sortu zuen —hondartzako eszena hau adibidez, adiskidetasun eta atxikimendu hau—, hainbeste urteren ondoren bizirik zirauena, osorik, eta beraz hartantxe murgildu zen Charlesi buruz zeukan oroitzapena zaharberritzeko, eta ia artelan baten antzera geratu zitzaion gogoan erroturik.

«Artelan baten antzera», errepikatu zuen, oihaletik saloiko kosketara begira, eta berriro atzera. Atsedean hartu behar zuen momentu batez. Eta atsedean hartan, batetik bestera azaletik begiratzuz, hantxe zegoen aspaldiko galdera hura, bere baitan tenk egondako gaitasunak laxatzean zehatzago bihurtzeko joera zeukana, arimaren zerua eternalki zeharkatzen zuen galdera zabal eta orokorra bere gainean zelatan, bere gainean geldirik, bere gainean itzala ematen. Zer zentzu dauka bizitzak? Hori zen dena —



galdera xume askoa; urteekin batera gatibatu ohi zuen horrek inor. Errebelazio handia ez zen egundo iritsi. Errebelazio handia agian ez zen egundo etorriko. Horren ordezt gertatu ohi ziren eguneroko mirakulu txikiak, argitasunak, ilunpetan ustekabe piztutako pospoloak; hona hemen bat. Hau, hori eta hura; bera eta Charles Tansley eta olatua lehertzen; Ramsay andrea hirurak elkartzen; Ramsay andrea esaten «Bizitza, gelditu hemen!»; Ramsay andrea une hura betiereko bihurtzen (hala nola Lily ere beste esfera batean saiatzen zen une hura betiereko bihurtzen) — hau zen errebelazio baten izaera. Kaosaren erdian formak zeuden; kanpoko igarotze eta jario hau (hodeiei joaten eta hostoei astintzen begiratu zien) sendo zegoen errotua. Bizitza, gelditu hemen, esan zuen Ramsay andreak. «Ramsay andrea! Ramsay andrea!» errepikatu zuen berak. Hari zor zion errebelazio hau.

Dena isilik zegoen. Ez zirudien artean etxean inor mugitzen hasi zenik. Harixe begiratu zion, leihoak berde eta urdin hostoen islagatik, eguzki-argi goiztiarrean lo. Ramsay andreari buruz zerabilen gogoeta xumea araberan zetorren

etxe lasai honekin; ke honekin; egunsentiko aire goiztiar eder honekin. Xume eta irrealak, harritzeko moduan zen garden eta zirrarragarri. Inork leihorik ireki edo etxetik ez irtetea espero zuen, bera bakarrik uztea, pentsatzen jarraitzeko, pintatzen jarraitzeko. Oihalera jiratu zen. Baina jakin-minen batek eraginda, askatu gabe zeukan errukiaren ondoezak bultzatuta, urrats batzuk eman zituen belardi ertzeraino, ea han beheko hondartzan ikus zezakeen talde txiki hura itsasoratzen. Han behean flotatzen zuten barku txikien artean, zenbait belak tolestuta, zenbait astiro, oso bare baitzegoen, bakar bat aparte sainar zegoen besteetatik. Oraintxe ari ziren bela erai-kitzen. Oso urrutiko barku txiki erabat isil hartan erabaki zuen zegoela Ramsay jauna eserita Cam eta Jamesekin. Orain eraiki zuten bela; orain, moteltasun eta zalantza apur baten ostean belak harrotu, eta isilune sakonean bilduta ikusi zuen barkua bideari tinko lotzen, beste barkuen ondolik itsasorantz.

Hots batean zebiltzan belak beren goialdean. Urak saihetsetan astindu eta zartatu egiten zuen barkua, eguzkitan geldirik lozorroan. Noizean behin aire ahul batek izurtzen zituen belak, baina izurra beren gainetik igaro eta ezkutatu egiten zen. Barkua ez zen batere mugitzen. Ramsay jauna barkuaren erdian zegoen eserita. Laster jarriko zen urduri, pentsatu zuen Jamesek, eta baita Camek ere, aitari begira, bien artean eseria barkuaren erdian (James zen lemazain; Cam brankan zegoen bakarrik eserita), hankak estu-estu okertuta. Ezin zuen eraman egonean egotea. Jakina zegoen, bizpahiru segundoz artega egon ondoren zer edo zer elkorra esan zion Macalisteren mutikoari, eta honek arraunak atera eta abantean hasi zen. Baina aitak, ondo zekiten, ez zuen etsiko ziztuan joan arte. Aire baten bila jarraituko zuen, artega, bere golkora-ko gauzak esaten, Macalister eta honen mutikoaren belarrietara iritsiko zirenak, James eta Cami ondoeza garratza sortuz. Etorrarazi egin zituen. Behartu egin zituen etortzera. Amorrazioz,

aireak inoiz ez haize ematea espero zuten, haren asmoak ahalik eta gehiena zapuzteko, gogoz kontra behartu zituenez etortzera.

Hondartzara jaisteko bitarte guztian biak batera joan ziren atzetik, nahiz hark txintik atera gabe agindu «Aurrera, aurrera». Beren buruak apalduta zihoazen, beren buruak makurtuta haize erauntsi errukigaberen batengatik. Ezin zioten hari hitz egin. Joan beharra zeukaten; hari segitu beharra. Haren atzetik zeukaten joan beharra, paper latzean bildutako zorroak garraiatuz. Baina, oinez zihoazela, isilik egin zuten zin elkarren ondoan jarraitu eta sekulako paktu hura burutuko zutela — tirania heriotzaraino borrokatuko zutela. Hala eseri ziren beraz, bakoitza barkuaren alde batean, isilik. Ez zuten deus esan, noizean behin begiratu besterik ez hankak bihurrituta eserita zegoen hari, kopetilun eta artega, fa! eta bah! eta bere artean marmarka, egon ezinik haize bolada baten zain. Eta beraiek bare jarraitzea espero zuten. Hari asmoak zapuztea espero zuten. Espedizio guztiak huts egitea espero zuten, eta zorro guztiekin itzuli beharra hondartzara.

Baina orain, Macalisteren mutikoak arrau-  
nean gehixeago egitean, belak astiro harrotu,  
barkua bizkortu, beheratu eta ziztuan abiatu  
zen. Berehala, berebiziko zama arindu baliote  
bezala, Ramsay jaunak hankak luzatu, toxa  
atera, purrusta arin batekin Macalisteri eskaini,  
eta pozik sentitzen zela jabetu ziren biak,  
beraiek sufritzen egon arren. Ordutan nabigatu-  
ko zuten orain honela, eta Ramsay jaunak galde-  
ra bat egingo zion Macalisteri —iragan neguko  
ekaitz handiari buruz segur aski— eta Macalister  
zaharrak erantzun egingo zion, era elkarrekin  
erreko zituzten beren pipak, eta Macalisterek  
soka bikeztatua behatzetan hartu, korapiloren  
bat eginez edo askatuz, eta mutikoa arrautzan  
arituko zen, inori txintik esan gabe. Jamesek  
etengabe belari eduki beharko zion begia. Ahaz-  
tuez gero bela kuzkurtu, hotzikara egin, eta  
makaldu egiten zen barkua, eta Ramsay jaunak  
zorrotz esango zuen, «Kontuz! Kontuz!» eta  
Macalister zaharra astiro jiratuko zen eserle-  
kuan. Eta hala, Gabonetako ekaitz handiaz gal-  
dezka aditu zioten Ramsay jaunari. «Lur mutu-  
rretik barrena etorri zen», esan zuen Macalister

zaharrak, iragan Gabonetako ekaitz handia deskribatuz, hamar itsasontzik badiara jo behar izan zutenean babes bila, eta berak ikusi zituen «bat hor, bestea hor, bestea hor» (astiro seinalatu zuen badia ingurua. Ramsay jaunak jarraitu egiten zion, burua jiraka). Hiru gizon ikusi zituen mastari helduta. Halako batean desagertu zen arte. «Azkenean lortu genuen bultzaka popa itsasoratzea» jarraitu zuen (baina beren haserre eta isiltasun hartan noiz edo noiz hitzen bat besterik ez zitzaien iristen, txaluparen alde banatan eserita zeudelarik, tirania heriotzaraino borrokatzeko paktuarekin biak bat eginda). Azkenean lortu zuten bultzaka popa itsasoratzea, bota zuten salbaontzia, eta eraman zuten lur muturretik harantzago ere — Macalisterek istorio osoa kontatu zuen; eta nahiz biengana hitzen bat edo beste bakarrik iritsi, beraiek aita hartzen zuten aintzat denbora guztian — nota makurtzen zen aurrera, nola egokitzen zuen bere ahotsaren doina Macalisteren ahotsarekin; nola, pipatik kea zeriola, eta Macalisterek seinalatzen zuen leku hartara eta bestera begira, gozaten ari zen ekaitzaren ideiarekin, eta gau ilunarekin eta han

borrokan aritutako arrantzaleekin. Gogoko zuen gizonek gauez hondartza haizetsuan leher egin eta izerditzea, olatuak eta haizearen kontra beren giharrak eta garuna neurtuz; gogoko zuen gizonek horrela lan egitea, eta emakumeak etxean geratzea, eta aterpean esertzea ume lokartuen alboan, gizonak itotzen ari ziren bitartean, hor kanpoko ekaitzean. Hori igartzen zion Jamesek, hori igartzen zion Camek (hari begira, elkarri begira), haren buru imintzio eta ernetasun eta ahotseko doinuagatik, eta ahotsera zetorkion azentu eskoziarraren aztarnagatik, nekazari itxura emanez, Macalisteri itaundu bitartean hamaika itsasontzi haiei buruz, ekaitz batean badiara bildu beharra izan zutenak. Hiru hondoratu ziren.

Harro begiratzen zuen Macalisterek erakutsitako lekura; eta Camek pentsatu zuen, zehatz zergatik jakin gabe harro, aita han izan balitz salbaontzia uretaratuko zuela, hondakinetara helduko zela, pentsatu zuen Camek. Hain zen ausarta, hain zen abenturazalea, pentsatu zuen Camek. Baina orduan oroitu zen. Paktuaz alegia; tirania heriotzaraino borrokatzea. Nahigabearen

uztarria jasaten zuten. Behartuta etorri ziren; aginduta etorri ziren. Berriro azpiratu zituen aitarren itzal eta larderiak, agindua betearaziz, goiz eder honetan etorraraziz, zer eta zorro hauek garraiatu nahi zituelako farora; beraiei parte harraraziz hildakoen oroimenez plazer hutsagatik burutzen zituen erritu horietan, gorrotagariak beraientzat; hala, haren atzean zabartu eta eguneko poz guztia galdu zen horrela.

Bai, freskatzen ari zen airea. Txalupa saihe-tsera zihoan okertuta, ura zorrotz xerratu eta kaskada berdetan eroriz, burbuiletan, katarate-tan. Camek beheko aparrera begiratu zuen, altxor guztia barrenean zeukan itsasoari, eta liluratu egin zen haren abiadarekin, eta bera eta Jamesen arteko lotura apur bat moteldu zen. Apur bat laxatu zen. Pentsatzen hasi zen, Bai azkar doala. Nora goaz? eta mugimenduak liluratu egin zuen, bitartean Jamesek, begiak belan eta ortzi-mugan josita, bekozko ilunez lema zeramalarik. Baina lema zeramalarik hasi zen pentsatzen ihes egiteko aukeran; guzti hartatik urruntzeko aukeran. Nonbait lehorreratzeko aukeran, hartara askatasuna erdietsiz. Biek ala



biek ere, momentu batez elkarri begira, ihesa eta asalduraren sentsazioa sentitu zuten, abiada eta aldaketa hura zela eta. Baina aireak ernaitasun berdina sortu zuen Ramsay jaunagan ere, eta, Macalister zaharra jiratu zenean kanabera jaurtitzeko, ozenki hots egin zuen, «Akabo denok», eta ondoren berriro, «nor bere bakardadean». Eta orduan, damu edo lotsazko bere betiko dardarizoarekin, bere onera etorri eta lehorre-rantz eragin zion eskuari.

«Begira etxe txikia», esan zuen seinalatuz, Camek ikus zezan. Honek nahiezik zutitu eta begiratu egin zuen. Zein ordea? Ezin zuen antze-man, mendi magal hartan, zein zen beren etxea. Denek ziruditen urrun, baketsu eta arrotz. Birfin-dua ematen zuen hondartzak, aparte, irrealak. Nabigatutako tarte txikiaren ondorioz, etxea urruti utzi eta itxura aldatua zeukan, itxura lasaia, atzerantz doan zerbaitena, jadanik inorekin harremanik gabea. Zein zen beren etxea? Camek ezin zuen ikusi.

«Baina neu, itsaso are zakarragoan», murmurikatu zuen Ramsay jaunak. Aurkitu zuen honek etxea, eta hura ikustean bere burua ere

ikusi zuen bertan; bere burua ikusi zuen terrazan  
paseatzen, bakarrik. Gora eta behera zebilen,  
urnen artean; eta oso adindua eta makurtua iru-  
ditu zitzaion bere burua. Txalupan eseri eta  
makurtu egin zen, kuzkurtu, bere paperari bere-  
hala ekinez — gizon desolatu, alargundu, inor  
gabearen papera; eta hala, bere aurrera deitu  
zion errukitzera zetorkion jendeari, multzoka;  
txalupan eserita zegoen bitartean drama txiki  
bat antzeztu zuen bere buruarentzat; zaharmina  
eta unadura eta atsekabea behar zituen horreta-  
rako (eskuak goratu eta haien mehetasunari  
begiratu zion, bere ametsa sendotzeko) eta  
orduan erruz jaso zuen emakumeen errukia, eta  
bere artean imajinatu zuen nola goxatu eta erru-  
kituko zuten haiek, eta hala, emakumeen erru-  
kiak eskainitako atsegin finaren isla bere ame-  
tsean sentituz, hasperen egin eta xamur eta goi-  
bel esan zuen,

*Baina neu, itsaso are zakarragoan,  
hura baino osin sakonagoetan  
amiltzen nindoan,*

hitz goibel haiek denek argi aditzeko moduan. Camek ia dardara egin zuen bere eserlekuan. Jota geratu zen — minduta. Mugimendu hark aita iratzarri zuen; eta honek hotzikara egin, eta bere jarduna eten zuen, hoska: «Beitu! Beitu!» hain bero non Jamesek ere burua itzuli baitzuen, sorbalda gainetik irlara begiratzeko. Denek begiratu zuten. Irlara begiratu zuten.

Baina Camek ezin zuen deus ikusi. Pentsatzen ari zen, bidezidor guzti haiek eta belardia, beraiek han bizi izandako bizitzekin trinkotu eta korapilaturik, joanak zirela: ezabatuak; iraganak; irrealak, eta orain hau zen benetakoa; txalupa eta bela adabakiduna: Macalister belarritakoduna; olatuen hotsa — hau dena zen benetakoa. Honetan pentsatzerakoan, bere artean murmurioka ari zen «Akabo denok, nor bere bakardadean», aitaren hitzak behin eta berriro lehertzen baitzien bere buru barruan, harik eta aitak, begirada hain galdua ikusi zionean, isekati hasi zitzaion arte. Ez al zekizkien iparrorrazaren lau muturrak? galdetu zion. Ez al zekien iparra eta hegoa bereizten? Egiatan uste al zuen han bizi zirela? Eta berriro seinالاتu eta beren etxea non

zegoen erakutsi zion, han, zuhaitz haien alboan. Alaba zehatzago izaten saiatzea nahi, eta esan zion: «Esadazu — zein da ekialdea, zein da mendebaldea?» esan zion, erdi barrez, erdi errietan, ezin baitzuen konpreni norbaitek iparrorratzaren lau muturrak ez jakitea, non eta erabat ergela ez zen. Cemek hala ere ez zekien. Eta alaba begirada galdu, orain beldurtu samar harekin ikustean, etxerik ez zegoen lekuan josita begiak, Ramsay jauna bere ametsaz ahaztu zen; nola ibili zen terrazako urnen artean gora eta behera; nola zeuden besoak beragana luzatuta. Bere artean pentsatu zuen, horrelakoak dira beti emakumeak; beren gogoeta xumeekin jai dago; inoiz ulertzerik izan ez zuen gauza zen; baina horrela zen. Horrela izan zen zerarekin ere — bere emaztearekin. Ez ziren beren buruan ezer tinko atxikitzeko gauza. Baina oker jokatu zuen emaztearekin haserretuta; areago, ez al zitzaion berari atsegin emakumeen xumetasun hau? Beren xarma bikain haren zati bat zen. Irribarre egin diezadan saiatuko naiz, pentsatu zuen. Beldurtua dirudi. Hain zegoen isila. Ramsay jaunak behatzak estutu zituen, eta menderatzea eraba-

ki zuen urte guzti haietan jendeak bera errukitu eta lauda zezan eskura edukitako ahotsa, aurpegia eta imintzio zoli adierazkor guztiak. Berari barre egitea nahi zuen. Gauza soil errazen bat aurkitu nahi zuen hari esateko. Baina zer? Izan ere, lanean buru-belarri egotearen poderioz, ahaztu egin zitzaion zer esan ohi zen. Txakurkumea agian. Txakurkumea zeukaten. Nork kasu egingo zion txakurkumeari gaur? galdetu zuen. Bai, pentsatu zuen Jamesek gupidarik gabe, arrebaren burua belaren kontra ikusiz, amore emango du orain. Bakarrik geratuko naiz tiranoaren aurka borrokatzeko. Bere bizkar geratuko zen paktuaren jarraipena. Camek ez zuen inoiz tirania heriotzaraino borrokatuko, pentsatu zuen garratz, haren aurpegiari begira, tristea, muturtua, etsi zorian. Eta zenbaitetan gertatzen den gisa, hodeia mendi magal berde batera erortzen denean eta itzala jaisten denean eta tristura eta atsekabea nagusitzen denean, eta inguruko mui-noak ere hodeipean hausnartzen daudela dirudienean, ilunpean dagoen bakar haren patuaz, errukiturik edo nahigabe haren bizkar maltzurki gozatuz: horrela sentitzen zen Cam ere goibel

orain, jende lasai, irmoaren ondoan eserita, eta bere artean galdezka ea nola erantzun aitari txakurkumeari buruz; nola egin aurre haren otoiari — barka nazazu, maita nazazu; bitartean James legelariak, betiereko jakinduriaren oholak belaun gainean zabaldua (lema-adar gaineko haren eskua sinbolikoa bihurtu zen), esaten zion, Eutsiozu. Ekiozu. Egoki mintzatu zen anaia; zuzen. Heriotzaraino borrokatu behar zuten tiraniaren kontra, pentsatu zuen. Giza kualitate guztien artetik, Camek zuzentasuna miresten zuen gehien. Jainkoaren antzekoa zen anaia, otoigilearen antzekoa aita. Zeini men egin, pentsatu zuen, bien artean eserita, begirada lotuta hondartza bazterrei, berarentzat denak ezezagunak, eta pentsatuz belardia eta terraza eta etxea ezkutatuak zirela eta bakea zela han orain nagusi.

«Jasperek», esan zuen petral. Hark kasu egingo zion txakurkumeari.

Eta zer izen jarriko zion? jarduki zuen aitak. Berak ere txakurra eduki zuen mutil kozkorretan, Frisk izenekoak. Camek amore emango du, pentsatu zuen Jamesek, arrebaren aurpegiak egite

berria hartzen zuela igartzean, berak gogoan zeukan egitea. Behera begiratzen dute, pentsatu zuen, galtzeta egiterakoan bezala. Ondoren gora begiratzen dute bat-batean. Distira urdin bat gertatu zen, hala zeukan gogoan, eta ondoren bere ondoan eserita zegoen norbaitek barre egin zuen, etsita, eta bera asko haserretu zen. Ama izango zen, pentsatu zuen, aulki apal batean eserita, aita aurrean zutik zegoen bitartean. Miatzen hasi zen inpresio sail amaigabeen artean, denborak buruan ezarritakoak, hostoa hostoaren gainean, tolestura tolesturaren gainean, emeki, etengabe; usainak eta soinuak; ahotsak, zakar, lodi, goxoak; eta argiak pasae-  
ran eta erratzak lurra joka; eta itsasoaren istilua eta isildura, nola gizon bat gora eta behera ibili eta bertan gelditu zen, tente, beren aurrean. Bitartean, hala jabetu zen, Camek behatzekin urari eragin eta lehorrera begira zegoen ezertxo ere esan gabe. Ez, ez du amore emango, pentsatu zuen; desberdina da, pentsatu zuen. Tira, alabak erantzuten ez bazion bakean utziko zuen, erabaki zuen Ramsay jaunak, poltsikoan liburua-  
ren bila haztaka. Baina hala ere Camek erantzun

egingo zion; mihian zeukan oztopoa gainditu eta grinaz zegoen esateko, Oh bai, Frisk. Frisk deituko diot. Esateko gogoia zeukan ere, Hori al zen mortuan barrena bidea bakar-bakarrik aurkitu zuen txakurra? Baina gogotik ahalegindu arren, ez zitzaion bururatzen ezer antzekorik esateko, paktuari tinko eta leial eutsi baina hala ere aitari, Jamesek susmatu gabe, maitasun ikur ezkutu bat pasatzeko. Zeren berak pentsatzen zuen, urari eraginez (eta orain Macalisteren mutikoak berdel bat harrapatu zuen, lurrean bihurritzen ari zena, ezkatak odolduta) zeren berak pentsatzen zuen, Jamesi begira, bitartean honek begiak belan pasiorik gabe erantsi edo aldian behin ortzi-mugara kirika egiten zuelarik, zuk ez duzu hau nozitzen, estutasun eta sentimendu zatiketa hau, izugarrizko tentaldi hau. Poltsikoak haztatzen ari zen aita; hurrengo segundoan aurkituko zuen liburua. Beste inork ez zuen hark adina alaba erakartzen; ederrak iruditzen zitzaizkion haren eskuak, eta oinak, eta ahotsa, eta hitzak, eta zalaparta, eta haserrea, eta xeblekeriak, eta grina, eta zuzenean esatea denen aurrean, Akabo gara denok, nor bere bakardadean, eta



haren urruntasuna. (Liburua ireki zuen). Baina hala ere jasanezina zera zen, pentsatu zuen, tente eserita eta Macalisteren mutikoari begira beste arrain baten ezkatetatik amua ateratzen, haren itsukeria porrokatua eta tirania, berari haurtzaroa pozoitu ziona eta ekaitz mingotsak harrotu zituen, oraindik ere esnatu egiten baitzen bera gauez, amorrus dardarka eta aitaren aginduren bar gogoan; lotsagabekeriaren bat: «Egin hau», «Egin hura»; haren nagusitza: «Egin niri men».

Ezer esan beharrean, beraz, setati eta tristuraz begiratu zuen bakezko estalki batean bildutako lehorralde hartara; bertako jendea loak hartu balu bezala, pentsatu zuen; kearen antzera ziren libre, mamuen antzera ziren libre batera eta bestera joateko. Hor ez daukate sufrimendurik, pentsatu zuen.

## 5

Bai, hori da beren ontzia, erabaki zuen Lily Briscoek, belardi ertzean zutik. Bela marroi gri-

saxkadun ontzi huraxe, orain uretan kuzkurtu eta badian barrena ziztuan zekusana. Han dago hura eserita, pentsatu zuen, eta seme-alabek isilik jarraitzen dute. Eta berak ezin zuen jada harenganaino heldu. Hari eman gabeko errukiak bizkarra zamatzen zion. Horrek zaildu egiten zion pintatzen jardutea.

Beti iruditu zitzaion tratatzeko gizon zaila. Gogoan zeukan inoiz ez zuela hura aurrez aurre goraipterik izan. Eta horrek beren arteko harremana neutroa izatera mugatu zuen, sexu aztarnarik gabea, Mintarekiko haren jarrera hain galaia, ia alaia bihurtzen zuen sexu aztarnarik gabea. Mintarentzat lore bat bildu edo liburuak utzi ohi zizkion. Baina zinez uste ote zuen irakurri egiten zituela Mintak? Batera eta bestera ibiltzen zituen lorategian, hostoak tartekatuz orria markatzeko.

«Gogoratzen, Carmichael jauna?» egon zen esateko zorian, gizon zaharrari begira. Baina hark kopeta gainean zeukan sonbreirua, erdizka beheratua; lo zegoen, edo ametsetan, edo hantxe etzanda hitzak sumatzen, imajinatu zuen berak.

«Gogoratzen?» egon zen esateko zorian haren ondotik igarotzean, berriro ere hondartzako Ramsay andrearekin pentsatuz; kupela olatuetan gora eta behera; eta orriak hegan. Zergatik iraun zuen horrek hainbeste urtez bizirik, azpimarraturik, argiturik, zehatz-mehatz ikusteko moduan, aurreko guztia hutsik eta ondorengo guztia hutsik, miliatan eta miliatan?

«Barkua al da hori? Kortxoa al da?» esan zuen Ramsay andreak, errepikatu zuen Lilyk, oihalerantz jiratuta, berriro ere nahiezik. Zeruari eskerrak bertan jarraitzen zuen espazioari buruzko problema hark, pentsatu zuen, pintzela berriro hartuz. Honek haserre begiratu zion. Pisu horren gainean bermatzen zen koadroaren masa guztia. Ederra eta distiratsua izan behar zuen azaletik, arina eta deseginkorra, koloreak bata bestearekin urtez tximeleta hegoaren koloreak bezala; baina egiturak barrutik burdinazko torlojuz egon behar zuen tinkatua. Arnasarekin harrotu zitekeen gauza izan behar zuen; eta zaldi uztartuekin ere kolokan jartzetik ez zegoen gauza. Eta gorritz eta grisez hasi zen pintatzen, eta hango zulorako bere bidea hasi zen modela-

tzen. Halaber, Ramsay andrearen ondoan zegoela iruditzen zitzaion, hondartzan eserita.

«Barkua al da hori? Kupela al da?» galdetu zuen Ramsay andreak. Eta betaurrekoen bila hasi zen. Eta aurkitu ondoren isilik egon zen eserita, itsasora begira. Eta Lilyri, irmoki pintatzen ari zela, iruditu zitzaion ate bat zabaldu zela, eta bera handik sartu eta isilik geratu zen ikusmiran katedral antzeko leku batean, oso iluna, oso itzaltsua. Garrasiak iristen ziren urrutiko mundu batetik. Baporeontziak kezko zutabeen artean ezkutatzen ziren ortzi-mugan. Charlesek harriak jaurti eta jauzi eginarazten zien.

Ramsay andrea isilik zegoen eserita. Pozik, pentsatu zuen Lilyk, atsedean isilean zegoelako, inorekin hartu-emanik gabe. Nork daki zer garen, zer sentitzen dugun? Nork daki, nahiz momentu intimo bat izan, Han da jakinduria? Ez al dira gauzak hondatzen, galde zezakeen Ramsay andreak (haren ondoan eserita isilik egote hura askotan gertatutako gauza ematen zuen) hitzez aipatzen baditugu? Ez al gara adierazkorragoak honela? Une hark behintzat ikusgarri emankorra zirudien. Harean txulo bat egin eta

berriro estai zuen, hantxe ehortziz bezala une haren perfekzioa. Zilar tanta baten antzekoa zen, non norberak iraganaren ilunpea busti eta argitzen zuen.

Lilyk atzera egin zuen, oihala —holaxe— perspektiban jartzeko. Ibilbide bitxia zen, pinta-  
ketaren hau. Gero eta urrunago iristen zen inor, joan eta joan, azkenean ohol mehar baten gainean zegoela iruditu arte, bakar bakarrik, itsasoa. Eta pintzela kolore urdinean bustitzean, garai bateko iraganen ere busti zuen. Ondoren Ramsay andrea zutitu egin zen, gogoan zeukanez. Etxerako ordua zen — bazkalordua. Eta denak elkarrekin igo ziren hondartzatik, bera atzetik William Bankesekin, eta aurretik Minta, galtzerdi zulatuarekin. Nola nabarmentzen zen orpo arrosako txulo borobil hura! Nola deitoratu zuen hura William Bankesek, nahiz eta, berak gogoan zeukanez, ezertxo ere esan ez! Emakumetasunaren deuseztapena esan nahi zuen harentzat, zikina eta kuxidadea, mirabeak ihesi eta eguerdian oheak egin gabe — gehien gorroto zituen gauzak. Hotzikara egin eta behatzak luzatzeko modu berezi bat zeukan hark, objektu

itsusi bat gordetzeko bezala, eta hartantxe ari zen orain — eskua bere buruaren aurrean jarrita. Eta Mintak aurea hartu zuen, eta segur aski Paul hurbildu eta lorategira joan ziren biak.

Rayleytarrek, pentsatu zuen Lily Briscoek, pintura berdearen tuboa estutuz. Rayleytarrei buruzko bere inpresioak batu zituen. Haien bizitzak eszena herrenkada batean agertu zitzaizkion; bata egunsentian, eskaileretan. Paul etxeratu eta garaiz joan zen ohera; Minta berandu zen. Han azaldu zen Minta, lorez apaindua, ilea tindatua, nabarmen, goizeko hirurak aldera eskaileretan. Paul pijamaz jantzita irten zen, suburdina eskuetan, lapurrak baziren ere. Minta ogitartekoa jaten ari zen, leiho ondo batean erdi-bidera igota, goizeko hilotz argitan, eta zuloa zegoen alfonbran. Baina zer esan zioten elkarri? galdetu zuen Lilyk bere artean, begira egonda entzun ahal izango balie bezala. Zerbait latza. Mintak ogitartekoa jaten jarraitu zuen, amorrarazita, hark hitz egin bitartean. Hitz gaitzitu, jelskorrak jalki zituen, irainak, xuxurlatuz, umeak ez esnatzeko, bi mutikoak. Paul ihartuta zegoen, itxura galduta; Minta lerdan, axolarik gabe. Gau-

zak okertzen joan baitziren lehen urtearen ondoren edo; hala-holakoa suertatu zen beren ezkontza.

Eta horri, pentsatu zuen Lilyk, pintzelean pintura berdea hartuz, eszenak asmatze horri deitzen diogu norbait «ezagutzea», norbaitekin «pentsatzea», norbait «gogoko izatea»! Guzti horretatik hitz bakar bat ere ez zen egia; berak asmatua zen; baina nolana ere horren bidez ezagutzen zuen inor. Tunelean barrena jarraitu zuen koadroan, iraganerantz.

Beste batean Paulek esan zuen «xakean jolasten zuela kafetegietan». Orduan Lilyk fantasiako eraikuntza oso bat altxatu zuen esaldi horren ganean. Paulek hura esatean, gogoan zeukan zera bururatu zitzaiola berari, hark mirabeari hots egin eta honek «Rayley andrea kanpogan da, jauna» esan ziola, eta orduan Paulek ere ez etxeratzea erabaki zuela. Leku ospelen bateko izkinan eserita imajinatu zuen, felpa gorrizko jarlekuetan kea erantsita zegoelarik, non neska zerbitzarientzat ezaguna zen, xakean jolasten aritzen zenez gizon txiki batekin, te merkatuan jardun eta Surbitonen bizi zena, baina hon zen

Paulek hartaz zekien bakarra. Baina etxeratu zenean Minta artean kanpoan zen, eta ondoren eskailetako eszena hura izan zen, suburdina hartu zuenean lapurrak baziren ere (zalantzarik gabe baita emaztea beldurtzeko ere) eta hain samin hitz egin zionean, bizitza guztia hondatu ziola eta. Dena den, bera bisitan joan zitzaie-nean Rickmansworth ondoko etxetxo batera, izugarrizko tentsioa antzeman zuen. Paulek bera lorategira eraman zuen, han hazten zituen erbi belgikarrak erakusteko, eta Mintak atzetik segitu zien, kantari, besoa agerian Paulen sorbalda gainean, hau berriketan hasi ez zedin.

Minta aspertu egiten zen erbiekin, pentsatu zuen Lilyk. Baina Mintak ez zituen inoiz bere kontuak zabaldu. Inoiz ez zuen ezer esan kafetegietan xakean jolastearen antzekorik. Sobera zen ernea, sobera zuhurra. Baina haien istorioarekin jarraituz — ordurako gainditua zuten arriskurik handiena. Haienean igaro zituen egunak aurreko udan, eta autoak matxura izan eta Mintak eskuratu behar izan zizkion Pauli erremintak. Errepi-dean eserita zegoen hau autoa konpontzen, eta Mintak erremintak ematen zizkion moduagatik



—ganoraz, artez, jator— seinale zen orain poliki zebiltzala. Ez zeuden jada «maitemindurik»; ez, Paul adiskide egin zen beste emakume batekin, emakume seriosa, ilea mototsean eta eskuan kutxatila bat zeramana (Mintak jatortasunez deskribatu zuen, ia mirespenez), batzarretara joan eta Paulen ikuspegi berdinak zeuzkana (gero eta nabariagoak bihurtu ziren) lurren balioa eta espropiazioei buruz. Ezkontza ez apur-tzeaz gain, zuzendu egin zen harreman mota horrekin. Lagun apartak ziren, bistan zegoen, bata errepidean eserita eta bestea erremintak eskuratzen.

Hori zen beraz Rayleytarren istorioa, egin zuen Lilyk irribarre. Bere burua imajinatu zuen huraxe bera kontatzen Ramsay andreari, hau jakin-minez egongo baitzen Rayleytarrak zertan ziren jakiteko. Pittin bat garaile sentituko zen bera, Ramsay andreari esaterakoan ezkontza ez zela zoriontsua izan.

Baina hildakoak, pentsatu zuen Lilyk, bere marrazkian oztopo batekin gertatzean gelditu eta hausnartzera behartuta, pauso bat atzera emanek. Oh hildakoak! murmurikatu zuen, haiek

bai errukarriak, alde batera baztertuak, baita apur bat mespretxatuak ere. Geure menpe daude. Ramsay andrea desagertu eta joan da, pentsatu zuen. Haren desireri muzin egin eta haren ideia mugatu, zaharkituak hobe ditzakegu. Hartara gugandik gero eta atzerago doa. Eta isekati iruditu zitzaion ikusten zuela Ramsay andrea hantxe urteen pasillo bukaeran esaten, gauza zentzugabeagorik, «Ezkondu, ezkondu!» (zeharo tente eserita, goizean goiz txoriak txioka hasita zeudelarik kanpoko lorategian). Eta orain esan beharko zitzaion, Zuk nahi ez bezala suertatu da dena. Haien pozik dira hala; ni pozik naiz hola. Erabat aldatu da bizitza. Orduan haren izate guztia, baita edertasuna ere, une batez hautsak jana eta antigoalekoa bihurtu zen. Lilyk une batez, hantxe zutik, eguzkiaren beroa bizkarreran, Rayleytarrak epaituz, garaitu egin zuen Ramsay andrea, honek ez baitzuen behin ere jakingo Paul kafetegira joan eta maitale bat zeukala; lurtean eseri eta Mintak erremintak eskuratu zizkiola; pintatzen zegoela bera hementxe, ezkondu gabe, ezta William Bankesekin ere.

Ramsay andrearen plana zen. Bizirik jarraitu balu agian ezkonarazi egingo zuen. Uda hartan William «gizonik gisakoena» zen jada. «Aroko zientzialari onena, senarrak dioenez». Baita ere «William gizarajoa —hainbeste penatzen nau, bisitan noakionean, etxean ezer ederrik ez aurkitzeak— loreak txukunduko dizkion inortxo ere ez». Elkarrekin paseatzera bidali ohi zituen beraz, eta Ramsay andreak berari esan zion, inori eskupetik ematen zion ironia aztarna horrekin, pentsaera zientifikoa zeukala; loreak atsegin zitzaizkiola; oso zehatza zela. Nolatan ote zeukan Ramsay andreak inor ezkonarazteko grina hura? galdetu zuen Lilyk bere artean, astora hurbildu eta urrunduz.

(Bat-batean, izar bat zeruan labaintzen den bezain bat-batean, bere barruan argi gorrizta bat piztu balitz bezala izan zen, Paul Rayley estaliz, honengandik jalkia. Hondartza urrun batean basatiek gorantz bidalitako suaren antzera altxatu zen, ospakizun bateko ikurtzat. Iskanbila eta txinpart-hotsa aditu zuen. Inguruko itsaso osoa gorri eta urre bihurtu zen. Ardo usainen bat ere tartean nahasi eta horditu egin zuen bera, berri-

ro sentitu baitzuen desira irrikatsua bere burua labarrean behera bota eta itotzeko, hondartzan perlazko brotze baten bila. Eta iskanbilak eta txinpart-hotsek uxatu egin zuten handik bera, beldurrez eta nazkaz, gorentasun eta boterea ez ezik aurrez aurre ikusiko balu bezala istilu hura etxeko altxorretik jaten, harrapazka, nazkagarri, eta higuingarria iritzi zion. Baina ikuskizun hark, gloria hark ordura arte berak ezagututako guztia gainditzen zuen, eta hura urterik urte egon zen piztuta, seinalatzeko su baten antzera, irla desertu baten itsasertzean, eta «maitemindurik» esan bezain laster, oraingo kasuan adibidez, gora zutitzen zen berriro Paulen sua. Eta ondoren itzali eta bere buruari esan zion, barrez, «Rayleytarrak»; Paul kafetegietara joan eta xakean jolasten zuela).

Nolanahi ere berak larri-larri egin zuen ihes, pentsatu zuen. Mantelari begira egon zen, ez non eta ez han bururatu zitzaionean zuhaitza erdialdera eramango zuela, eta ez zeukala behin ere inorekin ezkondu beharrik, eta berealdiko bozkarioa sentitu zuen. Ramsay andrearen mailan jar zitekeela sentitu zuen — gorazarre bat

zen hura, Ramsay andreak denengan zeukan botere harrigarriari! Hark esan, Egin hau, eta beharko egin. Haren itzala ere, leiho ondoan Jamesekin, agintez betea zegoen. Gogora etorri zitzaion nola William Bankes txunditu zen berak ama- seme hitzen aurrean zeukan axola ezagatik. Ez al zuen miresten haien edertasuna? galdetu zion berari. Baina Williamek, gogoan zeukan berak, ume-begi bizkor haiekin entzun zion ez zela begirune eza: hemengo errainuak beste errainua eskatzen zuela han, eta abar. Raphaellek hain maisukiro landutako gaia laidotzeko asmorik ez zeukan — biak bat zetozen honetan. Ez zen ari zinismoz hizketan. Alderantziz. Bere pentsaera zientifikoari esker ulertu zuen William Bankesek — berekoikeriarik gabeko adimenaren froga bat alegia, Lilyri atsegina iruditu eta barrena ikusgarri goxatu ziona. Posible zen beraz pinturari buruz hitz egitea gizonezko batekin. Berez, harekiko adiskidetasuna izan zen bere bizitzako plazeretako bat. Maite zuen William Bankes.

Biak Hampton Courtera joan, eta gizaseme prestua izaki, beti uzten zion berari eskuak garbitzeko denbora franko, hark ibai ondoan pasea-

tu bitartean. Tipikoa zen hori beren harremanean. Esan gabe geratzen ziren gauza anitz. Ondoren patioetan zehar ibili, eta udaz uda miretsi zituzten harmonia eta loreak, eta Williamek kontuak esan ohi zizkion perspektibari buruz, arkitekturari buruz, oinez zihoazelarik, eta hura gelditu egin ohi zen zuhaitz bati begiratzeko, edo lakuaren gaineko ikusmirari, eta neskato bat miresteko (hori zuen penarik handiena — alabarik ez izatea) modu hotz eta axalean, berezkoa zen gisan laborategietan hainbeste denbora igarotako gizon batengan, handik irten eta munduak zur eta lur uzten zuela ematen baitzuen, eta horregatik ibiltzen zen astiro, altxatzen zuen eskua begiei itzala emateko, eta gelditzen zen bertan, burua atzeratuta, zer eta arnasa hartzeko. Orduan kontatu ohi zion mirabea oporretara joana zuela; alfonbra berria erosi behar zuela eskaileretarako. Agian etorri nahiko zuela berak alfonbra berria eroatera eskaileretarako. Eta behin batean zerbaitek Ramsaytarrei buruz hitz eginarazi zion hari, eta andreak sonbreiru grisa omen zeraman lehen aldiz ikusi zuenean; ez omen zen hemeretzi edo hogeitertetik gora izan-

go. Harritzeko moduan omen zen ederra. Han egon zen Hampton Courteko abenidan behera begira, Ramsay andrea hantxe iturri artean ikusi ahal balu bezala.

Saloiko koskara begiratu zuen orain berak. Han ikusi zuen, Williamen begien bitartez, emakume irudi bat, baketsu eta isil, begimakur. Hausnartzen zegoen eserita, gogoetan (egun hartan grisez zegoen jantzita, uste zuen Lilyk). Beheratuta zeuzkan begiak. Ez zituen inoiz jaso-ko. Bai, pentsatu zuen Lilyk, adi-adi begira, inondik ere ikusi izan dut horrela, baina ez grisez jantzita; ezta hain geldi, hain gazte, hain baketsu ere. Nahikoa aise agertu zen irudia. Harritzeko moduan zen ederra, esan zuen Williamek. Baina edertasuna ez zen guztia. Edertasunak zigor hau zeukan — aiseegi agertzen zen, osatuegi. Bizitza gelditzen, izozten zuen. Ahaztu egiten ziren asaldura txikiak; gorritasuna, zurbiltasuna, keinu bitxi bat, argi edo itzalen bat, une batez aurpegia ezagutezina bihurtzen zuena, baina baita berezitasun bat txertatu ere, aurrerantzean beti ikusiko zena. Errazagoa zen hura dena edertasunaren estalkipean leuntzea. Baina zer itxura zeu-

kan, galdetu zion Lilyk bere buruari, hark ehiztari kapela buruan sartu-sartu egiten zuenean, edo belarretan barrena korrika ibiltzen zenean, edo Kennedy lorazainari errieta egiterakoan? Nork esan ziezaiokeen hori? Nork lagun ziezaiokeen?

Gogoz kontra heldu zen kanpoko mintzera, eta koadrotik erdi aterata topatu zuen bere burua, Carmichael jaunari txunditu samar begira, gezurrezko zerbait balitz bezala. Etzaulkian zegoen, eskuak sabel-zorro gainean gurutzatuta, ez irakurtzen edo lotan, baizik eguzkia hartzen bizitzaz okitutako izaki baten antzera. Belarretara erorita zeukan liburua.

Zuzenean harengana joan eta honela esan nahi zion, «Carmichael jauna!» Orduan hark onez onean begiratuko zion beti bezala, begi berde axial gandutuekin. Baina inor esnatzeko, lehenik zer esana eduki behar zen. Eta berak ez zion gauza bakar bat esan nahi, dendena baizik. Pentsamendua apurtu eta zatikatzen zuten hitz laburrek ez zuten deus esaten. «Bizitzari buruz, heriotzari buruz; Ramsay andreari buruz» — ez, pentsatu zuen, ez zegoen inori deus esaterik. Beti huts egiten zen diana, momentuko larria



zela eta. Hitzak saihetsetatik hegatu eta azpiegian jotzen zuten objektua. Orduan amore ematen zuen inork; orduan hondora joaten zen ideia berriro; orduan jende heldu gehiena bezalakoa bihurtzen zen inor, zuhur, iheskor, begi artean zimurrak eta etengabeko kezkatu itxurarekin. Zeren nola hitzez adierazi gorputzeko zirrarak hauek? eta hustasuna? (Saloiko kosketara zegoen begira; ikusgarri hutsak ziruditen). Gorputzeko sentipena zen, ez burukoa. Koskei begiratze hutsak zekarzkie sentisazio fisikoak txit desatseginak bihurtu ziren bat-batean. Nahi izan eta ez edukitzeak gorputz guztia gogortu, hustu, larritzen zion. Eta nahi bai eta eduki ez —nahi eta nahi— horrek bai bihotza erdiratu eta behin eta berriro erdiratzen zuela! Oh, Ramsay andrea! hots egin zion txintik atera gabe txalupa ondoko izaki hari, norberak abstraktu bihurtutako hari, grisez jantzitako emakume hari, lehenik joan eta ondoren atzera etorri zelako errietan bezala. Hain ematen zuen segurua harengan pentsatzeak. Izpiritua, airea, ezereza, nahiz gauzez nahiz egunez aise eta seguru jolasteko moduko gauza, hori izan zen Ramsay andrea,

eta honexek luzatzen zuen eskua bat-batean eta inoren bihotza honenbeste erdiratzen. Bat-batean, saloiko koska hutsak, barruko besaulkia-  
ren litxak, txakurkumea terrazan zilipurdika, lorategiko kulunka eta xuxurla guztiak bihurtu ziren kurba eta arabeskoen antzekoak, hustasun osoko erdigune baten inguruan loretan.

«Zer esan nahi du honek? Nola argitu hau dena?» galdetu nahi zuen, berriro Carmichael jaunagana jiratuta. Bai baitzirudien egunsentiko ordu goiztiar honetan mundu osoa urtu zela pentsamenduen putzu batean, errealitatearen urmael sakon batean, eta kasik imajina zitekeen Carmichael jaunak hitz egin izan balu malko txiki batek urratuko zuela putzuaren mintza. Eta ondoren? Zer edo zer azalduko zen. Esku bat agertu, labanen bati eragingo agian. Txorakeriak ziren hauek, noski.

Irudipen bitxi bat izan zuen, alegia Carmichael jaunak azken finean aditu egiten zituela berak esan ezin zituen gauzak. Tankera eman ezineko agurea zen, bizarrean lohidura hori harekin, olerki eta asmakizun haiekin, desio guztiak asetzen zizkion mundu batean barrena lasai

asko nabigatzen, belardian etzanda zegoen leku-  
tik eskua jaitea nahikoa zuelarik, zer-nahi-hura  
harrapatzeko. Koadrora begiratu zuen. Hola  
erantzungo zion hark segur aski — bai «zu», bai  
«ni» eta bai «hura» iragan eta suntsitzen gara;  
ezer ez da geratzen; dena aldatzen da; baina  
hitzak ez, pintura ez. Baina hala ere teilatupean  
eskegiko zuten, pentsatu zuen Lilyk; bil-bil egin  
eta sofaren azpira botako zuten; baina hala ere  
egia zen, nahiz holako koadroa izan. Posible zen  
esatea, baita zirriborro honetaz ere, ez agian  
benetako koadroaz baizik izan nahi zuenaz,  
«betirako geratzen zela», zihoan bera esatera,  
edo hitzik gabe adieraztera, zeren ebakitako  
hitzak arranditsuegiak iruditzen zitzaizkion,  
baita berari ere; baina orduan, koadroari begira,  
harriduraz konturatu zen ezin zuela ikusi. Likido  
bero batez zeuzkan begiak beteta (hasieran ez  
zitzaizkion malkoak bururatu), eta horrek, bere  
ezpainen sendotasuna galarazi gabe, airea lau-  
sotu zuen, masailetan behera isuri zen. Ederki  
menderatzen zuen bere burua —Oh bai!— beste

gainontzean. Ramsay andreagatik ari ote zen negarrez, inongo zorigaitzez jabetu gabe? Berriro zuzendu zen Carmichael jaunagana. Zer zen hura? Zer esan nahi zuen? Gauzek eskuak goratu eta inori eutsi al ziezaioketen; ebaki al zezakeen labanak; ukabilak heldu? Ez al zegoen segurtasunik? Ez al zeuden buruz ikasterik munduko ibilerak? Gidaritza edo babesik ez, baizik dendena mirakulua eta dorre gainerik airera jauzi egitea? Holakoa ote zen jende nagusiarentzat ere bizitza — asaldagarria, ustekabea, ezezaguna? Momentu batez iruditu zitzaion ezen orain biak hementxe, belardi honetan zutik jarri eta azalpen bat eskatuko balute, ea zergatik zen bizitza hain laburra, hain esplikaezina, indarrez esango balute, ezer ezkutatu behar ez zaien bizirik bizirik ongi jantzitakok bezala, orduan edertasuna hedatuko zela, hutsunea beteko zela, forma hartuko zutela apaingarri hutsal haiek; aski ozen hots egiten bazuten, Ramsay andrea itzuliko zela. «Ramsay andrea!» esan zuen ozenki,

«Ramsay andrea!» Aurpegian behera zerizkion malkoak.

## 6

[Macalisteren mutikoak arrainetako bat hartu eta saihetsetik puska moztu zion amutarako. Gorpu mutilatua (bizirik zegoen artean) itsasora bota zuen berriro.]

## 7

«Ramsay andrea!» hots egin zuen Lilyk, «Ramsay andrea!» Baina ez zen fitsik ere gertatu. Areagotzen zihoan oinazea. Larritasun hark zeharo ergeldu zezakeen inor, pentsatu zuen! Nolanahi ere, agureak ez zion aditu. Trankil jarraitzen zuen, bare, eta, nahi izanez gero hala pentsa zitekeen, baita gorentasunez ere. Jainkoari eskerrak inork ez zuen garrasi lotsagarri hura aditu, geldi zaitez oinazea, geldi zaitez! Bera ez zegoen noski burutik jota. Inork ez zuen bera

ikuski ohol mutur hartatik deuseztapenaren uretara murgiltzen. Neskazahar eskas bat jarraitzen zuen izaten, pintzelari helduta belardian.

Eta orain irrikaren oinazea, eta haserre samina (berriro azaldu izana, Ramsay andreagatik inoiz ez zela gupidatuko uste zuenean. Haren mira antzeman ote zuen gosariko kafe kikaren artean? bai zera) gutxitu egin ziren pixkana; eta lehengo larritasun hartatik, antidotoaren antzera, era berean baltsamoa ere bazen arintasun bat geratu zen, eta baita ere, baina modu misteriotsuagoan, han norbait zegoeneko irudipena, alegia Ramsay andrea, Lilyri munduak bizkarre-ratu zion zamaz momentu batez arindurik, bere ondoan emeki zutik, eta ondoren (edertasun oparoenean baitzegoen Ramsay andrea) lore zuriko koroa bat kopetan jarri eta joan zen huraxe hartuta. Lilyk berriro estutu zituen bere tuboak. Hesiko problema hari ekin zion. Arraroa zen zer argi zekusan Ramsay andrea, beti bezain bizkor oinez soroetan zehar, hango tolesturen arte-tik, purpura eta eztiak, loreen artetik, hiazintoak edo lirioak, desagertzen. Pintore-begiaren triki-mailu bat zen. Haren heriotzaren berri jaso ondo-

rengo egunetan honela ikusi zuen hura, koroa kopetan ipini eta soroetan zehar ezbairik gabe joaten bere konpainiarekin, itzal batekin. Hango bistak, esaldiak, kontsolatzeko indarra zeukan. Edonon egonda ere pintatzen, nahiz hemen kanpoan nahiz Londresen, bisione hau zetorkion, eta bere begiek, erdi itxita, oinarriren bat bilatzen zuten bere bisionearentzat. Tranbiaren bagoiari begiratzen zion, autobusari; linea bat aukeratzeko zuen, ez non eta ez han; aurreko leihoetara begiratzen zuen; Piccadillyra, ilunabarrean farolak ilaran. Heriotza-zelaiaren parte izan zen hura dena. Baina beti zegoen zerbait —agian aurpegi bat, ahots bat, egunkari mutil bat *Standard, News* oihuka— handik iragaziz, berari muzin eginenez, bera esnatuz, arreta galdu eta azkenean lortuz, hartara bisionearen etengabe berriro beharra zegoelarik. Orain berriro ere, senez hunkiturik zabalguneko eta urdintasun premiagatik, beheko badiara begiratu zuen, olatuen zerrenda urdinak munto bihurtuz eta zabalguneko purpurak ordeka harritsu. Zentzugabeko zerbaitek asaldatu zuen berriro, beti bezala. Puntu marroi bat zegoen badiaren erdian. Ontzi bat. Bai, handik

segundo batera ohartu zen. Baina noren ontzia? Ramsay jaunaren ontzia, ihardetsi zuen. Ramsay jauna; bere ondotik igarotako gizona, eskua altxatuta diosala egiteko, urrun, prozesioaren buruan, bota eder haiek soinean, erruki eske, berak ukatua. Badiaren erdialdea ari zen orain ontzia zeharkatzen.

Han-hemenkako haize aztarnagatik izan ezik, hain zen goiz ederra non zeruak eta itsasoak ehun beraz eginak ziruditen, belak zeru sabaian itsatsiak baleude bezala, eta hodeiak itsasora eroriak. Itsaso barreneko bapore-ontzi batek ke adar luzea marrastu zuen airean, eta han geratu zen apainkiro bihurritu eta kiribiltzen, aireak gasa fin baten antzera gauzei eutsi eta bere sarean goxoki gordetzen zituelarik, soilik alde batera eta bestera emeki eraginez. Eta eguraldia ederra denean zenbaitetan gertatu ohi den eran, bazirudien labarrak barkuez ohartu eta barkuak labarrez ohartzen zirela, elkarri beren arteko mezu sekretu bat seinalatuz bezala. Bestetan lehorretik oso hurbil eman arren, goiz honetan faroak ikusgarri urruti ematen zuen, gandu artean.



«Non ote daude orain?» pentsatu zuen Lilyk, itsasora begira. Non zegoen bere ondotik isilik igarotako agure hura, besapean paper latzezko zorroa hartuta? Badiaren erdian zegoen ontzia.

## 8

Hor ez dute ezertxo ere sentitzen, pentsatu zuen Camek, lehorraren gora eta beherei begira, gero eta urrunago eta baketsuagoak. Bere eskuak arrasto bat moztu zuen itsasoan, bere buruak zurrunbilo eta zerrenda berde haiek modelo bihurtzen zituelarik, eta hotzez sumindurik eta hil-atorraz jantzirik, irudimenaren bidez erraturik zebiltzan urpeko mundu horretan, non perlak tortotan itsasten ziren bitsa zuriari, non argi berdetan aldaketa bat gertatzen zen inoren izpirituan, eta inoren gorputzak erdi garden distiratzten zuen estalki berde batean bildurik.

Eskuaren inguruko zirimola leundu egin zen ondoren. Uraren emana gelditu egin zen; kirrika eta intziri-hots txikiz bete zen mundua. Portuan ainguratuta baleude bezala aditzen ziren olatuak

txaluparen saihesta jo eta astintzen. Oso hurbil ematen zuen denak. Zeren bela ere, James hari begira-begira egon ondoren norbait ezaguna balitz bezala bihurtu arte, erabat laxatu baitzen; bertan gelditu ziren, airearen zain balantzaka, eguzki berotan, lehorretik miliatara, farotik miliatara. Munduan dena pausatuta zegoela zirudien. Faroa mugiezina bihurtu zen, eta haranzko lehor ertza berriz finkoa. Eguzkiak beroago jotzen zuen, eta bazirudien denak elkarrengana hurbildu eta bata bestearen presentzia antzematen ari zirela, ordura arte Ja ahaztua. Macalisteren kanabera pikuan sartu zen itsasoa. Baina Ramsay jaunak irakurtzen jarraitu zuen, hankak bere azpian bilduta.

Liburu txiki distiratsu bat ari zen irakurtzen, txirri arrautza baten antzeko azal ñabarrekoa. Noizean behin, barealdi garratz hartan egonean, orri bat pasatzen zuen. Eta Jamesi iruditzen zitzaion orri bakoitza keinu berezi batekin pasatzen zuela, berari zuzendua: nahiz irmoki adieraziz, nahiz aginduz, nahiz inor errukiarazi nahian; eta etengabean, aitak irakurri eta orri txiki haiek bata bestearen ondoren pasatu ahala, James ika-

raz zegoen hark gora begiratu eta zer edo zer esango ote zion zorrozki. Zergatik zeuden hemen zabarrean? galdetuko zuen, edo antzeko zentzugabekeria bat. Eta hala egiten badu, pentsatu zuen Jamesek, labana atera eta bihotzean sartuko diot.

Beti eutsi izan zion sinbolo zahar honi, labana hartu eta aitari bihotzean sartzekoa. Orain ordea, bera ere gizonbata, eta aitagan begiak josita amorru ezinduz, ez zen hura, agure irakurle hura berak hil nahi zuena, baizik berari erasotzen zion gauza hura — agian bera konturatu gabe: harpia anker zoli hegabeltz hura, atzapar eta moko hotz eta gogorrekoa, inori jo eta jo aritu (agerian zeuzkan bere hanketan senti zezakeen haren mokokada, haurtzaroan jo zion lekuan) eta ondoren ihesi joaten zena, eta han zegoen hura berriro, aguretua, oso triste, liburua irakurtzen. Huraxe hilko zuen, harixe sartuko zion labana bihotzean. Bera edozertan jardunda ere — (eta zernahi egin zezakeela iruditzen zitzaion, farora eta haranzko lehorrera begira) nahiz negoziozale izan, nahiz bankuko langile, legegizon edo enpresa bateko buruzagi, aurre

egingo zion horri, aztarna hartu eta zanpatu egingo zuen hori —tiranía, jauntxokería deitzen zion berak— egin nahi ez duena eginaraztea inori, mintzatzeko eskubidea etetea inori. Nola esango zuen bada beraietako inork, Ez dut nahi, hark esandakoan Goazen farora. Egin hau. Ekarrí hori. Hega beltzak zabaldu eta moko gogorak urratu egiten zuen. Eta hurrengo momentuan hantxe zegoen liburua irakurtzen; eta posible zen —auskalo— hark zentzuzko aurpegiarekin begiratzea gora. Posible zen hura Macalistertarrekin mintzatzea. Posible zen hark ontzeko urrea estutzea kaleko atsoren baten esku izoztuan, pentsatu zuen Jamesek; posible zen hura arrantzale arteko lehiaketa batean oihuka hastea; posible zen hark besoei airean eragitea, asaldaturik. Edo posible zen hura hildakoa bezain mutu egotea mahaiburuan, otordu hasieratik bukaera arte. Bai, pentsatu zuen Jamesek, txalupa nagiturik balantzaka zebilelarik eguzki galdetan; elur eta harkaitzezko basamortu bat zegoen, oso bakarti eta agorra; eta han, iruditzen zitzaion sarri samar azken aldera, aitak zerbait esaten zuenean besteak harriturik uzten

zituena, bi oinatz pare soilik zeuden; berea eta aitarena. Beraiek bakarrik ezagutzen zuten elkar. Zer zen orduan izu hau, gorroto hau? Atzera joanez iraganak bere baitan tolestutako hosto ugarien artera, kirika eginez baso barren hartara non argi-itzalek den-dena laukitu eta forma guztiak itxuragabetzen baitituzte, eta inor estrope-zuka ibiltzen baita, batean eguzkia begietan, bestean itzal iluna, hantxe zebilen irudiren baten bila, bere sentimendua hoztu, bereizi eta forma zehatzean leuntzeko. Eman dezagun bada haur denboran inongo babesik gabe ume-kotxean eserita zegoenean, edo norbaiten belaunetan, gurdi bat ikusi zuela norbaiten oina jakin gabe eta inozenteki mastrakatzen. Eman dezagun oina ikusi zuela lehenik, belarretan, leuna eta osoa; gero gurpila; eta ondoren oin bera, ubela, mastrakaturia. Baina gurpilak ez zeukan errurik. Orain, beraz, aita pasilloan behera pauso luzeak emanez etorri zitzaienean goizean goiz ate joka farora joateko, zapaldu egin zuen bere oina, Camen oina, edonoren oina. Eserita egote hutsarekin ikus zitekeen.

Baina noren oinaz ari zen pentsatzen, eta zein lorategitan gertatu zen hau dena? Bai baitzeuden dekoratuak eszena hauentzat; zuhaitzak han hazten; loreak; argi jakin bat; irudi bakar batzuk. Dena lorategi batean kokatzeko joera zeukan, non ez zegoen goibeltasun honen arrastorik eta ezta esku imintzio hauen arrastorik ere; ahoskera arruntean mintzo zen jendea. Egun guztia igarotzen zuten sartu-aterean. Atso bat zegoen sukaldean esamesaka; eta itsas aireak barrura eta kanpora zerabilzkien leihosareak; dena ari zen haize ematen, dena ari zen hazten; eta plater eta katilu eta lore gorri eta hori altu tente haien gainean belo hori oso mehe bat zabaldu ohi zen, mahats hostoaren antzekoa, gauez. Gauzak gelditu eta ilundu egiten ziren gauez. Baina hosto antzeko beloa hain zen fina non argiek altxatzen zuten, ahotsek zimurtzen zuten; handik barrena ikus zezakeen irudi bat makurtzen, soinekoren baten zurrumurrua hurbiltzen eta urruntzen entzun zezakeen, katearen baten tintin-hotsa.

Mundu honetantxe zapaltzen zuen gurpilak inoren oina. Gogoan zeukanez, zerbait bere gai-

nean gelditu eta dena ilundu zuen; ez zuen handik joan nahi; zerbaitek airea astindu zuen, zer bait agor eta zorrotza jaitsi zen, ganibetaren antzera, zimitarraren antzera, mundu zoriontsu horretako hosto eta loreak zehatuz eta ihartu eta eroraraziz.

«Euria egingo du», gogoratu zuen aitaren esaldia. «Ezingo da farora joan».

Garai hartan faroa zilarrezko dorre gandutu baten antzeko zer bait zen, ilunabarrean bat-batean eta goxoki irekitzen zen begi batekin. Orain berriz—

Jamesek farora begiratu zuen. Harkaitz zuri-tuak ikus zitzakeen; dorrea, zurrun eta zuzen; zerrenda beltz eta zuriak zeuzkala ikus zezakeen; leihoak ikus zitzakeen bertan; lixiba ere ikus zezakeen harkaitzetan zabaldua lehortzeko. Hura zen beraz faroa. Ba ote?

Ez, bestea ere faroa zen. Ezer ez baitzen gauza bakar bat. Faroa zen bestea ere. Zenbaitetan zaila zen hura badian barrena ikustea. Ilunabarrean gora begiratu eta begia ireki eta itxi ikusten zen, eta bazirudien argia beraiengana

iristen zela, eserita zeuden lorategi haizetsu eguzkitsu hartaraino.

Baina etenaldia egin zuen. «Beraiek» edo «inor» esaten zuenero eta ondoren norbaiten etorrerako zurrumurrua aditzen hasten zenero, edo norbaiten joanerako tintin-hotsa, ikusgarri sentibera bihurtzen zen baldin eta gela berean beste norbait bazegoen. Oraingoan aita zen. Areagotzen ari zen estutasuna. Izan ere airea hasten ez bazuen, aitak aurki liburu azalak zapla itxi eta esango zuen: «Zer gertatzen da orain? Zertan gaude hemen denbora alferrikaltzen?» Honelaxe jaitsi zuen aitak behin ganibetaren ahobizarra bien artera terrazan, eta ama zeharo izoztuta gelditu zen, eta aizkora, labana edo punta zorrotzeko ezer edukiez gero eskura, berak hartu eta bihotzean sartuko ziokeen aitari. Ama zeharo izoztuta gelditu zen, eta ondoren, besoa laxatuz, berari jada ez ziola entzuten jabetuz, nola hala zutitu, alde egin, eta bertan utzi zuen bera, ezinduta, barregarri, lurrean eserita guraizeei heltzen.

Ez zebilen haize izpirik ere. Urak gurgur-hotsa egiten zuen txaluparen hondoan, non hiru



edo lau berdelek gora eta behera eragiten zioten isatsari, beren buruak estaltzeko aski ez zen ur putzu batean. Posible zen Ramsay jauna noiz-nahi (James ez zen ia hari begiratzera ere ausartzen) zutitzea, liburua itxi eta purrustan hastea; baina oraingoz irakurtzen ari zen, eta beraz Jamesek, ezkutuan, eskaileretan behera tipitapa oinutsik labainduz bezala, egur oholaren intziriak zakur zaindaria esnatu beldur, pentsatzen jarraitu zuen ama nolakoa zen, nora joan zen egun hartan. Gelaz gela hasi zen hari segika, eta azkenean gela batera iritsi ziren, non argi urdin batean, isla hura portzelanazko plater askotatik baletor bezala, bakar-bakarrik ari zen ama hizketan; haren hizketa entzun zuen. Neskame batekin ari zen, burura zetorkion edozein gauza esanez. «Erretilu handi bat beharko dugu gaur gauerako. Non da zera — erretilu urdina?» Hark bakarrik esaten zuen egia; hari bakarrik esan ziezaiokeen berak egia. Horregatik sentitzen zuen amak beraganako erakarpen betiereko hura, agian; burura etorritako edozein gauza esan ziezaiokeen bart. Baina bera amagan pentsatzen ari zen denbora guztian, antzematen

zuen aita pentsamendu hari segika zebilela, itzal emanka, dardara eta kordoka eginaraziz.

Azkenean pentsatzeari utzi zion; han zegoen eserita, eskua lema-adar gainean eguzkitan, faroari adi-adi begira, mugitzeko gaitasunik gabe, bata bestearen ondoren gogoan ezartzen zihoazkion oinaze ale hauek uxatzeko gaitasunik gabe. Bazirudien soka batek loturik zeukala, eta aitak egin zuela korapiloa eta handik ihes egiteko ezinbestekoa zuela labana hartu eta harixe bihotzean... Baina orduan bela astiro harrotu, astiro puztu zen, bazirudien nagiak ateratzen ari zela txalupa, ondoren erdi lotan mugitu, eta ondoren esnatu eta olatuetan barrena abiatu zen ziztuan. Berebiziko arintasuna izan zen. Bazirudien denak berriro elkarrengandik bereizi eta lasai asko zeudela orain, eta kanaberak tenk txaluparen saihetsean zeharka. Baina aita ez zen zutitu. Eskuineko eskua misteriotsuki gora altxatzea besterik ez zuen egin, eta gero berriro belaun gainera erortzen utzi, sinfonia sekretu bat zuzentzen ari balitz bezala.

## 9

[Itsasoa lohidura bakar bat ere gabe, pentsatu zuen Lily Briscoek, artean zutik eta badian barrena begira. Zetazkoa balitz bezala zegoen itsasoa badian zehar luzatuta. Sekulako boterea zeukan distantziak; honek irentsi zituen, sentitu zuen berak, betirako zeuden galduak, gauzen muinaren zati bihurtu ziren. Dena hain lasai; dena hain bare. Desagertu zen bapore-ontzia, baina ke adarra airean zintzilik zegoen artean, eta bandera baten antzera ari zen tristuraz jais-ten, diosala eginez bezala.]

## 10

Horrelakoa zen beraz irla, pentsatu zuen Camek, berriro ere behatzekin olatuetan arrastokak eginez. Inoiz ez zuen hura lehenago itsasotik ikusi. Itsasoan etzanda zegoen, mailatu batekin erdian eta bi harkaitz zorrotzekin, eta itsasoa bertan lehertu eta miliatan eta miliatan zabal-tzen zen irlaren alde bietan. Oso txikia zen; zutik

jarritako hosto baten antza zeukan. Eta hala txalupa txiki bat hartu genuen, pentsatu zuen, bere buruari abenturazko ipuin bat kontatzen hasiz, hondora zihoan barku batetik salbatu zenekoa. Baina itsasoa behatz tartetik zeriola eta alga zerrenda bat haien atzean desagertzen zen honetan, ez zen benetakoa bere buruari ipuin bat kontatzeko nahia; abentura eta salbazioaren sentsazioa zen berak nahi zuena, gogoan baitze-rabilen, txalupak aurrera egin ahala, aitaren haserrea iparrorrazaren muturrei buruz, Jamesen egoskorkeria paktuari buruz, eta bere ezine-gona ere, denak joan zirela irristan, denak igaro zirela, denak joan zirela jarioan. Zer ote zetorren hurrena? Nora ote zihoazen? Bere eskutik, zeharo izoztua, itsas uretan murgildua, zorionezko iturri bat jaiki zen aldaketa zela eta, salbazioa zela eta, abentura zela eta (bera bizirik zegoelako, bera han zegoelako). Eta zorion iturri bat-bateko eta axolagabe honetatik isuritako tantak han eta hemen isuri ziren ilunpean, bere baitako forma lokartuetan; gauzatu gabeko mundu baten formak, baina ilunpe hartan jira-biran zebiltzanak, han eta hemen argi printza bati

atxikiz; Grezia, Erroma, Konstantinopla. Nahiz eta txikia izan eta zutik jarritako hostoaren antzeko forma eduki, urrez zipriztindutako urek laztandu eta inguratua, ba ote zeukan hark ere bere txokoa unibertsoan — irla txiki hark? Bulegoko gizaseme adinduek agian esan ahal izango ziotela pentsatu zuen. Zenbaitetan noraezean bezala sartzen zen lorategitik, haiek gaiztakerian harrapatuko ote. Han egoten ziren (nahiz Carmichael jauna nahiz Bankes jauna, oso zaharrak, oso zurrun) parez pare eserita beren besaulki apaletan. Aurrean zeukaten *The Times*-eko orriak hotsarekin pasatzen zituzten, bera lorategitik sartzen zenean, zeharo nahastuta Kristori buruz norbaitek esandako zerbaitekin; Londreseko kale batetik mamuta desobiratu zutela; ea nolakoa zen Napoleon handia. Orduan haiek hau dena beren esku garbietan hartu (arropa grisak zeramatzen; txilar usaina zeukaten) eta papurrak biltzen zituzten, egunkariko orria itzuliz, belaunak gurutzatuz, eta noizean behin zerbait oso laburra esaten zuten. Trantze antzeko batean berak liburu bat hartu apaletik eta bertan gelditu ohi zen, aitak nola idazten zuen begira,

hain berdin, hain txukun, orriaren alde batetik bestera, aldian behin eztul txiki bat eginez, edo pareko beste gizaseme adinduari zerbait labor esanez. Eta berak pentsatzen zuen, liburua irekita hantxe zutik, hemen hostoa uretan barrena bezala utzi zitekeela edozein pentsamendu zabaltzen; eta hemen ongi moldatzen bazen, *The Times*-eko orriak hotsarekin pasatzen eta erretzen ari ziren gizaseme adinduen artean, orduan zuzen zegoen. Eta aitari begira, bulegoan nola idazten zuen ikusiz, pentsatu zuen (orain txalupan eserita) ezin jatorragoa zela, ezin jakintsuagoa; ez zen ez hutsandi eta ez tiranoa. Aldiz, bera bertan ikusiez gero libururen bat irakurtzen, beste edonork bezain eztiro galdetuko zion ea ezer ematerik nahi zuen.

Badaezpada hala ez bazen, aitari begiratu zion, azal distiratsuko liburu txiki, txirri arrautza-  
ren antzera ñabartua irakurtzen ari zelarik. Ez; zuzen ari zen. Begiraiozu orain, esan nahi zion ozenki Jamesi. (Baina Jamesek belan zeukan begirada jarria). Basapizti sarkastiko bat da, esango zuen Jamesek. Beti bere buru eta bere liburutara eramaten du elkarrizketa, esango

zuen Jamesek. Bereko jasan ezina. Eta denetan okerrena, tirano hutsa da. Baina begiraiozu! zioen berak bere artean, aitari begira. Begiraiozu orain! Hari begira jarri zen bera, aitak, hankak bilduta, liburu txiki hura nola irakurtzen zuen ikusiz; orri horixkako liburu hura, jadanik ezaguna, ez jakin arren bertan zer zegoen idatzita. Txikia zen; estu-estu inprimatua; guardako orriaren bazekien Camek, afari batean aitak hamabost franko gastatu zituela zeukan idatzita; ardoa hainbeste; zerbitzariari eskupekoa hainbeste; txukun zegoen batuketa eginda orriaren behealdean. Baina poltsikoan egoteagatik ertzak borobilduak zeuzkan liburu hartan zer zegoen idatzita, ez jakin. Bietako inork ez zekien zer ari zen aita pentsatzen. Baina hain zegoen barneratua, non gora begiratzean, oraintxe instant batez bezala, ez baitzen izan ezer ikusteko; gogoetaren bat hobeto finkatzeko baizik. Hori eginik, bere gogoia berriro atzera hegatu eta irakurketan murgildu zen. Zerbait gidatzen ari balitz bezala irakurtzen zuen, pentsatu zuen Camek, edo artalde handi bati aurrera zirikatzen ari balitz bezala, edo bidean gora eta gora balihoa

bezala zidor mehar batetik; eta zenbaitetan bizkor eta zuzen joaten zen, sastrakaren artetik bidea urratuz, eta zenbaitetan bazirudien adar batek jotzekoa egiten ziola, lahar batek itsutzen zuela, baina ez zuen horregatik amore ematen; aurrera jarraitzen zuen, orriak pasa eta pasa. Eta Camek bere buruari ipuin bat kontatzen jarraitu zuen, hondora zihoan barku batetik salbatu zenekoa, seguru baitzegoen aita han eserita egon bitartean; seguru, beste aldi hartan sentitu zen bezala, lorategitik ezkutuan sartu, eta liburu bat hartu, eta gizaseme adinduak, egunkaria bat-batean beheratuz, haren gainetik zerbait oso laburra esan zuenean Napoleonen izaerari buruz.

Atzerantz begiratu zuen itsasora, irlara. Baina hostoa lehengo zorrotasuna galtzen ari zen. Oso txikia zen; oso urrun zegoen. Orain itsasoa garrantzitsuagoa zen lehorra baino. Olatuak zeuzkaten inguru guztian, zutitu eta hondoratzen, olatu batean behera enborra piririka; beste batean kaioa zangalatraba. Hemen nonbait, pentsatu zuen berak, behatzekin uretan arrastoa eginez, barku bat hondoratu zen, eta bere



artean murmurikatu zuen, ameslari, erdi lotan, akabo ginen denok, nor bere bakardadean.

## 11

Beraz benetan erabakigarria dena, pentsatu zuen Lily Briscoek itsasoari begira, ia lohidura bakar bat ere gabea, hain bare non bazirudien belak eta hodeiak hango urdinean zeudela joserik, benetan erabakigarria dena, pentsatu zuen, distantzia da: jendea gugandik hurbil ala urrun dagoen; zeren bere Ramsay jaunaganako sentipena aldatzen ari baitzen, hura badian barrena aurrera eta aurrera joan ahala. Luzatua zirudien, zabaldua; bazirudien gero eta urrunagotzen ari zela. Bazirudien hura eta haren umeak irentsi egin zituela urdintasun hark, distantzia hark; baina hemen, belardian, aldamenean, Carmichael jaunak purrusta egin zuen bat-batean. Berak berriz barre. Hark liburua jaso zuen belarretatik. Ondoren berriro jarri zen etzaulkian eroso, arnasestuka eta haize emanka itsas munstro baten antzera. Erabat egoera desberdi-

na zen hura, Carmichael jauna hain hurbil zegoenez. Eta orain berriro dena lasai. Honezkero jai-kiko ziren ohetik, pentsatu zuen berak etxera begira, baina han ez zen ezer gertatu. Otordua amaitu bezain laster ordea, oroitu zen, nork bere langitera joateko ohitura zeukan. Dena bat zeterren isilune honekin, hustasun honekin eta egun-sentiko irrealitatearekin. Horrela gertatzen zen batzuetan gauzekin, pentsatu zuen, momentu batez gelditu eta begira jarriz leiho luze eta distiratsuei eta ke urdineko gandorrari: irrealak bihurtzen ziren. Bidaia batetik itzultzean, edo eritasun baten ondoren. Lehengo ohiturek berriro denean beren sarea zabaldu aurretik, irrealitate horixe sentitzen zen, harrigarri askoa; zerbait sortzen ari, zela sentitzen zen. Ezin freskoa-goa zen orduan bizitza. Patxadan egon zitekeen. Zorionez ez zegoen alaitu eta esan beharrik, belardia zeharkatuz Beckwith andre zaharra agurtzeko, txoko batean eserleku bila etorria, «Oh, egunon, Bekwith andrea! Ederra eguna! Eguzkitan esertzeko adorea izango al duzu? Jas-perek aulkiak ezkutatu ditu. Aurkituko dizut bat!» eta gainerako hitz jario guztia. Ez zegon

fitsik esan beharrik. Labaintzen joan zitekeen norbera, belak harrotuta (joan-etorri handi samarra zegoen badian, abiatzen hasiak ziren txalupak) gauzen artetik, gauzetatik harantzago. Ez zegoen hutsa, baizik mukuruka betea. Iruditu zitzaion ezpainetaraino zegoela bera sartua substantziaren batean, hartantxe mugitu eta flotatu eta hondoratuz, bai, ur hauek ezin sakonagoak baitziren. Makina bat bizitza isuri zen haietara. Ramsaytarrena; umeena; eta hainbat eta hainbat xabor eta huskeria. Garbiketako emakumea saskiarekin; belea; su-galda lorea; loreen purpura eta berde grisaxkak: dena batzen zuen sentipen berberak.

Honelako betetasun sentipen bat izan zen agian, hamar urte lehenago, ia oraingo leku berean, esanarazi ziona maitemindua bide zegoela leku harekin. Maitasunak milaka forma zeuzkan. Posible zen zenbait maitalek dohaina izatea gauzen osagaiak hautatu eta bata besteari eransteke, eta horrela, osagai hauei berez ez zeukaten osotasuna emanaz, eszena edo jendetalde bat (orain denak joanak eta aparte ziren) gauza sendo borobildu bihurtzeko, inori zertan

pentsatua eta maitasunari zerekin jolastua ematen diona.

Bere begiak puntu marroi hartan pausatu ziren, Ramsay jaunaren belaontzian. Bazkalordu inguruan helduko ziren farora, pentsatu zuen. Baina freskatu egin zen haizea, eta zerua apur bat aldatu eta itsasoa apur bat aldatu eta ontziak mugitzen joan heinean, ikuskizuna ere, arestira arte mirestekoa moduan finkatua egona, desegokia zen orain. Haizeak ke aztarna sakabatu zuen; bazegoen zerbait desatsegina ontzien kokapenean.

Bazirudien hango proportzio ezak kolokan jartzen zuela bere gogoko harmonia. Egonezin ilun bat sentitu zuen. Bere koadrora jiratu bezain laster baieztatu zuen. Alegia goiza alferrikaldu zuela. Arrazoiren batengatik, ezin zuen erdietsi elkarren kontrako bi indarren orekazko kinka; Ramsay jauna eta koadroaren artekoa; eta hori ezinbestekoa zen. Okerren bat ote zegoen marrazkian? Edo bestela, galdetu zion bere buruari, eten bat behar ote du hormako lerroak, astunegia ote da zuhaitzen multzoa? Ironiaz egin

zuen barre; izan ere ez al zuen uste, aurren berritan, konponduta zeukala problema?

Zein zen orduan problema? Ihesi zihoakion zerbaiti eusten saiatu behar zuen. Ramsay andreak pentsatzean, ihesi zihoakion zerbait hura; oraintxe ere, bere koadroaz pentsatzean, ihesi zihoakion. Esaldiak zetozen. Bisioneak zetozen. Esaldi ederrak. Baina berak nerbioetako erresumin hari eutsi nahi zion, beste ezer bihurtu aurretik berez zen gauza harixe. Horri eutsi eta hasieratik ekin; horri eutsi eta hasieratik ekin; horixe zioen etsipenez, bere burua berriro astoaren aurrean sendo irmotuz. Makina txatxua zen, makina kaxkarra, pentsatu zuen, pintatu edo sentitzeko gizakiak zeukan aparailua; beti puskatzen zen unerik larrienean; heroiaren gisa, hari aurrera bultzatu beharra zegoen. Adi-adi zegoen begira, bekozko ilunez. Hantxe zegoen hesia, zalantzarik gabe. Baina ez zen fisik ere lortzen arren eta arren eskatzen arituta. Begietan itsutasun bat besterik ez zen lortzen hormaren lerroari begira egonda, edo pentsatzen egonda — sonbreiru grisa zeramala Ramsay andreak. Harritzeko moduan zela ederra. Etor-

tzea du bada, pentsatu zuen, etorri nahi badu. Zenbait momentutan ez baitago ez pentsatu eta ez sentitzerik. Eta ez badago ez pentsatu eta ez sentitzerik, non gaude?

Hementxe belarretan, lurrean, pentsatu zuen, eseri eta pintzelarekin zain-belar multzo bat aztertuz. Belardia oso nahasia baitzegoen. Hemen munduan eserita, pentsatu zuen, buruan zeukan irudipena kendu ezinik, alegia goiz honetan dena lehen aldiz ari zela gertatzen, agian azkeneko aldiz, hala nola bidaiariak, erdi lotan bada ere, ongi asko dakien, treneko leihotik begira, orain daukala begiratu beharra, ez baitu inoiz berriro ikusiko herri hori, edo mando-gurdi hori, edo emakume honi soroan lanean. Belardi hau zen mundua; hemen zeuden biak, talaia goren honetan, pentsatu zuen, Carmichael jaun zaharrari begira, itxuraz honek ere (nahiz bitarte guzti honetan elkarri hitzik esan ez) berak bezala pentsatzen zuelarik. Eta agian ez zuen hura inoiz berriro ikusiko. Zahartzen ari zen Carmichael jauna. Era berean, oroitu zen, haren oinean dilindan zebilen txapinari irribarrez begiratzuz, gero eta ospetsuagoa zen. Haren olerkiak

«txit ederrak» zirela zioen jendeak. Zer eta berrogei urte lehenago idatzitako gauzak argitaratzen zizkioten. Bazegoen orain Carmichael izeneko gizon ospetsu bat, egin zuen irribarre, pentsatuz zenbat irudi desberdin eduki zitzakeen pertsona berak, egunkarietan halakoa zela, baina hemen beti bezalakoxea. Betikoa ematen zuen — ilea urdinduxea. Bai, betikoa ematen zuen, baina norbaitek esan zuenez, oroitu zen Lily, Andrew Ramsayren heriotzaren berri jaso zuenean (bertan hilda utzi zuen granada batek; matematiko ona izango zen) Carmichael jaunak «bizitzeko interes guztia galdu zuen». Zer esan nahi zuen zerak — esaldi horrek? galdetu zuen bere artean. Trafalgar Squaren barrena ibili ote zen bastoi handi bat hartuta? Orriak pasa eta pasa aritu ote zen, batere irakurri gabe, bere St. John's Woodeko gelan bakar-bakarrik? Ez zekien zer egin zuen hark Andrewren heriotzaren berri jasotzean, baina hala ere antzematen zion. Eskaileretan elkarri marmar besterik ez zioten egiten; goiko zerura begiratu eta ona egingo du edo ez du ona egingo esaten zuten. Baina hau jendea ezagutzeko modu bat zen, pentsatu

zuen: perfila ezagutzea, xehetasunik ez, norbaiten lorategian eseri eta haranzko txilardegiraino heltzen den muino magal purpura bati begira egotea. Horrela ezagutzen zuen berak. Bazekien aldatu egin zela hura nola hala. Inoiz ez zuen haren olerki lerro bakar bat irakurri. Hala ere uste zuen bazekiela nolakoa izango zen, mantsoa eta ozena. Heldua eta leuna. Desertua eta ganbeluari buruzkoa. Palmondoa eta ilunabarri buruzkoa. Ikusgarri inpersonala; heriotzari buruz zerbait; oso gutxi amodioari buruz. Urruntasun aire bat zeukan Carmichael jaunak. Ezer gutxi nahi zuen inorengandik. Ez al zen beti saloiko leihoan aurrera baldar samar balantzaka joaten besapean egunkaria hartuta, arrazoiren batengatik sobera atsegina ez zitzaion Ramsay andreagandik ihesi? Hori zela eta, noski, Ramsay andrea hura geldiarazten saiatzen zen beti. Carmichael jaunak gur egiten zion. Gogoz kontra gelditu eta sakon egiten zion gur. Hark ezer nahi ez zuelako amorrarazita, Ramsay andreak galde-tu ohi zion (entzun zezakeen Lilyk) ea ez al zuen berokia edo behar, tapakia edo, egunkaria edo. Ezetz, ez zeukala ezeren beharrik. (Honetan, gur



egin ohi zuen). Bazeukan Ramsay andreak ezau-garriren bat hark gogoko ez zuena. Agian agin-du-nahi hura, baikortasun hura, alderdi praktiko hura. Hain zen Ramsay andrea denean zuzen jo zale.

(Hots batek erakarri zuen bere arreta saloiko leihora — misagra baten intziria. Itsas-aire arina leihoarekin ari zen jolasten).

Egongo zen jendea Ramsay andrea batere gogoko ez zuena ere, pentsatu zuen Lilyk (Bai; saloiko koska hutsik zegoela konturatu zen, baina horrek ez zuen beragan inolako eraginik izan. Ez zeukan orain Ramsay andrearen beharrik). — Seguruegia eta drastikoezia irizten ziotenak. Haren edertasunak ere mintzen zuen jendea segur aski. Bai monotonoa dela, esan ohi zuten, beti berdina! Nahiago zuten beste tanke-ra batekoa izan balitz — beltzarana, bizia. Gainera biguna zela senarraren aurrean. Eszena haiek egitea onartzen ziola. Gainera itxia zela. Inork ez zekien zehatz zer gertatu zitzaion. Eta (Carmichael jauna eta honen eramanezinera itzuliaz) ez zegoen imajinatzerik Ramsay andrea zutik egotea pintatzen, etzanda egotea irakurtzen, goiz

osoa belardian. Pentsaezina zen. Txintik atera gabe, bere enkarguaren seinale bakartzat besoko saskia, herrira joaten zen, behartsuengana, gela zoko-usaindun txikiren batean eserita egoteko. Sarri askotan ikusi zuen Lilyk isilka joaten jolasaren erdian, eztabai-n daren erdian, saskia besoan hartuta, tente asko. Haren itzulera igartzzen zuen. Orduan pentsatu zuen ere, erdi barrez (hain baitzen Ramsay andrea metodikoa te kikarak jartzen) erdi hunkituta (arnasarik gabe uzten zuen inor haren edertasunak), oinazez ixten ari diren begiek ikusi zaituzte. Beraiekin egon zara.

Eta ondoren Ramsay andrea amorrarazi egin ohi zen norbait berandu etortzeagatik, gurina freskoa ez egoteagatik, edo te-ontzia koskatua zegoelako. Eta gurina ez zegoela freskoa esan bitartean, Greziako tenpluez oroitu ohi zen inor, eta garai hartakoak edertasunaren jabe izan zirela. Ez zuen inoiz hartaz hitz egiten — joan eta kito, garaiz, zuzen. Senez joaten zen, enarek hegora edo alkatxofek eguzkitara jotzen duten bezala, hutsik egin gabe lagun-hurkoaren aldera jiratu eta honen bihotzean eginez habia. Eta

honek, sena guztien antzera, egonezin apur bat sortzen zuen holakorik ez zeukatenengan; Carmichael jaunagan agian, beragan noski. Biek zeukaten ideia bera ekintzen baliorik ezaz, pentsamenduaren gailentasunaz. Bisita haiekin erantzuki egiten zien biei, ikuspegi berri bat ematen zion munduari; hala, beren aurreiritziak desagertzen ikustean, protesta egin eta tinko eutsi behar izan zieten hauei, suntsitzen ari zirenez. Hala egiten zuen Charles Tansleyk ere: honen zale ez izateko arrazoietako bat zen. Inork munduaz zeuzkan proportzio guztiak hankazgoratzen zituen. Eta zertan ote zen hura, galdetu zion bere buruari, zain-belarrak pintzelarekin nagikiro zirikatuz. Harako beka hura lortu zuen. Ezkondu egin zen; Golder's Greenen bizi zen.

Egun batean gerra garaian Lily areto batera sartu eta haren hitzaldi bat entzun zuen. Zerbait salatzen ari zen: norbait gaitzesten. Anaiarteko maitasuna predikatzen. Eta Lilyk gauza bakarra sentitu zuen, nola maita ote zezakeen hark lagun-hurkoa, koadro bat bestetik bereizten ez bazekien, bere atzean egon bazen zutik tabako xehatua erretzen («bost penike ontzako, Miss

Briscoe») eta ahalegin guztiak egin bazituen emakumeei esaten ez dakitela idazten, ez dakitela pintatzen, ez benetan sinesten zuelako baidarik hala izatea nahi zuelako, auskalo zer arrazoi xelebregatik. Han zegoen hura, iharra eta gorritua eta erlatsa, oholtza gainetik maitasuna predikatzen (inurriak zebiltzan arrastaka berak pintzelarekin lardaskatzen zituen zain-belar artean — inurri gorriak, sasoidunak, Charles Tansleyren antzekoak). Ironiaz begiratu zion Lilyk areto erdi-hutseko eserlekutik, ikusi nahirik nola txertatzen zion maitasuna espazio hotz hari, eta bat-batean han zegoen kupel zaharra edo dena delako hura olatu artean gora eta behera, eta Ramsay andrea bere betaurrekoen etxearen bila harri txintzarren artean. «Ene bada! Hau da gero komeria! Galdu dut berriro. Lasai, Tansley jauna. Milaka galtzen ditut uda bakoitzero», eta orduan Tansley jaunak kokotsa estutu zuen lepoaren kontra, exajerazio hura onesteko beldurrez edo, baina Ramsay andrea atsegin zitzaionez onartu ahal izango balio bezala, eta oso xamur egin zuen irribarre. Tansley jaunak bere kontuak esan zizkion nonbait, txango luze haietakoren batean,

jendea sakabanatu eta biak bakarrik etxeratu zirenen batean. Arreba gazteena hezten ari omen zen, kontatu zion Ramsay andreak Lilyri. Oso goragarria zen hori. Groteskoa zen berak Tansley jaunaz zeukan ideia, ongi zekien hori Lilyk, zain-belarrak pintzelarekin zirikatu bitartean. Edozeinek besteez zeuzkan iritzien erdiak, azken batean, groteskoak ziren. Norberaren helburuen mesedetan zeuden eratuak. Besteren okerrak pagatzen zituen zen Tansley jauna berarentzat. Honen saihets argalak zigortzen aurkitu ohi zuen bere burua, umore txarrez zegoenean. Harekin seriooki jardun ahal izateko, Ramsay andreak esandakoak erabili eta honen begien bitartez begiratu behar zion.

Munto txiki bat egin zuen inurriak handik barrena joan zitezten. Erabakiezinez zoratuta jarri zituen, beren kosmogoniako nahasketa honengatik. Batzuek hona eta besteek hara egin zuten korri.

Berrogeita hamar begi pare behar ziren ikusi ahal izateko, pentsatu zuen. Berrogeita hamar begi pare ere ez ziren aski emakume haren alderdi guztietara iristeko, pentsatu zuen. Haien

denen artean egongo zen bakarren bat haren edertasunaren aurrean itsu zena. Ezinbestekoa zen zentzu sekretu bat, airea bezain fina, sarrailla-zuloetatik labaintzeko gauza izateko eta hura zegoen lekura inguratzeko, josten, hizketan edo leiho ondoan bakarrik eserita isilik; zentzu horrek altxorraren gisa jasotzen zituen, baporeontziaren keari eusten dion aireak bezala, haren gogoetak, haren irudipenak, haren desirak. Zer esanahi zuen hesiak harentzat, zer esanahi zuen lorategiak harentzat, olatu bat lehertzen zenean zer esanahi zuen harentzat? (Lilyk gora begiratu zuen, Ramsay andreari ikusia zion bezala; berak ere olatu bat aditu zuen hondartzan erortzen). Eta zerk eragin eta astintzen ote zion hari gogoak umek hots egitean «Jotzailea kanpo! Jotzailea kanpo!» cricketean jolasterakoan? Galtzeta egitez gelditu ohi zen instant batean. Erne begiratu ohi zuen. Ondoren berriro murgildu ohi zen, eta bat-batean Ramsay jaunak bere ibilera gelditzen zuen emaztearen aurrean, eta honek zarrada berezi bat sentitu eta bazirudien urduritasun gogor batek larritzen ziola barrena, senarra

ondoan gelditu eta begira jartzen zitzaionean. Lilyk Ramsay jauna ikus zezakeen.

Honek eskua luzatu eta aulkitik altxatzen lagundu zion emazteari. Bazirudien lehenago ere egina zuela hura; beste noizbait ere modu berean makurtu zela hari altxatzen laguntzeko txalupa batetik, irlaren batetik behatz bakar batzuetara hondartu eta gizonezkoak behar izan balira bezala andereñoei lehorreratzen laguntzeko. Oso antigoaleko eszena zen hura, ia-ia kriolinak eta galtza gerri-zabalak ere eskatzen zituen. Senarrari laguntzen utziz, Ramsay andreak pentsatu zuen (Lilyren ustez) iritsi da ordua; Bai, orain esango zuen. Bai, ezkontzea onartuko zuen. Eta lehorrera jaitsi zen astiro, geldiro. Segur aski hitz bakar batzuk bakarrik esan zituen, bere eskua harenean utziz. Ezkonduko naiz zurekin, esango zuen agian, bere eskua harenean; baina besterik ez. Behin eta berriro zirrara bera igaro zen haien artean — noski, pentsatu zuen Lilyk, inurrientzat bidea berdintzen ari zela. Ez zen asmaketan ari; hainbat urte lehenago berari tolestuta eman zioten zerbait berdindu nahian besterik ez zen ari; berak ikusitako

zerbait. Izan ere, eguneroko bizitzaren atzera-aurrera horretan, inguruan hainbeste ume eta bisitekin, etengabe nagusitzen zen edonorengan errepikaren zentzua — zerbait erortzen zela beste zerbait eroritako lekuan, oihartzun bat sortuz, durundi egin eta airea dardarez betetzen zuena.

Baina oker legoke, pentsatu zuen, haiek biak elkarrekin nola joaten ziren gogoratuz, andreak txal berdea soinean, gizonak gorbata zintzilik, besoz beso, negutegian aurrera, beren arteko harremana sobera soiltzea. Ez zen batere zorion monotonoa — andrearen bultzada eta zolitasuna; gizonaren hotzikara eta atsekabea. Oh ez. Danbatekoa aditu ohi zen logelako atean goizean goiz. Sutan altxatu ohi zen gizona mahaitik. Txistu eginaraziz bota ohi zuen leihotik platera. Orduan etxe guztian barrena sentitu ohi ziren ateak danbaka eta leihosareak airean, haize zakar batek astinduta bezala, eta jendea abaila bizian balebil bezala zalapartan krisketak estutzen eta dena txukun jartzen. Horrela topatu zuen berak goiz batean Paul Rayley eskaileretan. Barre eta barre aritu ziren, umeak baino areago,



zer eta Ramsay jaunak, gosaldordean ipursardea aurkitzean bere esnetan, den-dena airean barre-na bidali zuelako hegan kanpoko terrazaraino. «Ipursardea», murmurikatu zuen Pruek, izuz pasatuta, «bere esnetan». Beste batek agian ehunzangoak aurkituko zituen. Baina hark bere inguruan halako hesi sakratua eraiki zuen, eta halako jarrera handiosez betetzen zuen barruti hura non munstroaren parekoa baitzen ipursarde bat esnetan.

Baina nekatu egiten zen Ramsay andrea, ikaratu egiten zen apur bat — platerak txistuka hegan eta atek danbaka. Eta isilune luze astunak erori ohi ziren beren gainera; halakoetan Ramsay andreak, Lilyri amorrazioa ematen zion aldar-tean, erdi lanturosa erdi sumindua, ez zuen gauza ematen ekaitza patxadan gaintzeko, edo besteek barre egitean berak ere barre egiteko, baina agian zerbait ezkututzen zen neke haren azpian. Hausnarrean egon obi zen isilik eserita. Handik lasterrera senarra zelatan hasten zen emaztearen inguruan — leiho aldean kuxkuxean hura hantxe gutunak idazten edo hizketan ari zen bitartean, senarra ondolik igarotzean lan-

petuta egoten saiatzen baitzen, eta honi ihes eta ezikusia egiten. Orduan senarra oilo-luma bezain leuna bihurtu ohi zen, onbera, inorekikoa, emaztea bereganatu nahian. Honek hala ere muzin egin ohi zion, eta denbora tarte batez agerian jarri ohi zuen bere harrotasuna eta itxura, edertasun harentzat egokia, jeneralean halakorik gabe egoten bazen ere; burua jiratzen zuen; halaxe begiratzen zuen, sorbalda gainetik, beti Minta, Paul edo William aldamenean zeuzkalarik. Azkenean, taldetik kanpora otso zakur gosepatsua bezalaxe (Lily belarretatik altxatu eta atariko koskei begira jarri zen, eta leihoari, han ikusi baitzuen Ramsay jauna), emaztearen izena esaten zuen, behin bakarrik, elurretan zaunka ari den otsoaren antz guztiarekin, baina hala ere hark bereari eusten zion; eta berriro esaten zuen izena, eta orduan hizketako doinu hark emaztea iratzarri eta harengana joatera behartzen zuen, seme-alabak bertan utzita, eta elkarrekin joaten ziren biak udareondo, aza eta franbuesa sorten artetik. Elkarrekin garbitzen zuten, nonbait, kontua. Baina nolako jarrerekin eta nolako hitzekin? Halako duintasuna zeukaten harreman honetan

non, bizkarra emanda, Paul, Minta eta berak jakin-mina eta egonezina ezkutatu eta loreak biltzen hasten baitziren, pilotak botatzen, berriketan, afalordua iritsi arte, eta orduan hantxe zuden biak, mahaiaren alde banatan, beti bezala.

«Zergatik ez duzue bakarren batek botanika ikasten? ... Zuek hainbat hanka eta besoekin, zergatik ez du zuetakoren batek...?» Beti bezala hitz egiten zuten, barrez, umeen artean. Dena zen beti bezala, hotzikara bat izan ezik, ahobizar batena airean bezala, bien artean joan eta etorri, umeak zopa plateren aurrean eserita egotearen betiko ikuskizuna berritu egin balitz bezala bien begietan, udareondo eta azen arteko ordubete haren ostean. Baina batez ere, pentsatu zuen Lilyk, Ramsay andreak Pruei begiratzen zion. Hau han erdian esertzen zen, anaia eta ahizpen artean, ezer oker joan ez zedin hain kezkatu itxurarekin beti, non ia ez baitzuen hitzik esaten. Zenbateraino sentitu ote zen Prue errudun esneko ipursarde harengatik! Nola zurbildu zen Ramsay jaunak platera leihotik botatzean! Nola atsekabetzen zen haien bien arteko isilune luze haiekin! Nolanahi ere, bazirudien orain amak alaba

saritzen zuela; dena ongi zegoela segurtatuz; haietako egunen batean Pruek ere antzeko zoriona sentituko zuela hitz emanaz. Urtebete baino gutxiagoz disfrutatu zuen, ordea.

Erortzen utzi zien saskitik loreei, pentsatu zuen Lilyk begiak kizkurtu eta apur bat atzeratuz bere koadroari begiratzeko bezala, hura ukitu gabe baina bere gaitasun guztiak trantzean zeuzkalarik, gainetik izoztuak baina azpitik abaila bizian mugitzen.

Erortzen utzi zien saskitik loreei, belarretan sakabanatu eta irauli zituen, eta nahiezik eta zalantzati, baina galdera edo kexarik gabe —ez al zeukan obeditzeko gaitasuna maila perfektuan?— joan egin zen. Soro eta ibarretan barrena, zuriak, lorez estaliak — horrela pintatuko zuen. Mendiak agorrak. Harkaiztsuak, aldapatsuak. Olatuak lodi aditzen ziren beheko arroketan. Han joan ziren, hirurak elkarrekin, Ramsay andrea aurretik bizkor samar, kantoian bertan norbaitekin topo egingo zuelakoan edo.

Begitan zeukan leihoa zuritu egin zen bat-batean atzeko oihal arinen batengatik. Beraz azkenean norbait sartu zen saloian; norbait

zegoen besaulkian eserita. Jainkoarren, egin zuen otoi, segi zezatela bertan eserita eta ez zitezela baldarki etorri hitz egiteko asmotan. Zorionez, hura nornahi izanik ere, barruan gelditu zen; jarrita zegoen moduan, zorte kolpe batengatik, forma bereziko itzal hiruki bat botatzen zuen atariko koska gainera. Koadroaren konposizioa apurtzen zuen pittin bat. Interesgarria. Agian balioko zuen. Bazetorkion berriro pintatzeko sena. Begira jarraitu beharra zegoen, segundo bakar batean ere zirrararen intentsitatea urritu gabe, laxatu gabe baztertua eta engainatua ez izateko erabaki tinkoa. Brentsa batekin heldu behar zitzaion eszenari —holaxe— zerbait etorri eta hondatu ez zezan. Beharrezkoa zen, pentsatu zuen, pintzela arretarekin bustiz, norbera esperientzia arruntaren maila berean egoitea, besterik gabe sentitzea hori aulkia da, hori mahaia, baina era berean, Hori miraria da, estasia da. Apika konponduko zen azken finean problema. Ah, baina zer gertatu zen? Olatu zuri bat hegatu zen leihoko beira gainetik. Bere bihotzak jauzi egin, erraietatik atxiki eta oinazez bete zuen.

«Ramsay andrea! Ramsay andrea!» hots egin zuen, aspaldiko izua itzultzen zela antzemanenez — nahi bai eta eduki ez. Gauza al zen artean Ramsay andrea inori halakorik sentiarazteko? Eta ondoren, astiro, bere buruari eutsiz bezala, hura ere esperientzia arruntaren zati bihurtu zen, aulkia eta mahaiaren maila berekoa. Ramsay andrea —hark Lilyrengana zeukan borondate onaren zati bat zen— soiltasun osoz zegoen hantxe eserita, besaulkian, galtzeta-burdinei batera eta bestera eragiten, galtzerdi marroi gorrizta egiten, bere itzala atariko koskan luzatua. Han zegoen eserita.

Eta norbaitekin elkarbanatu beharreko zer-bait baleuka bezala, hala ere nekez aldendu zitezkeen astotik, hain zeukan burua beteta pentsatzen ari zenarekin, ikusten ari zenarekin. Carmichael jaunaren ondotik pasatuta belardi ertzera joan zen pintzelari eutsiz. Non zegoen orain txalupa? Ramsay jauna? Haren beharra zeukan.

Ramsay jaunak ia bukatu zuen irakurtzez. Esku bat orri gainean zeukan zintzilik, amaitu bezain laster hura pasatzeko gertu egotearren edo. Buru-hutsik zegoen eserita, haizeak ilea banatzen ziola, edozeren menpe, harritzeko moduan. Oso zaharra zirudien. Bazirudien, pentzatu zuen Jamesek, burua zenbaitetan faro aldera jiratuta, bestetan zabalera osoan jarioan zihoazen ur eremuen aldera, hondarretan geratutako harri antzinako bat; bazirudien Ramsay jauna bilakatu egin zela beti bien buru barreanean egondako zera hura — bakardadea, bientzat ala bientzat ere gauza guztien benetako egia.

Oso bizkor ari zen irakurtzen, bukaerara iristeko irrikaz bezala. Izan ere orain farotik oso hurbil zeuden. Han zutitzen zen, gotor eta zuzen, distira zuri beltzez, eta olatuak ikus zitezkeen kristal birrindua bezala printza zuritan lehertzen harkaitz gainean. Lerroak eta pitzadurak ikus zitezkeen harkaitzetan. Leihoak ikus zitezkeen argiro; haietako batean zuritasun ukitu bat, eta

sastraka ipitz berde bat harkaitz gainean. Gizon bat irten, katalejuekin begiratu beraiei eta barrura sartu zen berriro. Horrelakoa zen beraz, pentsatu zuen Jamesek, hainbeste urtez badiaren bestaldean ikusitako faroa; dorre gotor bat harkaitz soilaren gainean. Gustora geratu zen. Bere izaerari buruz zeukan irudipen ilun bat baieztatzen zuen horrek. Dama zaharrak, pentsatu zuen, etxeko lorategiarekin gogoratu, beren etzaulkiak arrastaka hartuta joaten ziren belardira. Beckwith andre zaharra, konparazio batera, beti ari zen esaten zer polita zen eta zer atsegina zen eta zer harro egon behar luketen eta pozez zorutzen egon behar luketela, baina berez, pentsatu zuen Jamesek, hantxe harkaitz gaineko faroari begira, honelakoxea zen. Aitari begiratu zion, hankak zeharo bilduta grinati irakurtzen. Biek zeukaten jakintza hura bera. «Ekaitz baten aurretik goaz — itsas ondora beharko dugu», hasi zen bere artean esaten, erdi ozen, aitaren modu berean.

Bazirudien inork ez zuela mende oso batean hitz egin. Cam aspertuta zegoen itsasora begiratzetaz. Kortxo puska beltzak igaro ziren aldamene-



tik; arrainak hilik zeuden txalupa hondoan. Aitak irakurtzen segitzen zuen, eta James hari begira zegoen, eta bera ere hari begira zegoen, eta tirania heriotzaraino borrokatzea egin zuten zin, eta aitak irakurtzen jarraitu zuen, haiek pentsatzen ari zirenez batere ohartu gabe. Horrela egiten zuen hark ihes, pentsatu zuen. Bai, kopeta handi hura eta sudur handi harekin, liburu txiki ñabarri bere aurrean tinko eutsiz egiten zuen hark ihes. Hari ganean eskua jartzen saiatuz gero hegoak zabaldu, txoriaren antzera, eta aireratu egiten zen, inoren irispidetik kanpo, enbor mutur desolaturen batean ezartzera. Cam itsasoaren zabalera berealdikoari begira zegoen. Irla hainbeste txikitu zen non jadanik ez baitzeukan ia batere hosto antzik. Harkaitz gain bat zirudien, olatu handiren batek estaliko zuena. Ahultasun haren barruan zeuden hala ere bidezidor haiek, terraza haiek, logela haiek denak — ezin-kontahainbat gauza. Baina hala nola lo hartu aurretik guztiak xumetu egiten diren, xehetasun franko guztien artetik bakar bat soilik nabarmentzeraino, hala, sentitu zuen berak, irlari logaletuta begira, bidezidor eta terraza eta logela haiek

denak desegiten eta suntsitzen ari ziren, eta ez zen ezer geratzen intsentsu-ontzi urdin zurbil bat besterik, bere baitan harat-honat zebilena erritmikoki dilindan. Lorategi zintzilikatu bat zen; haran bat zen, txori eta lore eta antilopez betea... Loak hartzen ari zuen.

«Goazen», esan zuen Ramsay jaunak, bat-batean liburua itxiz.

Joan nora? Zer abentura ikusgarritara? Asaldatuta esnatu zen. Nonbait lur hartzeko, nora-bait igotzeko? Nora zeramazkien? Ramsay jaunaren isiltasun itzelaren ondoren izutu egin ziren hitz haiekin. Baina ez zeukan zentzurik. Gose zen, esan zuen Ramsay jaunak. Bazkalordua zen. Gainera, beitu, esan zuen. Horra hor faroa. Iritsi gara kasik.

«Oso poliki ari da», esan zuen Macalisterek, James goraipatuz. «Sendo eusten dio».

Baina aitak ez zuen inoiz goraipatzen, pentsatu zuen Jamesek zakar.

Ramsay jaunak zorroa ireki eta ogitartekoak banatu zizkien. Zorionsua zen orain, ogia eta gazta jaten arrantzale hauekin. Etxalde batean bizi eta portuan zehar ibiltzea gustatuko

zitzaion, beste agureek bezala txistua botatzea, pentsatu zuen Jamesek, labanaz gazta nola eba-  
kitzen zuen begiratzuz, xerra hori mehetan.

Ondo dago, hola behar du, sentitzen zuen  
Camek arrautza gogorra zuritu bitartean. Adine-  
ko gizonak bulegoan The Times irakurtzen ikus-  
tean bezala sentitzen zen orain. Nahi dudana  
pentsa dezaket orain, eta ez naiz amildegitik  
erori edo itoko, hor baitaukat bera, niri begi  
ematen, pentsatu zuen.

Era berean oso zirraragarria zen, zeren, hain  
azkar nabigatzen zutenez harkaitz aldamenetik  
— bazirudien bi gauza ari zirela batera egiten;  
hemen eguzkitan otordua hartzen, eta aldi  
berean ekaitz handi batean lehor segurura hel-  
tzeko ahaleginetan, ontzia hondoratu ostean.  
Aski ur izango ote zuten? Aski hornizio izango  
ote zuten? galdetu zuen Camek bere artean,  
bere buruari ipuin bat kontatuz baina era berean  
ongi jakinez zein zen egia.

Laster bukatuko ziren beren hemen-horieta-  
ko ibilerak, ari zitzaion esaten Ramsay jauna  
Macalister zaharrari; baina beren umeak gauza  
harrigarriak ikusteko zeudela. Macalisterrek hiru-

rogeita hamabost urte bete omen zituen joanda-ko martxoan; Ramsay jaunak hirurogeita hamai-ka zeuzkan. Macalister ez omen zen inoiz mediku-  
kutan izan; ezta inoiz hortz bakar bat ere galdu. Horrela nahi nuke nire seme-alabak ere bizitzea — Cam seguru zegoen aita horixe ari zela pen-  
tsatzen, honek galarazi egin baitzion ogitartekoa itsasora botatzea, eta baita esan ere, arrantza-  
leak eta hauen bizimodua baleuka bezala gogo-  
an, nahi ez bazuen jasotzeko zorroan. Ez alferri-  
kaltzeko, gain zuhur esan zuen, munduko gau-  
zen berri hain ongi baleki bezala, non berak berehala jaso baitzuen, eta orduan aitak zorrotik jengibre pastel puska bat eman zion, Espainiako gizaseme prestu bat balitz bezala, pentsatu zuen Camek, leihoko dama gazteari lorea luzatzen (hain zeukan modu gisakoa). Baina enasa zen, eta traketsa, ogia eta gazta jaten; eta hala ere hura zen buru espedizio handi hartan, non, berak ondo zekienez, denak ziren itotzekoak.

«Hortxe hondoratu zen», esan zuen Macalisteren mutikoak bat-batean.

«Hiru gizon ito ziren orain gauden lekuan», esan zuen agureak. Berak ikusi zituen mastari

helduta. Eta James eta Cam beldur ziren Ramsay jauna, inguruetara begira, bat-batean lehertuko ote zen:

*Baina neu, itsaso are zakarragoan,*

eta hala egiten bazuen ezingo zuten burutu; garrasi egingo zuten; ezingo zuten jasan haren barruan irakiten zegoen pasioaren beste eztanda bat; baina, harrigarriro, esan zuen bakarria izan zen «Ah», bere artean pentsatuz bezala, Zer eta horregatik istilu hau harrotu? Noski ekaitzean gizonak itotzen direla, baina begi-bistako gauza da hori, eta itsas barrenak (bere ogitarte-koaren papereko papurrak bota zituen hara) azken batean ura besterik ez dira. Ondoren pipa piztu eta erlojua atera zuen. Adi-adi begiratu zion bere harixe; kalkulu matematikoren bat egin zuen, agian. Azkenean garaile esan zuen:

«Bejondeizula!» Jamesek marinel peto-petotak bezala eraman zituen haraino.

Horra bada! pentsatu zuen Camek, Jamesengana isilik zuzenduz. Lortu duzu azkenean. Bai baitzekien James honexen zain egon zela, eta

bazekien ere orain erdietsia zuenez ez ziola ez berari, ez aitari eta ez beste inori begiratuko, pozaren pozez. Han zegoen eskua lema-ada-rean jarri eta tente asko eserita, setati eta bekozko ilun samarrez. Pozaren pozez, ez zion inori utziko bere plazeraren ale bat ere eramaten. Goraipatu egin zuen aitak. Ez zitzaiola fisik axola pentsatu behar zuzen denek. Baina oraingoan erdietsi duzu, pentsatu zuen Camek.

Bira hartu eta bazihoazen nabigatzen, arin eta bizkor olatu luze kulunkarietan, bataren gainetik bestearen gainera labarraren ondoan, berebiziko kadentzia eta bozkario artean. Ezkerrealdean harkaitz ilara marroi bat agertzen zen uraren barrenetik, geroz mehe eta berdeagoa, eta haietako batean, besteak baino altuagoa, olatu bat behin eta berriro lehertu eta tanta zutabe txiki bat jaurtitzen zuen, ondoren parrastan erortzeko. Argiro adi zitekeen uraren zaplada eta tanta erorien zalaparta eta olatuen zurrumuru eta txistu-hots antzeko bat, piririka, hankaz gora eta harkaitzei zapla joka, izaki basati erabat libreak bailiran, beti honelaxe astintzen eta zili-purdikatzen eta jolasten.

Bi gizon ikus zitzaketen orain faroan, beraiei begira eta ongietorria emateko prestatzen.

Ramsay jaunak txamarra lotu eta galtzabarranak altxatu zituen. Nancyk prestatutako paper latzezko zorro marroi, handi, gaizki bildutakoa hartu eta hura belaunean zuela eseri zen. Lehorreratzeko erabat prest zegoen, atzeko irlari begira. Bere ikusmen luzeko begiekin agian ikus zezakeen hosto antzeko forma urritu hura, urrezko plater baten gainean zutik jarria. Zer ikusi ote zezakeen? galdetzen zuen Camek bere artean. Berarentzat dena lausotua zegoen. Zertan pentsatzen ote zuen orain? galdetu zuen bere artean. Zer bilatzen ote zuen, hain tinko, hain adi, hain isil? Biek erreparatu zioten hari, buru-hutsik eserita zorroarekin belaun gainean, begira eta begira forma urdin xume hari, bere gisa erretako zerbaiten lamara balitz bezala. Zeren beharra daukazu? galdetu nahi zioten biek. Biek esan nahi zioten, Edozein gauza eskatu eta emango dizugu. Baina ez zien ezer eskatu. Eserita zegoen, irlari begira, eta agian pentsatzen Akabo ginen denok, nor bere bakarda-

dean, edo bestela Erdietsi dut. Aurkitu dut, baina ez zuen ezer esan.

Ondoren sonbreirua jantzi zuen.

«Hartu zorro horiek», esan zuen, buruarekin keinu eginez Nancyk farorako bildutako gauzei. «Farozainarentzat zorroak», esan zuen. Zutitu eta txaluparen brankan geratu zen, oso tente eta altu, inondik ere, uste zuen Jamesek, esaten ari balitz bezala «Ez dago Jainkorik», eta Camek pentsatu zuen jauzi egingo zuela espaziora, eta biak zutitu ziren hari atzetik segitzeko salto egin zuenean, gizon gazte batek bezain arin, bere zorroari eusten, harkaitz gainera.

## 13

«Iritsiko zen», esan zuen Lily Briscoek ozenki, bat-batean zeharo nekatuta sentituz. Faroa ia ikusiezina bihurtu baitzen, gandu urdin batean desegina, eta begira egotearen ahalegin hark eta Ramsay jauna nola lehorreratzen zen pentsatzearen ahalegin hark, ahalegin berdin eta bera zirudienak, azken muturreraino jarri zizkion



gorputza eta burua tenk. Ah, baina arinduta sentitzen zen. Ramsay jaunari goizean joaterakoan eman nahi izan ziona, emana zion azkenean.

«Lehorreratu da», esan zuen ozenki, «Bukatu da». Orduan, bat-batean sortuz eta apur bat arnasestuka, Carmichael jaun zaharra topatu zuen aldamenean, antzinako Jainko pagano baten itxuraz, zimatsua, ilean belar aihenak eta eskuan hiruhortza (ez zen nobela frantses bat besterik). Alboan zegoen belardi ertzean, bere mardultasunei apur bat eragiten, eta begiei eskuarekin itzala eman ez esan zuen: «Lehorreratuko ziren», eta Lilyk sentitu zuen arrazoi izan zuela lehen berak. Ez zuten hitz egin beharrik izan. Gauza berak pentsatu zituzten biek, eta berak ezertxo ere galdetu gabe erantzun zion Carmichael jaunak. Hantxe zegoen hura eskuak luzatuta gizakien ahultasun eta sufrimendu guztien gaineratik; bazirudien beren azken patua ari zela gainbegiratzen, onbera, errukior. Azken epaia eman berri zuen, pentsatu zuen haren eskua pixkana erori zenean, altuera handi hartatik bioleta eta asfodelozko koroa bat erortzen

utzi balu bezala, astiro hegaldatu zena lur gainean amaitu arte.

Agudo, hango zerbaitek gogorarazita bezala, oihalera jiratu zen. Hantxe zegoen — bere koardoa. Bai, berde eta urdin guztiekin, lerroak gora eta zeharka, zerbait izan nahian. Teilatupean eskegiko zuten, pentsatu zuen; txikitu egingo zuten. Baina zer axola? galdetu zion bere buruari, berriro pintzelari helduz. Atariko kosketara begiratu zuen; hutsik zeuden; oihalera begiratu zuen; lausotua zegoen. Bat-bateko lehiaz, segundo batez argi ikusiko balu bezala, lerro bat egin zuen han, erdian. Kito; bukatua zegoen. Bai, pentsatu zuen, zeharo leher eginda pintzela behean utziz, Izan dut nire bisionea.